



EUSKADIKO INGURUMEN-ADMINISTRAZIOAREN LEGE-AURREPROIEKTUAREN INSTRUKZIO-FASEAN JASO DIREN ALEGAZIOEI ETA HOBEKUNTZA-PROPOSAMENEI EMANDAKO ERANTZUNEN TXOSTENA

Euskadiko Ingurumen Administrazioaren Lege Aurreproiektuak **aldez aurretiko kontsultarako, entzunaldirako, informazio publikorako eta beste administrazio batzuen partaidetza eta kontsultarako** halaberharrezko izapideak bete ditu, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133. artikuluan eta Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren abenduaren 22ko 8/2003 Legeko 8. eta 9. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorritz.

Testu arauemailearen zirriborroa egin aurretik, honako gai hauen inguruko informazioa eskaini zitzaien herritarrei: a) ekimenarekin konpondu nahi diren arazoak; b) hura onestearen beharra eta aukera; c) arauaren helburuak; eta d) ordezkoko irtenbide arautzaileak eta ez arautzaileak. Horrela, bada, gai horien inguruko iritzia ematera gonbidatu zitzaien, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133. artikuluan zehaztutako **aldez aurretiko kontsultaren** bitartez. Kontsulta hori 2018ko otsailaren 13an hasi zen eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren egoitza elektronikoaren iragarki-taulan argitaratuta iragarri zen.

Gero, herritarrentzako **informazio publikorako izapide-prozesuaz** gain –2018ko ekainaren 4ko EHAA-n argitaratu zen–, aldi berean eta ekimenak eragin litzakeen sektore ekonomikoen eta sozialen iritzia ezagutzeko helburuarekin, banan-banako **entzunaldi-izapide** bat ireki zitzaien arauak eragindako interes kolektiboak ordezkatzeko dituzten **berrogeita hamar** erakunde ingururi. Horien artean zeuden ekologia-elkarteak, sindikatuak, patronalak, elkargo profesionalak, merkataritza-ganberak, klusterrak, udal-partzuergoak eta abar.

Aurreikusitako araudiak zuzenean eragin litzakeen beste administrazio batzuek ere hartu dute parte. Horrela, administrazio publiko hauei egin zaie abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 9. artikuluan aurreikusitako **beste administrazio batzuek parte hartzeko eta horiei kontsulta egiteko** izapidea. Estatuko Administrazio Orokorra, Trantsizio Ekologikorako Ministerioaren eta Konfederazio Hidrografikoen bitartez, hiru foru-aldundiak eta Euskadiko udalak, EUDELen bitartez.

Erregulazioak dagozkion eskumen-eremuetan duen eragina kontuan hartuta, ekimen arauemailea **EAEko Administrazio Orokorreko hainbat Sailen** eskura jarri zen izaera orokorreko xedapenen izapidetze telematikorako erremintaren bitartez (Tramitagune), hala, hura aztertu eta, hala badagokio, ekarpenak egiteko.



Azpimarratu behar da aldez aurretiko izapide horiek guztiak modu elektronikoan egin direla eta, beraz, alegazioak egiteko aukera izan duten erakundeek eta administrazioek —berrogeita hamar baino gehiago— beren ekarpenak egiteko kanal elektroniko bat izan dutela Eusko Jaurlaritzaren Egoitza Elektroniko Nire Karpeta atalean.

Ingurumen Sailburuordetzak ingurumen-arloko partaidetza publikoko eskubideak benetan eta modu eraginkorren bermatzeari dagokionez duen konpromisoari jarraikiz, eta ingurumen-gaietan informazioa eskuratu, publikoki parte hartu eta auzitara jotzeko eskubideak arautzen dituen uztailaren 18ko 27/2006 Legeko printzipio berriemaileak betez, jarduketa eta izapide horien guztien berri eman da Jaurlaritzaren egoitza elektronikoan, Irekian eta Sailaren webgunean: <http://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/ingurumena/>.

Era berean, eta herritarrek ingurumenarekin lotutako arauen lanketan parte hartzeko duten eskubidea betetzea errazteko helburuarekin —hala jasotzen da uztailaren 18ko 27/2006 Legearen 16. artikuluan—, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak **aurrez aurreko partaidetza-prozesu** bat gauzatu du proiektu arauemailea are gehiago ezagutarazteko, zuzenean eragindako eragileak dinamizatzeko eta horien ikuspuntuak eta hobekuntza-proposamenak zuzenean jasotzeko.

Prozesu horretan, bost partaidetza-saio egin dira hiru lurralde historikoetan, honako haueri bideratuta: enpresei, klusterrei, enpresa-elkarteei eta nekazaritza-sindikatuiei; elkargo profesionalei, teknologia-zentroei eta unibertsitatei (enpresen foroa); Eusko Jaurlaritzako beste sail batzuei, erakunde publikoei eta foru-aldundiei (foru-aldundien foroa); eta, azkenik, udalei (udalen foroa). Espedienteko «*Euskadiko Ingurumen Administrazioaren Lege Aurreproiektuan parte hartzeko prozesua. Azken Laburpen Txostena. 2018ko uztaila*» dokumentuan, partaidetza-prozesuaren bilakaera jasotzen da, modu sistematizatuan eta sintetikoan.

Herritarrei, eragileei eta eragindako erakundeei irekitako partaidetza-izapide horien emaitza gisa, hainbat alegazio, ohar eta hobekuntza-proposamen jaso dira honako interesdun hauen aldetik:

- ACLIMA/Basque Environment Cluster.
- Astigarragako Udala.
- Bermeoko Udala.
- Bilboko Udala.
- Donostiako Udala.
- Hernaniko Udala.
- Pasaiako Udala.
- BASQUEGUR.
- Bizkaiko Abokatuen Elkargoa/ICAB.
- Jabetzaren Erregistratzaileen eta Merkataritza Erregistratzaileen Elkargoa.

- Geologoen Elkargo Ofiziala.
- Euskadiko Industria Ingeniarien Elkargo Ofiziala.
- CONFEBASK.
- J.A.A.S.
- M.S.
- J.M.T.C.
- Ministerio para la Transición Ecológica.
- Arabako Foru Aldundia - Nekazaritza Zuzendaritza.
- Arabako Foru Aldundia - Ingurumen Zuzendaritza Nagusia.
- Bizkaiko Foru Aldundia - Azpiegitura Zuzendaritza.
- Bizkaiko Foru Aldundia - Ingurumen Zuzendaritza.
- Gipuzkoako Foru Aldundia.
- ENBA - Euskal Nekazarien Batasuna.
- EHNE - Euskal Herriko Nekazarien Elkarte.
- EUSKAL ARIDO.
- MERCADONA SA.
- MICHELIN ESPAÑA PORTUGAL SA.
- IBERDROLA DISTRIB. ELEC SAU.
- IHOBE.
- JAIZKIBEL GEONATURE.
- HAZI.
- AZTI.
- HP PRINTING AND COMPUTING SOLUTIONS SLU.
- Enpresen Foroko partaideak.
- Udalen Foroko partaideak.
- Foru-aldundien Foroko partaideak.

Era berean, EAEko Administrazio Nagusiko Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailak, Ogasun eta Ekonomia Sailak eta Osasun Sailak hainbat ekarpen egin dituzte.

Egindako alegazio, adierazpen eta proposamen horiek jarraian aztertuko dira. Horrela, bada, horiek baiesten diren ala ez adieraziko da eta, azken kasu horretan, Lege Aurreproiektuaren hasierako testua aldatuko da.

Vitoria-Gasteiz, sinaduran ageri den egunean

Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritza
Director de Administración Ambiental

IVAN PEDREIRA LANCHAS
(elektronikoki sinatuta)



I. ERANSKINA
ERANTZUNA EUSKADIKO INGURUMEN ADMINISTRAZIOAREN LEGEAREN AURREPROIEKTUARI EGINDAKO ALEGAZIOEI

ZIOEN AZALPENA				
ARTIKULU A	ALEGATZAILEA	ALEGAZIOAREN LABURPENA	INGURUMEN SAILBURUORDETZAREN AZTERKETA	AUKERA
Orokorra	OGASUN ETA EKONOMIA SAILA	<p>Akronimoak edo siglak ez dira erabili behar zioen azalpenean. Xedapenetan txertatuko dira siglak, hala behar izanez gero.</p> <p>Ingurumenaren Auditoria eta Kudeaketarako Sistema Komunitarioaren akronimoa (EMAS) kentzea eskatzen da, bere funtzioa ez duelako betetzen; izan ere, gaztelaniazko izendapen baten ondoan agertzen da eta nahasmena sor dezake.</p>	<p>Siglen eta akronimoen erabileraren inguruko alegazio orokorra xedapenen zatian balioetsiko da soilik, eta horiek beharrezkoak direnean.</p> <p>Ingeleseko EMAS akronimoa sobera ezaguna da, eta ingurumeneko arlo juridikoan horrela izendatzen zaio Ingurumenaren Auditoria eta Kudeaketarako Sistemari, 1221/2019 Erregelamenduan (EB) arautzen denari. Hala gertatzen da ISO akronimoarekin, estatuko legerian ere islatzen denarekin. EMAS akronimoaren inguruko alegazioa ez da balioetsiko.</p>	Partzialki balioetsi da
Hirugarren paragrafoa		Testu-aldaketa eskatzen du: «Lege honek esparru juridiko bat ezarri nahi du» jarri ordez, «Lege honek esparru juridikoa ezartzen du» jartzea eskatzen du.	Izan ere, izaera orokorreko arau baten helburua ez da zerbait egin nahi izatea, baizik eta zerbait ezartzea, hau da, arautzea eta ez arautu nahi izatea.	Balioetsia
Bosgarren paragrafoa		Testuan administrazio publikoa terminoa idaztean desadostasunak sortu dira. Testuari barne koherentzia eman behar zaio eta izendapen homogeneoa erabili.	Aurreproiektuaren testu osoan "Administrazio publikoa" terminoa erabiliko da, euskal sektore publikoaren antolakuntzaren eta funtzionamenduaren lege-proiektuarekin bat.	Balioetsia

Orokorra	EKONOMIAREN GARAPEN ETA AZPIEGITURA SAILA	<p>Testuaren artikuluen hainbat punturi egindako zehaztapan espezifikoak baino lehen, gure ustez, garrantzitsua da azaltzea aurreproiektuak ez duela aukera aprobetxatu azpiegiturak lurraldean ezartzea errazteko edo azkartzeko, eta ondorioz, energia berriztagarriak aprobetxatzeko.</p> <p>Kontu hori bereziki garrantzitsua da. Izan ere, kontuan izanik energia berriztagarriek zer nolako garrantzia duten eredu energetikoaren eraldakuntzan eta klima-aldaketaren aurkako borrokan, energia berriztagarriak dagoeneko ez dira energia-politikaren eremuari dagokion gai bat; aitzitik, ingurumen-politika osatzen duten elementu bat dira.</p> <p>Energia berriztagarriak aprobetxatzeko lurraldean zenbait instalazio ezarri behar direnez, proiektu-fasean edo ondorengo ezarpenean ingurumen-talka handiagoa edo txikiagoa izan dezaketen elementu moduan hartzen ditu Aurreproiektuak energia berriztagarri horiek. Hortaz, energia berriztagarrien iturrien gainean egiten diren erreferentzia bakarrak Aurreproiektuan energia berriztagarri horien aprobetxamenduaren gainean jasotzen diren kontrol-erregimenen menpe jartzeko da, eta ez da kontuan hartzen, energia berriztagarri horien ezarpena errazte aldera, ezarpenekin batera kasu batzuetan gerta daitezkeen talkak konpentsatu egiten direla klima-aldaketaren aurkako borrokan egiten duten ekarpenarekin.</p>	<p>Etorkizunean energia berriztagarriak aprobetxatzeko azpiegiturak lurraldean ezartzea errazteko edo azkartzeko premiaren inguruan planteatutako gaiarekin bat egiten da, ulertzen baita alegatzaileak ez duela planteatzen alde batera utzi behar denik energia berriztagarri horiei nahitaez egin behar zaizkien ingurumen-talkako ebaluazioak edo legez egitea exijitu daitezkeen ingurumen-baimenak. Alde horretatik, aipatu behar da Ingurumen Baimen Integratua (IBI) edo ingurumen-talkako ebaluazioa gai horren inguruan egin behar duten instalazioen zerrendak Estatuko oinarritzko arauetan jasotzen diren zerrenden arabera egin direla. Ondorioz, aipatu direnak moduko zenbait instalazio kenduz gero, ingurumenaren babesa gutxituko litzateke praktikan Euskadin, eta hori ez litzateke legalki onargarria izango arau honen esparruan.</p> <p>Gainera, kontuan izan behar da ustiapen-fasean daudela azpiegitura horiek klima-aldaketaren aurkako borrokan ekarpen eraginkorra eta desiragarria izan arren, azpiegitura horien ezarpenarekin batera behin betiko talka negatiboak sor daitezkeela, eta talka horiek aztertu eta zuzendu ahalko direla soilik, hala behar izanez gero, aldez aurreko ingurumen-prozedura batean, esaterako, ingurumen-inpaktuko ebaluazioan.</p>	Azalpenezko alegazioa
Orokorra	OSASUN SAILA	Alegatzaileak azaltzen duenaren arabera, osasun publikorako hainbat alderdi garrantzitsuren gainean, hala nola airearen kalitatearen,	Onartu nahi den testua arau jeneralista bat da, ingurumen-prozedura horizontaletan eragiten duena (ingurumen-inpaktuaren	Azalpenezko alegazioa

		<p>zaraten eta bibrazioen inguruan ez da Estatuko eta Europako araudiaren berariazko garapenik egiten. Gure ustez, gai hori aurreproiektu honetan jaso beharko litzateke edo planteamendu bat egin berariazko garapen bat egiteko.</p>	<p>esku-hartze eta ebaluazio mekanismoak), jardueraren printzipio orokorrak finkatzen dituen eta ingurumen-bektore guztiekiko alderdi komunak garatzen dituen, hala nola ikuskaritza, ingurunea berriztatzea edo zehapen-araubidea.</p> <p>Testuak ez du berariazko garapenik egiten hainbat gai zehatzen gainean, hala nola lurzoru kutsatuak, hondakinak, airearen kalitatea edo zarata. Izan ere, horiek Estatuko oinarritzko araudian tratatzen dira eta arau honetan ez da berariazko planteamendurik behar arau autonomiko sektorial zehatzetan xehetasunarekin jaso ahal izan daitezen, esaterako, urriaren 16ko 213/2012 Dekretuan, EAEko hots-kutsadurari buruzkoan, edo abenduaren 27ko 278/2011 Dekretuan, atmosfera kutsa dezaketen jarduerarako instalazioak arautzen dituenan.</p> <p>Hala ere, aipatu behar da alegazio horren eta beste batzuen ondorioz zarataren eta bibrazioaren gaineko berariazko aipamen bat txertatu dela legezko testuaren 6. artikuluan.</p> <p>6. Artikulua. Pertsonen betebeharrak.</p> <p>Lege honetan aurreikusitakoaren arabera, pertsona guztiek honako hauek egiteko betebeharra dute:</p> <p>b) Hondakinak sortzea, atmosferarako isurpenak, zarata, bibrazioak, usainak, argiaren kutsadura eta uretara eta lurzorura egiten diren isurpenak saihestea, edo hala badagokio, horiek murriztea.</p>	
--	--	--	---	--

Orokorra	JAIZKIBEL GEONATURE	<p>Alegatzailearen ustez, errore bat da NATURA-ONDAREAREN KONTSERBAZIOA-ren gai komun nagusia hiru lege ezberdinetan banatzea (Ingurumen Administrazioa, Natura Ondarearen Kontserbazioa eta Klima Aldaketa), lege independente moduan planteatzen diren bi gaiak enbor bereko adarrak direlako soilik (Natura Ondarearen Kontserbazioa) eta lege horren barruan egon beharko liratekeelako.</p>	<p>Hasieran, ingurumen-administrazioaren eta natura-ondarearen kontserbazioaren inguruko edukiak corpus legal bakar batean jasotzea balioetsi zen. Baina legegintza-teknikako arrazoiak eta arrazoi materialak medio, azkenean, gai horietako bakoitza araudigintzako atal ezberdinetan jasotzea aukeratu da, eduki horietako bakoitza era independentean kontuan hartzen bada izaera propioa izango duelako. Gai hori antzeko erara jasotzen da Ingurumen zuzenbide konparatuan.</p> <p>Era berean, klima aldaketaren inguruan berariazko erregulazio bat arau propio batean jaso behar dela ulertzen da, eta hori dela metodologiarik egokiena. Alegatzaileak azaltzen du Natura-ondarearen kontserbazio eraginkorarekin eta errealarekin lotutakoa konplikatuko litzatekeela, baina horren orde, EAEn ingurumen-antolamendu harmonikoagoa eta eskuragarriagoa lortuko da herritarrentzat eta eragileentzat.</p>	Gaitzetsia
----------	------------------------	--	--	------------

LEHENENGO TITULUA. XEDAPEN OROKORRAK				
ARTIKULUA	ALEGATZAILEA	ALEGAZIOAREN LABURPENA	INGURUMEN-SAILBURUORDETZAREN AZTERKETA	AUKERA
1. Artikulua. Helburua	ACLIMA	"Garapen jasangarria bermatzea" izeneko j) atala aldatzea eskatu dute eta horren ordez "Garapen jasangarria sustatzea" jartzea, lege batek ziurrenez ezin izango baitu horrelakorik bermatu, baina saiatu ahal izango baita, hori bai.	Lege-aurreproiektuaren desideratuma anbizio handikoa da, eta helburua du garapen jasangarria bermatzea.	Gaitzetsia
	BILBOKO UDALA	Alegatzailearen ustez, helburua eta xedea nahastu egiten dira. Legearen helburua bere zioen azalpenean bertan jasotzen da, eta hauxe da: ingurumenean eta pertsonengan eragina duten jardueretan administrazioak esku hartzeko dituen hainbat teknika arautzea (pertsonenganako jardueretan jarduera sailkatuak ere jasotzen dira). Eta horretarako, zenbait xede ezarriko dira artikulu ezberdin batean. Artikulu bat idaztea eskatu da: pertsonenganako eragina berariaz jasoko dituen xedeak. Izan ere, jarduera sailkatuak kontrolatzearen helburua da pertsona horien lasaitasuna, segurtasuna eta osasungarritasuna babestea honako hau lortzeko: b) Ahal den neurrian jarduera sailkatuen ondorioz ingurumenean eta pertsonengan sor daitezkeen eragin negatiboak saihestea edo minimizatzea –beste kasuren batean–, garapen ekonomikoaren eta ingurumenaren babesaren artean oreka bat lortze aldera.	Gure iritziz, aurreproiektuaren testua egokia da eta ez da helburuaren eta xedearen arteko bereizketarik egin behar, proposatu den moduan. Legearen helburu orokorretan ez da berariazko erreferentziarik jaso behar sailkatutako jardueren inguruan, potentzialki ingurumen-inpaktu handiagoak dituzten IBI eta IBB (Ingurumen Baimen Bateginen) jarduerak aipatzen ez diren neurri berean.	Gaitzetsia

<p>BASQUEGUR</p>	<p>Helburuen artean jasotzea araudia dagokion moduan harmonizatzea bermatzeko premia, ohiko jarduera ekonomikoa errespetatuz (besteak beste basokoa), jarduera ekonomiko hori gauzatzen jarraitu dadin.</p> <p>Nekazaritza era produktiboan erabiltzen jarraitzeko erreferentzia jasotzea (besteak beste basoko erabilera).</p>	<p>Euskadiko nekazaritza eta abeltzaintzako sektoreak bere lege sektorial propioa du, non alegatutako erreferentziak jasotzen diren. Aipatutako sektoreak ingurumenarekin lotzen diren jarduera ekonomikoko sektoreak dira, legearen aurreproiektuan berariaz aipatzen ez diren beste jarduera batzuen moduan, nahiz eta dagozkien Eranskinetan horien inguruko aurreikuspenak jaso.</p>	<p>Gaitzetsia</p>
<p>JAIZKIBEL GEONATURE</p>	<p>Bere ustez, 1. artikuluko horretan Euskadiko Natura Ondarea Kontserbatzeko "goi mailako" Lege-aurreproiektuaren izaera eta helburuak erabat nahasten eta kontraesaten dira, eta helburu horiei era oso negatiboan eragin ahal die.</p> <p>Bere ustez, natura-ingurunean proiektuak eta jarduerak martxan jartzea erraztearen eta azkartzearen ondorioz arazo larriak sortuko dira.</p>	<p>Ez dugu bat egiten esaten duenean Lege Aurreproiektu baten artean lehentasun mailak daudela eta bata goi mailakoa dela eta bestea menpekkoa. Materiaren araberako espezializazioa dago, eta Lege Aurreproiektu biak garrantzitsuak dira, maila berean.</p> <p>Era berean, proiektuarekin lortu nahi den administrazio-azkartzea eta -sinplifikazioa inplementatuko da, beti ere ingurumenaren babesa eta pertsonen osasuna zainduz. Izan ere, horiek dira araudi-proiektu horien bidez Euskadiko lurralde-eremuan zaindu nahi diren ondare juridiko komun eta materiagabeak.</p>	<p>Gaitzetsia</p>
<p>BIZKAIKO FORU ALDUNDIA. INGURUMEN ZUZENDARITZA</p>	<p>Ikuspegi estatiko eta erreaktibo batez harago, legeak ingurumenaren hobekuntza ahalbidetu behar du. Izan ere, oraindik ere asko dago egiteke EAEn ingurumen bio-fisikoaren eta ingurumen-kalitatearen eta ingurumen-ongizatearen hobekuntzan, besteak beste Nazio Batuen eta Europaren ingurumen programa-esparruei zein 2030 Agenda Garapen Jasangarriko Helburuei dagokienez.</p>	<p>Testua hobetzeko proposamena egokia dela ulertu da.</p>	<p>Balioetsia</p>

		“Hobekuntza” hitza jasotzea proposatu da.		
		Ekonomia Jasangarriaren terminoaz gain, Ekonomia Berdea eta Ekonomia Zirkularra terminoak ere aipatu behar dira, Nazio Batuen Sistemak eta Europako Batzordeak erabiltzen dituztenak Garapen Jasangarriko kontzeptu-esparruan.	Alegazioa partzialki jaso da, ekonomia zirkularra terminoa barne hartuz. Testua honela geratuko litzateke: Baliabideak modu eraginkorrean kudeatzea, ekonomia jasangarria, zirkularra eta hipokarbonikoa sustatuz.	Partzialki balioetsi da
		d) Klima-aldaketaren gaineko intzidentzia mugatzea. Intzidentzia terminoak egokiagoa dirudi.	Egokia dela ulertu da eta testua hobetzeko proposamena onartu da, honela idatzita geratuko litzatekeena: d) Klima-aldaketaren intzidentzia mugatzea.	Balioetsia
		Helburu hori onartu da garapen jasangarriko ingurumen-hezkuntza (jasangarritasunerako hezkuntza) funtsezko jarduerara delako ingurumen-politiketan eta gizarteko eragile guztiak sentsibilizatzeko eta inplikatzeko prozesuan. e) Ingurumen-hezkuntza sustatzea hezkuntza maila guztietan, baita herritarrek eta gizarteko eragile guztiak kontzientziatzea ere, ingurumena babesteko eta hobetzeko.	Testua hobetzeko proposamena egokia dela ulertu da da, honela idatzita geratuko litzatekeena: Ingurumen-hezkuntza sustatzea hezkuntza maila guztietan, baita herritarrek eta gizarteko eragile guztiak kontzientziatzea ere, ingurumena babeste eta hobetze aldera.	Balioetsia
	GARAPEN EKONOMIKOKO ETA AZPIEGITUREN SAILA	1. artikuluan, Lege horrekin lortu nahi diren helburuen artean, honako hau jasotzea proposatzen da: “Gero eta karbono gutxiagoko energia-sistema bat bultzatzea, energia-eraginkortasuneko jarduerak areagotuz eta energia berriztagarrien aprobetxamendua handituz”.	Lege-aurreproiektuaren xedapen-testuan ez dira energia-sistemak aipatzen, ezta energia-eraginkortasuna ere, horiek berariazko araudi sektorial batean jaso behar direla ulertzen delako. Hala ere, helburu moduan adierazi da baliabideak modu eraginkorrean kudeatu behar direla, ekonomia jasangarria, zirkularra eta hipokarbonikoa sustatuz, eta alegatzaileak aipatutako helburua	Gaitzetsia

			azkeneko baldintza horretan jasoko litzateke.	
		Berariazko esparru arauemaile bat (edo hori sortzeko oinarriak) sortzea energia berriztagarrien sektorerako, ingurumen-helburuak betetzeko eta klima-aldaketaren aurka borrokatzeko egiten duen ekarpena aintzatetsiko duena, energia ez berriztagarrien instalazioek egiten ez duten bezala.	Ingurumena babesteko arau orokor honen helburua ez da berariazko esparru arauemaile bat sortzea sektore zehatz bat sustatzeko, nahiz eta sektore horrek garrantzia handia izan, energia berriztagarrien sektorearen kasuan moduan. Arau <i>ad hoc</i> batek arautu beharko luke energia berriztagarrien sektorerako berariazko esparru arauemailea, eta arau horrek aintzatetsi beharko luke, hain zuzen ere, ingurumen-helburuak betetzeko eta klima-aldaketaren aurka borrokatzeko egiten duen ekarpena.	Gaitzetsia
2. artikulua. Definizioak	MICHELIN	“Instalazioaren titularrak” zein den azaltzeko definizioa jasotzea, eta IBI kokapen berdineran lotzearen kontua argitzea (2. artikulua, a eta k definizioak). Hartara, kokapen berean 2 enpresa edo erakunde ezberdin jarri badira, 2 IBI/IB bakar eta ezberdinek egin behar dute bat beti (konexio teknikoak k definizioan adierazita izan arren).	Instalazioaren titularraren definizioa oinarritzko legerian jasota dago dagoeneko, deskribatu den moduko egoeretan IBI norik izan behar duen argitze aldera. Alegazioan jasotako definizioak oinarritzko legerian jasotzen dira. Lege-aurreproiektuan definizioen artikulua selektibo bat aukeratu da, arautzen duen esku-hartze teknikak definitze aldera.	Gaitzetsia
	BILBOKO UDALA	Sailkatutako jardueraren eta jarduera ez kaltegarriaren definizioak jasotzea eskatzen du: a) Sailkatutako jarduera: ingurumenari, pertsoneri edo beren ondasunei kalteak sortzeko arriskua duen, pertsoneri kalte horiek sortzeko edo eragozpenak eragiteko arriskuak sor ditzaketen eta ez IBira ez IBBra atxikita ez dauden jarduera eta instalazio publikoak edo pribatuak. Eragin handiagoa edo txikiagoa duten arabera, sailkatutako jardueraren lizentziaren edo sailkatutako	Sailkatutako jardueraren definizioa jasotzearen inguruko alegazioa balioetsi egin da. Bazterketaz, sailkatzen ez diren jarduera guztiak kaltegabeak dira. Kategoriatu hori sortzea ez dela beharrezkoa ulertzen da. Udalekin parte hartzeko foroetan ez zen adostasunik lortu kategoriatu horren premiaren gainean.	Partzialki balioetsi da

		<p>jardueraren jakinarazpenaren erregimenera atxiki beharko dira.</p> <p>b) Kalterik egiten ez duen jarduera: orokorrean, bere ezaugarriak kontuan izanik, ingurumenari, pertsonen segurtasunari edo ondasunei eragozpen esanguratsuak edo eragin nabarmenak sortzen ez dien jarduera. Kalterik egiten ez duten jarduerak I-E eranskinean jasotzen dira eta Erantzukizunpeko Adierazpenera atxikita daude.</p>		
		<p>Jarduera Saikatuaren Jakinarazpenaren definizioa jasotzea.</p> <p>Jarduera Saikatuaren Jakinarazpenaren dokumentu beraz hitz egitea proposatzen dute, eta bi dokumentu ezberdin ez bereiztea, 53. eta 55. artikuluek egiten duten moduan.</p> <p>Jarduera Saikatuaren Jakinarazpenaren dokumentua arrunta da eta eragin juridiko berak sortzen ditu (funtzionamenduaren hasiera), bai saikatuaren jardueraren lizentzia alde aurretik behar duten saikatuaren jarduerentzat zein halakorik behar ez dutenentzat. Dokumentuan bertan egoera hori zehaztu ahalko da, eta ez da beste modu batera deitu beharko ("Hasierako Jakinarazpena"...).</p> <p>Zehaztapenak sinplifikatu behar dira. Dokumentu horrek berak jardueraren aldaketak legalizatzeko ere balioko du. Bilboko Udalean dugu dokumentu hori.</p> <p>f) Saikatuaren Jardueraren Jakinarazpena: dokumentu horren bidez, interesatuek jarduera zehatz baten hasieraren berri ematen diote Administrazio publiko eskudunari eta horren inguruko dokumentazioa azaltzen dute; Administrazio publikoari gaitasuna</p>	<p>Testu hori mantentzea egokia da, egungo erregulazioarekin bat egiten duelako eta EAEko udalen aldetik ez delako arazo nabarmenik edo interesik hauteman.</p> <p>Teknologia hobek:</p> <p>Definizioa mantentzea. Izan ere, <i>mutatis mutandis</i>, saikatuaren jardueretara estrapolatu daiteke erabat, kontuan izanik kategoria horren barruan industria izaera ez duten jarduerak existitzen direla.</p> <p>"Teknika erabilgarri onenak: jardueren garapenaren eta horien ustiapen-modalitateen fase eraginkorrena eta aurreratuena da, non erakusten den zenbait teknikek duten gaitasun praktikoa isurpenaren balio-mugen oinarria eraikitzeko, baita ingurumen osoan eta pertsonen osasunengan isurpenak eta inpaktua saihestuko, edo hori ezin denean, murriztuko duten baimenaren beste baldintza batzuk eraikitzeko ere."</p> <p>Udal-teknikariek zehaztuko dute zer neurri zehatz hartu behar den</p>	<p>Gaitzetsia</p>

		<p>ematen dio dokumentazio horretan jasotzen diren datuak onartzen dituela egiaztatzeko.</p> <p>Jarduera kaltegabearen Erantzukizunpeko Adierazpenaren definizioa jasotzea.</p> <p>r) atala: teknika eskuragarri onenak. Honako testu hau proposatu da:</p> <p>“Saikaturako jardueren eremuan teknika eskuragarri onenak izango dira udal-teknikarien ustez segurtasunerako, osasungarritasunerako eta lasaitasunerako jarduerak sor ditzaketen eragin kaltegarriak prebenitzeko edo murrizteko eraginkorragoak direnak.”</p> <p>Lurzoruaren oinarritzko 7/2015 Legearen 6 b) artikulua Teknika Eskuragarri Onenen (TEO) kontzeptu hori inpaktu txikiagoko jardueretara zabaltzen du, esaterako, saikaturako jardueretara, eta ondorioz, arlo horretan, TEO kontzeptuak eduki lausoagoa eta zehaztugabeagoa du organo autonomiko eskudunak IBla eman dezan. Gogoratu behar da saikaturako jarduerak ez daudela IBla atxikirik, baina TEOak exijitu ahal zaizkiela.</p>		
	ACLIMA	Ingurumenaren kontzeptuaren definizio bat eranstea.	Ingurumena osatzen duten elementuak ikuspuntu zorrotz baten edo zabalago baten bidez definitu daitezke, lege-aurreproiektu honetan berariaz aurreikusi ez direnak.	Gaitzetsia
	EHNE-EUSKAL HERRIKO NEKAZARIEN	c) atalean zehaztea nola eta nork baimendu zuen dagoeneko existitzen den jarduera edo instalazioa.	Definizioak ezin ditu barne hartu existitzen diren baimen posible guztiak. Kasuan kasuko analisiak zehaztuko du jarduera baimenduta ote dagoen eta nork egin duen.	Gaitzetsia

ELKARTASUNA	Publiko interesdun moduan, berariaz barne hartuak izatea eskatzen du etorkizuneko parte-hartze prozesuetan, esaterako, Nekazaritza Erakunde Profesionalean (NEP).	Alegatzailearen interesek eragina izan dezaketen prozeduretan, alegatzailea publiko interesun moduan hartuko da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 4. artikularekin bat. Lege-aurreproiektuak aurreikusten dituen prozeduretan, alegatzaileak egokia baderitzo, informazio publikoaren dagozkion izapideetan parte hartu ahalko du. Alegatzailearen helburu nagusia ez da ingurumenaren babesa, eta ondorioz, ez dirudi izaera orokorreko publiko interesdunaren baldintza izan dezakeenik.	Gaitzetsia
HERNANIKO UDALA	Definizioen artean sailkatutako jardueren aurreiazko jakinarazpenaren gaineko definizioa jasotzea.	Definizio hori arautzen duen aginduan bertan jasotzen da.	Balioetsia
UDALEN FOROA	"Jardueraren lizentzia" eta "aurreiazko jakinarazpena" kontzeptuen definizioa jasotzea.	"Jardueraren lizentzia" definizioa jasota dago jada lege-aurreproiektuan. "Aurreiazko jakinarazpena" definizioa jasoko da.	Balioetsia
ENPRESEN FOROA	<p>"Produkzio-gaitasuna" terminoaren definizioa jasotzea proposatu da, funtsezko aldatetari dagokion irizpidearen interpretazioa argitze aldera ("b. Produktu-unitateetan instalazioaren produkzio-gaitasuna % 50 baino gehiago handitzea").</p> <p>Zalantzak sortu dira hainbat gauza kontuan hartzeari dagokionez: instalazioaren gaitasun nominala (esaterako, urtzeko laborearen gaitasuna nominala), ekitaldi bakoitzeko urteroko produkzioa, nola hartu behar den kontuan lan-txandak zabaltzearen bidezko produkzio-hazkundera, etab.</p>	Definizio hori jasotzea ez da beharrezkotzat jotzen.	Gaitzetsia

		<p>“Erantzukizunpeko adierazpena” definizioa jasotzea proposatzen da.</p>	<p>“Erantzukizunpeko adierazpena” terminoak berak dagoeneko dokumentuaren asmoa definitzen eta argitzen duela ulertzen da. Erantzukizunpeko adierazpena urriaren 1eko 39/2015 Legearen 69.1 artikuluan definitzen da, eta gainera, ez da arau-proiektuan garatutako ingurumenaren esku-hartze erregimenen arteko bat.</p>	Gaitzetsia
		<p>Hondakinak kudeatzeko jardueren kasuan, “tratamendu-gaitasuna” definizioa jasotzea proposatu da, aldaketa bat funtsezko edo ez funtsezko moduan sailkatu behar den errazago interpretatze aldera.</p>	<p>Definizio hori jasotzea ez da beharrezkotzat jotzen.</p>	Gaitzetsia
		<p>“Tratamendua” definizioa jasotzea proposatu da hondakinak kudeatzeko jardueren inguruan; izan ere, termino hori (“tratamendua”) berariaz aipatzen da I.B. Eranskinaren 1 eta 2 puntuetan.</p>	<p>Alegatzaileak jaso nahi duen definizioa hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko uztailaren 28ko 22/2011 Legean jasotzen da jada.</p>	Gaitzetsia
	FORU ALDUNDIEN FOROA	<p>“Baliabide naturala” kontzeptuaren definizio zehatza eta berariazkoa jasotzea. Hainbat aipamen egiten dira gehiago zehaztu gabe. Aurreproiektuaren atal asko modu egokian jasoko lituzke.</p>	<p>Jasotzea alegatzen den definizioa Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legean jasotzen da jada.</p>	Gaitzetsia
	HAZI	<p>Baliabide naturalaren kontzeptua definitu behar da, baita balio estrategiko handiko nekazaritzako lurzoruak erabilera publikoko eta interes sozialeko ondare moduan aitortu ere.</p>	<p>Lege-aurreproiektuaren 4. artikuluan zehazten da beren helburuak lortu behar dituzten jarduerak erabilera publikoko eta interes sozialeko moduan aitortu ahalko direla.</p> <p>Aitorpen hori, nolana ere, nekazaritzako sektore-arauketan jaso beharko da.</p>	Gaitzetsia

	BIZKAIKO FORU ALDUNDIA. INGURUMEN ZUZENDARITZA	<p>Honako definizio hauek jasotzea eskatzen du:</p> <p>Ingurumen-baimen bakarra.</p> <p>Teknika erabilgarriak:</p> <p>Ingurumen-ebaluazioari buruzko 21/2013 Legeak emandako definizioa jasotzea proposatzen du honako hauen gainean:</p> <p>Ingurumen-ebaluazioa</p> <p>Planak eta programak:</p> <p>Proiektuak</p> <p>Foru Administrazioaren ingurumen-organoa</p> <p>Ingurumen-hezkuntza</p> <p>Ingurumen-fiskalitatea</p> <p>Paisaia:</p> <p>Ekosistemen zerbitzuak:</p> <p>Ingurumen-boluntarioritza:</p>	<p>Orokorrean, aurreproiektuak soilik beharrezkoak diren definizioak jaso nahi ditu. Hala ere, Ingurumen Ebaluazioarekin lotutako kontzeptuen gainean proposatutako definizioak gai horrekin lotutako kontzeptu teknikoaren berariazko eranskin batean jasoko dira.</p> <p>Proposatutako gainerako definizioak jasotzea ez da beharrezkotzat jotzen. Kasu batzuetan, izapidetzen ari den beste Lege-aurreproiektu batean tratatu beharreko gaiak direlako, edo beste batzuetan, dagokion artikuluan arautzeko alde aurretik definizio bat behar ez duten kontzeptuak direlako.</p>	Partzialki balioetsi da
3. artikulua. Printzipioak	EUSKAL ARIDO	Administrazio-izapidea azkartzeko eta errazteko eskatu den helburua modu eraginkorrean beteko duen prozedurarik ez da behar beste garatu.	Legeak sustatzaileentzako administrazioa sinplifikatzearen aldeko apustu argia egiten du. Horren adierazgarri da, besteak beste, Ingurumen Baimen Bakarra sortzea, IBI eta IBB-ren ondoren udal-lizentziak lortzea kentzea.	Gaitzetsia
	HERNANIKO UDALA	Lege honen bidez irizpide bateratu bat ezarri beharko litzateke "kutsatzen duenak ordain dezala" bermatzeko, eta soilik asmoak azaldu ordez, kutsatzen duenak sortu duen kutsadura-mailaren arabera ordain dezan.	Kutsatzen duenak ordaindu behar izanaren printzipioa ezartzen du Legeak hainbat arauetan. Ez soilik dagozkion administrazio-zigorrek, zaharberritzeko obligazioa edo balizko ingurumen-fiskalitatea aurreikusiz. Kutsatzen duenak ordaindu behar izanaren printzipioaren adierazpen nagusia zera da, ingurumen-arriskuak edo -kalteak saihesteko kostua sustatzaileak hartu behar duela bere gain, eta aurreproiektu honek, hain zuzen ere, hori arautzen	Gaitzetsia

			du, alegia, ingurumenaren gainean eragina izan ditzaketen jardueren gainean esku hartzeko teknikak.	
EHNE-EUSKAL HERRIKO NEKAZARIEN ELKARTASUNA	“Mantentzen eta zaintzen duenak kobratu egingo du” kontzeptua jasotzea 3.1 a) artikuluan.	Lege-aurreproiektu honen helburua ez da lurraldea zaintzea ezta biodibertsitatea zaintzeko bankuak sortzea ere, baizik eta ingurumen-eragina duten jarduerak diziplinatzea.	Alderdi horiek Euskadiko natura-ondarearen lege-aurreproiektuan lantzen dira, egun bideratzen ari denean.	Gaitzetsia
BIZKAIKO FORU ALDUNDIA. INGURUMEN ZUZENDARITZA	<p>“Nork kutsatzen duen” printzipio historikoa osatzea, eta ezartzea portaera garbia duenak ere onura jasoko duela: ingurumen-fiskalitatea edo sustatze-positiboa. Helburua da mezu positibo bat ematea, ingurumen-fiskalitatean eta eguneroko praktikan islatuko dena.</p> <p>Partekatutako erantzukizunaren printzipioari erantzungo lioke.</p> <p>Honako hau jasoko litzateke printzipio moduan:</p> <p>Baliabide naturalen erabilera jasangarria, energia berriztagarriak sustatzea eta energia modu eraginkorrean erabiltzea.</p> <p>Energia-jasangarritasunaren legearekin eta dekretuarekin bat egingo duen jasangarritasunaren kontzeptua jaso da, baita energia berriztagarrien aipamena ere.</p> <p>Pertsonen osasuna eta ekosistema osasungarriak sortuko dituen kalitatezko ingurumenaren egoera.</p> <p>Osasunaren kontzeptua jaso da. Izan ere, kalitatezko ingurumena funtsezkoa da osasunaren elementu erabakigarrirentzat eta</p>	<p>Gaitzetsi egin da. Izan ere, Lege Aurreproiektuak beste testu arauemaile batzuetan (Europar Batasunean eta Konstituzioan) dagoeneko bateratuta dauden printzipioak erabiltzea aukeratu du, eta printzipio berriak asmatzeak nahasmena sor dezake.</p> <p>Testuan ez da energia berriztagarriak sustatzea berariaz jasotzen; hala ere, baliabide naturalak arrazionalki erabiltzeko eta energia modu eraginkorrean erabiltzeko 3.c) printzipioa jaso da, eta TEOak, ekoberrikuntza etab. moduko gaien azpiko elementu moduan uler daitezke.</p> <p>Beraz, ezin daiteke esan printzipio hori Lege honen oinarri denik, eta gure ustez, energia berriztagarrien gaineko berariazko sektore-araudi batean jaso behar da, alegazioan aipatzen den moduan.</p>	Gaitzetsia	

		<p>ekosistemen kalitatearentzat, baita gizakiaren ongizaterako zerbitzuentzat ere.</p>		
	<p>EKONOMIAREN GARAPEN ETA AZPIEGITURA SAILA</p>	<p>Legea oinarritzen den printzipioen artean (3. artikulua) energia berriztagarriaren iturriak erabiltzeko printzipioa jasotzea proposatzen da, eta hala, honako printzipio hau azaltzea: <i>“baliabide naturalak modu arrazionalen erabiltzea, energia modu eraginkorrean erabiltzea eta iturri berriztagarrietatik jasotako energia erabiltzea batez ere.”</i></p> <p>Iturri berriztagarrietatik jasotako energia aprobetxatzea baliabide naturalak modu arrazionalen erabiltzeko modu bat dela aintzatestea, non energia horrekin lotzen den lurraldearen erabilera ere barne hartu beharko den.</p>	<p>Alegazio horri ematen zaion erantzuna lehen emandakoaren bera da. Hau da, energia berriztagarrien inguruko alderdi espezifikoak berariazko araudi batean jaso behar dira, eta Ingurumen Administrazioako Lege Aurreproiektu baten eraginak aurreproiektuan azaltzen diren printzipioetan jasotzen direla ulertzen da.</p>	<p>Gaitzetsia</p>
		<p>Energia berriztagarriez gain, gure ustez gas naturalak Lege Aurreproiektuan duen zeregina nabarmendu behar da, energia-trantsizioaren prozesuko oinarritzko eta funtsezko alderdi moduan.</p>	<p>Teknikoki, ez da ikusten Lege-aurreproiektuan nola jaso daitezkeen gas naturalaren inguruan egindako proposamenen erreferentziak. Arauan zehar ez zaio energia-trantsizioaren prozesuari erreferentziarik egiten, eta berariazko sektoreko arau batek jaso beharko ditu erreferentzia horiek.</p>	<p>Gaitzetsia</p>
<p>5. Artikulua. Pertsonen eskubideak.</p>	<p>ACLIMA</p>	<p>a) atalak ingurumen “egoki” bat izateko eskubidea definitzen du. Hala ere, kontzeptu hori zehaztugabea eta mugagabea da. Sustatu nahi dena hobeto jasoko duen termino bat bilatzea proposatzen da.</p>	<p>Ingurumen egoki bat disfrutatzeko eskubidea Konstituzioaren 45. artikuluan definitzen da, eta politika sozial eta ekonomikoaren printzipio gidari moduan duen zehaztapena eta babesa legeen bidez gauzatuko da. Eskubide horren irismena Konstituzio Auzitegiak berak zehaztu du, beste funtsezko eskubide eta askatasun batzuekin zeharka loturik izateari kalterik egin gabe. Baina gai hori ez da definizio baten helburu izan behar lege-</p>	<p>Gaitzetsia</p>

			aurreproiektu honetan.	
	BIZKAIKO FORU ALDUNDIA. INGURUMEN ZUZENDARITZA	5. Artikulua. Pertsonen eskubideak. Lege honetan aurreikusitakoaren arabera, pertsona guztiak honako hauek egiteko eskubidea dute: a) Ingurumen kalitatezkoaz eta osasungarriaz gozatzeko, oinarrizko ingurumen zerbitzuak emango dituenaz. Kalitatezko ingurumen bat izateko eta horretaz gozatzeko eskubidea zehaztu da.	Eskubide hori definizio berri batean formulatzea gaitzetsi da, lehenago azaldutako arrazoiengatik (Ingurumen Zuzenbidean dagoeneko zehaztu diren adierazpenak eta kontzeptuak mantentzea).	Gaitzetsia
6. Artikulua. Pertsonen betebeharra k.	ACLIMA	a) atalean adierazi da pertsona guztiak ingurumena "hobetzeko" betebeharra dutela. Obligazioen kapituluan "ingurumena hobetzeko betebeharra" kontzeptua kentzea iradokitzen da, kontzeptu zehaztugabea delako eta ezin delako exijitu pertsona guztiak ondasun komun bat, hala nola ingurumena hobetzeko betebeharra dutela; baina ez kaltetzea exijitu daiteke, hori bai.	Denek dute ingurumena babesteko eta zaintzeko, eta ondorioz, hobetzeko betebeharra. Herritar guztien erantzukizun kolektibo eta banakakoa da. Betebehar hori Konstituzioan oinarritzen da, EK-ko 45. artikuluan, hain zuzen ere.	Gaitzetsia
	BILBOKO UDALA	e) Behar diren eskakizunak eta baldintzak betetzea, legeriak jarduera desatseginak, osasungaitzak, kaltegarriak eta arriskutsuak atxiki ditzan, baita jarduera horietan une oro araudi ezargarriaren araberako teknika erabilgarri onenak erabiltzea ere, ingurumenean eta pertsonengan haiek sor ditzaketen eragin negatiboak deuseztatze edo murrizte aldera. Lurzoruari buruzko 7/2015 Legearen 6.b) artikuluan xedatutakoa jaso beharko litzateke; horrek TEOn kontzeptura eramaten gaitu,	e) atala jasotzearen inguruan proposatutako alegazioa 6. artikuluan jaso dela ulertzen da. d) Dagokion administrazio-titulua izatea ingurumenean eta pertsonen osasunarengan eragin dezakeen edozer jarduera egiteko, beti ere Lege honen ezarpen-eremuaren barruan, eta jarduera hori gauzatzeko ezarritako baldintzak betetzea.	Gaitzetsia

		saikaturtako jardueren eremuan zentzu handiagoa hartzen duenak.		
EHNE-EUSKAL HERRIKO NEKAZARIEN ELKARTASUNA		Honako termino hauek testuan zuzenean eta zeharka eranstea: "Ingurumena babestea, zaintzea eta hobetzea".	Proposatutako terminoa hala dela ulertzen da zehaztapenik egin behar izanik gabe.	Gaitzetsia
		Zaharberritzeko betebeharra zer aldaketa motak sortuko luketen zehaztea.	Aurreproiektu honek arautzen dituen esku-hartze teknikek ingurumena aldatzea saihesten dute, garapena eta ingurumena uztartuz. Era berean, hainbat mekanismo aurreikusten dira hondatutako ingurumena zaharberritzeko, kasuan kasu balioetsiko dena, eragindako ingurunea ikusi eta sortutako aldaketaren arabera.	Gaitzetsia
		Mekanismoak barne hartzea titulu gaitzaileak eskuratzea ahalbidetzeko, halako titulurik ez dutenei. Adibidez, salbuespenak planteatuz zenbait kasutan.	Ez da salbuespenik jasotzen ingurumen titulu administratibo gaitzaileak jasotzeko orduan; izan ere, titulu horiek nahitaezkoak dira ingurumenaren babesa bermatzeko. Lege-aurreproiektuan ezarritako mekanismoak ezarri, titulu gaitzaileen ondoriozko betebeharrak betetzea ahalbidetzen da.	Gaitzetsia
Hainbat udal		Zarata-bektorea 6.b atalean berariaz jasotzea eskatzen da.	Jaso egin da eta zarata, usainak eta argi-kutsadura era zabalagoan eta xehatuagoan azaldu dira.	Balioetsia

BIGARREN TITULUA. INGURUMEN POLITIKAREN ESKUMENAK ETA KOORDINAZIOA				
ARTIKULUA	ALEGATZAILEA	ALEGAZIOAREN LABURPENA	INGURUMEN SAILBURUORDETZAREN AZTERKETA	AUKERA
7. artikulua. Ingurumen arloko eskumenak	GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA	Foru Aldundiei eskumen gehigarriak eranstea hiri-hondakinen arloan, indarreko 3/1998 Legearen 74. artikuluko baldintza beretan: b) <i>Udal-jarduerak koordinatzea lurralde historiko bakoitzeko eremuan, ingurumen-arloko zerbitzuen prestazio integrala bermatze aldera.</i> c) <i>Hondakinak kudeatzeko udalaz gaindiko azpiegiturak bultzatzea.</i>	Alegazioaren edukia jasotzea egokia da.	Balioetsia
	ACLIMA	1. atalak ez du jasotzen 2.c) atalaren antzeko eskumenik EAEko erakunde komuentzat.	Ulertzen da alegatzen dena 7.1.c) artikuluan, EAEko erakunde komunak betearazteko eskumenaren gainekoan, jasotzen dela.	Gaitzetsia
	PASAIAKO UDALA	Lurraldean kokatutako jarduerak ikuskatzeko ahalmena Udalei ematea, horiek baitira herritarrengandik hurbilen dauden administrazioak eta ikuskaritza behar duten oharrak eta alarmak azkarren jasoko dituztenak.	Ingurumena ikuskatzeko ahalmena baimena edo lizentzia ematen duen Administrazioari dagokio, eta IBiren edo IBBren kasuan, hori emateko eskumena Eusko Jaurlaritzako dagokion sailak du esleituta, eta ondorioz, hark izango du balizko ikuskaritza egiteko eskumena ere. Hala ere, Udal batek bere udal-barrutian instalazio edo jarduera bat duen unean, dagokion sailari eskatu ahalko dio, inolako eragozpenik gabe, dagozkion ikuskaritzak egin ditzan.	Gaitzetsia
	BASQUEGUR	Alegatzaileak aipatzen du ingurumenari esleitutako udal-eskumena hiri-ingurunera mugatzen dela, eta hori berariaz aipatu beharko litzatekeela Aurreproiektuan.	Ez dugu bat egiten baieztapen horrekin. Ingurumen-arloko udal-eskumenei udal-barruti osoa hartzen dute edo udal-barruti osoan gauzatu daitezke, lurzoruaren kalifikazio urbanistikoa alde batera utzita.	Gaitzetsia

BIZKAIKO FORU ALDUNDIA. INGURUMEN ZUZENDARITZA	<p>7. artikulua. Ingurumen arloko eskumenak.</p> <p>Lurralde Historikoetako Foru Organoei azaroaren 25eko 27/1983 Legean, Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde komun eta lurralde historikoetako foru-organoen arteko harremani buruzkoan aintzatetsitako eskumenez gain, honako hauek ere badagozkie:</p> <p>Ingurumen-politika fiskala definitzea</p> <p>Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde komunekin eta beste foru-erakundeekin elkarlanean.</p> <p>Eskumen hori barne hartuko da, Lurralde Historikoen berezko eskumena baita.</p>	<p>Euskadiko ingurumen-politika fiskalaren definizioa ezin da Foru Aldundien eskumen eskusibo moduan hartu.</p> <p>Aurreproiektuko 85. artikuluan azaldutakoari eusten diogu, non zehazten baita politika fiskal horren definizioa administrazio publikoek egiten dutela modu koordinatuan Euskadiko Zerga Koordinaziorako Organoaren bidez.</p>	Gaitzetsia
	<p>Hondakin geldoak. Azpiegitura linealeko obrak Lurralde Historiko bakar bati eragiten dionean, gordailuak edo betegarriak betearaztea baimentzeko eskumena Foru Aldundiarena izango da, eta horrek azpiegiturarekin batera onartuko ditu horiek.</p> <p>“Otsailaren 24ko 49/2009 Dekretuak, zabortegira eramanez hondakinak deuseztatzea eta betegarriak betearaztea arautzen dituenak” ezartzen duenaren arabera, Lurralde Historikoen eskumena da.</p>	<p>Sektoreko araudiak esleitutako eskumenen gaineko d) atalean jasotzen da. Kasu horretan, eskumen hori Dekretu bidez esleitu da.</p>	Gaitzetsia
	<p>Euskal Autonomia Erkidegoko udalerriei, beren eskumenen arloan, honako hau dagokie: Lege honek eta gainerako araudiak zein Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legeak ere ingurumen-arloan esleitutako eskumenak gauzatzea.</p>	<p>Euskadiko Toki Erakundeen apirilaren 7ko 2/2016 Legearen erreferentzia onartu da.</p>	Balioetsia

		Aipamena 2/2016 Legean txertatu da, non toki-erakundeen eskumenak (ingurumenekoak barne) islatzen diren.		
8. artikulua. Administrazio Publikoen eskumenak gauzatzea	BILBOKO UDALA	<p>Honako izaera duen 4. atal gehigarria txertatzea eskatzen du:</p> <p>“Beste organo batzuen eskumen-arloan, bai administrazio horretan bertan zein beste administrazio publiko batzuetan, eragiten duen ikuskaritza-jarduera gauzatzean hautemandako arau-haustea eta urritasunak administrazio hauei jakinaraziko zaizkie, bereziki sektore-baimenak faltatzen direnean, kasu horretan sektoreko administrazioak egin beharko baitu jarduera.</p> <p>Sektoreko baimena falta dela hautematen denean, aktaren kopia sektoreko arlo horretan eskumena duen organoari bidaliko zaio, hark jardun dezan.</p> <p>Sektoreko administrazio batek kautelazko, behin-behineko edo behin betiko neurri bat hartzen badu lege honek araututako jarduera baten aurrean, jarduera-gaietan eskumena duen administrazioari jakinarazi beharko dio. Jarduera-gaietan arau-haustea hautematen badira ere modu berean jardungo da.</p> <p>IBIra eta IBBra atxikitako jarduerak hasten diren kasuan, ingurumen-organok jardueraren kokapenaren berri emango dio dagokion udalari, udal-teknikariek jarduera horren ikuskaritza ikus dezaten.</p> <p>Era berean, ingurumen-organok jardueraren kokapenaren berri ematean, dagokion udalari jakinaraziko dio udal-teknikariek salaketaren xede izan den jardueraren ikuskapenean izateko aukera</p>	Alegazioaren edukia eta irismena aurreproiektuaren 8.1. artikuluan arautzen diren koordinazio- eta lankidetzaren printzipioetan islatzen da.	Gaitzetsia

		izango dutela.		
ENPRESEN FOROA	Udalentzako “Ordenantza Esparru” bat garatzeko aukera proposatzen da, Lege berria zuzenean hauteman ez diren zenbait irizpide arautze aldera (esaterako, teknikari eskudunaren kualifikazioa, dokumentuen ikus-onetsia, ingurumenekoak ez diren araudiak bete izanaren justifikazioa nola eskatu, esaterako, industria-segurtasuna, irisgarritasuna, etab.).	Ukertzen da lege-aurreproiektuak oinarritzko irizpideak jasotzen dituela xedapen orokorren atalean, udal-eskumeneko jardueren gaineko ezarpenean batasun nahikoa lortzeko irismen nahikoa dutenak. Eta hori egin daiteke legea onartu ondoren erregelamenduaren garapenari kalterik egin gabe.		Gaitzetsia
EKONOMIAREN GARAPEN ETA AZPIEGITURA SAILA	Administrazioen arteko koordinazioa hobetzeari dagokionez, aurreproiektuak ingurumen-administrazioaren funtzionamendua azkartzea aipatzen du, prozedurak sinplifikatuz eta bateratuz. Hala ere, hori administrazio-prozedura bateratu bat (edo batzuk) ezarri nabarmen hobetu ahalko litzateke; izan ere, administrazio-prozedura horiek leihatila bakarrean hasteaz eta bideratzeaz gain, eskumen konkurrenteak dituzten administrazio guztien (ez bakarrik ingurumenekoen) parte-hartzea bermatuko lukete eta amaierako erabaki bakar bat ahalbidetuko lukete, beharrezko ahalmen, lizentzia eta baimen guztiak integratuko lituzkeena (ez bakarrik ingurumen-arlokoak).	Alegazioak, funtsean, adierazpenezko izaera du eta prozedura bateratu batzuk ezartzeko premiaren gainean hausnartzen du (non Administrazio Publiko guztiek parte hartuko luketen); hala ere, Lege Aurreproiektu honen helburua gainditzen du, eta nolahi ere, EAEko Administrazio Orokorraren hainbat sail jasoko lituzkeen arau batean bultzatuko beharko litzateke. Ahalegin handi bat egin da ingurumen-prozedurak eta prozedura horien eskumen konkurrente batzuk sinplifikatzeko eta bateratzeko, araudia sakabanatuta baitago eta hainbat obligazio existitzen baitira, hainbat administrazio publikoren edo administrazio horien atalen aurrean.		Azalpenezko alegazioa
	Aipatzen du artikulua egungo idazketaren arabera, PMAREN helburu bakarra ingurumena hobetzea dela dirudiela, baina izatez, hori helburuak eta lehentasunak ezartzeko tresna bat dela; horregatik, testu hori berrikustea iradokitzen du.	Alegazioaren zentzua ez da argi geratu.		Gaitzetsia

10. artikulua. Ingurumen Kontseilua	ACLIMA	1. atalean “Unibertsitatea” jarri ordez “Unibertsitateak” jartzea, aipatutako gainerako eragileak pluralean jarri direlako, eta EAEn hainbat unibertsitate daudelako.	Artikulua Unibertsitateaz ari da, maila generikoan. Hurrengo 11.1 j) artikuluan Euskadiko unibertsitateak aipatzen dira.	Gaitzetsia
	CONFEBASK	Ingurumen Kontseilu bakar bat sortzeak, aholkularitza-organo moduan, hasieran behintzat, Ingurumen arloko organo aholku-emaleen egitura eta kudeaketa sinplifikatuko duela uste dugu.	Azalpenezko alegazioa	Azalpenezko alegazioa
	INDUSTRIA- INGENIARIEN ELKARGO OFIZIALA	Ingurumen Kontseiluan Ingurumenarekin lotutako interes profesionalen ordezkariak jaso behar dira, eta ordezkari horien artean, Euskadiko Industria Ingeniariaren Kontseiluko bat jaso behar da.	Ingeniariaren Elkargoa ez da elkargo profesional bakarra. Hortaz, lege-aurreproiektu honetan jasotako proiektuak informatzen edo egiten dituzten beste elkargo batzuetako profesionalak ere aipatu beharko lirateke. Bestetik, elkargotutako lanbideak ez dira proiektuak informatu edo egin ditzaketen bakarrik, aurreproiektu honek aipatzen dituen jarduera edo instalazio batzuei dagokienez.	Gaitzetsia
11. artikulua. Ingurumen Kontseiluko osaera	ENBA-EUSKAL NEKAZARIEN BATASUNA	Gure ustez, nahitaezkoa eta saihestezina da nekazaritza-erakundeek Kontseilu horretan ordezkaritza ziurtatua izatea.	Horien ordezkaritza 11. artikuluko g) letran dago erabat jasota.	Gaitzetsia
	EHNE-EUSKAL HERRIKO NEKAZARIEN	Nekazaritza Erakunde Profesionalak, NEPAk, jasotzea eskatzen dute.	Horien ordezkaritza 11. artikuluko g) letran dago erabat jasota.	Gaitzetsia

	ELKARTASUNA			
	BASQUEGUR	Ez da ez lehen sektoreko, ez nekazaritza eta abeltzaintzako, ez basoko erakunderik aurkitzen. Erakunde horiek beren ordezkartza ziurtatuta izan behar dute Kontseilu horretan.	Horien ordezkartza 11. artikuluko g) letran dago erabat jasota.	Gaitzetsia
12. artikulua. Ingurumen-informazioa	ACLIMA	Definizio hori definizioen gaineko 2. artikulura eramatea.	Titulua eta horren erregulazioa hobeto argitzeko, ingurumenaren gaineko informazioaren eskubidea aipatu 12. artikuluan zehaztu beharko litzateke.	Gaitzetsia
	BIZKAIKO FORU ALDUNDIA. INGURUMEN ZUZENDARITZA	12. artikulua. Ingurumen-informazioa. 1. Lege horren eraginetarako, ingurumen-informazioa honako hau da: idatziz, ikusteko moduan, soinuarekin, modu elektronikoa edo beste formaren batean agintaritza publikoak eta sektore publikoko gainerako erakundeek edo sektore publikoaren izenean beste subjektu batzuek beren boterean duten informazio oro, Europako Zuzendaruetan ingurumen-arloko informazioaren, parte-hartze publikoaren eta justizia eskuratzeko eskubideen gainean ezartzen den moduan, baita Euskal Autonomia Erkidegoan ezargarria den transposizio-araudian ere. Hedapen-modua: Agintaritza publikoa forma materialera (esaterako, ahozko informazioa) ez mugatzearen kontzeptua zuzendaruetan zein transposizio-araudian erabiltzen da, eta hasiera batean, administrazio publikoak baino erakunde gehiago jasotzen ditu kontzeptu horrek. Idazketa nahasgarria da eta argiagoa da ezarpen-araudian ezarritakoa erreferentzia moduan ezartzea.	Artikuluak informazioa aurkitu daitekeen forma ezagunak agortzen ditu (idatzizkoa, bisuala, etab.), eta amaierako klausula bat txertatzen du beste "forma material" baten gainean, zeina, gure ikuspuntutik, hala izan behar baita eta nahitaezkoa baita eskatzaileari horren berri emateko. "Ezartzen duten moduan" adierazpena onartzen da.	Partzialki balioetsi da

	CONFEBASK	<p>Badakigu enpresek, beste entitateek moduan, gardentasunaren gaineko legeria bete behar dutela. Hala ere, puntu horretan Ingurumen Administrazioari hainbat urtetan jakinarazi diogun kezka bat gogoratu nahi dugu: legez exijitzen den informazioa argitaratzea edo zabaltzea. Egoera horrek Euskadiko enpresen lehiakortasunari eragin diezaioke. Alde horretatik, berriz ere nabarmentzen dugu enpresen ingurumen-informazioa Lege horren arabera argitaratzen eta zabaltzen denean, beti ere datu horien gardentasun-, proportzionaltasun- eta konfidentzialtasun-printzipioa errespetatuz egin dadila. Era berean, Ingurumen Sailak Nekazaritza, Arrantza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioarekin duen lana jarrai dezala iradokitzen dugu, Espainiako lurralde osoan ingurumenaren publizitatearen gaineko prozedurak eta edukia homogeneizatzeko aldera.</p>	<p>Azalpenezko izaera duten kontsiderazioak dira, funtsean. Lege-aurreproiektuak, bere III. Tituluan, ingurumen-arloko informazioaren, parte-hartze publikoaren eta justizia eskuratzearen gainekoan, erregulazio kontinuitate egiten du, nazioarteko hitzarmenetan eta Europako Zuzentarauetan ezarritakoarekin bat egiten duena, eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezarpeneko gaia dena.</p>	Azalpenezko alegazioa.
13. artikulua.	ICAB	<p>Testuan "INGURUNET" izendapen zehatza jasotzea komeni da; izan ere, jakinarazpen guztiak Internetera transferitzeko joera dago, eta tresna zehatz hori ordeztu egin daiteke.</p>	<p>Lege-aurreproiektuaren erregulazioaren helburua da Ingurumen Sistemari egonkortasun-izaera ematea denboran zehar.</p>	Gaitzetsia
Ingurumen-informazioa zabaltzea	BIZKAIKO FORU ALDUNDIA. INGURUMEN ZUZENDARITZA	<p>Uren, airearen, Gaiaren, lurzoruen, faunaren, floraren, geodibertsitatearen eta biodibertsitatearen egoera eta kalitatea, ekosistemen zerbitzuak, paisaia, Natura 2000 Sarea eta Euskal Autonomia Erkidegoaren lurraldeko babes bereziko eremuak, elkarrekiko interakzioak barne.</p> <p>Ingurumenaren gaineko elementuak eta kontzeptuak osatzen dira.</p>	<p>Proposamenak jasotzea onargarria da, nekazaritzarako lurzorua artifizialtzeari dagokiona salbu, ez baita ingurumen-lege baten helburu argi eta garbia.</p> <p>Proposatutako alegazioa partzialki onartzen da.</p>	Partzialki balioetsi da

		<p>Agintaritza publikoek eta sektore publikoari dagozkion gainerako erakundeek beren eskutan duten edo horien izenean beste subjektu batzuen eskutan dauden ingurumen-informazioa eskuratzeko eskubidea zuzen gauzatzen dela bermatuko dute, eta informazio hori zabaltzea eta publikoaren eskura jartzea erraztuko dute modurik zabalenean, sistematikoenean eta teknologikoki aurreratuenean, sarbide-berdintasuna, eskuragarritasun unibertsala eta datu publikoen berrerabilpena bermatuz. Agintaritza publikoak ingurumen-informazioa zabaltzeko, ingurumen-arloko informazioa eskuratzeko eskubideen gaineko Zuzentarauan ezarritakoa, eta hori Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzeko transposizio-araudian ezarritakoa beteko dira.</p> <p>Garrantzitsua izango litzateke zehaztea ezarpen-araudian hedapen-gaien gainean ezarritako eskubideak eta obligazioak aipatu behar direla.</p> <p>Ez dirudi egokia denik ingurumen-informazioaren, parte-hartzearen eta justizia eskuratzearen gainean dagoeneko indarrean dagoen araudiko alderdiak bikoiztea. Araudi horren erreferentzia aipatzea nahikoa da, non eta ingurumena babesteko eta berme gehigarriak ezartzeko araudi gehigarriak ezarri nahi ez diren.</p> <p>Gardentasun-erregulazioarekin eta informazio publikoko sarbidearekin koordinatzeko premia.</p>	<p>Informazioa aktiboki zabaltzeko obligazioen gaineko oinarritzko araudia igortzeko eskaera jaso da, 27/2006 Legearekin bat.</p>	<p>Partzialki balioetsi da</p>
		<p>Helburu horrekin, besteak beste, sortu da INGURUNET, Euskadiko Ingurumen Informazioko Sistema, Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumen-organoaren menpekora dena, eta helburua izango duena</p>	<p>Alegazioa egokia dela iritzi da.</p>	<p>Balioetsia</p>

		<p>Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumenaren gainean ingurumen-informazioa sortzen duten era guztietako erakunde publikoek edo pribatuek sortutako informazio alfanumeriko edo grafiko guztia edo beste era bateko informazioa integratzea,</p> <p>kudeaketan, ikerketan, hedapen publikoan, ingurumen-hezkuntzan eta erabakiak hartzean erabilia izan dadin.</p> <p>Ingurumen-hezkuntzaren kontzeptua jasotzea, neurri handi batean ingurumen-informazioa zabaltzeaz eta hori ingurumen-sentsibilizazioan eta kontzientziazioan ezartzeaz arduratzen dena.</p>		
ENPRESEN FOROA	<p>Gune elektroniko bakarra edo partekatua behar da administrazio ezberdinen artean; izan ere, asko aurreratuko litzateke eta lana asko arindu.</p>	<p>Bat egiten dugu alegazioaren zentzuarekin; baina momentuz, ez da halakorik existitzen, eta litekeena da hori lortzen denbora ematea.</p>	<p>Azalpenezko alegazioa</p>	
	<p>Beste administrazioekin benetako lankidetzak-politikak izateko premia; izan ere, horren ondorioz, enpresek egun ahalegin gehigarria egin behar dute.</p>	<p>INGURUNET Sistemak Estatuan egun garatzen diren beste plataforma batzuk integratzen eta bateratzen diru, baita Eusko Jaurlaritzaren plataformak ere, jakina.</p>	<p>Azalpenezko alegazioa</p>	
	<p>Konfidentzial moduan uler daitekeen informazioaren gaineko berriazko irizpideak jaso behar dira.</p>	<p>Legezko testuan konfidentzialtasunaren gaineko berriazko irizpideak jasotzea baztertu da; izan ere, gai horren gaineko oinarriko araudia existitzen da. Hortaz, egokiagoa da berriazko araudian aipamenak jasotzea honelakoak moduko adierazpenekin "araudi ezargarriarekin bat", bikoiztasunak eta etorkizunean desadostasunak saihesteko.</p>	<p>Gaitzetsia</p>	
FORU ALDUNDIEN	<p>Dirudienez, ez da ondo zehaztu konfidentzialtasun-erregimena</p>	<p>Ez dugu alegazioarekin bat egiten. Ingurumen-informazioa</p>	<p>Gaitzetsia</p>	

FOROA	<p>ingurumen-arloko ekintza publikoaren inguruan.</p> <p>Ekintza publikoa aintzatesten bada, espediente osoa eskuratu behar da; izan ere, interesatuaren kontzeptua herritar guztiengana zabaltzen da.</p>	<p>eskuratzeko eskubidearen gaineko araudian berariaz ezarri dira mugak gai konfidentzialen gainean.</p> <p>Interesatuaren kontzeptua, modu hertsian, ez da herritar guztienganako hedagarria, alegazioak aipatzen duen moduan. Kontzeptu hori, administrazio-prozedurekin lotzen dena, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 4. artikuluan arautzen da eta uztailaren 18ko 27/2006 Legeak zabaltzen du zenbait eskakizun betetzen dituzten pertsona juridikoengana (2.b) art.).</p>	
HAZI	<p>Lurzorua artifizialtzearen gaineko adierazle bat jasotzea, baina beti ere nekazaritza-lurzorua okupatzeko baldintzen arabera, hori kalkulatzeko eta jarraitzeko jarraibideak ezarriz.</p>	<p>Alegazioaren zentzua Lege Aurreproiektuaren 13.1.a artikuluko lurzorua gaineko atalean jasotzen dela ulertzen da.</p> <p>Gainera, datu horiek EAEko nekazaritza eta basozaintzako Sektoreko Lurralde Plangintzan (SLP) (167/2014 D.) existitzen direla ulertzen da, non SLP horren kartografiaren eboluzioa berariaz jasotzen den.”</p>	Gaitzetsia
ACLIMA	<p>Ingurumen-informazioa eskuratzeko eskubidearen aurrean, Inguruneten informazioa irauli behar duten enpresek beren gainean informazioa norik eskatzen duen eta zer informazio ematen zaien ezagutzea eskatzen da.</p>	<p>Publizitate aktibo irekiaren (esaterako, Internet bidez) eta publikoarentzako xede den informazioari dagokionez, orokorrean, logikoa den moduan, informazio hori eskuratzeko ez da eskaerarik egin behar.</p> <p>Informazio-eskaerak datu edo informazio horien hirugarren titularrei aldez aurretik jakinarazi nahi izatea, horiek alegazioak aurkeztu ditzaten, ingurumen-informazioa eskuratzearen gaineko legerian aurreikusitako gabeko murrizketa bat suposatzen du, eta horrez gain, hainbat administrazio-izapide gehigarri txertatzen ditu,</p>	Gaitzetsia

			eta horiek gehitzeak ez du bat egiten Lege honen izaerarekin.	
	EHNE-EUSKAL HERRIKO NEKAZARIEN ELKARTASUNA	1) puntua, txertatu g) atala: Ingurumen-gaien gainean erabakiak hartzeko balio duten beste azterketa eta txosten batzuk.	Gaitzetsi egin da zehaztugabea delako eta amaierako erabakia sortzen duten ingurumen-organoei beren barne txostenak edo jakinarazpena hedatzeko obligazioa ezarri ahal zaielako, nahiz eta horiek publikoari zabaldu behar ez izan, dagokion prozeduran publiko interesdunak horiek eskuratzeari kalterik egin gabe.	Gaitzetsia
	INDUSTRIA- INGENIARIEN ELKARGO OFIZIALA	Entitate profesionalak, eta horien artean, Industria Ingeniariaren elkargoak, berariaz jaso eta kontuan hartu behar direla ulertzen da, eskuragarri dagoen ingurumen-informazioaren fluxua bermatzeko, eta Ingurumen Organoarekin izaten diren lankidetzaren politikan kontuan har daitezkeen.	Agindu horrek, nahiz eta berariaz ez aurreikusi elkargo profesionalak, ez ditu horiek baztertzen, eta lankidetzaren politikak zentzu zabalean hartzen ditu beste Administrazio publiko, unibertsitate, ikerketa-zentro eta erakunde sozial batzuekin batera, "besteak beste"; beraz, esan den moduan, ez ditu baztertzen. Ondorioz, ez da elkargo profesional zehatz bat aipatu behar.	Gaitzetsia
14. artikulua. Ingurumen- informazioa eskatzea.	BIZKAIKO FORU ALDUNDIA. INGURUMEN- ZUZENDARITZA	Agintaritzaren publikoek prozedura bat ezarriko dute gutxienez ingurumen-informazioaren eskaerei erantzuteko, eta hori behar beste argitaratuko da, herritar guztiek horren berri izan dezaten, eta ondorioz, modu egokian eta eraginkorrean gauzatu dadin. Agintari guztiek eskaera-prozedura bat izan behar dute, gutxienez, bai berariazkoa, bai beste informazio-eskaera batzuekin bat egiten duena, eskubidea eraginkorra izan dadin, eta herritarrentzako behar bezala gaitua eta eskuragarria izan dadin, batez ere IKTen bidez. Edozer pertsona fisikok edo juridikok, edozer nazionalitate, bizileku edo egoitza izan arren, Euskadiko edozer agintaritzaren publikori bere	Artikulu horren 1. atalak dagoeneko azaltzen du eskaerak ezarpen-araudiaren arabera bideratuko direla. Gainera, araudi horrek prozedura bat zirriborratzen du. Gure ustez, ez da beharrezkoa azaltzea administrazio publikoek gutxienez prozedura bat ezarri behar dutela ingurumen-informazioko eskaerei erantzuteko. Litekeena da agintaritzek ingurumen-informazioaren eskaerei erantzutea gardentasunaren eta gobernu onaren legeriarekin lotutako beste informazio-eskaeren prozedura batzuen bidez. Nolanahi ere, ondorengo garapenean kontuan hartzeko moduko	Gaitzetsia

		<p>eskuetan dagoen ingurumen-informazioa eskatu ahalko dio, interes zehatz bat aitortzeko obligaziorik gabe. Eskatzaileek, hala adierazten badute, agintaritza publikoaren laguntza izan beharko dute informazioaren bilaketan; eta ingurumen-informazio jakin eta zehatz bat zabaltzen denean edo publikoarentzako eskuragarri jartzen denean, informazio hori nola eskuratu adieraziko zaie.</p> <p>Garrantzitsua da zehaztea informazioa eskaera egin ondoren eskuratuko dela; izan ere, funtsezkoa da hala egitea, eta zuzenbidearen oinarria da, Zuzentzauek eta transposizio-araudiak ezartzen duten moduan.</p> <p>Informazioa ukatzeko arrazoiak soilik izango dira ingurumen-arloan informazioa eskuratzeko eskubideen gaineko Zuzentzauek eta Euskal Autonomia Erkidegoan zuzentzauek hori ezartzeko transposizio-araudian ezartzen diren arrazoiak, eta beti ere interpretazio murriztailea egin beharko zaie arrazoi horiei.</p> <p>Garrantzitsua da hitz horrekin zehaztea informazioa soilik ukatuko dela araudiaren arabera balioztatutako arrazoiengatik.</p>	<p>kontu bat izan daiteke, baina hori gero egin beharreko zerbait izango litzateke.</p>	
<p>15. artikulua. Ingurumen Parte-hartzea</p>	<p>BIZKAIKO FORU ALDUNDIA. INGURUMEN ZUZENDARITZA</p>	<p>Herritarren eta gizarteko beste eragile batzuen parte-hartzea sustatuko duten ekimenak sustatuko eta babestuko dira, ingurumeneko erantzunkidetasun-proiektuetan, boluntarioran, ingurumen-hezkuntzan eta lurralde-zaintzan, besteak beste.</p> <p>Atal berri hori planteatu da Legeari eduki proaktiboago bat emateko.</p>	<p>Bai 84. artikuluan (ingurumen-hezkuntza), bai 85. artikuluan (ingurumen-boluntarioran), bai 77. artikuluan (ingurumen-akordioak) ekimen horiek administrazio publikoek sustatzea eta babestea begiesten da.</p> <p>Atal horretan berariaz jasotzea ez litzateke beharrezkoa izango, errepikakorra dela ulertuko bailitzateke.</p>	<p>Gaitzetsia</p>

		<p>xx. artikulua. Ingurumen-hezkuntza.</p> <p>Kontuan izanik zer nolako garrantzia duen, garapen jasangarri baterako ingurumen-hezkuntzari eskainitako berezko artikulua bat izatea planteatzen da, indarreko 3/1998 legean jasotzen dena.</p>	84.2 artikuluan behar beste jasotzen da ingurumen-hezkuntza.	Gaitzetsia
16. artikulua. Ekintza Publikoa	IBERDROLA	<p>“Edonoren” aldeko gaikuntza, horrek Administrazioei ingurumen-legeria zaharberitzeko neurriak har ditzaten edo ingurumen-kalteen erantzukizuna eska diezaien edo balizko arau-hausteak salatzea eskatu ahal diezaien, araututa agertu beharko litzateke, eskaera horiek dagokion administrazio-espeditetan sar daitezen (...). Soilik horrela ezarriko litzateke kalte-ordainen erantzukizunaren eta zaharberitze-neurriaren edo konpentsazioa eskatzearen artean jarri beharreko proportzionaltasuna.</p>	<p>Alegatzaileak azaldutakoarekin bat egiten dugu. Alde horretatik, aipatu behar da salaketa horrekin soilik agintaritza eskudunari jakinarazten zaiola balizko arau-hauste bat edo ingurumen-kalte bat egin dela. Hortik aurrera, Administrazio eskudunak arau-hauste bat edo administrazio-prozedura bat irekitzea erabakiko du interesdunentzako berme guztiekin, alegazioan lehen aipatutako printzipioak errespetatuz, ezarri beharreko sektoreko legean aurreikusitakoarekin bat.</p>	Azalpenezko alegazioa
	BIZKAIKO FORU ALDUNDIA. INGURUMEN ZUZENDARITZA	<p>Edonork eskatu ahalko die Administrazio eskudunei ingurumen-legeria zaharberitzeko eta ingurumen-kalteen erantzukizuneko neurriak hartzea, baita Lege horretan ezarritakoaren arabera arau-hausteak izan daitezkeen jarduerak salatzea ere. Horretarako, Administrazio eskudunek argitaratutako kanal zehatzak ezarriko dituzte herritarrek eskaera horiek modu eraginkorrean egitea errazteko.</p> <p>Agintaritza guztiek eskaera-prozedura berariazko edo komun bat izatea, gutxienez, eta behar beste gaitua eta eskuragarria izatea herritarrentzat, eskubidea eraginkorra izan dadin.</p>	<p>Ñabardura hori lege mailan egitea ez da beharrezkotzat jotzen. Orokorrean, administrazio publikoek elkar-eragite kanalak gaitu behar dituzte herritarrekin</p> <p>Ondoko 17. artikulua, gainera, kanal horiek elektronikoak izan behar direla islatzen du jada arau honen esparruan.</p>	Gaitzetsia

LAUGARREN TITULUA. INGURUMENEA ERAGINA DUTEN JARDUEREN ANTOLAMENDUA				
I. KAPITULUA. XEDAPEN OROKORRAK				
ARTIKULUA	ALEGATZAILEA	ALEGAZIOAREN LABURPENA	INGURUMEN SAILBURUORDETZAREN AZTERKETA	AUKERA
18. artikulua.	PASAIKO UDALA	18. artikuluan sektoreko beste araudi baten erreferentzia gehitzea. 3.	Proposatutakoa eranstea egokia deritzogu, zehaztaperen eta argitasun gehiago izate aldera.	Balioetsia
Ingurumen esku-hartzearen erregimena	BILBOKO UDALA	<p>Esku-hartze erregimen berri bat berriaz jasotzea eskatzen du. Era berean, Valentziako Erkidegoko jardueren ingurumen-prebentzioari, -kalitateari eta -kontrolari buruzko uztailaren 25eko 6/2014 Legearen 13.1 d) artikulua jardueren kaltegabeen jakinarazpena "Ingurumen arloko administrazioaren esku-hartzearen tresnen" artean jasotzen du.</p> <p>e) I.E eranskineko instalazioak eta jarduerak jardueraren erantzukizunpeko adierazpenaren erregimen juridikoan sartzea.</p> <p>Bi alderdi berri sartzea eskatzen du, jarduerak egokitze aldera:</p> <p>g) Segurtasunerako arriskua.</p> <p>h) Jardueraren ondoriozko hots-kutsadura.</p>	<p>Bazterketaren bidez, sailkatzen ez diren jarduerak guztiak kaltegabeak dira. Katetoria hori sortzea ez dela beharrezkoa ulertzen da.</p> <p>Udalekin parte hartzeko foroetan ez zen adostasunik lortu katetoria horren premiaren gainean.</p> <p>Istripua izateko arriskuaren gaineko segurtasunerako arriskua e) atalean subsumituta dagoela uler daiteke.</p> <p>Hots-kutsadura potentziala jasotzearen inguruko alegazioa onartzen da, jarduerak egokitzean kontuan izan beharrezko alderdi baten moduan.</p>	Partzialki balioetsi da
	EHNE-EUSKAL HERRIKO NEKAZARIEN ELKARTASUNA	5) puntua. Ez dugu ikusten zein den horiek salbuetsita geratzearen logika. Esperimentatzeak ez du ingurumenari eragiteko arriskua murrizten; aitzitik, esperientzia-faltak arriskua handitu dezake. Zer ikerketa- eta esperientzio-mota ahalbidetuko da? Nahi ez diren	Salbuespen hori ohikoa da eta dimentsio txikiko eta aldi baterako izaerako planta pilotuen eta ingurumenerako arriskurik sortzen ez dutenen inguruko Europako eta Estatuko araudian aurreikusten da.	Gaitzetsia

		<p>jardueren arriskuak baztertea exijitzen dugu, esaterako, frackinga.</p>	<p>Helburua garapen teknologikoa eta berrikuntza da. Hala ere, inola ere ez dira ingurumeneko administrazio-kontrol batetik salbuetsita geratuko, artikulua berak hala aurreikusten baitu; galarazi ere egin ahalko litzateke.</p> <p>Frackinga, nolana ere, ez da teknika esperimental bat.</p>	
ENPRESEN FOROA		<p>Sinplifikazioa ahalbidetuko duten neurri gehiago hartzeko aukera:</p> <p>Zenbait epe murriztea (esaterako, 3 hilabete aurretiazko kontsultarako).</p>	<p>Berriazko araudira atxikitako izapideak modu lehenetsian, orokorrean, ezartzen dituzten epeak errespetatu dira (esaterako, 9 hilabete IBIrako), eta epeen koordinazio hobea ahalbidetu da hainbat prozedura aldi berean gertatzen direnean (esaterako, jardura legeztatzea eta 22. artikuluan aurreikusitako ingurumen-inpaktua ebaluatzea).</p>	Gaitzetsia
		<p>IBI/IBB hasieraren aurretiazko jakinarazpena aurkeztea soilik Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailburuordetzaren (EJIS) aurrean, eta ez Udalaren aurrean ere.</p>	<p>Aurretiazko jakinarazpena Udalen aurrean aurkezteko obligazioari dagokionez, aipatu behar da obligazio hori jaso dela Udalak berehalako konstantzia izan dezan bermatzeko; horrela, ez da EJISek Udalar jakinaraztearekin lotutako atzerapenik izango.</p>	Gaitzetsia
		<p>Sistema telematikoen bateragarritasuna zaintzea.</p>	<p>Sistema telematikoei dagokienez, aipatu behar da Gobernuak Tramitagunerekin lan egiten duela, eta ahal duen neurrian, Udalekin konexio telematikoa bermatzen saiatzen ari dela.</p>	Gaitzetsia
CONFEBASK		<p>1.- Ingurumen-baimenak: atal horren inguruan jaso diren berriek,</p>	<p>1.- Alegazioa, funtsean, azalpenezkoa da.</p>	Azalpenezko

		<p>hasiera batean, enpresei prozeduren kudeaketa eta ingurumen-izapidea hobetu diezaieketela iruditzen zaigu, "leihatila bakar bat" eratzea baitu helburu, hau da, sistema azkarrago eta sinplifikatuago bat. Hala ere, gure ustez, agian, Lege hori onartu ondoren, Ingurumen Sailak zenbait informazio-saio egin beharko lituzke eragindako enpresentzat, aldaketa handi horiek enpresen ingurumen-kudeaketan sortuko duten zalantzak argitze aldera. IBB izeneko baimen berri bat sortzeaz, IBlak eta IBBak isurtzeko eskumena Ingurumen Sailburuordetzak berariaz hartzeaz eta sailkatutako jardueraren jarduera-lizentziarako eta aurretiazko jakinarazpenerako berariazko udal-eskumenaz ari gara, hain zuzen ere.</p> <p>2.- Era berean, arlo horretan epeetan sortzen ari diren atzerapenak ikusirik, konturatu gara lan-dinamika berri hori martxan jartzearen ondorioz egun existitzen dena baino atzerapen handiagoa sor daitekeela, eta horrek kezka sortzen digu. Alde horretatik, Administrazioari iradokitzen diogu baimen horiek emateaz arduratuko den Ingurumen Saileko Arloa langile espezializatuekin indartu dezala.</p>	<p>Adierazi behar da EAEko ingurumen-organismoak beharrezko mekanismoak jarriko dituela (prestakuntza-jardunaldiak, gida teknikoak, etab.), indarrean sartuko diren izapide berrien ondorioz eragina izan duten eragileei sortu ahal zaizkien zalantzak argitze aldera.</p> <p>2.- Araua bultzatu duen zuzendaritzak badaki arau hori indarrean jartzeak lan-karga handiagoa sortuko duela EAEko ingurumen-organismoan, baita beste administrazio publiko batzuetan ere, esaterako, foru-aldundietan. Langile espezializatuen nahitazko errefortzua ahalbidetzeko, aurreproiektuarekin batera jarri den justifikazio-memoria eta memoria ekonomikoan giza-baliabideen premien eta horrek sortuko lituzkeen kostuen azterketa xehea egin da. Azterketa hori EAEko Administrazio Orokorreko egin da soilik; hala ere, gainerako administrazio publikoek, funtzio eta eskumen berriak hartzeko baliabide gehiago beharko dutenez, antzeko azterketa egin beharko dute.</p> <p>Era berean, ingurumen-arloan langile espezializatuen urritasunaren arazoa konpontze aldera, Lege Aurreproiektuaren Xedapen Gehigarriak honako hau ezarriko du literalki:</p>	<p>alegazioa</p>
--	--	---	---	------------------

		<p>3.- Azkenik, hori martxan jartze aldera, prozedura ezartzea iradokitzen dugu, Ingurumen Sailburuordetza eta udalak elkarren artean harremanetan eta ondo koordinatuta izan daitezen, hainbat baimenen eragina izan duten enpresek beren kudeaketak zuzen, epean eta modu azkarrean egin ahal izan ditzaten.</p>	<p>“Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoek, beren eskumenen arabera, behar besteko giza baliabideak eta baliabide materialak izango dituzte, Lege honetan ezarritako helburuak betetzen direla bermatzeko”.</p> <p>3.- Legeak berak, beharrezkoa den ingurumen esku-hartze erregimen bakoitzerako eta izaera orokorrekin, hainbat prozedura hornitzen ditu administrazioen arteko jakinarazpenaren eta lankidetzaren alde.</p> <p>Era berean, INGURUNETen bidez, jakinarazpenerako kanal elektronikoak gaituko dira, administrazioen arteko jakinarazpenak azkarragoak izan daitezen.</p>	
JAIZKIBEL GEONATURE	<p>Administrazio-ebazpen bakarraren izenean oztopo juridikoak eta administraziozkoak erraztearen eta kentzearen aurka gaudela alegatzen dugu, baita ingurumeneko baimen integratuaren eta ingurumen baimen bakarraren aurka ere.</p>	<p>Prozedurak integratzeko eta izapideak kentzeko, balioespen bat egin behar da lehenik, jarduera horrekin ingurumena zaintzeko helburu nagusiari kalterik ez zaiola egingo bermatze aldera. Alegatzaileak aipatzen dituen oztopo juridikoen eta administrazioen aniztasuna izateak ez du zertan ingurumen-babes handiagoa eman. Aitzitik, administrazio azkarra eta prozedura argiak eta izapide bateratuak izanez gero, administrazio publikoek, orokorrean, jarduerak eta instalazioak hobeto kontrolatuko dituzte.</p>	Gaitzetsia	

<p>19. artikulua. Baimenduta ko jarduerak hasteko epeak</p>	<p>BILBOKO UDALA</p>	<p>Artikuluak artikulua berri bat idaztea proposatzen du, jarduera amaitzeko eta instalazioa ixteko 28. artikulua txertatuz.</p>	<p>Ez dugu bat egiten esaten denean sailkatutako jardueren erregimenak banakako artikuluen xede izateko besteko garrantzia duela. Gure ustez, administrazioak esku hartzeko gainerako erregimenekin bat egiten du hainbat alderdi komunetan, aurreproiektuan planteatutako sistematika jarraituz xedapen orokorren gaineko kapituluan arautu behar direnak, bere berariazko kapituluan (IV eta V) berari dagozkion alderdiak balioesteari kalterik egin gabe.</p> <p>Iraungitze-epea urtebetera aldatzea balioetsi da.</p>	<p>Partzialki balioetsi da</p>
<p>20. artikulua. Xedeak.</p>	<p>BILBOKO UDALA</p>	<p>Atal bat txertatzea eskatzen du xede berriekin: Tokiko eskumeneko esku-hartze baliabideek zeharkako izaera dutela kontuan harturik:</p> <p>a) Esku-hartze baliabideek ingurumenean, segurtasunean eta pertsonen osasunean sor ditzaketen eragin kaltegarriak prebenitzea, eta hori ezin denean, horiek murriztea eta kontrolatzea, eta atmosferaren, uraren eta lurzorua kutsadura saihestea, ingurumena, orokorrean, eta pertsonen osasuna ahalik eta ondoen babesteko.</p>	<p>Proposatutako alegazioa jasotzea ez da beharrezkoa. Izan ere, pertsonak babestea arauaren xedeetako bat da, eta aurreproiektuaren 20. artikuluko a) atalean jasotzen da. Era berean, "segurtasuna babestea" xede zabalago baten barruan jasotzen da, alegia, "osasuna babestea".</p>	<p>Gaitzetsia</p>
<p>21. artikulua. Aurretzako kontsultak</p>	<p>ACLIMA</p>	<p>21. artikuluan araututako aurretzako kontsulten erantzuna loteslea izan beharko litzateke aurretzako memorian ezarritakoari dagokionez.</p>	<p>Eskaera horren helburua da sustatzaileek aurretzako informazio bat izatea (jeneralista eta gutxi gorabeherakoa) prozeduraren baldintza administratiboan eta teknikoan gainean, eta legearen aurreproiektuan aurreikusi ez diren posizionamendu lotesleak ez aurreratzea administrazio-tituluen eskuratzeko esparruan.</p>	<p>Gaitzetsia</p>

<p>BILBOKO UDALA</p>	<p>Amaieran paragrafo bat eranstea eskatzen du, administrazio publikoek behar bezala informa dezaten:</p> <p>“Ingurumeneko esku-hartzeko erregimenen gaineko prozedurak hasi aurretik, jarduera sustatzen duen pertsona fisikoak edo juridikoak prozedura horren baldintza administratiboen eta teknikoaren gaineko informazioa eskatu ahalko dio organo eskudunari. Kontsulta horrek deskripzio-memoria laburtua erantsi beharko du, non garatu beharreko jardueraren oinarritzko ezaugarriak xehatuko diren, baita kokapenaren eta tokiaren plano bat ere, 1: 2000 eskalan.”</p>	<p>Aurkeztu beharreko dokumentazioa eranstea egokia deritzogu, honako kontsulta hau eskatzeko: “jarduera hori garatuko den kokapenaren euskarri grafikoa”.</p>	<p>Partzialki balioetsi da</p>
<p>EKONOMIAREN GARAPEN ETA AZPIEGITURA SAILA</p>	<p>Alegatzailearen ustez, aurretiazko kontsultak egiteko prozedura zehatzik ez da definitu, ezta informazioa eskatzeari erantzuteko organo eskuduna ere, eta hainbat proposamen egiten ditu:</p> <p><u>Honako hau esaten duenean:</u> “<i>organo eskudunari eskatu ahalko dio bideratu dezan</i>”</p> <p><u>Honako hau esan dezala:</u> “jardueraren xederako egingo den proiektuaren eta jarduera horren gainean eskumenak dituen organo erabakitzaileari eskatu ahalko dio”</p> <p><u>Honako hau esaten duenean:</u> “<i>Organo-eskudunak informazio-eskaerari erantzun beharko dio</i>”</p> <p><u>Honako hau esan dezala:</u> “Proiektuaren xedarako egingo den proiektuaren jardueraren gainean eskumenak dituen organo erabakitzaileak informazio-eskaerari erantzun beharko dio”</p> <p><u>Honako hau esaten duenean:</u> “<i>horretarako, hainbat kontsulta egin</i>”</p>	<p>Aurreko alegazioan adierazi den moduan, artikuluko horren helburua da sustatzaileek aurretiazko informazioa izatea (jeneralista eta gutxi gorabeherakoa) prozeduraren baldintza administratiboen eta teknikoaren gainean, eta legearen aurreproiektuan aurreikusi ez diren posizionamendu lotesleak ez aurreratzea administrazio-tituluak eskuratzeko esparruan.</p> <p>Alde horretatik, adierazi behar da, gure ustez, arauan deskribatutako prozedura behar beste definituta dagoela (sustatzaileak eskaera egitea informazio zehatz bat erantsiz eta ondoren, dagokion administrazio publikoaren erantzuna izatea). Batez ere, kontuan izanik zer nolako irismena duen administrazioari kontsulta xehe bat egiteak. Nolanahi ere, berariaz positibatu ez denerako, urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritakoa bete beharko da.</p> <p>Kontsultak egin behar zaizkion organoa, alegatutako artikulukoaren</p>	<p>Gaitzetsia</p>

		<p><i>ahalko ditu</i></p> <p><u>Honako hau esan dezala:</u> "horretarako, kontsulta ez lotesleak egin ahalko ditu"</p> <p><u>Honako hau esaten duenean:</u> "ziurrenik eragina izan duten pertsonak, erakundeak eta Administrazio publikoak"</p> <p><u>Honako hau esan dezala:</u> "organo erabakitzailearen ustez, ziurrenik, eragina izan duten pertsonak, erakundeak eta Administrazio publikoak,"</p>	<p>lehenengo paragrafoak adierazten duen moduan, ingurumen esku-hartzearen hainbat erregimenen inguruko prozedura bideratzeko organo eskuduna izango da. Horrela, aurretiazko kontsultak EAeko ingurumen-organoaren aurrean egin beharko dira, IBBra eta IBBra atxikitako jardueren kasuan, eta dagokion udalaren aurrean, LACera edo CPACera atxikitako jardueren kasuan.</p> <p>Organo erabakitzaileari eskatutako erreferentzia okerra izan daiteke. Izan ere, ingurumen-arloan, ingurumen-ebaluazioaren araudiari lotutako kontzeptu bat da hori, erregimen propioa du, eta litekeena da aipatu aurretiazko kontsulta egin behar zaion organoa ez izatea.</p>	
22. artikulua. Ingurumen esku-hartzeko erregimena eta ingurumen-inpaktuko ebaluazioa aldi berean egitea	BIZKAIKO FORU ALDUNDIA. INGURUMEN ZUZENDARITZA	Honako hau adierazi da: "Ingurumen-inpaktuko aitortpena loteslea izango da tokiko agintaritzarentzat" arauaren 2.e artikulua ingurumen-inpaktuko aitortpena txosten lotesle moduan definitzen baitu dagoeneko. Aipatu esaldia kentzea iradokitzen du, errepikakorra delako.	Argigarriagoa da ingurumen-inpaktuko aitortpenak izaera loteslea duela jasotzea ere aurreproiektuaren 22. artikuluan.	Gaitzetsia
		Arruntetan soilik ez, sinplifikatuetan ere ematea eskatzen da.	Proposamena onartu eta 22. artikuluko testuan jaso da.	Balioetsia

<p>EKONOMIAREN GARAPEN ETA AZPIEGITURA SAILA</p>	<p>Proposatzen da jasotzea zer gertatzen den jarduera bat ingurumen-inpaktuko ebaluazio SINPLIFIKATUAren prozeduraren eta Lege honetan aurreikusitako beste ingurumeneko esku-hartze erregimen batzuen parte denean aldi berean.</p> <p><u>Justifikazioa:</u> Alderdi hori arautzen ez bada, artikuluko hori osatu gabe geratuko da.</p>	<p>Planteatutako alegazioa balioetsi egin da, eta legearen testua honela geratuko litzateke:</p> <p>“Jarduera bat ingurumen-inpaktuko ebaluazio arruntaren edo sinplifikatuaren eta Lege honetan aurreikusitako beste ingurumen esku-hartze erregimen batzuen parte denean aldi berean, jarduera hori honako arau hauen arabera bideratu beharko da”.</p>	<p>Balioetsia</p>
<p>BILBOKO UDALA</p>	<p>Loteslearen izaera kentzea eskatzen du IIAren edo IITaren tokiko agintaritzaren kasuan.</p> <p>Abenduaren 9ko 21/2013 Legeak, ingurumenaren ebaluazioari buruzkoak, oinarritzko izaera du, eta ezartzen du ingurumenaren gaineko erabakiek izaera erabakigarria dutela, "loteslea" hitzaren oso antzekoa dena. Hala ere, legeak berak arautzen dituen eraginen aldean ezberdina da; izan ere, legearen arabera, eta erabakitzeke ikuspuntutik: “organo erabakitzailerik bat ingurumen-erabakien baldintzek mugatzen dute, eta bere eskumenen arloan alde batera egin ahal izateko, arrazioak eman eta dagokion desadostasuna azaldu beharko du Ministroen Kontseiluaren edo dagokion autonomia erkidegoaren Gobernu Kontseiluaren, edo hala badagokio, autonomia erkidego horrek ezarri duen kontseiluaren aurrean.”</p> <p>Legezko eragin hori, oinarritzko izaera duena, ezin daiteke aldatu “babes maila handitu” kontzeptuaren bidez; izan ere, desadostasuna azaltzearen irismena eta aukera ezin daitezke aldatu oinarritzko arauan</p>	<p>Alegazioa ez balioestea iritzi da. Izan ere, izaera loteslea ingurumena babesteko elementu gehigarri bat eta Legearen alderdi berri bat da.</p>	<p>Gaitzetsia</p>

		erregulatzeko direlako.		
	TRANTSIZIO EKOLOGIKORAKO MINISTERIOA	Bere iritzian, 22.a) letra ingurumen-inpaktuaren ebaluazio sinplifikatuari nahiz ohikoari aplikatu behar zaie.	Abenduaren 3ko bertsioan, honela idatzi genuen: 22. artikulua. Ingurumenean esku hartzeko erregimenean eta ingurumen-inpaktuaren ebaluazioaren aldiberekotasuna. Jarduera bat ingurumen-inpaktuaren ebaluazio sinplifikatu edo ohikoaren eta ingurumenean esku hartzeko erregimenean eraginpean badago aldi berean, arau hauekin bat etorritu izapidetu beharko da:	Balioetsia
		Bere iritzian, 22.c) apartatua ez dator bat abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 9.2 artikularekin; izan ere, erantzukizunpeko adierazpenei edo aldez aurreko jakinarazpenei dagokienez, ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa amaitu eta BOEn edo dagokion aldizkari ofizialean argitaratu behar da, eta, ondoren, organo substantiboaren ebazpenaren bidez onetsi behar da txostena. Ohar hori ere 56.3 artikuluari lotuta egiten da. Jarduera sailkatuaren aurretiko jakinarazpena aurkeztea.	Desberdinak dira 21/2013 Legearen 9.2 artikularen idazkera berria eta Ministerioak bere alegazioan jasotzen duena; hau dio azken horrek: 2. Jarduera bat hasteko edo gauzatzeko erantzukizunpeko adierazpen bat edo aldez aurreko jakinarazpen bat egin behar bada, eta, lege honek xedatutakoari jarraituz, ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa ezinbestekoa izanez gero, erantzukizunpeko adierazpena edo aldez aurreko jakinarazpena organo substantiboaren aurrean aurkeztu aurretik, BOEn edo ingurumen-inpaktuaren adierazpenari edo ingurumen-inpaktuaren txostenari dagokion aldizkari ofizialean argitaratu behar da.	Partzialki balioetsi da

			<p>Ondoren, ebazpen bidez onetsiko du organo substantiboak erantzukizunpeko adierazpena edo aldez aurreko jakinarazpena.</p> <p>Proiektu bati buruzko erantzukizunpeko adierazpena edo aldez aurreko jakinarazpena ez da baliozkoa izango, ez eta eraginkorra ere, ingurumen-ebaluazioa egiteko betebeharrak bazegoen eta halakorik ez bazitzaion egin; horrez gain, dagozkion zehapenak jaso ahal izango ditu.</p> <p>Ondorioz, 22.c) artikulua aldatzeko proposamena egin da, «eman» hitzaren ordez «argitaratu» jartzeko, etab. (ikus lege-proiektuaren testua).</p>	
<p>23. artikulua. Administrazio publikoen obligazioak</p>	<p>ACLIMA</p>	<p>f) ataleko honako esaldi honen ordez "... ingurumen-arloko obligazioak betetzeko baliabide moduan", honako hau jartzea proposatzen da: "... erakundeak ingurumen-arloko obligazioak betetzeaz harago joateko baliabide moduan". Hori hala proposatzen da, bai EMAS, bai ekoetiketa ekologikoa araudiko baldintzak betetzeko diseinatu ez direlako, baizik eta hertsiki nahitaezkoa denaz harago joateko. Ziurrenez, antzeko zerbait esan daiteke eko-berrikuntzaren gainean.</p>	<p>Ingurumen-legeria betetzea eragile oren obligazioa da, eta ingurumen-kudeaketako sistemak etengabe hobetzeko eta araua hertsiki betetzeaz harago joateko konpromiso bat eman nahi dute.</p> <p>Hala ere, EMAS sistemak, hain zuzen ere, enpresek araudien inguruan dituzten obligazioak betetzea bermatzen du, eta gainera, beren ingurumen-portaera etengabe hobetzea sustatzen du.</p> <p>Beraz, aurkeztutako alegazioaren zentzuaren alderdi bat jasoko duen testua egin behar da.</p>	<p>Partzialki balioetsi da</p>

	BIZKAIKO FORU ALDUNDIA. INGURUMEN ZUZENDARITZA	<p>Ingurumeneko esku-hartzeko erregimen juridikoak kudeatzea, Administrazio publikoen elkarrekiko informazioaren, kooperazioaren eta lankidetzaren eta herritarrenganako zerbitzuaren printzipioarekin bat.</p> <p>Gizarteen eta enpresen artean ingurumen-fiskalitatearen onurak sustatzea.</p> <p>Ekintza publiko horrek bat egiten du arau honetan jasotako helburuekin eta edukiekin.</p>	<p>“Herritarrak” terminoaren inguruko alegazioaren lehenengo zatia balioetsi da.</p> <p>Gainerako alegazioari dagokionez, ulertzen da ingurumenean esku hartzeko prozeduretan jarduten duten administrazio publikoen jardueraren gainekoa dela artikulua hori, eta ez dugu ulertzen zergatik jasotzen den sistematikoki kokapen egoki bat.</p>	Partzialki balioetsi da
24. artikulua. Sustatzaileen obligazioak	ACLIMA	<p>Jakinarazpen bat edo erantzukizunpeko adierazpen bat eginez edo baimen bat emanez gero, jarduera bat egin ahal da, baina horrek ez du justifikatzen esku hartzeko eredu BIKOITZA inposatzea</p> <p>IBI + jakinarazpena</p> <p>IBB + jakinarazpena</p> <p>Jarduera-lizentzia + jakinarazpena</p> <p>Erantzukizunpeko jakinarazpena edo adierazpena + jakinarazpena</p> <p>Gure ustez, esku-hartze bikoitz hori legearen zioen azalpenean jasotako sinplifikazio- eta bizkortze-printzipioen aurka doa.</p>	<p>Zerbitzuei buruzko Zuzentarauak legeriaren erreforma bat landu zuen Espainiako transposizioan, eta horren ondorioz, aurretiazko baimeneko erregimena zuten jarduera edo instalazio askok aurretiazko jakinarazpena edo erantzukizunpeko adierazpena bete behar izan zuten.</p> <p>Lehen, ingurumen-baimenez gain, aurretiazko baimen gehigarri bat eskuratu behar zen (irekitze udal-lizentzia), lehenik lizentziaren teknikaren bidez dagoeneko baimendutako jarduera modu eraginkorrean hasten edo martxan jartzen lagunduko zuena; horrela, aurretiazko baimenaren ustezko izapide bikoitza izaten zen.</p> <p>Legearen aurreproiektuan, eskema hau ezarri da: ahal den neurrian, aurretiazko baimenen ordez erantzukizunpeko adierazpenak jarriko dira, eta zenbait jardueratan baimenak ezinbestekoak direnean, jarduera horiek (IBI, IBB edo LAC) ez</p>	Gaitzetsia

			<p>dute ondorengo udal-baimenik edo organo baimentzailearen baimenik beharko; izan ere, baimen horren ordez aurretiazko jakinarazpen bat egin beharko da soilik, non xehatuko den baimendutako proiektuak edo jarduerak dagokion baimenean jasotako betebeharrak betetzen dituztela.</p> <p>Azaldutakoaren ondorioz, ez dagokio alegatzea Europako legerian ezarritakoaren aldean ezberdina den esku-hartze eredu bikoitza ematen denik.</p>	
PASAIAKO UDALA	<p>Zehaztugabetasunak saiheste aldera, “nabarmen” terminoa kendu beharko litzateke, eta ondorioz, artikulua honela idatziko litzateke:</p> <p>c) Administrazio publiko eskudunen organoei jakinaraztea ingurumenari eta pertsonen osasunari eragin diezaieketen jarduera batek funtzionamendu normala edo anormala izatearen ondorioz izandako edozer gertaera.</p>	<p>Modu nabarmenean eragiten ez badu, ulertzen da eragina minimoa edo kaltegabea dela, eta ondorioz, ezin daiteke justifikatu Administrazio baimentzailea gertaera garrantzi-gabeen gaineko jakinarazpenekin gogaitu daitekeenik.</p>	Gaitzetsia	
BILBOKO UDALA	<p>Bere ustez, logikoagoa da titular berriari obligatzea transmisioaren gainean informatu dezan, hura errazago lokalizatu eta errekeritu baitezakegu. Ez du zentzu praktikorik dagoeneko jardueraren titularrak ez denari exijitzea.</p> <p>g) atalean honako hau ezabatu behar da: instalazioa kokatzen den udalari jakinarazteko atxikipena duten IBlak, IBBlak eta sektorekoak funtzionamendu-hasierako edo irekitzeko aurretiazko jakinarazpena aurkezteko premia.</p> <p>Jakinarazpenaren Administrazio hartzaileak izango du hori</p>	<p>Gaitzetsi egin da. Izan ere, titular transmititzaileak izan behar du transmisio horren berri emateko obligazioa, titulu gaitzailea eman zitzaion sustatzailea denez gero.</p> <p>Gaitzetsi egin da, udalek beren udal-barrutian zer geratzen den jakin behar dutelako.</p>	Gaitzetsia	

		egiaztatzeko eskumena. Jarduera IBira edo IBBra atxikita badago, soilik ingurumen-organoaren aurrean aurkeztuko da, hori baita araudiaren bidez jakinarazitakoaren onespena egiaztatzen duen Administrazioa. 40.4 artikuluan dagoeneko arautu da ingurumen-organoak EHAAn argitaratzeko duen obligazioa. Argitalpen ofizialak, udalak eskuratu dezakeen datu-base batekin batera, baliabide nahikoak dira udalak datu horiek ezagutu ditzan.		
	ICAB	Ez dirudi zentzua duenik tratamendu ezberdina ematea aurretiazko jakinarazpena atxikitako jarduerari eta jarduera-lizentzia izatera atxikitako jarduerari; izan ere, lehenengoari ingurumen-organo autonomikora eta udalera joatea exijitzen zaio, eta bigarrenari soilik udalera. Gainera, baldintza hori exijitzea erredundantea da aurretiazko jakinarazpenaren kasuan.	Lege-aurreproiektuko 24 g) artikulua aipatzen du IBI eta IBB martxan jarri ondoren aurretiazko jakinarazpena egin behar zaiola bai EAeko ingurumen-organoari, bai Udalari (ondoren 47. artikuluan arautu dena). Aldiz, 24 h) artikulua aipatzen du funtzionamendu-hasierako jakinarazpen hori udalaren aurrean aurkeztu behar dela soilik, kasu horretan baimena emateko eskumen erabakitzailea baitu (ondorengo 53. artikuluan arautua). Jarduera-hasierako edo irekierako jakinarazpenaren izapide hori, irekitze-lizentzien ordezkua dena, eta sailkatutako jardueraren aurretiazko jakinarazpenaren izapidea (55. artikuluan arautu dena) bereizi egin behar dira, azken horrek ondoren ez bailuke beste jarduera-hasiera edo irekitze-jakinarazpenik beharko.	Gaitzetsia
25. artikulua. Gaitasun teknikoa eta	ACLIMA	Atal hori kentzea proposatzen da. Izan ere, kualifikazio profesionala gero eta konplexuagoa da, goi mailako ikasketa amaigabe gero eta anitzagoak daude, eta ondorioz, gure ustez, gero eta zailagoa izango da definizioa egitea segurtasun juridiko minimoarekin, batez ere goi	Kualifikazio profesionalen aniztasunaren ondoriozko konplexutasunaren gaineko hausnarketarekin bat egiten dugu. Baina ez deritzogu egokia denik ezabatzea dokumentazio teknikoa sinatuko dutenak profesional gaituak izateko premiaren gaineko	Partzialki balioetsi da

erantzukizuna		<p>mailako ikasketak hain anitzak ez zirenean ez zelako lortu segurtasun juridikorik ematea “jarduera-lizentzien eremuko gaitasun tekniko nahikoari”; ondorioz, gure ustez, egun, ezinezkoa izango da. Beraz, atal hori kentzea proposatzen dugu, hautazkotasunak edo arbitrariotasunak saihesteko, edo, kasurik onenean, atal hori ezartzeko ezintasuna saihesteko, bere benetako edukiaren zehaztasuna nahikoa ez delako.</p> <p>Agian beste balioespen-irizpide batzuek hausnartu beharko litzateke.</p>	<p>legezko erreferentzia. Exijentzia hori ezberdina izango da dagokion esku-hartzearen edo txostenaren, proiektu-motaren edo jardueraren arabera, eta kasu bakoitzean eskatzen den kualifikazio teknikoaren nahikotasuna balioetsi beharko da.</p> <p>Egokia deritzogu goi mailako hezkuntzaren erreferentzia kentzea.</p>	
	PASAIAKO UDALA	<p>Teknikariek izan behar dituzten gaitasunak zerrendatzea eskatzen da, dagokion jarduera-motaren arabera.</p> <p>Hainbat neurri jaso behar dira, esaterako, betoa autoreei, teknikariak izan dezakeen titulazioa izan arren, behin eta berriz dokumentazio okerra, kontraesankorra edo behar besteko kalitatea ez duena aurkezten duten kasuetarako.</p>	<p>Proposamena oso interesgarria dela uste da. Hala ere, ingurumeneko lege-aurreproiektu orokorraren helburuen artean ez dator gaitasuneko titulazioak xehetasunez finkatzea, araudiak exijitzen dituen proiektuak eta dokumentazio tekniko ugariak aurkezteko.</p> <p>Ezin izango dira autorea edo autoreak betatu; aditz horren irismena zehaztugabea da, eta administrazio-gaitasungabetzearen antzeko zerbait dirudi. Dokumentazio teknikoak nahikoa kalitatez ez duenean, eskaera gaitzetsiko da, sustatzaileari zuzentzeko eskatuko zaio edo zehapen-espeditente bat hasiko da zehaztugabetasunagatik, faltasunagatik edo funtsezko datuak jaso ez izanagatik, eta gai horren berri elkargo profesionalari emango zaio, hala badagokio; baina ezingo da autorea betatu.</p>	Gaitzetsia
	HERNANIKO UDALA	<p>Zehaztasuna falta da, eta horren ondorioz, udal-administrazioak ez du jarduteko jarraibide argirik. Gaitasun teknikoaren tarteak ezarri behar dira, gutxienez eranskin batean, jardueraren konplexutasunaren</p>	<p>Lehen emandako erantzunen haritik, adierazi nahi dugu lege maila duen arau batean eranskin bat txertatzea, gaitutako lanbideak</p>	Gaitzetsia

		<p>arabera. Horrela, Administrazioako erakunde guztiok irizpide bakar bat jarraitu ahalko dugu.</p>	<p>zehazteko, ez dela bidezkoa.</p> <p>Helburua laudagarria da, bala hala balegokio, hobe litzateke ahalegin arautzaile bat egitea arauzko maila duen arau baten bidez; izan ere, kontuan izanik zer nolako kasuak izaten diren eta prestakuntzaren eremuak zer nolako abiadurarekin eboluzionatzen duen, arauzko mailakoa eguneratzea errazagoa izango litzateke.</p>	
INDUSTRIA- INGENIARIEN ELKARGO OFIZIALA	<p>Alegatzailearen ustez, aurreproiektuaren 25. eta 63. artikuluetan berariazko erreferentzia bat jaso behar da gaikuntza profesionalaren gainean, tituludun lanbideak gauzatzeko baldintzak betetzen direla aipatzeko, Tituludun Lanbideei eta Profesionalen Elkargo eta Kontseiluei buruzko 18/1997 Legearen II. Kapituluan ezartzen denaren arabera, zeinak, titulazioaz gain, honako hauek ere barne hartzen baititu:</p> <p>Era berean, aipatzen du gaitasun teknikoa eta gaikuntza profesionala modu egokian egiaztatzeko, dagokion titulua onartu eta ikasi zuen zentroa ezagutu behar dela, teknikariaren gaitasuna ezagutze eta ebaluatze aldera.</p> <p>Hori hala da unibertsitateko titulu ofizial guztietan, araututako lanbideen titulazioen kasuan izan ezik, non Gobernuak ezartzen duen alde aurretik zer baldintzara egokitu behar diren dagozkion ikasketaplanak, zeinak zenbait gaikuntza komun jasotzea bermatzen baitute, ikasketa horiek ematen dituen zentroa alde batera utzita.</p> <p>Lanbide arautuen kasuan, hala ere, gaikuntza-baldintzak betetzen direla egiaztatze aldera, dagokion elkargoaren identifikazioa eskatu</p>	<p>Gaitzetsi egiten da, kualifikazio profesionalaren exijentziaren ingurukoak izan diren aurrekoen ildo berean.</p> <p>Lege honi atxikitako hainbat prozeduratan informatu edo proiektuak egin ditzaketen teknikari edo tituludun guztiek ez dute berariazko gaikuntza profesional aintzatetsirik behar edo ez dira elkargo profesional jakin batekoak izan behar.</p> <p>Era berean, titulua gainditu eta ikasi zen zentroa ezaguna izatea ez da informazio hori jasotzen duten administrazio publikoentzako informazio garrantzitsua.</p> <p>Erantzukizun zibil profesionala ziurtatzeko berariazko erreferentzia jasotzearen gaineko planteamenduari dagokionez, adierazi behar da ez deritzogula egokia denik hori berariaz jasotzea ingurumen-izaerako arau batean; izan ere, dagoeneko existitzen da beste sektoreko araudi bat, non hori positibaturik dagoen.</p>	Gaitzetsia	

		<p>beharko da. Hori beharrezkoa izango da Elkargoko Leihatila Bakarrean artikulatutako mekanismoak erabili ahal izateko; izan ere, leihatila horiei esker, gaikuntza profesionala egiaztatu daiteke.</p> <p>Era berean, alegatzen da erantzukizunaren erregulazioak berariazko tratamendua eskatzen duela aurreko bi puntuen aldean banatutako 3. puntu batean, eta gai horretan izaera propioa eta berariazkoa duela; gainera, jaso beharko du Tituludun Lanbideei eta Profesionalen Elkargo eta Kontseiluei buruzko 18/1997 Legearen 12. artikuluan agintzen den ziurtasuna nahitaez bete behar dela.</p>		
	JAIZKIBEL GEONATURE	<p>Esan nahi dugu proiektuak eta dokumentazio teknikoak egiteko eta aurkezteko behar diren ezagutzak modu anbiguoan eta ez zorrotzean errazten eta gutxiesten direla, eta kalitate tekniko nahikoko moduan definitzen dutela, nahiz eta horrek bertan jasotzen den informazioaren kalitatean eta fidagarritasunaren eragina izan dezakeen.</p>	<p>Ez dugu alegazioarekin bat egiten. Alegatzaileak ez du nahikoa justifikazio azaltzen aztertu ahal izateko zer zentzutan eta zer araudiren inguruan errazten eta gutxiesten diren proiektuak, dokumentazio teknikoak egiteko eta behar diren ezagutzak aurkezteko.</p> <p>Alderantziz, adierazi behar da lege-aurreikuspen berriak, aipatu dokumentuen autoreak eta sustatzaileak dokumentu horien edukiaren eta informazioaren fidagarritasunaren erantzule solidarioak izatearen gainekoak, administrazio publikoen aurrean aurkeztuko den dokumentazioaren kalitate eta fidagarritasuna handituko dituela, nahitaez.</p>	Gaitzetsia
	ICAB	<p>Eskatzen da sustatzailea izan behar dela ematen den informazioaren edukiaren eta fidagarritasunaren gainean erantzun behar duen bakarra, eta dokumentu teknikoaren autorea erantzukizun-eremu horretatik kanpo geratuko da, autore horien eta Administrazioaren</p>	<p>Testu hori mantentzea aukeratzen da. Izan ere, horri esker, autoreen erantzukizun-eremua zabaldu daiteke, eta era berean, autoreak sustatuko ditu aurkeztu behar diren proiektuen eta dokumentu teknikoaren kalitatea egokia izan dadin, dokumentuak</p>	Partzialki balioetsi da

		<p>artean inolako harreman juridikorik ez baitago.</p> <p>Goi mailako hezkuntzaren gaineko 25.1 artikularen azkeneko paragrafoa kentzea.</p> <p>25. artikularen ordezeko testu bat eskatzen dute:</p> <p>Hasierako eskaeren eta lege honetan aurreikusitako prozeduren eta jardueren barruan eskatzen den dokumentazioko parte diren proiektuak eta dokumentazio teknikoak, ingurumen-ebaluzioaren gaineko araudian aurreikusitako ingurumen azterketak eta dokumentuak barne, gaitasun tekniko nahikoa dutenek egin behar dute, kualifikazio profesionalen eta goi mailako hezkuntzaren gaineko arauen arabera.</p>	<p>zuzentzeko eskaerak gurutzatzean sortzen diren joan-etorriak saihestuz, azken horiek espedientearen sustatzaileari kaltetu baino besterik ez baitiote egiten, ebazpen-epeak luzatu egiten direla ikusten baitu.</p> <p>Goi mailako hezkuntzaren gaineko alegazioa onartu da.</p>	
--	--	---	---	--

	<p>BILBOKO UDALA</p>	<p>Honako termino hau kentzea: eta goi mailako hezkuntzarena.</p> <p>Unibertsitateko titulu esan nahi bada, hala adierazi behar da. Ez dugu terminorik sartuko, horiekin zer esan nahi den jakin gabe.</p> <p>Jurisprudentziaren irizpidea jarraitu behar dugu, zeinaren arabera, teknikariaren eskumena zehaztu behar baita bere gaitasun profesionalen atribuzioak arautzen duen araudiaren arabera. Eta horrela jasotzen da irizpide hori Extremadurako Autonomia Erkidegoko ingurumen prebentzioari eta kalitateari buruzko ekainaren 23ko 5/2010 Legearen 26. artikuluan, "Gaitasun tekniko" izenekoan, non honako hau adierazten den: "Lege honetan araututako esku-hartze tresnak bideratzeko eskaeren parte diren azterketak eta proiektu teknikoak gaitasun tekniko nahikoa duten pertsonak egin beharko dute, titulazio ezberdinen atribuzio profesionalak arautzeari buruzko arauen arabera."</p> <p>Ondorioz, legea ez da titulazioen gaitetan sartu behar, eremu konplexua eta argitzen zaila baita.</p>	<p>Alegazioa egokia dela deritzogu.</p>	<p>Balioetsia</p>
	<p>TRANSIZIO EKOLOGIKORAKO MINISTERIOA</p>	<p>Azaldu du abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 16. artikuluan («Ingurumen-alorreko azterketa eta agirien egilearen gaitasun tekniko eta erantzukizuna») ez dela aipatzen sustatzaileak ingurumen-agirien egiletzaren erantzule (solidario) bihurtzearen hipotesia.</p>	<p>21/2013 Legearen 16. artikulua, hain zuzen, oinarrizkoa da, eta aurreproiektu honen 25. artikuluan jasotzen den xedapenak ez du aurkakoa esaten. EAeko ingurumena babesteko elementu gehigarri gisa eratzten da; izan ere, egileei aukera emango die erantzukizunaren eremua handitzeko, eta, halaber, aurkeztu behar diren agiri teknikoak eta proiektuen kalitatea egokia izatea bultzatuko du; horrela, agiriak zuzentzeko eskaerak batetik bestera</p>	<p>Gaitzetsia</p>

			igortzea ekidingo da.	
26. artikulua. Konfidentzia Itasuna	ICAB	<p>Legeak aurreikusten du sustatzaileek zenbait dokumenturen konfidentzaltasuna eska dezaketela eta Gobernuak horren gaineko erabakia hartu behar duela. Prozedura hori behar bezala bideratu behar da eta konfidentzialak ez diren dokumentuak luze eta zabal hedatuko direla aurreikusten da. Hori ikusirik, esan daiteke sustatzaileak konfidentzaltasun-kalifikazio horretara masiboki joango direla, eta ondorioz, agintaritzak eskudunak milaka dokumenturen konfidentzaltasunaren gaineko balioespenak eta adierazpenak egin beharko dituela nahitaez.</p> <p>Egoera hori saihesteko, izaera pribatuko dokumentazioa argitaratzearen aldeko neurrigabeko apustua gutxitu egin beharko litzateke, IPPCren araudian dagoeneko aurreikusten diren "publikoarentzako informazioa" izeneko dokumentuak erabiliz eta zabalduz, edo bestela, artikulua horretan, ebazpen-epe bat eta administrazio-isiltasun positiboko sistema bat arbitratu beharko litzateke.</p>	<p>Artikuluaren araututako prozedura IPPC eta EIA araudian arautzen den prozedura bera da, eta ez da hauteman arazo hori masiboki gertatzen denik. Sustatzaileen beren kalterako izango litzateke konfidentziala ez den dokumentazioa konfidentzial moduan jasotzea; izan ere, dokumentazio hori aztertzearen eta administrazioak jarrera hartzearen ondorioz, administrazioaren baimentzeko prozedurak atzeratuko lirateke.</p> <p>Administrazioaren erabakia gaia zer den kontuan izanik, hau da, konfidentzaltasuna onartzea edo ez, isiltasun positiborik ez dagokiola iritzi da.</p>	Gaitzetsia
	JAIZKIBEL GEONATURE	<p>Puntu horren aurka alegatzen dugu interes komuna eta informazioa izateko eskubidea eta interes publikoa gailendu egin behar direla eta horiek erabaki administratiboak gidatu behar dituztela prozesu guztietan.</p>	<p>Legez mugatutako hainbat salbuespen existitzen dira (jabetza intelektuala edo industrial, etab.) ingurumen-prozeduretan agintaritzak publikoek eskura dituzten izaera konfidentzialeko informazioa eskuratzearen eta zabaltzearen gainean. Beraz, ingurumen-informazioa, praktikan, muga gutxierekin eskuratu behar den eta eskuratzen den, zenbait daturen</p>	Gaitzetsia

			konfidentialtasunaren gaineko informazioa legez aurreikus daiteke.	
27. artikulua. Jardueren edo instalazioen transmisioa	BERMEOKO UDALA	Aipatzen da dagokion administrazioari jardueren edo instalazioen transmisioaren (titular-aldaketaren) edo horren aldaketaren berri eman behar zaiola, erabakitzailea izan edo ez (erreforma) ingurumenean dituen ondorioei dagokienez, eta hori zuzena da. Baina sustatzaileak komunikatzeko oblidazioa duela alde batera utzita, aldez aurretik erabat argi geratu beharko litzateke zer kasutan eskatu behar den ingurumen-baimena edo jarduera-lizentzia.	Alegatzen dena aurrerago jaso da, legearen aurreproiektuaren artikuluetan. Izan ere, esku hartzeko tresna bakoitza arautu da eta Eranskinak tresna horietako bakoitzera atxikitako proiektuekin, instalazioekin edo jarduerekin xehatu dira.	Gaitzetsia
	BILBOKO UDALA	Sailkatutako jardueren lizentzien, sailkatutako jardueraren jakinarazpenen eta Erantzukizunpeko Adierazpenen gaineko sailkatutako jarduerentzako berariazko artikulua bat jasotzea eskatzen du, kontuan izanik haiek transmititu egin daitezkeela.	Ez deritzogu egokia denik berariazko artikulua bat ezartzea sailkatutako jardueren erregimenerako; izan ere, gainerako esku-hartze tresnen erregimen orokorra ezartzen da. Ez deritzogu egokia denik alegatutako proposamena eranstea; izan ere, argi dago titulu gaitzaileak transmitigarriak direla.	Gaitzetsia
	ARABAKO FORU ALDUNDIA. INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA	Hirugarren atal bat txertatu behar da transmisio-jarduerak erregularizateko jarraitu beharreko prozedura azaltzeko. Esperientziaren arabera, bere garaian baimendutako instalazioen transmisioak sortzen dira, baina horiek ez dute bat egiten transmisioaren uneko errealitatearekin. Alde horretatik, ingurumen-organoa jardulearen egiaztapen-bisita bat egitea proposatzen da, existitzen den azkeneko espedientea oinarri harturik, eta txosten loteslearekin amaitu dezan, erregularizatzeko eman beharreko urratsak adieraziz, hala badagokio.	Egiaztapen-bisita hori ez da beharrezkotzat jotzen, jardueren uesteko trasnmisio-kasuetarako nahitaezko mugari moduan. Lan hori egitea Administrazio eskudunari dagokio, hala badagokio, eta behar izanez gero, baldintzak ofizioz aldatuko ditu, instalazioaren transmisioa egin behar izan edo ez. Nahitaezko izapide hori transmisio guztietako bakoitzean jaso gero, administrazio-oztopo berri bat jarriko litzateke, eta ondorioz, Lege Aurreproiektuaren izaera sinplifikatzailearen aurkako jarrera hartuko litzateke. Ikuskatzeko ahalmena gauzatu ahalko da Administrazio Publikoak	Gaitzetsia

			egokia deritzon.	
28. artikulua. Jarduera amaitzea eta instalazioa ixtea	D. JMTC	<p>Artikulu horrek jakinarazpen bat aipatzen du zenbait neurri “egoki” zehaztugabe hartzeko, eta neurri horiek sortzeko denbora-tarte horretan, ingurumena kutsatzeko arriskuak ez du inolako kontrolik izango. Beraz, erreferentzia moduan hartzen bada industriako isurpenei buruzko 2010/75 Zuzentarauaren 11.h) artikuluan ezarritakoa (kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuak), honako idazketa hau proposatzen dut:</p> <p><i>28. artikulua. Jarduera amaitzea eta instalazioa ixtea</i></p> <p>Jardueren ustiapena aldi batean edo behin betiko gelditzea eta behin betiko ixtea berehala jakinarazi beharko zaio Administrazio eskudunari, hartutako edo hartzea aurreikusten diren neurriak xehatuz, neurri horien denborazko sekuentzia zehaztuz, edozer kutsadura-arrisku saihestea aldera, lurzoruen sektoreko legeriak inposatutako obligazioei kalterik egin gabe. Aipatutako neurriek kostu ekonomiko bat suposatzen duten kasuan, kostu hori zehaztuko da eta dagokion fidantza edo berme finantzarioa eratuko da kostu horiei aurre egiteko.</p>	<p>Aipatu neurriak dagokion titulu baimentzailean jasoko dira eta proiektuak dagoeneko aurreikusten du fidantza inposatzeko aukera (nahikoak izan beharko lirakeenak behin-behinekotasun horiek estaltzeko); hala ere, araudiaren testuko idazketa aldatzea egokia deritzogu, alegazioaren zentzuaren zati bat jasotze aldera.</p> <p>28. artikuluko alegaziotik ateratako testu hau jasoko da:</p> <p>“hartutako edo hartzea aurreikusten diren neurriak xehatuz, neurri horien denborazko sekuentzia zehaztuz, edozer kutsadura-arrisku saihesteko”</p>	Partzialki balioetsi da
	EHNE-EUSKAL HERRIKO NEKAZARIEN ELKARTASUNA	2. puntua: bajen kasuan administrazioa behar bezala koordinatzea eskatzen dugu, izapidea errazte aldera.	Administrazio arteko lankidetzeta eta koordinazioa lege-aurreproiektuaren oinarriko printzipioetako bat da; ez da beharrezkoa horren erreferentzia egitea beharrezkoa den kasu partikular bakoitzean.	Gaitzetsia
29. artikulua.	ACLIMA	1. atalaren egungo testua zehazgabea da, eta horren ondorioz, edozer aldaketa, nahiz eta txikia izan, organo eskudunari jakinarazi beharko	Ingurumenean ondorioak izan ditzaketen aldaketak komunikatu behar dira soilik, eta ez instalazioaren edozer aldaketa. Hori	Partzialki balioetsi da

<p>Jardueren eta instalazioen aldaketa</p>		<p>zaio; izan ere, oso zaila izango da frogatzea ez duela ondoriorik ingurumenerako, batez ere ondorio horiek sailkatu gabe agertzen direnean (adibidez, ondorio esanguratsuak).</p> <p>1. atalean, honako kontzeptu honen orde: "ingurumenean ondorioak izan ditzakeen, jardueraren edo instalazioaren ezaugarriari, produkzio-prozesuei, funtzionamenduari edo hedapenari eragingo dioten edozer aldaketa ...", honako kontzeptu hau jartzea proposatzen da: "jardueraren edo instalazioaren edozer funtzezko aldaketa".</p> <p>Aldaketa erabakigarriaren definizio bat jasotzea proposatzen da definizioen 2. artikuluan. Ingurumen-baimen bakarrera, jardueralizentziara eta aurretiazko jakinarazpenera atxikitako jardueren kasuan, aldaketa erabakigarri bat definitzea proposatzen da, esaterako, erregimen baimentzailearen aldaketa bat suposatzen duena (aurretiazko jakinarazpenaren orde jardueralizentziara aldatzea, jardueralizentziaren orde ingurumen-baimen bakarrera aldatzea, edo azkeneko horren orde ingurumen-baimen integratura aldatzea, edo alderantziz). Ingurumen-baimen integratura atxikitako edo ingurumen-inpaktuko azterketara atxikitako jardueren kasuan, funtsezko aldaketa bat definitzea proposatzen da, esaterako, azaleraren edo produkzio-gaitasunaren, edo kontsumo esanguratsuen ororen, edo enpresak ingurumenera egindako isurpen esanguratsuen % 50 gehitzea edo gutxitzea suposatzen duena.</p> <p>Definizioen artean, enpresako materien, uraren eta energiaren kontsumo esanguratsuen gaineko bat eta isurpen esanguratsuen gaineko beste bat txertatzea planteatzen da. Isurpen esanguratsuak</p>	<p>nahitaezkoa da administrazio publikoak une oro jakin dezan zein diren baimendutako instalazioaren benetako ezaugarri teknikoak.</p> <p>Nolanahi ere, alegazioa onartzen da, eta horrela, honako hau jasoko da: aldaketa bat funtsezkoa dela uler dadin, aldaketa horrek eragin handiagoa eta esanguratsua sortu beharko du ingurumenean, etab.</p> <p>Esanguratsua terminoa 4. atalean jasoko da.</p> <p>Irizpideak eranskin batean jasoko dira, irizpideen aldaketa malguagoa izan dadin.</p> <p>Ez dira onartu ordezkotestuen gainerako alegazioak edo proposamenak.</p>	
--	--	--	---	--

		<p>PRTRaren gaineko araudiaren jakinarazpen-atalaseekin lotuta izatea proposatzen da.</p> <p>29.4. b) artikulua.</p> <p>Produkzio-gaitasunaz zer ulertzen den definitzea edo zehaztea proposatzen da, interpretazio okerrak edo kontraesankorrak saihesteko, kontuan izanik diseinuaren edo teoriaren produkzio-gaitasunaren arabera arautu behar dela.</p>		
	BILBOKO UDALA	<p>Alegatzaileak ulertzen du artikulua hori ez dela sailkatutako jarduerentzako ezargarria. Aipatzen du 19. eta 28 artikulua (hasteko epeak eta eteteko epeak, hurrenez hurren) sailkatutako jardueren titulu gaitzaileak iraungitzearen gaineko erregimen juridiko beraren alderdi bi direla, eta aldi berean tratatzen dituela 19. artikuluko aurreko proposamenaren.</p> <p>Era berean, ordezkotza bat planteatzen du, sailkatutako jarduerentzako berariazko jardura aldatzea.</p> <p>Aldaketa bat futsuzko moduan ulertzeko kontuan hartu beharreko irizpideei dagokienez, esan behar da parametro horiek (29.4 artikuluan islatzen direnak) ez direla baliozkoak sailkatutako jardueren arloan. Makineria edo azalera handitzeaz hitz egin behar da orokorrean.</p>	<p>Sailkatutako jarduerentzako erregimen propio bat ez dela behar uste da.</p> <p>Ez da beharrezkotzat jotzen administrazio-titulu berri bat izan behar denik futsuzko aldaketaren inguruan.</p> <p>Futsuzko aldaketaren irizpideak orientagarriak dira udalentsat, aurreproiektuaren 48.3 artikuluan ezartzen denaren arabera, eta irizpide horiek aldatzean malguagoak izan daitezken, eranskin batean jasoko dira, eta horiek aldatzeko araudizko maila beharko da soilik.</p>	Gaitzetsia
	ASTIGARRAGAKO UDALA	<p>Isurpenen fokuak 29. kapituluako futsuzko aldaketa moduan jasotzea. Ondorioz, l) puntua erantsiko da 29. artikuluan, honako testu honekin:</p> <p>29. artikulua. Jardueren edo instalazioen aldaketa.</p>	<p>Aipatu artikulua d) atalak dagoeneko futsuzkotzat jotzen du isurpen atmosferikoak % 25 baino gehiago handitu izana.</p> <p>Administratiboki baimena behar duen foku berri bat izateak ez du adierazten, berez, ingurumenean eragin handiagoa eta</p>	Gaitzetsia

	<p>4.- Funtsezko aldaketa bat egin behar dela ulertuko da:</p> <p>(...)</p> <p>l) Isurpen-foku berriak instalatzen direnean edo dagoeneko existitzen diren instalazioak handitzen direnean, beti ere isurtzeko gaitasun handiagoa duten unitateak direnean.</p>	<p>esanguratsua goa existitzen denik. Foku berri hutsal bat izan daiteke, baina esanguratsua diren eta kanalizatu ez diren foku berriak existitu daitezke.</p>	
D. JMTC	<p>4.d eta 4.h puntuetan (kutsatzaile atmosferikoak eta hondakin arriskutsuen sorkuntza handitzea), pisuaren sorkuntza-kopuruak aipatu dira, kontuan izan gabe horien sailkapenarekin lotutako arriskuak zer nolakoak diren; izan ere, kontuan izan da arriskugarritasunaren barruan arrisku handiagoko kategoriak bereizi daitezkeela, 1357/2014 Erregelamenduak ezartzen duen moduan. Ordezko testu bat idaztea proposatzen da, alderdi horiek xehetasun handiagoarekin jasotzeko.</p>	<p>Gaitzetsi egin da, ez delako beharrezkoa ikusten. Izan ere, lege-aurreproiektuaren 29. artikulua, funtsezko aldaketen gainekoa, nahiko xehatuta dago, non hondakin arriskutsuen eta ez arriskutsuen sorkuntzaren hazkundearen gainean atal bana jaso den, eta ondorioz, aurreproiektuaren testuan ez dago premiarik zenbait hondakin xehatzeko, dagokien arriskutasun-ezaugarriekin batera.</p> <p>Arriskutasunari buruzko aldagarria dagoeneko jaso da 4.g atalean, eta horren haztapena egin behar da; baina hori ez da aldaketa baten funtsezkotasuna edo funtsezkotasunik eza ezartzen duen aldagarri bakarra.</p>	Gaitzetsia
PASAIKO UDALA	<p>29.4 artikulua kontuan hartu beharreko irizpideak ezartzen ditu, jarduera baten aldaketa funtsezkoa ote den zehazteko. Aipatu irizpideen artean isurpen atmosferikoen, isurketen, kontsumoen eta abarren gehikuntza jasotzen dira. Hala ere, ez da kontuan hartu hots-isurpenen gehikuntza, nahiz eta herritarrentzako eragozpen-iturri nagusia izan, eta ondorioz, kexa eta salaketa gehien sortzen dituen ingurumen-alderdia izan, alde handiz. Horregatik, 29.4 artikuluan (1.</p>	<p>Gaitzetsi egin da ez delako beharrezkoa. Izan ere, aurreproiektuaren 29.1 artikulua nahikoa ulerkorra da maila orotan, eta 29.4. artikuluko irizpideak ez dira kopuru mugatu bat edo aldaketa bat funtsezko moduan ulertu ahal izango litzatekeen kasu bakarrik.</p> <p>Isurpen akustikoen gehikuntza sortzen bada, jardueraren aldaketa edo zabalkuntza baten ondorioz izango da, eta gehikuntza horren</p>	Gaitzetsia

		<p>atalean) atal gehigarri bat jasotzea eskatzen da:</p> <p>1) <i>Hots-isurpenen foku berriak jasotzen direnean edo existitzen diren instalazioak handitzen direnean hots-isurpenen gaitasun handiagoko unitateak txertatuz.</i></p>	<p>ondorio guztiak aztertu beharko dira, zehazteko aldaketa hori funtsezkoa ote den edo ez, eta 29.1 artikuluan bertan subsumitu ahalko da, edo 29.4 a) artikuluan, aurreproiektuan aurreikusitako baldintzen arabera.</p>	
HERNANIKO UDALA	<p>Irizpide horien artean, hala ere, udal honek faltan botatzen du hots-isurpenak kontuan hartu ez izana, nahiz eta jakin zaraten kontuak gatazkak sortzen dituela sarritan. Hori hala izanik, funtsezko aldaketa izan dela onartzea proposatzen da, isurpen-foku berriak metatzen direnean edo existitzen diren instalazioak isurpen-gaitasun handiagoko unitateekin handitzen direnean.</p>	<p>Gaitzetsi egin da lehenago azaldutako argudioengatik. Aurreproiektuaren 29.1 artikulua nahikoa ulerkorra da oro har, eta 29.4 puntuan jasotzen direnak ez dira funtsezko aldaketa egin behar den kasu bakarrak. Gainera, eskatzen den eranskina subsumituta dago jada aipatu 29.4 artikuluko a), e) eta f) ataletan, non aldaketa funtsezkotzat jotzen den zenbait kasu aipatzen diren.</p>	Gaitzetsia	
BERMEOKO UDALA	<p>Aipatzen da dagokion administrazioari jardueren edo instalazioen transmisioaren (titular-aldaketaren) edo horren aldaketaren berri eman behar zaiola, erabakitzailea izan edo ez (erreforma) ingurumenean dituen ondorioei dagokienez, eta hori zuzena da. Baina sustatzaileak komunikatzeko obligazioa duela alde batera utzita, nire ustez, alde aurretik erabat argi geratu beharko litzateke zer kasutan eskatu behar den ingurumen-baimena edo jarduera-lizentzia.</p>	<p>Dagokion baimena, lizentzia edo jakinarazpena behar den kasuak Lege Aurreproiektuko dagozkion eranskinetan aurreikusten dira, arauan arautzen diren esku-hartze titulu ezberdinen ataletan.</p> <p>Era berean, jarduera bat IBiren edo IBBren menpe dagoen kasuetan, ez da sailkatutako jardueraren lizentzia eskuratu beharko, eta alderantziz.</p>	Gaitzetsia	
INDUSTRIA-INGENIARIEN ELKARGO OFIZIALA	<p>29. artikulua literalki transkribatzen ditu 815/2013 EDaren 14.1 artikuluan jasotako instalazioak aldatzeko kasuak. Hala ere, alde batera utzi da funtsezkoak ez diren etengabeko aldaketen eraginaren gaineko iritzi orokorra, artikuluko horren 3. puntuan jasotzen dena, baita funtsezko aldaketa baten eraginaren ebaluazio orokor baten gainekoa ere, baimen berri bat lortu aurreko aldaketa ez funtsezkoekin batera.</p>	<p>Ez dirudi beharrezkoa denik hori txertatzea. Titularrak instalazioan egiten dituen aldaketak titularrak berak jakinarazi behar ditu, funtsezkoak izan edo ez. Horrela, Administrazioak instalazioaren ezaugarrien berri izango du gaurkotasunarekin, jakiteko emandako baimena, kasu bakoitzean exijitutako Isurpen Balio Mugak (IBM) eta TEOak egokiak diren, ofizioz dagokion aldaketa egiteko duen</p>	Gaitzetsia	

		<p>Aurkeztutako informazioak aipatu etengabeko aldaketa-egoerak modu egokian jaso ditzan eta dokumentazioa zuzentzeko premiarik gabeko eskaerak saihesteko, Kontseilu honen ustez, 29. artikuluko testuan etengabeko aldaketen tratamendurako adierazpen egokiak txertatu beharko lirateke, aipatu 815/2013 EDren 14. artikuluko 3 eta 4 puntuetan jasotako en zentzu berean.</p>	<p>aukerari kalterik egin gabe. Beraz, funtsezkoak ez diren etengabeko aldaketek ofizizko aldaketa sor dezakete duten eragin metagarriagatik, berariazko aurreikuspenik egin behar izan gabe.</p>	
--	--	---	---	--

LAUGARREN TITULUA. INGURUMENEA ERAGINA DUTEN JARDUEREN ANTOLAMENDUA

II. KAPITULUA. INGURUMEN-BAIMENAK

III. KAPITULUA. INGURUMEN-BAIMEN INTEGRATUAREN ETA INGURUMEN-BAIMEN BAKARRAREN GAINEKO XEDAPEN KOMUNAK

ARTIKULUA A	ALEGATZAILEA	ALEGAZIOAREN LABURPENA	INGURUMEN SAILBURUORDETZAREN AZTERKETA	AUKERA
30. artikulua. Ingurumen Baimen Integratua	MICHELIN	<p>Kontsumoen murrizketa dakarren ingurumen-hobekuntza bat nola bideratzen den adierazi beharko litzateke, instalazio batek IBla izan ordez IB bakarra izan dezan. Funtsezko aldaketa izango litzateke?</p> <p>Guk laster urtean 200T baino disolbatzaile gutxiago kontsumituko dugu murrizketa-ekintzei esker; hortaz, ez ginatke IPCC izango eta egoera hori aplikatuko genuke.</p>	<p>Jakina, instalazio bat I. Eranskineko atalasetik kanpo badago IPPC jardueratzat hartzeko, ez da IBra atxikita izango, eta IBBra edo jarduera-lizentziara eta dagokion erregimen juridikora atxikitako instalazioen barruan jasoko da.</p> <p>Alegazioaren izaera jaso eta erreferentzia bat jasoko da ingurumen-inpaktuak jaisteagatik jarduerak sailkapenetik kanpo geratzen diren kasuetarako.</p> <p>Aurreikuspen bat jaso da 18.5 artikuluan.</p>	Partzialki balioetsi da
32. artikulua. Udalaren hirigintza-bateragarritasunaren txostena.	INDUSTRIA-INGENIARIEN ELKARGO OFIZIALA	<p>Udalaren hirigintza-bateragarritasunaren txostenari dagokionez, txosten hori 32-1 artikuluan arautuz gero, partikularrak izango luke, eta ez Ingurumen Organoak, dagokion Udalari txostena eskatzeko erantzukizuna. Hala ere, 38. artikulua espeditentean txertatu beharreko gainerako txostenak arautzen ditu, eta artikulua horretan ezartzen da Ingurumen Organoak txosten horiek eskatzeko eta bideratzeko obligazioa duela.</p> <p>Xedapen horrek ez dirudi koherentea denik baimen integratu baten</p>	<p>Hirigintza-bateragarritasunaren txostena sustatzaileak IBren eskaerarekin batera aurkeztu behar duen aurreiazko baldintza bat da, IPPC oinarriko legeriak ere exijitzen duen moduan. Udalerriak hilabeteko epean eman behar du hori. Hala ere, epe barruan emanez gero, sustatzaileak eskaera hori aurkeztu ahal du, azalduz udalak bere ekarpena egiteko zain dagoela, eta prozedurarekin jarraituko dela.</p> <p>Sustatzaileak informazio hori izatea bere mesederako da, eta</p>	Gaitzetsia

		<p>izaerarekin, zeina organo eskudunak bideratuko baitu erabat, espedientean txertatu behar diren txostenak barne.</p> <p>Aurreproiektuaren 32.1 artikulua zuzentzea proposatzen da, ingurumen-organismoak dagokion Udalaren hirigintza-bateragarritasunaren txostena eska dezan.</p>	<p>erabakigarria da oinarritzko erabakiak hartzeko, inbertsioak egiteko eta jarduera ezartzeko.</p>	
<p>EKONOMIAREN GARAPEN ETA AZPIEGITURA SAILA</p>	<p>Alegatzaileak 32. artikuluko zenbait ñabardura eranstea proposatzen du.</p> <p>Honako hau esatea proposatzen da: <i>“Interesatuak eskaera egin ondoren, instalazioa kokatzen den tokiko Udalak ingurumen-agintaritzaren menpe dagoen proiektuaren, jardueraren edo instalazioaren hirigintzako bateragarritasun edo bateraezintasun txostena eman beharko du 30 eguneko epean. Txosten hori EAEko hirigintza-araudiarekin bat arazoituko da (LAG eta LPS). Hala egiten ez bada, txosten hori horren eskaeraren kopia batekin emango da.</i></p> <p>Artikuluko 2. atalak honako hau adieraz dezala proposatzen da:</p> <p><i>“Artikulu honetan araututako hirigintza-txostena bateraezintasuneko izango balitz, baimen hori emateko ingurumen-organoko eskudunak arazoitutako ebazpena emango du, prozedura amaituko du eta jarduerak artxibatuko ditu”.</i></p> <p><u>Justifikazioa:</u> Lege honen Zioen Azalpenak honako hau ezartzen du:”</p> <p><u>Arauk azkeneko arau-garapenak txertatzen ditu eta administrazioak esku hartzeko teknika berriak azaltzen, administrazio-prozedura sinplifikatze eta azkartze aldera”.</u></p>	<p>Gure ikuspuntutik, eskatutako gehikuntzek ez dute aipatu artikulua gehiago argitzen. Hirigintza-bateragarritasunaren txostena aipatzen denean, ulertzen da aipatu txostenak instalazioaren bateragarritasuna zein bateraezintasuna zehaztu dezakeela. Era berean, gure ustez, ez da beharrezkoa adieraztea hirigintza-txostena bat koherentea izan behar denik EAEko hirigintza-araudiarekin, udaleko aipatu hirigintza-araudia koherentea izan behar baita EAEko udalaz gaindiko araudiarekin eta plangintzarekin.</p> <p>Egindako proposamena ez da onartuko, 32. artikuluko 2. atala IPPC jarduerak arautzen dituen abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretu korrelatiboaren modu berebean idatzita baitago, alegia:</p> <p>“15. artikulua. Udalaren hirigintza-txostena.</p> <p>2. Nolanahi ere, artikuluko horretan araututako hirigintza-txostena negatiboa izango balitz, eman den unea alde batera utzita, baina beti ere autonomia erkidegoan ingurumen baimen integratua eman</p>	<p>Gaitzetsia</p>	

		<p>Ondorioz, administrazio-isiltasuna positiboa dela ulertu behar da; izan ere, egungo artikularen 2. atala honela dago idatzita orain: “eman den unea alde batera utzita”, epe zehaztugabea irekitzen da Udalak aipatu txostena eman dezan. Epe hori aurretiazko ingurumen-ebaluazioaren adierazpenarena edo txostenarena baino handiagoa ere izan daiteke (ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa, Estatuko Administrazio Orokorraren eskumena den kasuan), eta hori arau horren izaeraren beraren aurkakoa da erabat.</p>	<p>aurretik jaso bada, organo eskudunak aipatu baimena eman ahal izateko, arrazoitutako ebazpena emango du, prozedura amaituz eta jarduerak artxibatuz.”</p> <p>Ingurumen-legeriak aipatzen du gerta daitekeela udal batek hirigintza-bateragarritasun txostena eman ez izana eta EAEko ingurumen-organok bere jarduerekin jarraitu eta IBIa edo IBBa eman izana. Kasu horietan, arauak berak adierazten duenaren arabera, jaduera horiei esker, ingurumena eta pertsonen osasuna babesteko helburu hutsarekin, jarduerak edo instalazioak ustiatu daitezke. Ez dute sektoreko beste erabakirik ordeztzen, eta ondorioz, elkarrekin ematen dira beste era bateko baimenei edo erabakiei kalterik egin gabe, esaterako, dagozkion udalek eman behar dituzten hirigintza-erlorkoei.</p> <p>Gainera, adierazi behar da udalak IBIa eta IBBn definitutako prozeduren barruan, nahitaez bete behar diren beste izapide batzuk dituela, organo baimentzaileari helarazi dakizkiokeenak, egokia deritzonean, bere eskumeneko gaietan.</p>	
33. artikulua. Eskaeraren edukia	BILBOKO UDALA	<p>Alegatzaileak ulertzen du jarduera batean exijitu daitezkeen baimen lehiakideen zerrenda xehatu bat ezarri behar dela, lehentasunaren arabera. Besteak beste, udaleko obren lizentzia aipatzen du.</p> <p>Jarduera bat ezartzean hainbat administrazioen eskumenak lehiatzen direnean, legeak baimenen lehia dagokion moduan arbitratu behar du eta zehaztu zein den beste batzuen aurrekoa. Lurzoru urbanizaezinen arloan ezarri beharreko erregimenarekin koordinatu</p>	<p>Alegazioa jaso da eta 18. artikuluari 4. atala erantsi zaio, zeinak ezartzen baitu obren lizentzia, nolana ere, jarduera-lizentziaren, IBIaren edo Baimen integratuaren ondorengoa izango dela.</p> <p>Erabilera publikoaren inguruko proposamena jasotzea ez da beharrezkoa ikusten. Sektoreko araudiak ezarriko du lehentasuna; ezin ditugu kasu posible guztiak balioetsi.</p>	Partzialki balioetsi da

		<p>behar da IBla. Izan ere, foru-adierazpen horretan hirigintza-alderdiak hautematen dira, baina baita ingurumen-arlokoak ere; ondorioz, IBlaren aurrekoa izan behar dela ulertzen da.</p> <p>Beste atal bat txertatzea eskatzen da, c atala.</p> <p>c) Dagokionean, lurzoru urbanizaezinean egin beharrekoa erabilera publikoko edo interes sozialeko moduan adieraztea aurretiaz, EAEko lurzoruaren eta hirigintzaren 2/2006 Legearen 28.5 artikuluan aurreikusten den moduan.</p>		
	<p>TRANTSIZIO EKOLOGIKORAKO MINISTERIOA</p>	<p>33. artikulua jasotzen duen "hala badagokio" adierazpideak ez du abenduaren 16ko 1/2016 Errege Lege Dekretuaren 12. artikuluekin bat egiten, azken horrek ez baitu jasotzen.</p>	<p>Alegazioa onesten da. Testua aldatzen da, ondorioz.</p>	<p>Onetsi egiten da</p>
<p>35. artikulua. Informazio publikoa</p>	<p>EHNE-EUSKAL HERRIKO NEKAZARIEN ELKARTASUNA</p>	<p>Atal honetan zehaztu behar da konfidentziasun-arrazoiengatik informazioaren bat alde batera utzi dela.</p>	<p>Proiektuko zenbait datu informazio publikotik kanpo uzteko, sustatzaileak eskaera justifikatua egin behar du, eta ingurumen-informazioa eskuratzeko legerian aurreikusten diren salbuespen berak oinarri harturik (industria-jabetza, batez ere), Administrazioak erabaki behar du bazterketa-eskaera hori justifikatuta dagoen edo ez.</p>	<p>Gaitzetsia</p>
	<p>JAIZKIBEL GEONATURE</p>	<p>Jarduera kokatuko den tokiaren ondo-ondoan bizi diren auzoei jakinarazpenaren izapidea kentzeak, eta horren ordez BOEan edo Eusko Jaurlaritzaren webgunean argitaratzeak ez du errespetatzen herritarrek ingurumeneko gaietan informazioa jasotzeko eta parte hartzeko duten legezko eskubidea.</p>	<p>35. artikuluan aurreikusitako informazio publikoko izapidearen helburua, hain zuzen ere, interesdun orok eta ez soilik ondo-ondoan bizi diren auzoek instalazioaren edo jardueraren proiektuari alegazioak aurkeztu ahal izatea da. Horrela, interesdunen eta interes-taldeek esku-hartze handiagoa ahalbidetzen da ingurumen-inpaktua duten erabakiak hartzean.</p>	<p>Gaitzetsia</p>

			<p>Mugakideei sailkatutako jardueretan aurreikusitako jakinarazpen pertsonala egitea ere kendu egin da aurreproiektutik; izan ere, ez zegoen argi zenbateko eraginkortasuna zuen, eta teknologia berrien aroan, publizitate-metodo aurreratuagoak erabiltzea bultzatu behar da.</p> <p>Nolanahi ere, baimenak emateko edo ukatzeko arrazoitutako ebazpena interesatuei, instalazioa kokatzen den udalari, txostenak eman dituzten organoei, eta hala badagokio, baimen erabakigarriak emateko organo eskudunari jakinarazi beharko zaie. Ingurumen baimen integratua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumen-organoren webgunean argitaratuko da oso-osorik. Ingurumen baimen bakarra Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumen-organoren webgunean argitaratuko da. Beraz, sobera publizitate existitzen da prozedura horietan eraginak jasan ahal izan dituenak alegatu ahal izan dezan, eskubidez hala egin dezakeenean.</p>	
36. artikulua. Ingurumen Baimen Integratuari eta Ingurumen Baimen	ARABAKO FORU ALDUNDIA. INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA	<p>Udalerriei hilabeteko epe bat ematen zaie "<i>beren eskumeneko</i>" txostena emateko.</p> <p>a) Gure ustez, lehenik eta behin nabarmendu behar da txostena hirigintzako izango dela, eta ondorioz, "hirigintzari eta bere eskumeneko beste gai batzuei buruzko txostena" moduan adieraztea iradokitzen da.</p> <p>b) Hilabeteko epea jarri ordez, 30 egun baliodun jarri behar da. Arabako Lurralde Historikoaren kasuan, izaera horretako jarduerak</p>	<p>Lehenik eta behin, aipatu behar da hirigintza-txostena 32. artikuluan dagoela idatzita. Aurkeztutako alegazioak baliokide moduan ulertzen ditu.</p> <p>Aurreproiektuaren 36.2 artikuluan zera zehazten da, IBBra edo IBBra atxikitako proiektua edo instalazioa kokatzen den udal-barrutiko Udalak txosten bat eman behar duela bere eskumenekoak diren eta hirigintzakoak ez diren gai guztien gainean.</p>	Gaitzetsia

<p>Bakarrari atxikitako jardueren Udal Txostena</p>		<p>jasotzeko gaitasuna duten udalerrri gehienetako hirigintzako zerbitzu teknikoek izaera puntuala eta etena dute.</p> <p>c) Adierazitakoaz gain, atal horrek honako hau adierazten du: <i>"Txostena epean ematen ez bada, jarduerak jarraituko dute"</i>, eta horrek ez du inolako eraginkortasun-printzipiorik betetzen, baldin eta txosten hori (hirigintzako), azkenean, negatiboa bada. Beraz, aipatu behar da administrazio-prozedurak ez lukeela jarraitu behar, aipatu hirigintza-txostena aurkezten ez den bitartean.</p>	<p>Bestetik, hilabeteko epea nahikoa dela uste da, batez ere administrazio-prozedura bideratzea azkartzeko. Txosten hori kontuan izango da, nahiz eta ebazpen-proposamenaren aurretik epez kanpo eman.</p>	
	<p>DONOSTIAKO UDALA</p>	<p>3. puntua. Jaso beharko litzateke udalaren nahitazeko txostenak ingurumen-alderdiak jaso ahalko dituela, beti ere alderdi horiek Eusko Jaurlaritzak ezarritakoen aurkakoak ez badira; izan ere, batzuetan, tokiko arazoak kontuan izanik, neurri zuzentzaile gehigarriak ezarri behar izaten dira.</p>	<p>Udalak proposatu dezakeena bere eskumenekoak diren gaietara mugatzen dela ulertu behar da. Baimen-titulua emateko eskumena EAEko ingurumen-organoak duen neurrian, ingurumen-gaien gaineko erabakiak (neurri zuzentzaileak, IBM ezartzea, etab.) bere erabaki-eremuaren barruan jarriko dira. Horrek guztiak ez dio kalterik egingo Udalak bere txostenean jakinarazi ditzakeen neurri zuzentzaile gehigarriak ezartzeko proposamenak aztertzeari.</p>	<p>Gaitzetsia</p>

	BILBOKO UDALA	<p>Beren ustez argiagoa den testu bat eskatzen dute, hau da, 1. atalaren orde (Ingurumen baimen integratuaren edo ingurumen baimen bakarraren prozedurak sailkatutako jardueraren lizentziaren prozedura ordeztuko du, izapide guztietan), honako testu hau jarri beharko litzateke:</p> <p>IBI/IBBra atxikitako jarduerak ez dira sailkatutako jardueren esku-hartze erregimenera atxikita izango.</p> <p>Integrazioa eraginkorra izan behar da, ez teorikoa, baizik eta erreala. Beste baimen batzuk integratzen dituen baimenak bera ere eskuduna beste Administrazio interesatuak emandako txosteneko edukiak jaso beharko ditu, Administrazio horrek funtsezkotzat jotzen dituenean, berari zaintzea dagozkion interes publikoak zaintzeko.</p> <p>Honako atal berri hau proposatzen da:</p> <p>Udal-eskumenerako gaietan, ingurumen baimen integratua udaleko txostenarekin bat ez badator, arrazoitu egin beharko da eta legerian oinarritu beharko da.</p>	<p>Aurreproiektuaren testua nahiko argia dela ulertzen da.</p> <p>Ez da egokia ikusten proposatutakoa moduko atal berri bat sartzeari, txostena legeriaren printzipioaren arabera eraendu beharko baita. Administrazio publikoen jardueraren oinarriko printzipio bat da.</p>	Gaitzetsia
37. artikulua. Isurketen arloko erakunde eskudunen txostena.	ARABAKO FORU ALDUNDIA. INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA	<p>Proiektu Hidraulikoen Garapenaren (PHG) edo Itsaso eta Lehorraren arteko Jabari Publikoaren (ILJB) ondoriozko baimenentzako, 6 hilabeteko epea emango da, baina hori inkongruentea da udalei 36. artikuluan emandako epearekin. Kasu horretan, epe beraz hitz egin beharko genuke administrazio guztientzat, batez ere gai horien erakunde arduradunek udal askok baino baliabide gehiago dituztenean. Hala ere, argi geratzen da Euskadiko lurraldearen zati</p>	<p>PHGrako isurketei buruzko txosten nahitaezkoa eta loteslea formulatzeko 6 hilabeteko epea oinarriko legerian araututakoarekin bat ezarri da.</p> <p>Artikulua hitzez hitz kontuan hartuz gero, EAEn nolabaiteko tipologiako isurketak baimentzeko erakunde eskudun moduan jasotzen da Uraren Euskal Agentzia.</p> <p>Prozedurak azkartzeko premiaren gaineko lege-aurreproiektuaren</p>	Gaitzetsia

		handi bat dagozkion arro hidrologikoen azkeneko esku-hartzera atxikita dagoela, eta horrek aipatutakoa baldintzatzen duela. Hausnarketa moduan, epe berri horiek uraren Euskal Agentziaren berariazko eskumenekoak diren jardueretan jasotzea balioetsi beharko litzateke.	1.c) artikulua betetzeko, udalei hilabeteko epea ematen zaie 36. artikuluan aurreikusitako txostena eman dezaten, eta epe hori arrazoizkoa dela ulertu da.	
BIZKAIKO FORU ALDUNDIA. INGURUMEN ETA HIRIGINTZA ZUZENDARITZA	37. artikulua. Ur-hornikuntzaren eta isurketen arloko erakunde eskudunen txostena. Saneamenduaz gain baliabide hidrikoen faltak arazoak sortzen dituen EAEn, eta nahiz eta organo berarekin bat egin, ur-hornikuntza aipatu behar da.	Berariazko artikulua bat existitzen da beste txosten batzuen inguruan. Ur-hornikuntzari buruzko txostena nahitaezkoa izango balitz sektoreko beste araudi baten arabera, araudi horretan arautuko litzateke hori. Txosten berri baten premia sortu nahi bada, alegazioan ez da hori justifikatzeko besteko justifikaziorik eman eta ezin daiteke aztertu. Alde horretatik, arau horrek ez ditu gas, energia edo antzeko zerbitzuen hornikuntzako txostenak arautzen.	Gaitzetsia	
ARABAKO FORU ALDUNDIA. NEKAZARITZA-ETA INGURUMEN-SAILA	Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza eta Basozaintzako Sektoreko Lurralde Planak, irailaren 16ko 177/2014 Dekretuak behin betiko onartu zuenak, eskatzen duenaren arabera, foru-organoei ebaluatu beharko lukete nekazaritza eta basozaintzako jardueraren gainean zenbait proiektu edo jardueren sortutako eragina, eta hala badagokio, baita neurri zuzentzaileak hartu ere. Balorazio hori egiteko prozedura oraindik ez da garatu. Hala ere, legeak berariazko atal bat jaso beharko luke izapide hori egiteko, isurpenen gaitetako eskumeneko erakundearen txostenetan egiten den moduan (37.	Jasotzea proposatzen den ebaluazioa, nahiz eta antzeko izendapena izan (nekazaritzako eta basozaintzako ingurunearen gaineko proiektuek duten eraginari buruzko ebaluazioa), ez da ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio bat, eta ingurumen hutseko gai bat ez denez, ezin daiteke txertatu eta ezingo litzateke aurreproiektuaren testuan jaso. Ebaluazio hori Euskal Autonomi Erkidegoko Nekazaritzako eta Basozaintzako Sektoreko Lurralde Plana behin betiko onartzen duen irailaren 16ko 177/2014 DEKRETUaren 61.3 eta 62.	Gaitzetsia	

		artikulu).	artikuluetan arautzen da. Nekazaritzako eta basozaintzako sektoreko lege batek aurreikusi beharko du zenbait proiektuk nekazaritzako eta basozaintzako jardueraren gainean sortzen duten eraginaren ebaluazioa egitea, eta hark zehaztu beharko du izapide hori premiazkoa den, edo Ingurumen Administrazioako Legearen aurreproiektuan aurreikusitako ingurumeneko esku-hartzeen tituluekin batera edo horien aurretik egin behar den.	
38. artikulua. Beste txosten batzuk	EHNE-EUSKAL HERRIKO NEKAZARIEN ELKARTASUNA	PEAS, Nekazaritza arloko Eraginaren Ebaluazio Protokoloa, eskatzea eskatzen dugu, nekazaritzako lurzorua babesteko duen garrantziarengatik. PEAS lan-tresna bat da, EAEko Nekazaritza eta Basozaintzako SLPn ezarritakoaren arabera, Nekazaritza eta Elikadura Politikari buruzko abenduaren 23ko 17/2008 Legeak nekazaritzarako lurzoruari buruz ezartzen duen babes-eskakizunei eta sektoreko administrazioen esku-hartzeak behar duen sentsibilitateari erantzuna emate aldera.	Prozedura horrek dagoeneko aipatzen du EAEko ingurumen-organok premiazkoak diren txosten guztiak eskatuko dituela jardueraren izaeraren arabera. Kasu horretan, proiektuak intzidentzia edo eragina sortuko balu nekazaritzan, eta ezarpen-araudian hala ezarriko balitz, ingurumen-organok PEAS eskatu ahalko du, aurreproiektu honetan hori berariaz aurreikusi behar izanik gabe. Nolanahi ere, ez da ingurumen-izaerako arau batean banaka identifikatu behar beste araudi lehiakide batzuen arabera zenbait egoeratan exijitu behar diren txosten guztiak; horregatik, klausula ireki bat jaso da (38. artikulua. Beste txosten batzuk), horiek guztiak barne hartzeko.	Gaitzetsia
	OSASUN SAILA	Laugarren tituluan, II. kapituluan, ingurumen-baimen integratuen prozedura ezartzen da. Aurreko araudian nahitaezko osasun txosten loteslea aurreikusten zen jardueraren lizentzia-prozeduran. Kontuan izanik jardueren antolamendu berriak jarduera-kopuru esanguratsu bat	Aurreproiektuaren 38. eta 50. artikuluek (beste txosten batzuk) modu irekian idatzi izanaren helburua da sektoreko hainbat araudik jarduerak martxan jarri aurretik exijitzea ezartzen dituzten txosten tekniko guztiak jasotzea, txosten horiek zein izan behar	Balioetsia

		ingurumen baimen bakarrera eramaten duela eta prozedura horretan osasun-txosten nahitaezkoa eta loteslea izan ordez ingurumen-organoak nahi duen moduko osasun-txostena izango dela (38. artikulua), aldaketa handi bat sortzen da. Kontuan izanik azkeneko urteetako esperientzia, planteatzen da artikuluetan jaso behar dela osasun publikoaren arloan eskumena duen sailari jakinaraziko zaizkiola eskaerak, eta sail horrek informazio gehigarria eskatu eta osasun-txosten loteslea eman ahalko duela.	diren zenbatzen edo numerus clausus finkatzen hasi gabe. Adibidez, Dekretu hau Prozedura mota horietan txosten sanitarioa nahitaez igortzeko betebeharrak berariaz jasotzen duen araudi sektorial sanitariorik ez dagoenez, alegazioa onartzen da eta txosten sanitarioa igortzeko betebeharraren aipamen zehatza txertatzen da.	
41. artikulua. Ingurumen-baimenen isurpenen balio-mugak	D. JMTC	Alegatzaileak adierazten du proposatutako testuan azkeneko puntuan (1.f puntua) jarri direla araudi aplikagarrian (iiii????) nahitaez bete behar diren isurpen-balio mugak, eta aldi berean, isurpenek gizakiaren osasunarengan duten eragina aipatzen duen puntua azken aurreko puntura eraman dela (???). Gainera, ez da kontuan izan Europako legeriak duen posizionamendua teknologia erabilgarri onenen arloan. Izan ere, legeria horrek betearazpen erabakiak ezartzen ditu, non muga bereziak ezartzen baitira berariazko sektoreko legeriarik ez duten eta analogikoki ezarri daitezkeen zenbait kutsatzaileentzako, eta epigrafeen aldean beste antolamendu bat proposatzen du eta 1.a) puntuaren ordezko testu bat proposatzen du.	IBMen aurreikuspena TEOen arabera egiten da. Izan ere, jakina den moduan, TEOak IPPC jardueretan IPPTS-agatik zehazten dira, neurri batean, BREF-en bidez Ez dirudi beharrezkoa denik hori zehaztea. Bestetik, ezarritako ordenak ez du produktua aldatzen. Hau da, aurreproiektuaren 41. artikuluko atalak ez dira lehentasun bat, baizik eta IBMak ezartzerako orduan kontuan izan beharreko zenbait alderdiren zenbaketa.	Gaitzetsia
	DONOSTIAKO UDALA	X) izeneko atal bat eranstea, isurpenek zer nolako eragina sortzen duten herritarrei eragozpenak sortzerakoan, beti ere isurpen horiek objektiboki egiaztatu badira. Puntu horren helburua da sektoreko legeria bete arren eragozpenak sortzen dituzten kutsadura-aldietan jardun ahal izatea.	Ulertzen denaren arabera, IBI edo IBB prozedura ororen helburua da ingurumena eta pertsonen osasuna babestea, eta alderdi horiek izatea kontuan baimenen baldintzak zehazteko orduan, bereziki isurpen-mugen balioak. Alegatzaileak eskatzen duena aurreproiektuaren 41.1. artikulua e) atalean subsumituta dago	Gaitzetsia

			jada.	
42. artikulua. IBIaren eta IBBaren edukia	ACLIMA	Eskatzen da 42.3 artikulua eduki literala aldatzea, eta "ahalko dute" esan ordez, "beharko dute" esatea, eta EMAS-en ezarpena modu errealean eta eraginkorrean sustatzea enpresetan, horrelakoak moduko proposamen zehatzak sustapen bat izan baitaitezke berentzat.	Alegatua legearen erregelamenduaren garapenean txertatu ahalko da, edo Administrazio jarduleak kasu bakoitzean zehaztu ahalko du.	Gaitzetsia
43. artikulua. Baimenen indarraldia eta berrikuspen a	ACLIMA	<p>"Isurpenen murrizketa nabarmena" kontzeptua definitzea proposatzen da, 1. atalean aipatzen dena.</p> <p>Horren 3. atalean honako hau jasotzen da:</p> <p><i>"Ingurumen-baimen integratura edo ingurumen-baimen bakarrera atxikitako instalazio edo jarduera bat ez bada estali teknika erabilgarri onenen inguruko ondorioetako ezeinekin, baimenaren baldintzak berrikusi egingo dira, eta hala badagokio, baita egokitu ere, artikulua honen lehenengo atalean aipatutako aurrerapen-klausularen arabera".</i></p> <p>Hala ere, jarduera ez bada babesten teknika erabilgarri onenen ondorioen bidez, baimenaren baldintzak ezin daitezke egokitu aurrerapen-klausularen arabera, azken hori, aldi berean, BREF dokumentuetan teknika erabilgarri onenak definitzearen arabera ezartzen baita. Beraz, atal hori kentzea iradokitzen da.</p> <p>Gure ustez, BREFak ingurumen-baimen bakarrei ezartzea neurri oso exijentea eta konplexua da hainbat arrazoiengatik. Lehenik eta behin, IBBra atxikitako jarduerak ez dute inpaktu nahikorik eskatzeko beren teknologiek BREFen teknologiarik onenen antzeko isurpen mailak izan</p>	<p>Aurrerapen-klausula ingurumen-baimen eta -lizentzia guztientzako ezargarria da, eta teknika onenen egokitzapena suposatzen du, titularrek gehiegizko kosturik jasan behar izan gabe; izan ere, Administrazioari gaitasuna ematen zaio ingurumen-baimenak ofizioz alda ditzan, eta egokitzen hori exijitu dezake baldin eta horri esker instalazio edo jarduera baten ingurumen-inpaktua nabarmen murrizteko aukera badago.</p> <p>Ingurumen-lizentzien eta -baimenen printzipio orokor bat da, modu orokorrean erabili izan dena eta hainbat sektoreko arauditan aurreikusi dena.</p> <p>Aurreproiektuak ez dizkie BREFen ondoriozko TEOak exijitzen IBBra atxikitako proiektuei eta instalazioei; TEOez eta aurrerapen-klausularen arabera egokitzapenez hitz egiten du.</p>	Gaitzetsia

		<p>dezatela. Bigarrenik, teknologia erabilgarri onenak identifikatzeko orduan, BREFak ez dira homogeneoak teknologia horiek hautatzeko irizpideei dagokienez, eta kasu batzuetan, horrelakoak ez diren eta isurpen mailarik lotuta ez duten teknologiak aukeratzen dira metodo moduan (esaterako, ingurumen-kudeaketako sistemak). Gainera, teknologia onenen aplikazioak enpresa horien kostuak handitu ditzake, eta enpresa horiek, normalean, ez dira izaten oso handiak.</p> <p>Gure ustez, proposatzen denaren moduko aurrerapen-klausula bat ofiziozko berrikuspenen prozeduren bidez ezarri daiteke, baldin eta oso argi geratzen bada teknologia zehatz batek isurpenen edo isurketen murrizketa nabarmena suposatuko duela. Baina paragrafo horretan IBBei egiten zaien erreferentzia kentzea proposatzen dugu; izan ere, gure ustez, teknika erabilgarri onenen inguruko ondorioak teknika horietarako pentsatu eta frogatu ez diren, eta gainera, IBIRA atxikitako jarduerak baino inpaktu txikiagoa suposatzen duten jarduerekin identifikatzea gehiegi derrigortzea da.</p>		
	DONOSTIAKO UDALA	X) puntu bat eranstea herritarrentzako eragozpenak sortzen direnean, beti ere eragozpen horiek egiaztatzen baldin badira.	<p>Ulerzen denaren arabera, IBI edo IBB prozedura orearen helburua da ingurumena eta pertsonen osasuna babestea, alderdi horiek izaten baitira kontuan baimenen baldintzak zehazteko orduan, bereziki isurpen-mugaren balioak; era berean, jakina, dagokion ofiziozko berrikuspena eta neurri zuzentzaileen ezarpen gehigarria ere izango dira kontuan, herritarrentzako eragozpenak existitzen direla egiaztatzen denean.</p> <p>Alegatzaileak eskatzen duena 43. artikuluan subsumituta dago</p>	Gaitzetsia

			jada. 4.	
47. artikulu. Funtzionam endu- hasieraren edo irekieraren jakinarazpe na	ACLIMA	Artikulu osoa kentzea, dokumentu honen 24. artikularen alegazioan aipatutako arrazoiengatik.	Artikulu hau mantentzea nahitaezkoa dela ulertzen da, IBlentzako hasiera-jakinarazpena hauek eskatzen duten Estatuko oinarritzko legerian ezarritakoaren arabera. 24. artikularen alegazioari emandako erantzunean azaldutakoa errepikatzen dugu.	Gaitzetsia

	<p>BILBOKO UDALA</p>	<p>Alegatzaileak aipatzen du ez dela Udalaren aurrean aurkeztu behar, baizik eta Jakinarazpenaren Administrazio hartzailearen aurrean, hori baita egiaztapena egiteko eta bere erregimen juridikoari dagokion tratamendua emateko gaitasuna duena (iraungipena, etab.), eta administrazio hori Eusko Jaurlaritza da.</p> <p>Era berean, ordezeko testu gehigarri bat azaldu du:</p> <p>“Era berean, titularrak jarduera kokatzen den tokiko udalari jakinarazi beharko dio Sailkatutako Jardueraren Jakinarazpena ingurumen-organismoaren aurrean aurkeztu duela.</p> <p>Udalari jakinarazpen hori egitea ez da premiazkoa izango, udalak informazio hori modu telematikoan eskuratzeko aukera duenean.”</p> <p>Azaldu denaren arabera, administrazio arteko lankidetzeta, kooperazio eta koordinazio administratiboen parte da (40/2015 Legearen 3. art.), ingurumen-organismoak udalen aldetik eskatzen duen lankidetzaren eta informazioaren elkarrekikotasunari erantzuteko, eta udalerriko interesak gordetzeko, kontuan izanik dagoeneko ez dela IBren ondorengo udal-lizentziarik existitzen.</p>	<p>Artikulu hau mantentzea nahitaezkoa dela ulertzen da, IBlentzako hasiera-jakinarazpen horiek eskatzen duten Estatuko oinarritzko legerian ezarritakoaren arabera.</p> <p>24. artikulua alegazioari emandako erantzunean azaldutakoa errepikatzen dugu.</p>	<p>Gaitzetsia</p>
	<p>PASAIKO UDALA</p>	<p>Jarduerekin lotutako administrazio-izapideak bateratzeko helburuarekin, funtzionamendu-hasieraren edo irekitze-jakinarazpenaren ordezkari jardueraren aurretiazko jakinarazpena egitea proposatzen da.</p> <p>Horrela, 47.1 artikulua honela jasota geratuko litzateke:</p> <p><i>1. Ingurumen-baimen integratuaren edo ingurumen-baimen bakarraren</i></p>	<p>Hori ez da aurreproiektuaren 55. artikuluan aurreikusitako sailkatutako jardueraren aurretiazko jakinarazpena, eta beraz, izapide horiek ezin daitezke bateratu. Kasu horretan, jakinarazten da aurretiazko eta berariazko baimen (IBI edo IBB) batera atxikitako jarduera bat martxan jarriko dela; 55. artikulua jakinarazpenaren kasuan, hori da administrazio eskudunak</p>	<p>Gaitzetsia</p>

		<p><i>menpeko jarduera bat hasi aurretik, baimenaren titularrak jardueraren aurretiazko jakinarazpena aurkeztu beharko du Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumen-organoaren aurrean eta instalazioa kokatzen den tokiko udalaren aurrean, non egiaztatuko baita, instalazioak, bere erantzukizunpean, onartutako proiektua betetzen duela, eta konpromisoa azalduko baitu inposatutako baldintzak betetzen jarraitzeko.</i></p> <p>Gainera, garrantzitsua da berariaz adieraztea aurretiazko jakinarazpen hori IBlan edo IBBan jasotako neurri zuzentzaileak ezarri ondoren egin behar dela. Alde horretatik, 47.2 artikulua honela idaztea proposatzen da:</p> <p><i>2. Jakinarazpen hori ingurumen-baimen integratuan edo ingurumen-baimen bakarrean inposatutako neurri zuzentzaileak ezarri eta instalazioak gaitu ondoren egingo da, eta dagokionean, sektoreko erregistroetan dagozkion lizentziak, baimenak, jakinarazpenak edo inskripzioak izan beharko ditu.</i></p>	<p>jarduera bat martxan jartzearen gainean jasotzen duen jakinarazpen bakarra (ez da aurretiazko berariazko ingurumen-titulurik existitzen).</p> <p>47.3 artikulua alegatzaileak hobekuntza moduan jaso nahi dituen alderdiak hautematen ditu. Jakinarazpen horren edukia, hain zuzen ere, dagokion titulu baimentzailean martxan jartzeko exijitzen diren neurrien eta baldintzen inplementazioa egiaztatzea da.</p>	
HERNANIKO UDALA		<p>47. artikuluko 1. puntuak honela dio: «Ingurumen-baimen integratuaren edo ingurumen-baimen bakarren menpeko jarduera bat hasi aurretik, baimenaren titularrak jakinarazpen bat aurkeztu beharko du Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumen-organoaren aurrean eta instalazioa kokatzen den tokiko udalaren aurrean, non egiaztatuko baita, instalazioak, bere erantzukizunpean, onartutako proiektua betetzen duela, eta konpromisoa azalduko baitu inposatutako baldintzak betetzen jarraitzeko».</p>	<p>Errepikapen hori ez da beharrezkoa. Izan ere, artikuluaurreko lerroan dagoeneko adierazi da IBbra edo IBBra atxikitako jarduera bat dela, eta gainera, agindu hori aipatu esku-hartze tekniken gaineko kapituluaren barruan kokatzen da.</p>	Gaitzetsia

		Jarduera bideratzeko prozedura guztiak bateratze aldera, paragrafo horretako «jakinarazpen» hitzaren ordez honako hau jartzea proposatzen da: «ingurumen-baimen integratua/bakarra duen jardueraren hasierako aurretiazko jakinarazpena».		
	ICAB	Arauk IPPC bideratzeko sistematikaren arabera arbitratzen ditu mekanismoak eta hori nabarmentzen du (arro-antolamenduaren txostenak, esaterako), eta hori kontraesankorra da; baita IBB eskuratu ondoren, jardueraren sustatzaileak Udalari eta Eusko Jaurlaritzari erantzukizunpeko adierazpena zuzendu behar izana ere, ziurtatuz dagozkion “sektoreko baimenak” dituela, ulertuz baimen horiek isurketa bat, hondakinak sortzea edo atmosferara gas-isurpenaren foku bat baimentzeko direla. Baimen horiek IBBan jasota badaude, ez dirudi beharrezkoa denik egiaztatu behar izatea nabaria dena eta agintaritza eskudunak jakinaren gainean duena.	Alegatzen den kontraesana ez da existitzen. Ez dira sektoreko baimen moduan ulertu behar alegazioak aipatzen dituen ingurumen-baimenak soilik (isurketa, hondakinak edo atmosfera). Baimen horiek, hain zuzen ere, IBBan edo IBBn integratuta egongo lirateke. 47.2 artikulua sektoreko beste esku-hartze titulu batzuk aipatzen dituzenean, tazituki beste hainbat alderdi aipatzen ditu, hala nola industria-segurtasuna (elektrizitatea, konpresoreak, etab.), suteen aurkako neurriak, igogailuak, irisgarritasuna, etab.).	Gaitzetsia

LAUGARREN TITULUA. INGURUMENEA ERAGINA DUTEN JARDUEREN ANTOLAMENDUA.				
IV. KAPITULUA SAILKATUTAKO JARDUERAREN LIZENTZIA				
ARTIKULUA	ALEGATZAILEA	ALEGAZIOAREN LABURPENA	INGURUMEN SAILBURUORDETZAREN AZTERKETA	AUKERA
49. artikulua. Sailkatutako jardueraren lizentziaren eskaera	D. MS	<p>Sailkatutako jardueraren lizentzia-eskaera udalaren aurrean aurkeztuko da, eta jardueraren xehetasunak xehatuko dituen proiektu tekniko batekin eta deskripzio-memoria batekin aurkeztuko da (...).</p> <p>Proiektu tekniko bat aurkezten bada, proiektu horrek memoria bat, aurrekontuak, planoak etab. jaso behar ditu. Beraz, proiektu tekniko bat "eta" deskripzio-memoria bat aurkeztea errepikakorra da, non eta legelariak aukera biak eman nahi ez dituen (proiektu tekniko edo deskripzio-memoria). Eta hori ez dirudi oso logikoa denik."</p>	<p>Gauzatu nahi den jardueraren edo instalazioaren betearazpenaren proiektu teknikoaren eta beste gauza zabalago baten, alegia, beste alderdi batzuk aztertzen eta jasotzen diren deskripzio-memoriaren artean bereizi nahi izan da. Ziurrenez, kasu askotan nahikoa izango da proiektu teknikoarekin. Beste kasu batzuetan, agian deskripzio-memoria jasoko luketen datu edo txosten gehiago beharko lirateke. Baina nahasmena sortzen duela ulertzen bada, memoria kendu ahalko litzateke.</p>	Gaitzetsia
	BERMEOKO UDALA	<p>49. artikuluan honako hau esaten da: "<i>Sailkatutako jardueraren lizentzia-eskaera udalaren aurrean aurkeztuko da, eta horrekin batera proiektu tekniko bat eta deskripzio-memoria bat aurkeztu beharko dira</i>". Proiektu tekniko batek, definizioz, lau oinarritzko dokumentu ditu: memoria, planoak, baldintza-agiria eta aurrekontua. Beraz, errepikakorra da proiektu bat eta deskripzio-memoria bat aurkeztu behar direla esatea. Proiektu tekniko orok deskripzio-memoria bat izan behar du. Beraz, proiektu tekniko esanda nahikoa litzateke.</p> <p>Bestetik, esan beharko litzateke teknikari eskudun batek idatzi</p>	<p>Aurreko alegazioaren erantzunean aipatu den moduan, gauzatu nahi den jardueraren edo instalazioaren betearazpenaren proiektu teknikoaren eta beste gauza zabalago baten, alegia, beste alderdi batzuk aztertzen eta jasotzen diren deskripzio-memoriaren artean bereizi nahi izan da. Ziurrenez, kasu askotan nahikoa izango da proiektu teknikoarekin. Beste kasu batzuetan, agian deskripzio-memoria jasoko luketen datu edo txosten gehiago beharko lirateke.</p> <p>Argi dago proiektu tekniko teknikari eskudun eta exijitzen den titulazioarekin kualifikatutako teknikari batek idatzi behar duela,</p>	Balioetsia

	<p>beharko lukeela esan beharko litzatekeela, bi arrazoiengatik. Bat, jakina delako proiektu tekniko bat gai horretan gaitua den teknikari batek idatzi dezakeela soilik. Berariaz esaten ez bada, atea irekita uzten da adabakiez jositako dokumentuak, dokumentu narrasak, osagabeak, jatorri ezezaguneko alderdiak dituztenak, etab. sortzeko. Esperientzia dugulako diogu, adi. Eta bigarrenik, 53.3 artikulua arabera, jarduera hasteko sustatzaileak, beste dokumentu batzuen artean, honako hau aurkeztu behar badu: <i>“teknikari eskudunak sinatutako egiaztagiria (...) egiaztatu dezan onartutako proiektuaren arabera egokitzen direla instalazioak...”</i>; zer teknikari zentzudunek sinatuko du egiaztagiri bat, non egiaztatzen den instalazio batzuk gaitasunik ez duen norbaitek idatzitako proiektu tekniko batera egokitzen direla? Inork ez luke horrelako erantzukizun hausartegirik hartuko bere gain. Eta hori gertatu da dagoeneko. Arazo hori 3/98 Legeaz geroztik ari gara jasaten, eta arazo asko sortu ditu, eta horiek zuzentzeko unea iritsi da. Logikoena ez al da teknikari horrek proiektua idaztea, obra-zuzendaritza eramatea eta ondoren obra-amaierari dagokion egiaztagiria prestatzea? Eta proiektua idazten duena obra zuzentzen duenaren aldean ezberdina bada, argi dago biak teknikari eskudunak izan behar direla, azkenean egiaztatu behar bada egikaritu denak aurkeztutako proiektuarekin bat egiten duela.</p> <p>Beraz, egiaztagiria teknikari eskudunak sinatu behar badu, logikaz ere ezarri behar da proiektu teknikoa teknikari eskudunak idatzi behar duela. Bestetik, garrantzitsua da adieraztea proiektu horretan, gainera, araudi ezargarrria betetzen dela egiaztatu behar dela. Hori</p>	<p>aurreproiektu honen agindu orokorretan adierazten den moduan.</p> <p>Alegatzaileak 48.1 artikulua testurako emandako testua balioetsi daiteke.</p>	
--	---	---	--

		<p>argi dago; hala ere, artikulua honetan ez da jasotzen. Hori oso garrantzitsua da. Izan ere, hori bete dela egiaztatzea funtsezkoa da, eta, ez dezagun ahaztu, jarduera batek ez ditu soilik ingurumen-baldintza batzuk bete behar; aitzitik, eraikuntza, higiene-osasun, segurtasun, irisgarritasun baldintzak etab. ere behar ditu. Eta artikulua horretan ez da ezer esaten horien inguruan.</p> <p>Ondorioz, gure ustez, 48.1 artikulua honela idatzi beharko litzateke: <i>“Saikaturako jardueraren lizentzia-eskaera udalaren aurrean aurkeztuko da eta <u>teknikari eskudun batek idatzitako proiektu tekniko batekin aurkeztuko da, non xehatuko baitira jardueraren ezaugarriak, jardura kokatzen den ingurunearen deskribapena, <u>araudi ezaugarria betetzen dela</u>, izan dezakeen ingurumen eragina eta eraginkortasun mailaren eta segurtasun-bermearen arabera erabiltzea proposatzen dituzten neurri zuzentzaileak”.</u></i></p>		
	BILBOKO UDALA	<p>IV kapituluak esku-hartze baliabideak moduan izendatzea proposatzen da</p> <p>Saikaturako jardueraren lizentziaren, saikaturako jardueraren jakinarazpenaren eta erantzukizunpeko adierazpenaren helburua da udaleko eskumenen esparruan egiaztatzea hirigintzako legerira, udal ordenantzetara, segurtasun-, osasun- eta ingurumen-araudira eta exijitu daitezkeen araudietara egokitzen dela jardura.</p> <p>Ordezko testu bat proposatzen du:</p> <p>Saikaturako jarduerarako erabiltzen diren baldintzak fabriketarako pentsatu direla dirudi. Saikaturako jardueren errealitatera egokitu</p>	<p>“Saikaturako jardueretan jarduteko eskumena jardura hori kokatzen den udal-barrutiko udalari dagokio.</p> <p>Ingurumen-baimen integratua, ingurumen-baimen bakarra edo saikaturako jardueraren lizentzia emateko, administrazio-baimenaren edo abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuaren 3.3 artikuluan aipatzen diren, eta Kutsaduraren prebentzioari eta kontrol integratuari buruzko Legearen testu bategina onartzen duenaren industriak edo industria-instalazioak atxiki diren beste esku-hartze baliabideen aurretik egingo da.”</p> <p>Ez dagokio alegazioa balioestea. Aurreproiektuak ingurumen-</p>	Gaitzetsia

		<p>behar dira.</p> <p>Gaizki adierazi da. Lizentzia ez da jarduerara egokitzen. Erreformak ere lizentzia izan behar duela adierazi nahi bada, hori esan da jada.</p> <p>Aurreko atalarekin bikoiztasuna sortzen du, eta idazketa korapilatsua du: helburua aditzarengandik distantzia handira geratzen da.</p> <p>Azkenik, alegatzaileak ordezko testu bat proposatzen du 49. artikulurako.</p>	<p>arloko gaiak arautzen ditu soilik.</p>	
<p>50. artikulua. Informazio publikoa eta txostenak igortzea</p>	<p>MERCADONA</p>	<p>a) Sailkatutako jardueraren lizentzia bat eskatzeko azalpen publikorako aldiak 15 eguneko iraupena izan dezala; izan ere, gure ustez, epe horrek behar beste bermatzen du publiko interesdunaren parte-hartzea, eta epe hori bioizteak izapidetzea azkartzeko helburua kontraesaten du.</p> <p>b) Sailkatutako jardueraren lizentzia emateko ebazpenaren epe maximoa 4 hilabetekoa izan dadila, eskaera aurkezten denetik zenbatzen hasita, izapidetze-aldian dagozkion etenaldiak eginez, gabeziak osatzeko, baina ez dokumentazio osoa aurkeztearen bidez. Alde horretatik, ez da inolako aurretiazko eperik mugatzen, udalak dokumentazioa osatu dela onar dezan, eta horren ondorioz, udala, eskaera aztertze eta gabeziak jakinarazteko berandutu daitekeen denboraren arabera, lege honek izapideak azkartzeko helburuaren aurka doan egoeraren aurrean izan gaitetzke, eta horrela, egun, eskaera aurkezten denetik ezarritako 6 hilabeteko epea gainditu daiteke.</p>	<p>Lehenengo alegazioa gaitzetsi egiten da. Lehenengo eta behin, parte-hartzea Legearen funtsezko elementu bat da, eta sailkatutako jardueraren lizentziaren prozeduretan parte-hartze hori ahalbidetzeko, ez dirudi egokia denik alegazioak aurkezteko epea 15 egunera murriztea aurreikusitako 30 egunera mugatu ordez, eta horrela, publiko orokorraren parte-hartzea ahalbidetu ordez.</p> <p>52.1. artikulua aldatzea egokia deritzogu, “dokumentazio osagabea” erreferentzia kenduz.</p> <p>Hirugarren alegazioa gaitzetsi egin da, alegia, epean ebatzi gabeko lizentzia-eskaerari administrazio-isiltasun positiboa ematea; izan ere, horrek hainbat inplikazio izan ditzake hiriko ingurumenari eragin diezaioketen jardueri dagokienez, eta ondorioak sor ditzake biztanleen osasunean eta atsedenean.</p> <p>Urriaren 1eko 39/2015 Legearen 24.1 artikulua isiltasunaren zentzu negatiboa ezartzen du interesdunak eskatuta abiarazitako</p>	<p>Partzialki balioetsi da</p>

		<p>c) Sailkatutako jardueraren lizentzia baten eskaeraren gaineko ebazpenik eman gabe epea amaitzen den kasuan, jarduera balioetsi dela ulertzea eta ez gaitzetsia; horrela, Administrazioak baliabide faltagatik garaiz hartatu ezin izan dituen eskaerak gaitzetsi egin direla ulertzea saihestuko da.</p>	<p>prozeduretan, lege maila duen arau batek hala ezartzen duenean.</p>	
	BILBOKO UDALA	<p>Alegatzaileak proposatzen du hirigintzako edo sektoreko araudi ezargarría ez betetzean oinarritutako udal-eskumeneko arrazoiengatik lizentzia berariaz ukatu ezean, Udalak eskaera informazio publikoan jarriko duela, jarduerari dagokion Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean eta erakunde horren webgunean.</p> <p>Bai sailkatutako jardueraren lizentziak, bai Sailkatutako Jardueraren Aurretiazko Jakinarazpenak zeharkako izaera dute, lokalek eta instalazioek lasaitasun-, segurtasun- eta osasungarritasun-baldintzak betetzen dituztela egiaztatzeko, Toki Korporazioen Zerbitzuei buruzko Araudiaren 22.2 artikulua adierazten duen moduan. Alegazioei buruz txosten honen hasieran adierazitako arrazoiengatik, ezin daitezke lege honetan araututakoak ez diren beste administrazio-titulu batzuk exijitu.</p> <p>Proporzioz kanpokoa dirudi informazio publikoko izapiderako hogeita hamar egun erabiltzea; izan ere, egun baliodunak izango direnez, hilabete eta erdian luzatuko da, eta hori prozeduraren epe osoaren laurdena baino gehiago da. Denbora hori teknikariok behar dugu txostenak egiteko eta alegazioei erantzuteko.</p> <p>Aldiberekotasuna nahitaezkoa ere izan beharko litzateke, izapide</p>	<p>Ulertzen dugunaren arabera, aurreproiektuko testuak proposatutako alegazioaren testua jasotzen du antzeko baldintzekin.</p> <p>Ez da egokia herritarrei epeak murriztea. Ez dago inolako eragozpenik teknikariek beren lana aurreratu dezaten informazio publikoko epean.</p> <p>Alegazioaren zati bat onartu da eta 50. artikulua berridatzi egin da.</p> <p>EIArekin koordinatzeari dagokionez, esku-hartze erregimen guztientzako den 22. artikuluan ezarritakoa errepikatzen dugu.</p>	<p>Partzialki balioetsi da</p>

		<p>elektronikoa kontuan izanik.</p> <p>Paragrafo hori barne hartzea komenigarria da, dagokion epeko izapidea kontuan hartzen duena, alegia, hilabetekoa, txosten teknikoaren 15 eguneko epearen aldean ezberdina dena.</p> <p>Legeak baimenen lehiakortasuna arbitratu behar du. Bereziki, kontuan izanik lizentziaren ebazpen-epea lau hilabetera murriztu duela, aurreko Ingurumen Baimenarekin batera gertatzen denean oso beharrezkoa da.</p> <p>Artikulu berri edo ordezeko testu bat proposatzen da ingurumen-inpaktuko Adierazpenaren menpeko jarduerentzako sailkatutako jarduera-lizentziaren izapidea koordinatzeari dagokionez.</p>		
	<p>BIZKAIKO FORU ALDUNDIA. INGURUMEN ZUZENDARITZA</p>	<p>Ez da ezartzen Udalak zer gutxieneko txosten eskatu behar dituen eta ingurumen-organoari espedientean zer txosten aurkeztu behar zaizkion (txosten teknikoa, alegazioen dokumentuak, etab.).</p> <p>Proposatzen den idazketarekin, soilik ingurumen-organoko ingurumen-txostena aurkeztea bermatzen da, eta ez da besterik exijitzen, esaterako, osasungintzakoa, babes zibilekoa, eta beste.</p> <p>Argi geratu behar da ingurumen-organoko txostena informazio publikoko aldiaren ondoren eta sektoreko txostenak eskuratu ondoren eskatzen dela, denak elkarrekin proposatutako jardueraren proiektuarekin batera aztertze aldera.</p> <p>Proposatzen den testuarekin, eta sailkatutako jarduera berriaren ingurunean bizi direnekin edo beren jarduerak garatzen dituztenekin</p>	<p>Aldizkari ofizialaren eta webgunearen bidezko informazio publikoa nahikoa da.</p> <p>Tokiko entitateek jakinarazi digutenez, oso konplexua da jakinarazpen pertsonal egokia egitea mugakideei, eta jakinarazpen horrek ere, azkenean, ez du ingurumenaren babes handiagoa sortzen.</p> <p>Ez da berriazko txostenik jaso; izan ere, hainbat sektoreko araudik jasotzen dituzte dagoeneko berriazko txosten horiek. Artikuluaren testua zabala da, eta osasun-txostenaren eskaera egitea ahalbidetzen du, baita jarduerak behar duen beste edozer txosten egitea ere, udalari bere erabakian segurtasun juridiko handiagoa emate aldera.</p>	<p>Partzialki balioetsi da</p>

	<p>komunikazio zuzenik izan gabe, ez dirudi informazioa modu seguruan eskuratzea eta potentzialki eragindako pertsonen parte-hartzea bermatzen direnik.</p>		
	<p>Ordezko testu bat planteatzen da: "Hirigintza-plangintzan edo Udal Ordenantzetan oinarritutako udal-eskumeneko arrazoiengatik lizentzia berariaz ukatzen ez bada, Udalak eskaera informazio publikoan jarriko du, iragarki bat dagokion Aldizkari Ofizialean eta dagokion erakunde horretarako webgunean argitaratuz, eta Internetez, udaleko ediktuz edo beste baliabide batzuen bidez jakinaraziko die jarduera kokatuko den tokiaren ondoan bizi direnei edo jarduerak dituzten titularrei".</p> <p>Baliabideak planteatzen dira potentzialki eragindako biztanleriak administrazio-prozeduraren gaineko informazioa izango duela bermatzeko, prozedura horren ondorioz, sailkatutako jarduera berri bat has baitaiteke.</p>	<p>Ediktua onartuz, artikulua beste era batera idatzi da, aurreproiektuaren testuan dagoeneko jasotako testuei publizitate gehigarri bat egite aldera.</p>	<p>Partzialki balioetsi da</p>
	<p>Ordezko testu bat planteatzen da: "Informazio publikoko aldia 30 egunekoa izango da, alegazioak aurkezte aldera. Era berean, espedientean osasungintza-txosten nahitaezkoa eta loteslea jasoko da, eta beren eskumenen arabera erabakiak eman behar dituzten organo guztiei jardueraren izaeraren arabera premiazkoak izan daitezkeen txosten teknikoak ere jasoko dira; erabaki horiek 15 eguneko epean eman beharko dira, informazio publikoko izapidearen ondoren.</p> <p>Espedienteari txostenen ekarpena egitearen aipamena oso lauso</p>	<p>Artikuluaren idazkera zabala da, eta jarduerak behar duen txostena eskatzea ahalbidetzen du, udalak segurtasun juridiko handiagoa izan dezan bere erabakietan.</p> <p>Prozedura mota horietan txosten sanitarioa nahitaez igortzeko betebeharra berariaz jasotzen duen araudi sektorial sanitariorik ez dagoenez, alegazioa onartzen da eta txosten sanitarioa igortzeko betebeharraren aipamen zehatza txertatzen da.</p>	<p>Balioetsia</p>

		geratzen zen.		
ARABAKO FORU ALDUNDIA. NEKAZARITZA SAILA	<p>Nekazaritza-jarduerak edo eraikuntzak eraikitzeko edo nekazaritza-jarduerekin lotutako instalazioak hasteko, batzuetan, aurretiazko baimenak eta sektoreko txostenak behar izaten dira, baita dagozkion sektoreko erregistroetan izena ematea ere (Nekazaritzako Ustiategien Erregistroa, Abeltzaintzako Ustiategien Erregistroa, etab.). Administrazio-izaera errazteko eta “araudi inteligentea” kontzeptuarekin koherentzia izanez eta lege berriaren helburuak kontuan izanik (administrazioa sinplifikatzea eta behar ez diren izapideak kentzea), antzeko prozedura bat ezartzea proposatzen da beharrezkoak izan daitezkeen sektoreko txosten teknikoak eskatzean, ezarri beharreko esku-hartze erregimena alde batera utzita. Baimena, lizentzia edo jakinarazpena bideratzeko arduratzen den ingurumen-organoa (Udala edo EAeko ingurumen-organoa, kasuan kasu) arduratu beharko litzateke txosten horiek eskatzeaz, 38.1 artikulua baimenen kasurako ezartzen duenaren arabera.</p> <p>Ingurumen Administrazioaren Legearen 50.2 eta 56.1 artikulua aldatzea proposatzen da gai hori zehazte aldera.</p>	<p>Ez da ikusten zer nolako aurretiazko baimenei edo premiazkoak diren sektoreko txostenei buruz ari den alegatzailea, dagozkion erregistroetan inskripzioak egiteaz gain. 50.2 artikulua edukiak literalki adierazten du espedientean premiazkoak diren txosten teknikoak jasoko direla, zeinak, orokorrean, dagozkion udalak eskatzen baititu izapide-fase horretan (osasungintza-txostena, irailaren 22ko 515/2009 Dekretuaren DA).</p> <p>Alegazioaren gainerako zatiari dagokionez, proposamena onartuz gero, EAeko udalak leihatila bakar bilakatuko lirateke nekazaritzako sektorearentzat, eta sustatzaileen obligazioen artean subrogatuko da hainbat nekazaritza eta abeltzaintzako erregistrotan inskripzioak eskatzea eta beste aurretiazko baimen batzuk bideratzea. Memoria ekonomikoetan eta justifikaziozkoetan aztertu ez diren funtzio berri horien ondorioz, zeinaren inpaktu ekonomikoa eta lan-karga gehigarriko inpaktua alegatzaileak xehatu ere ez baitu egin, tokiko entitateek zama gehigarriak hartu beharko litzateke beren gain, eta hori ez litzateke balioetsi beharko azterketa eta informazio gehiagorik egin gabe. Gainera, adierazi behar da beste sektore ekonomiko batzuek ere nekazaritza-sektoreari emango litzaiokeen tratua bera exijitu ahalko luketela.</p> <p>Aurretiazko jakinarazpenen kasuan, zailagoa izango litzateke alegazioa barne hartzea. Izan ere, sustatzaileak eman egin behar ditu jarduera hasteko exijitu daitezkeen sektoreko baimenak. Are</p>	Gaitzetsia	

			gehiago udala ez diren beste administrazio publiko batzuei baimenak edo jakinarazpenak eman behar zaizkienean.	
	OSASUN SAILA	Laugarren tituluan, II. kapituluan, ingurumen-baimen integratuen prozedura ezartzen da. Aurreko araudian nahitaezko osasun txosten loteslea aurreikusten zen jardueraren lizentzia-prozeduran. Kontuan izanik jardueren antolamendu berriak jarduera-kopuru esanguratsu bat ingurumen baimen bakarrera eramaten duela eta prozedura horretan osasun-txosten nahitaezkoa eta loteslea izan ordez ingurumen-organoak nahi duen moduko osasun-txostena izango dela (38. artikulua), aldaketa handi bat sortzen da. Kontuan izanik azkeneko urteetako esperientzia, planteatzen da artikuluetan jaso behar dela osasun publikoaren arloan eskumena duen sailari jakinaraziko zaizkiola eskaerak, eta sail horrek informazio gehigarria eskatu eta osasun-txosten loteslea eman ahalko duela.	Aurreproiektuaren 38. eta 50. artikulua (beste txosten batzuk) modu irekian idatzi izanaren helburua da sektoreko hainbat araudik jarduerak martxan jarri aurretik exijitzea ezartzen dituzten txosten tekniko guztiak jasotzea, txosten horiek zein izan behar diren zenbatzen edo <i>numerus clausus</i> finkatzen hasi gabe. Adibidez, Dekretu hau. Prozedura mota horietan txosten sanitarioa nahitaez igortzeko betebeharra berariaz jasotzen duen araudi sektorial sanitarioik ez dagoenez, alegazioa onartzen da eta txosten sanitarioa igortzeko betebeharraren aipamen zehatza txertatzen da.	Balioetsia
51. artikulua. Neurri zuzentzaileak ezartzearen txostena	ENBA-EUSKAL NEKAZARIEN BATASUNA	ENBAn uste dugu diskriminatzailea eta jarrera paternalista baten ondorioa dela, goi mailako erakundeek maila txikiagoko udalerriekiko dutena, hau da, foru-organoei esleitzen zaien tutoretza 10.000 biztanle baino gutxiagoko herrien gainean, nahiz eta azken horiek izan nekazaritza eta abeltzaintzako jarduera gehien sortzen dutenak eta jarduera horren errealitatea ondoen ezagutzen dutenak.	Ez da jarrera paternalista bat. Oinarri moduan hartzen da administrazio arteko lankidetzak, eta udalerririk txikiak ingurumenaren eta pertsonen osasunaren gainean eragina izan dezaketen proiektuen eta jardueren inguruan erabakitzeak izan dezaketen gabezia, bai maila teknikoan zein langileen mailan. Helburua da tratu homogeneo bat ematea lurralde historiko guztiko jarduera berei.	Gaitzetsia

<p>BERMEOKO UDALA</p>	<p>Gure ustez, hobe litzateke udalerri guztiei uztea, duten tamaina alde batera utzita, Foru Aldundian ingurumen-arloan eskumenak dituen organoari neurri zuzentzaileak ezartzeko txostena eskatzeko aukera. Udalerriek berek erabaki dezatela, jarduera-motaren arabera, zer nolako baliabide teknikoak, etab. dituzten erabilgarri, txosten hori eskatzea hobe ote den edo ez. Eta, bestetik, txosten hori eskatu ondoren, udalek berariazko ahalmena izan dezatela neurri zuzentzaile osagarriak eransteko, egokia deritzotenean. Nire ustez, formulazio hori proposamena baino malguagoa eta erantzunkideagoa da, eta emaitza hobeak emango lituzke jarduera horien kontrol eraginkorra egite aldera. Horrela, artikulua hori honela idatziko litzateke:</p> <p><i>“Udalerriek neurri zuzentzaileak ezartzeko txostena eskatu ahalko die dagokion Foru Aldundiaren ingurumen-eskumenean organoari. Txosten hori nahitaezkoa eta loteslea izango da, eta obstatiboa izanez gero, exijitu beharreko ingurumen-neurri zuzentzaileak jasoko ditu, jarduera ingurunearekin bateragarri egite aldera. <u>Era berean, udalek neurri zuzentzaile osagarriak ezarri ahalko die jarduera horri, modu justifikatuan eta egokia deritzatenean</u>”.</i></p>	<p>Aipatu txostenak beharrezko neurri zuzentzaileak dagokion moduan jasoko ditu. Dagoeneko aipatu den moduan, atal horren oinarria administrazio arteko lankidetzaren printzipioa da, kontuan izanik udalerri txikiek zer nolako urritasuna izaten duten maila teknikoan, aurrekontuen eta langile mailan, ingurumenean eta pertsonen osasunean eragina izan dezaketen proiektuen eta jardueren gainean erabakitzeke orduan.</p>	<p>Gaitzetsia</p>
<p>ARABAKO FORU ALDUNDIA. INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA</p>	<p>Arabako Lurralde Historikoen kasuan, 51 udalerritik 49k 10.000 biztanle baino gutxiago dituzte. Horrek desoreka bat suposatzen du, eta hori zuzendu egin beharko litzateke.</p> <p>Kontuan izanik Foru Arau gaitzailearen figura administratiboa existitzen dela (KUADRILEI BURUZKO AZAROAREN 20KO</p>	<p>Hasieran, gure ustez, udalak eta foru aldundiak aipatu behar dira artikuluan. Ingurumeneko izaera orokorreko lege batean ez dirudi egokia denik lurralde historiko bakar bateko errealitatea aipatzea, eta gainera, ezartzea, soilik aplikatuko dela baldin eta ingurumen-teknikaria badute.</p>	<p>Gaitzetsia</p>

		<p>63/1989 FORU ARAUA; 1089ko abenduaren 11ko 142. zk. ALHAO), eta kontuan izanik arau horietan "ingurumen-teknikaria"-ren figura existitzen dela, lurralde historiko honen bidez eskatzen dugu artikulua hori idaztea errealtate hori barnean hartuz. Hau da, aipatu foru arau horren 28.f) artikuluan aipatutakoa oinarri harturik, alegia, "<i>Udalen, Foru Aldundiaren eta zuzenbide publikoko beste erakunde batzuen eskuordetze edo transferentzia bidez eskumenak hartzea</i>", kontuan hartu beharko litzateke figura horrek neurri zuzentzaileak ezartzeko txostena egiteko aukera, Foru Aldundiak arrazoituta ebazpena eman ondoren. Horrek, aldi berean, Amaierako Lehen xedapenari eragingo lioke.</p> <p>51.4. art: kasu horretan, gure ustez, foru-organoak azkartasun handiagoa emateko ebatzi beharko luke.</p>	<p>Izaera orokorreko administrazio publikoek eta urriaren 1eko 40/2015 Legean ezarritakoarekin bat, beren eskumenak egikaritzea eskuordetu dezakete. Beraz, Arabako Foru Aldundiak ez du inolako eragozpenik (bere foru-araua ezarritik), nahikotasun teknikoak egiaztatzen den kasuetan, lizentzia ematearen gaineko aipatu txosten teknikoak aipatu Kuadrilei dagozkien udalerriei eskuordetzeko.</p>	
DONOSTIAKO UDALA	<p>4. puntua: jarduerak edo instalazioak ebaluazioa egiteko atxikipena izanez gero honako hau eranstea proposatzen da: "nahiz eta udalek txosten osagarria eman ahalko dioten (ingurumen-alderdiak jaso ahalko dituen)".</p>	<p>Ingurumen-txostenak, baldin eta proiektuak EIA bete behar badu, ingurumen-alderdi guztiak izango ditu; hala ere, udalerriak, jakina, bere eskumenerako beste alderdi batzuk hartu ahalko ditu kontuan (hirigintzakoak, etab.) txostena emateko.</p> <p>Beste administrazio batek dagoeneko aztertutako alderdien gaineko txostenak ematea errepikatzea aurreproiektuaren 1.f) helburuaren aurka joatea da, hau da, administrazio-prozedurak azkartzea eta sinplifikatzea.</p>	Gaitzetsia	

	<p>BILBOKO UDALA</p>	<p>Alegatzaileak zenbait aldaketa proposatzen ditu artikularen edukian.</p> <p>Argi geratzen da ekainaren 12ko 133/2008 Dekretu galziarraren 12.3 artikulua aipatzean, zeinaren bidez arautzen baita ingurumen-inpaktuko ebaluazioa, ingurumen-eraginaren zuzentaraua aipatuz.</p> <p>Jarduera-lizentziaren helburua, ingurumen-helburuak izateaz gain, hirigintza-, osasun- eta segurtasun-helburuak ere badira. Ez gaude ingurunearekiko bateragarritasuna aztertzen duen IIA baten aurrean. Sailkatutako jardueren aurrean gaude, non, gainera, erabiltzaileentzako segurtasuna, osasungarritasuna eta lasaitasuna ere kontrolatzen den lokal barruan.</p> <p>Zergatik gertatzen da dualtasun hori? Utz dezagun neurri zuzentzaileen terminoa, jarduera ezartzeko eta gauzatzeko premiazko neurriak jasotzen baititu.</p> <p>Horrela, udal-eskumenak ziurtatuko dira hainbat gaien gainean, hala nola hiri-hondakinak, zaratak eta bibrazioak, keak, beroa, usainak, hautsa, argi-kutsadura eta hondakin-uren isurketa saneamendu-sarea edo udal-estolderira, osasungarritasuna, babes zibila, suteengandik babestea eta suteak itzaltzea.</p>	<p>Egokia deritzogu neurri zuzentzaileak aipatzea 51.2 artikuluan, ingurumen-baldintzak aipatu ordez.</p> <p>“Obstatibo” terminoari dagokionez, artikuluari emandako testu berria aipatzen dugu.</p>	<p>Gaitzetsia</p>
	<p>BIZKAIKO FORU ALDUNDIA. INGURUMEN ZUZENDARITZA</p>	<p>Obstatibo terminoa kentzea eskatzen da 51. artikuluan</p> <p>Neurri zuzentzaileen aurreko prebentzio-printzipio moduan, neurri babesleak edo prebentziozkoak sustatu behar dira.</p> <p>Kalifikazio-txostenaren igorpenari argitasun handiagoa emango dion</p>	<p>Txostena, nolnahi ere, loteslea izango da, bai obstatiboa bada, bai zenbait neurri zuzentzaile ezartzen baditu. Udalek kontuan hartu beharko dituzte neurri horiek.</p> <p>Artikularen testua aldatu egingo da aurreko alegazioen</p>	<p>Partzialki balioetsi da</p>

	<p>testu bat formulatzen da. Obstatibo terminoak ez dio argitasunik eta segurtasun juridikorik ematen artikulu horri. Nolanahi ere, argi geratu behar da ingurumen-organoaren txostenak izaera loteslea duela, bai aurkakoa denean, bai neurri babesleak eta zuzentzaileak ezartzea dagokionean. Ez da argitzen prozedurak aurrera egin ahala bultzatu beharreko hainbat alderdi, esaterako, dokumentazio gehigarria eskatzearen kontua. (udala, sustatzailea, ingurumen foru-organoa).</p>	erantzunean azaldutako zentzuan.	
	<p>2. Ikusirik aurkeztutako dokumentazioa eta adierazitako udal-jarduerak, emandako eta jasotako txostenekin batera, eta Alkateak jarduera-lizentzia eman aurretik, dagokion Foru Aldundian ingurumen-eskumenak dituen organoak aipatu txostena eman beharko duela gehienez ere hamabost eguneko epean, Udalak eskatzen duenetik zenbatzen hasita.</p> <p>Jardueraren lizentzia eman aurretik prozeduraren zati hori egitea falta da, nahiz eta barne mailakoa izan.</p>	Artikulua berridatzi egin da, honelako alegazioei erantzunez, besteak beste.	Partzialki balioetsi da
	<p>4. Jarduera edo instalazio bat ingurumen-baimen integratura, ingurumen-baimen bakarrera, ingurumen-inpaktuko adierazpenerako edo ingurumen-inpaktuko txosten batera atxikirik izanez gero, aipatu txostena ez da beharko; izan ere, horren orde, Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumen-organoak, hala badagokio, ematen duen baimena, adierazpena edo ingurumen-txostena erabiliko da.</p> <p>Horrela, goi mailako edo lehentasunezko baimenen edo txostenen</p>	Alegazioa gaitzetsi da. Aurreproiektuaren testua egokia da teknikoki.	Gaitzetsia

		aukera osatzen da.		
52. artikulua. Jarduera- lizentzia ematea	PASAIAKO UDALA	<p>Nahiz eta jarduera-lizentzia ingurumen-lizentzia bat izan, jarduera ezartzeko titulu gaitzailea denez aldi berean, garrantzitsua da berariaz adieraztea Foru Aldundiak edo Udalak ezarritako ingurumen-neurri zuzentzaileez gain, jarduera-lizentziak 50. artikulua, sektoreko araudi ezargariaren edo ezarri beharreko udal-ordenantzen arabera eskatzen diren txostenetan adierazitako neurri zuzentzaile gehigarriak jasoko dituela.</p> <p>Alde horretatik, atal berri bat jasotzea proposatzen da egungo 52.1 eta 52.2 artikuluen artean, honako testu honekin:</p> <p><i>2. Jarduera-lizentziak Foru Aldundiak, edo, hala badagokio, Udalak ezarritako ingurumen-neurri zuzentzaileak jasoko ditu, baita jarduerari ezarri beharreko neurri zuzentzaileak ere, 50.2 artikuluan, sektoreko araudi ezargarian edo ezarri beharreko udal-ordenantzetan aipatutako 105 organok emandako txostenen arabera.</i></p> <p>Egungo artikulua hauek: 52.2, 52.3, 52.4, 52.5 eta 52.6, honako hauek bihurtuko lirateke 52.3, 52.4, 52.5, 52.6 eta 52.7.</p>	Alegazioa onartu da. Lizentzian jaso ahal izan den edukia aipatu behar da, ez bakarrik ingurumen-edukiari dagokionez, baizik eta baita gainerako txostenei dagokionez ere.	Balioetsia
	EKONOMIAREN GARAPEN ETA AZPIEGITURA SAILA	Aurreproiektuak administrazio-isiltasunak izaera negatiboa duela ezartzen du sailkatutako jardueraren lizentziak eskatzeko kasurako (52.3 artikulua). Aitzitik, 3/1998 Legean, egun indarrean dagoenean, kontrakoa ezartzen da, administrazio-isiltasunari zentzu positiboa ematen baitio (Autonomia Erkidegoaren edo foru-organo	Aurreko alegazioen zentzu berean, adierazi behar da isiltasun negatiboa ezartzea ingurumenean eragina duten jardueretan Europako araudiak ahalbidetzen (Zerbitzuen Zuzentaraua) eta Administrazio Publikoen administrazio-prozedura erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Lege berriak izaera orokorrek ezartzen	Gaitzetsia

		<p>eskudunaren ingurumen-organoak kontrako txostena eman ezik eta dagokion Udalak txosten hori betetzeke izan ezik).</p> <p>Ez da aldaketa hori egiteko arrazoirik ikusten; gainera, aldaketa hori legearen helburuaren aurkakoa izan daiteke, ingurumen-administrazioaren funtzionamendua azkartzeko helburua baitu, 11. artikuluan jasotzen den moduan. Bestetik, ez dator bat gainerako arauan ebazpen-faltaren, berariazko txostenaren edo dokumentuaren aurrean hartzen diren zehaztapenekin, horien helburua prozedurarekin jarraitzea erraztea baita, 52.3. artikuluko honetan ezarritakoaren aurka.</p> <p>Nolanahi ere, ulertzen dugu isiltasun negatiboa mantendu daitekeela, baina beti ere organo erabakitzailea udala bera duten baimenetara murrizten bada.</p>	<p>duen aukera dela. Eta hori hala izango da organo erabakitzailea tokiko administrazio bat edo beste erako bat den alde batera utzita.</p> <p>EAEko ingurumen-organoaren ustez, ingurumena interes orokorreko arrazoi bat dela kontuan harturik, ingurumen-eragineko jardueren edo instalazioen eskaerak gaitzetsi egin behar dira, administrazio eskudunak berariazko erantzunik eman ezean.</p> <p>Ilido horretatik ikusi urriaren 1eko 39/2015 Legearen 24.1 artikuluko 2. paragrafoa:</p> <p>24. artikulua: Interesdunaren eskaeraren ondorioz hasitako prozeduretako administrazio-isiltasuna.</p> <p>Isiltasunak eragin gaitzesgarria izango du Konstituzioaren 29. artikulua aitpatzen duen eskatzeko eskubidea gauzatzeari buruzko prozeduretan, hau da, prozedura horiek kontuan hartzearen ondorioz eskatzaileari edo hirugarrenei jabari publikoaren edo zerbitzu publikoaren inguruko gaitasunak transferituko balitzaieke eta ingurumena kaltetu dezaketen jarduerak gauzatzeko balirateke; eta Administrazio Publikoen ondare-erantzukizuneko prozeduretan ere eragin gaitzesgarria izango du.</p>	
BILBOKO UDALA	Alegatzaileak hainbat proposamen egin ditu 52. artikulua hobetzeko.		Alegazio horren eta beste batzuen edukia kontuan harturik, aurreproiektuaren aurreko 52. artikulua berridatzi da.	Partzialki balioetsi da

53. artikulua. Sailkatutako jardueraren hasierako edo irekitzeko jakinarazpena	ACLIMA	Artikulu osoa kentzea, dokumentu honen 24. artikularen alegazioan aipatutako arrazoiengatik.	24. artikuluko alegazioaren arrazoi berak, alegatzaileak hainbat lizentzia- eta jakinarazpen-mota aipatzen baititu.	Gaitzetsia
	PASAIAKO UDALA	Jarduerekin lotutako administrazio-izapideak bateratzeko helburuarekin, funtzionamendu-hasieraren edo irekitzearen jakinarazpenaren ordezkari jardueraren aurretzeko jakinarazpena egitea proposatzen da. Alegatzaileak 53. artikulua berridaztea proposatzen du. 1.	Proposamena ez da beharrezkotzat jotzen. Jakinarazpen horren helburua, hain zuzen ere, dagokion titulu baimentzailean martxan jartzeko exijitzen diren neurrien eta baldintzen inplementazioa egiaztatzea da. Alegazioan lizentzia-mota ezberdinak eta jakinarazpena nahasten dira.	Gaitzetsia
	HERNANIKO UDALA	53. artikuluko 1. puntuak honela dio: «Jarduera hasi ahal izateko, sustatzaileak jakinarazpen bat aurkeztu beharko du udalaren aurrean, horrek bere erantzukizunpean egiazta dezan instalazioak onartutako proiektuarekin bat egiten duela, baita sailkatutako jardueraren lizentzian, hala badagokio, ezarritako neurri zuzentzaile gehigarriekin ere bat egiten duela, eta konpromisoa duela ezarritako baldintzak betetzen jarraitzeko». Aurreko puntuan azaldutako arrazoi beragatik, «jakinarazpen» baten ordezkari, «sailkatutako jardueraren aurretzeko jakinarazpena» jartzea. Horrela, 53. artikuluko 1. puntua honela jasoko litzateke: «Jarduera hasi ahal izateko, sustatzaileak sailkatutako jardueraren aurretzeko jakinarazpen bat aurkeztu beharko du udalaren aurrean, horrek bere erantzukizunpean egiazta dezan instalazioak onartutako proiektuarekin bat egiten duela, baita sailkatutako jardueraren lizentzian, hala badagokio, ezarritako neurri zuzentzaile	Aipatu artikularen tituluak berak argi eta garbi ezartzen du «Sailkatutako jardueraren hasierako edo irekitzeko jakinarazpena» dela. Alegazioan lizentzia-mota ezberdinak eta jakinarazpena nahasten dira.	Gaitzetsia

		gehigarriekin ere bat egiten duela, eta konpromisoa duela ezarritako baldintzak betetzen jarraitzeko».		
--	--	--	--	--

	<p>BERMEOKO UDALA</p>	<p>Artikulu horren 1. atalean esaten da jardueraren sustatzaileak jardueraren hasieran udalean jakinarazpen bat aurkeztu beharko duela, honako hau esanez: <i>“bere erantzukizunpean egiaztatzen du instalazioak onartutako proiektuarekin bat egiten duela, baita ezarritako neurri zuzentzaile gehigarriekin ere (...)”</i>. Eta, bestetik, 3. atalean, jakinarazpen horrekin batera honako hau aurkeztu behar dela: <i>“teknikari eskudunak sinatutako egiaztagiria bat (...), instalazioek onartutako proiektuarekin bat egiten dutela eta sailkatutako jardueraren lizentzian finkatutako baldintzak betetzen direla egiaztatze aldera”</i>. Beraz, nork egiaztatzen du instalazioak onartutako proiektuarekin bat egiten dutela eta ezarritako neurri zuzentzaileak betetzen direla? Sustatzaileak? Teknikari eskudunak? Edo biek, aldi berean? Testu nahasgarria da eta itxura batean kontraesankorra, eta gure ustez, berrikusi egin beharko litzateke.</p> <p>Gure ustez, alderdi hori teknikari eskudunak egiaztatu beharko luke; aldiz, sustatzaileak egiaztagiria hori aurkezteko eta bere konpromisoa azaltzeko erantzukizuna izango luke, ezarritako baldintzak betetzen jarraitzeko.</p> <p>Bestetik, ez dugu ulertzeko 1.b ataleko adierazpen bat, eta argitzea nahiko genuke. Honako hau da:</p> <p><i>“Teknikari eskudunak sinatutako egiaztagiria, <u>jakinarazpenaren helburu den jarduera-motaren arabera</u>, egiaztatuko duena instalazioek bat egiten dutela...”</i></p> <p>Horrek zer esan nahi du, teknikari eskudunak sinatutako egiaztagirik</p>	<p>Testua aldatzea alegazioaren zati bat balioesteko eta ‘egiaztatu’ terminoaren ordez ‘adierazi’ terminoa jartzea; horrela, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 69.1 artikuluan esaten dena jarriko da, hitzez hitz.</p> <p>Jardueraren arabera teknikari eskudunaren erreferentzia lizentziari atxikitako jardueren eta instalazioen heterogeneotasunaren besteko logikoa da; izan ere, horiek kasu batean ingeniari bat beharko lukete, eta beste kasu batzuetan, agian, nahikoa litzateke arkitekto bat edo beste profil bat.</p>	<p>Partzialki balioetsi da</p>
--	---------------------------	--	--	------------------------------------

		<p>behar ez duten aurretiazko jakinarazpenak daudela? Zergatik? Zein dira jakinarazpen horiek? Edo zer esan nahi du, egiaztagiri-mota ezberdinak existitzen direla, jarduera-motaren arabera? Egia esan, ez dugu horren esanahia ulertzen.</p>		
--	--	--	--	--

54. artikulua. Saikaturako jardueraren lizentzia berrikustea	DONOSTIAKO UDALA	b) atalean aldaketa garrantzitsu bat sortu da baliabide hartzailearen immisio-balioetan. Testua ez da argi geratzen. Ulertzen dugunaren arabera, airearen kutsatzaileen immisio-balioez ari da; baina kasu honetan, Eusko Jaurlaritzako Airearen Kalitatearen Sareko estazio finkoetako immisio-balioak daude soilik. Sare horretako neurketen aldaketei buruz ari bada, horrela zehaztu beharko litzateke.	Erreferentzia hori immisio-arau akustikoez ere ari da, ez soilik atmosferikoez. Ez da onartzen; izan ere, immisio-kontzeptua airearen immisio kutsatzaileez hitz egiten duena baino zabalagoa da.	Gaitzetsia
	BILBOKO UDALA	Alegatzaileak artikulua berridaztea eskatzen du, saikaturako jardueraren funtzionamendu-baldintzen ofiziozko aldaketa moduan izendatuz.	Aurreproiektuan emandako testua nahika argia dela ulertzen da; gainera, berrikuspen terminoa IBIrako eta IBBrako erabili da jada, eta testuaren barne-koherentzia mantendu behar da. Izan ere, berrikusteari esker, LACen funtzionamendurako baldintzak ofizioz aldatu daitezke, proposatzen den moduan.	Gaitzetsia
55. artikulua. Saikaturako jardueraren aurretiazko jakinarazpena.	BILBOKO UDALA	Aurreproiektuaren testuan aldaketak egitea eskatzen da, Legean aurreikusitako jakinarazpen bietako bat kenduz eta biak bateratuz.	Alegazioa gaitzetsi da. Osagarriak dira eta figura biak behar dira.	Gaitzetsia
56. artikulua. Saikaturako jardueraren aurretiazko jakinarazpena aurkeztea	BILBOKO UDALA	Alegatzaileak hainbat proposamen egiten ditu aurkeztutako testua hobetzeko, xehetasun handia emanez.	Aurreproiektuak ezin du horrelako xehetasun maila izan, onartu ondoren Lege maila izango baitu. Udalek gai horren gaineko ordenantzak eta ereduak onartzeko eskumenak dituzte; beraz, ez da onartuko alegazio hori.	Gaitzetsia

<p>57. artikulua. Sailkatutako jardueraren aurretiazko jakinarazpenaren edukia eta eraginak</p>	<p>BILBOKO UDALA</p>	<p>Testuan hobekuntzak egitea eta egungo 61. artikulua diona mantentzea proposatzen du. Sailkatutako jardueraren lizentziaren eta gainerako hirigintza-lizentzien arteko harremana.</p>	<p>Ez dagokio egindako proposamen guztiak jasotzea; izan ere, alegazioa onartu ez diren aurreko proposamenen ondoriozkoa da.</p> <p>Hala ere, 53. artikulua berridatzi egin da, ikuskizun publikoei eta aisialdiko jarduerari buruzko Legean ezarritakoa jasotzeko.</p>	<p>Partzialki balioetsi da</p>
<p>58. artikulua. Aldaketa</p>	<p>BILBOKO UDALA</p>	<p>29. artikulua berri bat egiteko proposatutako testua onartzea eskatzen du.</p>	<p>29. artikuluko aurreko alegazioan ez da onartu, beraz, orain ere ez dagokio onartzea.</p>	<p>Gaitzetsia</p>
<p>Artikulu berria</p>	<p>BILBOKO UDALA</p>	<p>Jarduera kaltegabea buruzko artikulua berri bat jasotzea eskatzen du, aurreproiektuan aurreikusitako gabeko erantzukizunpeko adierazpen baten bidezko esku-hartzearen erregimen berri bat txertatuz.</p>	<p>Ez dagokio hori txertatzea.</p> <p>Ulertzen denaren arabera, bazterketaren bidez sailkatzen ez diren jarduerak kaltegabeak izan daitezke.</p>	<p>Gaitzetsia</p>

LAUGARREN TITULUA. INGURUMENEA ERAGINA DUTEN JARDUEREN ANTOLAMENDUA.				
V. KAPITULUA. SAILKATUTAKO JARDUERAREN AURRETIAZKO JAKINARAZPENA				
ARTIKULUA	ALEGATZAILEA	ALEGAZIOAREN LABURPENA	INGURUMEN SAILBURUORDETZAREN AZTERKETA	AUKERA
56. artikulua. Sailkatutako jardueraren aurretiazko jakinarazpenaren aurkezpena	EHNE-EUSKAL HERRIKO NEKAZARIEN ELKARTASUNA	3. puntua. Zer kasutan gerta daiteke hori?	Aurreproiektuko I.D Eranskinean aurreikusten diren kasuetan, non jakinarazpen hutsera atxikitako jarduerak aipatzen baititu. Muturreko egoera dirudien arren, jardueraren izaeragatik baino kokatu nahi den inguruneagatik ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa behar duten kasuak sortzen dira. Alegia, ingurumen-inpaktu baxuko jarduerak izaten dira, baina babes bereziko eremuetan ezarri nahi direnak.	Azalpenezko alegazioa
57. artikulua. Sailkatutako jardueraren aurretiazko jakinarazpenaren edukia eta eraginak	PASAIAKO UDALA	57.2 artikulua jardueraren hasiera-erantzukizuna jardueraren sustatzaileari esleitzen dio soilik. Hala ere, aurretiazko jakinarazpena bete behar duen jarduera bat hasteko, teknikari eskudunak emandako ziurtagiri bat aurkeztu behar da. Pasaiaiko Udalaren ustez, baldintza horrek funtsezko garrantzia du. Horregatik, jarduera-hasierako erantzukizuna jardueraren sustatzailearekin eta egiaztagiria ematen duen teknikari eskudunarekin partekatu behar da, egungo 3/98 Legean aurreikusten den moduan. Beraz, 57.2 artikulua testua honela aldatzea proposatzen da: <i>Jakinarazpena egin ondoren, jardueraren pertsona fisikoen edo</i>	57.2 artikulua laugarren titulu guztiari ezartzen zaion 25.2. artikulua (gaitasun teknikoa eta erantzukizuna) arabera ulertu behar da, eta proiektuen eta dokumentazio teknikoaren autoreak ere erantzuleak izango diren kasuak zehazten ditu. Testua aldatu da planteatutako alegazioa jasotzeko. Kendu berariazko erantzukizunaren kontu hori.	Partzialki balioetsi da

		<i>juridikoen eta egiaztagiria eman duten teknikarien berriazko erantzukizunpean hasi ahalko da jarduera.</i>		
EHNE-EUSKAL HERRIKO NEKAZARIEN ELKARTASUNA	a) puntua, c) atala: Zer kasutan?		Eranskinetan aurreikusitako kasuetan.	Gaitzetsia
BERMEOKO UDALA	Esan denaren arabera, aurretiazko jakinarazpenarekin batera honako dokumentazio hau aurkeztu behar da: <i>“jarduera eta bere ingurumen-eragin edo -inpaktu nagusiak deskribatuko dituen proiektua edo memoria, bereziki arlo honetan (...).”</i> Sailkatutako jardueraren lizentzien kasuan, dirudienez, denok dugu nahiko argi nahitaezkoa dela baldintzak betetzen dituen proiektu tekniko bat aurkeztea; hala ere, aurretiazko jakinarazpenen kasuan, oraindik ere zalantza dago proiektu tekniko bat ere eskatu behar ote den edo nahikoa izango litzatekeen deskripzio-memoria batekin, zeina teknikari eskudun batek ere idatzi behar ez baitu. Artikulua idatzi den moduaren arabera, dirudienez, sustatzailearen eskutan uzten da proiektu bat edo memoria bat aurkeztea aukeratu behar ote den, biek balioko bailukete. Egia esan, aurretiazko jakinarazpenen barruan jarduera-aukera oso zabala sartzen da, eta kasuaren arabera, zentzu gehiago du berezko proiektu tekniko bat aurkezteak; aldiz, beste kasu batzuetan, memoria tekniko labur bat aurkeztea pare bat planorekin zentzuzkoena izango litzateke. Zalantzak hor jarraitzen du eta ez du irtenbide errazik. Gure esperientziaren	Gauzatu nahi den jardueraren edo instalazioaren betearazpenaren proiektu teknikoaren eta beste gauza zabalago baten artean bereizi nahi izan da, alegia, beste alderdi batzuk aztertzen eta jasotzen diren deskripzio-memoria. Ziurrenez, kasu askotan nahikoa izango da proiektu teknikoarekin; beste kasu batzuetan, agian, deskripzio-memoria jasoko luketen datu edo txosten gehiago beharko dira. Jakina, teknikari eskudunak idatzi (sinatu gauza bera da) beharko ditu, araudi ezargarriak betez; ondorioz, planteatutako alegazioa onartzen da eta aurreproiektuaren testua aldatuko da.	Gaitzetsia	

		<p>bidezko ekarpen bat egiten saiatzeko, nik aukera biak utziko nituzke, baina aurreko paragrafoetan azaldutakoarekin bat, osatu egingo nuke esanez proiektu edo memoria hori teknikari eskudunak idatziko duela, eta proiektu edo memoria horretan existitzen den araudia betetzen dela ere justifikatu beharko dela. Horrela, aurkeztu beharreko dokumentazioan kalitate- eta profesionaltasun-minimoak bermatuko genituzke. Beraz, paragrafo hori honela idatzita geratuko litzateke:</p> <p><i>“1. Sailkatutako jardueraren aurretiazko jakinarazpenarekin batera honako dokumentazio hau aurkeztu beharko litzateke:</i></p> <p><i><u>Teknikari eskudunak idatzitako proiektu edo memoria teknikoa, non jarduera, araudi ezargarria eta araudi horren ingurumen-eragin edo -talka nagusiak betetzen dela</u> deskribatuko den, bereziki isurpen, isurketa, hondakin, lurzoru eta hots-kutsadurari dagokionez”</i></p>		
	DONOSTIAKO UDALA	b) Era berean, deskribatu beharko da biodibertsitatearen gainean inpaktua ote duen edo ez.	Balioetsi egin da orokorrean ulerkorragoa izan dadin. Kokatzen den ingurunea jaso da.	Partzialki balioetsi da
58. artikulua. Jardueren aldaketa.	BERMEOKO UDALA	Jarduera bat bideratzean titular-aldaketa eskatzeak zalantza handiak sortzen digun kontu bat da. Non arautzen da nola jardun kasu horietan? 3/98 Legeak ez du argitzen, eta hor sortu dira zalantzak. Nire ustez, hau aukera ezin hobea da gaur arte hain gutxi landu den alderdi hori arautzeko. Ez dezagun ahaztu titular-aldaketen eskaerakopurua sarritan sektore askotan, esaterako, ostalaritzan, lizentzia berria eskatzeko baino askoz ere handiagoa izaten dela, eta ezin	Aipatu nahasmenik ez da gertatzen. Aurreproiektu honek arautzen dituen esku-hartze titulu guztiek gauza errealak hartzen dituzte kontuan, ez gauza pertsonalak, eta ondorioz, transmitigarriak dira. Lokalaren edo establezimenduaren transmisioaren ondorioz, indarreko titulu baimentzailea transmititzen da, eta horrek titulartasuna berritzen du soilik; berritze hori, jakina, Administrazioari jakinarazi behar zaio, hark jakin dezan zein	Gaitzetsia

		<p>dugu ahaztu hori garrantzitsua dela. Kasu horietan, zer egin behar da?</p> <p>a) Titular-aldaketa eman behar da, ekintza administratibo huts moduan, eta kito.</p> <p>b) Ikuskaritza bidez egiaztatu behar da hasierako lizentzian ezarritako baldintzak betetzen jarraitzen direla, eta betetzen badira, aldaketa eman behar da, eta kito</p> <p>c) Aspaldiko lizentzia den balioestea, eta hala bada, titular-aldaketa emateko aprobetxatu eta jarduera horri ezarri behar zaizkion exigentzia berrien arabera egokitzea, beti ere ekonomikoki eta teknikoki onargarriak badira.</p> <p>Gai hori ondo argituta izango balitz Lege berrian, tresna ezin hobea izango litzateke udalen lana errazte aldera, baita jarduera askotako langileen ingurumen-, segurtasun- eta osasun-jokabidea hobetzeko ere.</p> <p>Aurretiazko jakinarazpena izan behar duten jarduerak aldatzearen gaineko 58.1 artikuluan honako hau aipatzen da: <i>“instalazioaren ezaugarriei, produkzio-prozesuei, funtzionamenduari edo hedapenari eragin ahal dien transmisioa eta edozer aldaketa-mota udalari jakinarazi beharko zaio (...).”</i>Hemen jarduera bat transmititzearen gaia aipatzen da, baina zeharka eta modu osatugabea, eta horrek ez du gai hori ez lantzen ez argitzen bere benetako dimentsioan.</p>	<p>titularrengana jo behar duen ondoren. Horrek guztiak ez dio kalterik egingo Administrazioak, aurreikusitako kasuetan, baldintzak ofizioz berrikusteko edo aurrerapen-klausulara atxikitzeko duen aukerari. Baina gauza ezberdinak dira.</p>	
BIZKAIKO FORU	1.	Instalazioaren ezaugarriei, produkzio-prozesuei,	Jarduerak eta instalazioak aldatzeko prozedura izaera	Gaitzetsia

	<p>ALDUNDIA. INGURUMEN ZUZENDARITZA</p>	<p>funtzionamenduari edo hedapenari eragingo dion lekualdaketa, transmisioa eta edozer aldaketa Udalari jakinarazi beharko zaio, jarduera aldatzearen ondorioz esku-hartze erregimen ezargarria aldatzen denean salbu; kasu horretan, Lege honek erregimen horretarako ezartzen duena bete beharko da.</p> <p>2. Titularraren ustez aldaketa hori erabakigarria denean eta horren ondorioz esku-hartze erregimen ezargarria aldatzen ez denean, sailkatutako jardueraren aurretiazko jakinarazpen berria egin beharko da, aurreko artikuluan deskribatutakoaren arabera.</p> <p>3. Aldaketa erabakigarria den zehazteko interpretazio-irizpide moduan, Lege honetako 29. artikuluan ezarritakoa erabili ahalko da.</p> <p>Interpretazioaren bidez ondorioztatu daiteke, baina ez da argi geratzen zein den sailkatutako jardueraren lizentziaren menpe dagoen jarduera baten ezaugarriak aldatzeko prozedura.</p>	<p>orokorrarekin eta zeharkakoarekin arautu da 29. artikuluan, eta horrelako jarduerari ezartzen zaie.</p>	
	<p>PASAIKO UDALA (57. art.)</p>	<p>Ingurumenean eragina duten jardueren antolamenduari buruzko IV Tituluaren amaieran berariazko kapitulu bat eranstea proposatzen da, artikuluko bakarrek, EAEko ingurumena babesteari buruzko otsailaren 27 egungo Lege orokorraren 61. artikuluko testua izango duena. (...) Ondorengo artikulua horren ondorioz zerrendatu beharko dira.</p>	<p>18.4 artikuluan ingurumen-tituluak obren lizentziarekin batera jartzea egokia da.</p> <p>Proposatzen den gainerakoa aurreproiektuaren 57. artikuluan eta urriaren 1eko Estatuko oinarrizko 39/2015 Legean bertan jasota dago jada.</p>	<p>Partzialki balioetsi da</p>

BOSGARREN TITULUA. INGURUMEN-EBALUAZIOA

AURRETIAZKO KONTSIDERAZIOAK

Alderdi berak azpimarratzen dituzten hainbat alegazio eta proposamen izatearen ondorioz, pentsatu dugu egokia zela zenbait aurretiazko kontsiderazio egitea, Ingurumen Administrazioiko Legearen Aurreproiektuaren informazio publikoko informazio-prozedurako parte-hartzaileei azalpenak eta erantzun orokorra emate aldera.

1. Ingurumen-ebaluazioaren ezarpen-eremua.

Europako Parlamentuko eta Kontseiluko 2001eko ekainaren 27ko 2001/42/CE Zuzentarauaren, zenbait planek eta programak ingurumenean duten eraginak ebaluatzeari buruzkoaren arabera, *ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa tresna garrantzitsua da ingurumen-kontsiderazioak txertatzeko Estatu kideetan, **ingurumenaren gainean ondorio esanguratsuak izan ditzaketen planak eta programak** prestatzean eta hartzean; izan ere, horrela, plan eta programa horiek prestatzean eta horiek onartu aurretik ondorio horiek kontuan izango direla bermatuko da.*

Era berean, Zuzentarauak honako hau adierazten du: *zenbait sektoretarako prestatutako plan eta programa guztiak, zeinak esparru bat sortzen baitute zerrendatutako proiektuak etorkizunean baimentzeko 1985eko ekainaren 27ko Kontseiluaren 85/337/CEE Zuzentarauko I eta II eranskinean, zenbait proiektu publikok eta pribatuk ingurumenaren gainean sortutako ondorioak ebaluatzeari buruzkoan, (5.7.1985-ko DO L 175, 40. or.; 97/11/CE Zuzentarauak aldatutako Zuzentaraua (14.3.1997-ko DOL 73, 5. or.), eta ebaluazio baten menpe jarri behar diren plan eta programa guztiak, 1992ko maiatzaren 21eko Kontseiluko 92/43/CEE Zuzentarauaren, habitat naturalak eta landare eta animalia basatiak babesteari buruzkoaren arabera (22.7.1992-ko DO L 206, 7. or.; 97/62/CE Zuzentarauak azkeneko aldiz aldatutako Zuzentaraua (8.11.1997-ko DO L 305, 42. or.) **dirudienez, eragin esanguratsuak dituzten ingurumenaren gainean, eta arau moduan, ingurumen-ebaluazio sistematiko baten menpe jarri behar dira.** Tokiko mailan eremu txikien erabilera ezartzen dutenean edo plan edo programa horien aldaketa txikiak sortzen dituztenean, soilik ebaluatuko dira Estatu kideek ezartzen badute eragin esanguratsuak izan ditzaketela ingurumenean, eta etorkizunean proiektuak baimentzeko esparrua ezartzen duten beste plan eta programa batzuek agian, kasu guztietan, eragin esanguratsurik izango ez badute ingurumenean; eta ebaluatu beharko dira Estatu Kideek eragin horiek izan ditzaketela ezartzen dutenean soilik.*

Ondorioz, Zuzentarauaren 3. artikuluan ezarritakoaren arabera:

1. **Ingurumen-ebaluazio bat egingo da, Zuzentarau honen 4. artikulutik 9.-era arte ezarritakoaren arabera, ingurumenean eragin esanguratsuak izan ditzaketen 2 eta 4 atalek aipatzen duten planei eta programei dagokienez.**

2. 3. atalean ezarritakoa salbu, ingurumen-ebaluazioa egingo zaie honako plan eta programa guztiei:

a) nekazaritzaren, basogintzaren, arrantzaren, energiaren, industriaren, garraioaren, hondakinen kudeaketaren, baliabide hidrikoen kudeaketaren, telekomunikazioen, turismoaren, hiri- eta nekazaritza-lurraldearen antolamenduaren edo lurzoruaren erabileraren arabera egiten direnak, eta etorkizunean proiektu zerrendatuak baimentzeko esparrua ezartzen dutenak 85/337/CEE

Zuzentarauaren I eta II eranskinetan, edo

b) zenbait eremutan ziurrenez izan dezakeen eragina kontuan izanik, [Directiva 92/43/CEE](#).-ren 6. eta 7. artikuluetan ezarritakoaren arabera ebaluazio bat behar dutela ezartzen bada.

3. Tokiko mailan eremu txikiak erabiltzea ezartzen duten 2. ataleko planek eta programek eta 2. atalean aipatutako planetan eta programetan aldaketa txikiak ezartzeak ingurumen-ebaluazioa beharko dute, baldin eta **Estatu-kideek erabakitzen badute ingurumenean eragin esanguratsuak izan ditzaketela.**

4. Etorkizunean proiektuak baimentzeko esparrua ezartzen duten 2. ataleko planen eta programen aldean bestelako planei eta programei dagokienez, Estatu kideek ezarriko dute dagokion plan edo programa horrek ingurumen-eragin esanguratsuak izan ote ditzakeen edo ez.

5. Estatu-kideek ezarriko dute 3. eta 4. ataletan hautemandako plan edo programaren batek ingurumenean eragin esanguratsuak izan ote ditzakeen, bai kasuz kasu aztertuz, edo plan eta programa motak zehaztuz, edo metodo biak bateratuz. Horretarako, Estatu-kideek II. Eranskinean ezarritako dagozkion irizpideak izango dituzte kontuan, **ingurumenean eragin segur aski esanguratsuak dituzten planak eta programak Zuzentarau honen bidez babestuko direla bermatzeko.**

Bestetik, 2011ko abenduaren 13ko Europako Parlamentuko eta Kontseiluko 2011/92/UE Zuzentaraua, zenbait proiektu publikok eta pribatuk ingurumenaren gainean sortzen dituen ondorioak ebaluatzeari buruzkoa, *ingurumenean ondorio garrantzitsuak izan ditzaketen proiektu publiko eta pribatuen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazioan aplikatzen da* (1. art.), eta 2. artikuluan honako hau ezartzen du: *Estatu kideek beharrezko neurriak hartuko dituzte ingurumenean hainbat arrazoiengatik, besteak beste, beren izaerarengatik, dimentsioengatik edo kokapenarengatik, eragin esanguratsuak izan ditzaketen proiektuei baimena eman aurretik, proiektu horiek garapen-baimena eskuratu dezaten eta ingurumenean sortzen dituzten eraginaren gaineko ebaluazio bat egin dezaten. Proiektu horiek 4. artikuluan definitzen dira.*

Testu horien idazketa oso argia da; izan ere, soilik ingurumenean eragin esanguratsuak izan ditzaketen planek, programek eta proiektuek egin behar dute ingurumen-ebaluazioa.

Planek, programek eta proiektuek eraginak izan ditzakete edo ez ingurumenean; baina ingurumen-ebaluazioa ezarri behar da, izan ditzakeen eraginak esanguratsuak direnean.

Alderantziz, ez dagokio ingurumen-ebaluazioa ezartzea planek, programek eta proiektuek ezin dutenean eragin esanguratsurik izan.

2011/92/UE zuzentarauak zenbait plan eta programa aipatzen ditu, *dirudienez, eragin esanguratsuak dituztenak ingurumenaren gainean, eta arau moduan, ingurumenaren ebaluazio sistematiko bat egin behar dutenak; aitzitik, adierazten du etorkizunean proiektuak baimentzeko esparrua ezartzen duten beste plan eta programa batzuek agian ez dutela, kasu guztietan, eragin esanguratsurik izango ingurumenaren gainean, eta Estatu kideek eragin horiek izan ditzaketela ezartzen dutenean ebaluatu behar direla.*

Alde horretatik, 2001/42/CE Zuzentaraua ezartzearen gaineko Gidak, Europako Batzordeak 2003an argitaratu zuenak, honako hau jasotzen du:

Sarrera. 1.6 atala: *Hori (Zuzentaraua) ulertzeko lehenengo urratsa da erabakitzea zer plani eta programari ezartzen zaion. Beraz, dokumentuak, hasieran, bere ezarpen-eremua aipatuko du, eta arreta «planak eta programak» kontzeptuan zentratuko du, baita ingurumenean eragin esanguratsuak izatea probablea den edo ez. Ondoren, ordenaren arabera, ingurumen-txostenaren*

edukia, kalitate-bermeen araberako baldintzak, kontsultaren arloko xedapenak, ikuskapen-baldintzaren ezaugarriak, eta azkenik, Zuzentzarauaren eta erkidegoko beste legegintzako hainbat ekintzaren arteko harremanak aztertuko dira.

Zuzentzarauaren ezarpen-eremua. 3.1 atala: Zuzentzarauaren ezarpen-eremua ezartzen duten xedapenak beren artean lotutako bi artikulutan jaso dira funtsean: 2. artikulua planek eta programak izan behar dituzten zenbait ezaugarri definitzen ditu, Zuzentzaraua ezargarria izan dadin. Ondoren, **3. artikulua zenbait arau definitzen ditu, zehazteko plan eta programa horien arteko nork izan ditzakeen eragin esanguratsuak ingurumenean, eta beraz, zehazteko nork egin behar duen ingurumen-ebaluazio bat.** 13. artikuluko 3. atalean aldi baterako ezarpen-eremua definitzen da (ikus dokumentu honen 3.64-tik 3.66-ra arteko paragrafoak).

Zuzentzarauaren ezarpen-eremua. 3.44 atala: Zenbait kasutan agian metodo biak bateratu ahalko lirateke (kasuan kasuko azterketa eta plan- edo programa-motak zehaztea). **Metodo orokorra zenbait plan edo programa definitzea izango litzateke, zeinak, zehaztutako egoeretan, ziurrenez, ez bailukete eragin esanguratsurik izango ingurumenean, eta hitzartu beharko litzateke beste egoera batzuetan zehaztapena kasuan kasu egin behar ote litzatekeen.**

Zuzentzarauaren ezarpen-eremua. 3.50 atala: Zuzentzarauaren testu osoan zehar, **ingurumen-ebaluazioa egingo da ingurumenean eragin esanguratsuak sortzeko probabilitatearen arabera.** Ingurumen-eragin probableak aurreikustea konplexua sa, batez ere irismen handiko edo mailan handiko planen edo programen artean, non zaila izan baitaiteke ezarpenaren emaitzak aurreikustea onarpen-unean. **«Daiteke» edo «probablea» erabiliz, ulertzen da kontuan izan behar diren ingurumen-eraginak arrazoizko probabilitate maila batekin espero daitezkeenak direla.**

Zuzentzarauaren ezarpen-eremua. 3.57 atala: **Ziurgabetasun handia dago, eta datu edo ezagutza nahikoa ez izatearen ondorioz, zaila izan daiteke erabakitzea eragin esanguratsuak sor ote daitezkeen edo ez. Hala ere, ulertu daiteke beti ahal izango dela eraginen gutxi gorabeherako balioespen bat egin.**

2001/42/CE Zuzentzarauan jaso den antzeko eran (planen eta programen ingurumen-ebaluazioa), 2011/92/UE Zuzentzarauak hiru proiektu mota bereizten ditu (proiektuen ingurumen-ebaluazioa):

- Mota batzuetako proiektuek ondorio nabarmenak izaten dituzte ingurumenean, eta beraz, printzipioz, ebaluazio sistematiko bat egin behar dute.
- Beste mota batzuetako proiektuek ez dute nahitaz eragin garrantzitsurik izaten ingurumenean kasu guztietan, eta proiektu horiek ebaluazio bat egingo dute, baldin eta Estatu kide guztiak uste badute ingurumenean eragin esanguratsuak izan ditzaketela.
- Estatu kideek mugak edo irizpideak ezarri ditzakete, zehazteko, ingurumen-ondorioen arabera, proiektu horietako zein ebaluatu behar den. **Estatu kideek ez dute muga horien azpiko edo irizpide horiek betetzen ez dituzten proiektuak kasuz kasu aztertzeko obligaziorik.**

Nabarmendu behar da zuzentzarau biek teknika ezberdina erabiltzen dutela beren ezarpen-eremua mugatzeko orduan. 2001/42/CE Zuzentzarauak plan edo programa batek ingurumenean eragin esanguratsuak izateko aukera- edo probabilitate-kontzeptuak erabiltzen ditu, plan edo programa horren proiektu-motek etorkizunean plan edo programa horiek baimentzeko osatuko duten esparruari dagokionez; hain zuzen ere, Zuzentzarau horrek hautematen du proiektu horiek ingurumen-inpaktuko ebaluazioa egin behar ote duten edo ez. Aldiz,

2011/92/UE Zuzentzarauak proiektu-moten zerrenda itxiak eta mugak ezartzen ditu, eta horien bidez ingurumen-inpaktuko ebaluazioaren prozedura egin behar duten ezartzen da, edo Estatu kideek ebaluazio hori ezartzeko premia zehazten da 2011/92/EB Zuzentzarauak “aurretiazko egiaztapena” moduan izendatzen duenaren bidez. Kasu ezeinetan ez da ezartzen Estatu kideek aurretiazko egiaztapen hori gauzatzeko obligazioa dutenik, ezta ingurumen-inpaktuko ebaluazio bat egin behar dutenik, I. Eranskinean edo II. Eranskinean jasotzen ez diren proiektu-motetan.

Azkenik, 2011/92/UE Zuzentzarauak proiektu batek ingurumen-ebaluazioa egin behar duen zehazteko irizpideen artean “inpaktu-probabilitatea” jasotzen du.

Horrela, abenduaren 9ko 21/2013 Legeak, ingurumen-ebaluazioari buruzkoak, bere 1. artikuluan (Legearen Helburua eta xedea) honako hau ezartzen du: *Legeak ingurumenean eragin esanguratsuak izan ditzaketen planen, programen eta proiektuen ingurumen-ebaluazioa eraendu behar duten oinarriak ezartzen ditu...*; ondorioz, alderantziz interpretatu daiteke Legea ez dela aplikatzen ingurumenean eragin esanguratsurik izan ez dezaketen planetan, programetan eta proiektuetan. Interpretazio hori 2001/42/CE Zuzentzarauaren eta bere Ezarpen-gidaren gainean eta 2011/92/EB Zuzentzarauaren gainean azaldutako guztia ikusirik egin daiteke.

21/2013 Legeak xehetasunarekin azaltzen du plan, programa edo proiektu batek ingurumenaren gainean eragin esanguratsuak izateko aukera. Horrela, esaterako:

- 5. artikulua. Definizioak

a) Ingurumen-ebaluazioa: ...planek, programek, proiektuek eta abarrek ingurumenaren gainean dituzten edo izan ditzaketen ondorio adierazgarriak aztertzen dira...

- 31. artikulua. Ingurumen-txosten estrategikoa.

2.a. Planak edo programak ingurumen-ebaluazio estrategiko arrunt bat egin behar du, ingurumenean eragin esanguratsuak izan baititzake.

Planen eta programen ebaluazio estrategikoaren prozeduren eta proiektuen ingurumen-inpaktuko ebaluazioaren prozeduren ezarpen-eremua mugatzeko erabiltzen den teknikari dagokionez, Legeak fideltasunez betetzen ditu zuzentzarauak: plan edo programa batek ingurumenaren gainean eragin esanguratsuak izateko aukera- eta probabilitate-kontzeptuak erabiltzen ditu, plan edo programa horretan jasotako proiektuei dagokienez; aldiz, zerrenda itxiak erabiltzen ditu proiektuen kasuan.

Jasotako hainbat alegaziotan aipatzen da Europako zuzentzarauen arabera, planak, programak eta proiektuak ingurumen-ebaluazioa egin behar izateko arrazoia ez dela ingurumenaren gainean izan dezaketen eragin esanguratsuen probabilitate maila “altua” izatea. Hala ere, ikusi dugunaren arabera, 2001/42/CE Zuzentzarauak ingurumenaren gainean eragin esanguratsuak dutela “diruditen” zenbait plan eta programa bereizi egiten ditu ingurumenaren gainean eragin esanguratsuak izan ezin dituzten beste plan eta programa batzuegandik. Eta era berean, ikusi dugu Europar Batasuneko Zuzentzaraua Ezartzeko Gidaren arabera, Zuzentzarauan “daiteke” edo “probablea da” erabiltzeak esan nahi du kontuan izan behar diren ingurumen-eraginak **arrazoizko probabilitate maila batekin** espero daitezkeenak direla. Era berean, hiru proiektu-multzo mota aztertu dugu: ingurumenean ondorio nabarmenak dituztenak, kasu guztietan ondorio horiek nahitaez ez dituztenak,

eta azkenik, mugaren azpitik daudenak eta Estatu kideek proiektu horiek aurretiaz egiaztatzeko obligaziorik ez dutenak.

Era berean, ikusi dugu 21/2013 Legeak ingurumenaren gainean eragin esanguratsuak izan ditzaketen planetan, programetan eta proiektuetan ezarri behar diren ingurumen-ebaluazioko prozedurak arautzen dituela; baina ez du inolako obligaziorik horien aldean ezberdinak diren beste plan, programa eta proiektu batzuek ere ingurumen-ebaluazioa egin behar izateko.

21/2013 Legeak ingurumen-ebaluazioko prozeduren artean, (planen eta programen) ingurumen-ebaluazio estrategikoa eta (proiektuen) ingurumen-inpaktuko ebaluazioa jasotzen ditu, bere bi modalitateetan, alegia, arruntean eta sinplifikatuan. Prozedura arrunten bidez, 2001/42/CE Zuzentarauaren 4. eta ss. artikuluetan deskribatutako ingurumen-ebaluazioaren prozedura eta 2011/92/UE Zuzentarauaren 5. eta ss. artikuluetan deskribatutako ingurumen-inpaktuko ebaluazio-prozedura Espainiako ordenamendu juridikora eramaten dira. Bestetik, prozedura sinplifikatuek 2001/42/CE Zuzentarauaren 3.5 artikuluan jasotakoari erantzuten diote, zeinak Estatu kideei obligazioa ezartzen baitie ezar dezaten plan edo programa batek ingurumenaren gainean eragin esanguratsuak izan ote ditzakeen, nahiz eta plan edo programa horrek 3.2 artikuluan ezarritako baldintza minimoak ez bete (edo bete arren, tokiko mailako eremu txiki baten erabilera ezartzen duela uler daitekeen, edo aldaketa txiki bat den); era berean, proiektuei dagokienez, 2011/92/EB Zuzentarauaren 4.2 artikuluan jasotako aurretiazko egiaztapenari erantzuten diote.

Arauren edukiaren ondorioz argi eta garbi uler daiteke zein den ingurumen-ebaluazio estrategiko arrunteko prozeduren ezarpen-eremua, ingurumen-inpaktu arrunteko ebaluazioa eta ingurumen-inpaktu sinplifikatuko ebaluazioa. Ez da gauza bera gertatzen ingurumen-ebaluazio estrategiko sinplifikatuaren ezarpen-eremuarekin. Horrela, Legea ezarri den lau urteetan ziurtasun-gabezia handi bat hauteman ahal izan da, ingurumen-ebaluazio arruntaren eremuan jasotzen ez diren planak eta programak bideratzeko organo erantzuleek hartu behar dituzten erabakiei dagokienez.

Ingurumen-ebaluazio estrategiko sinplifikatuaren prozedurak garrantzia handia du, bai ingurumena babestearen ikuspuntutik, bai planak eta programak bideratzeko duen administrazio-zamaren ikuspuntutik. Alderdi biek, bai ingurumena babesteak, bai administrazio-zamak, administrazioko beste zereginetan egin behar den moduan, proportzioa mantendu behar dute, eta ikusi dugun moduan, ingurumen-ebaluazio estrategikoak suposatzen duen administrazio-kargaren ardura hartu behar da soilik planek eta programek ingurumenaren gainean eragin esanguratsuak izan ditzaketela aurreikusten denean. Jasotako alegazio ezeinetan ez da argudiatu ingurumenaren gainean eragin esanguratsuak izan ezin ditzaketen planei, programei eta proiektuei ingurumen-ebaluazioen prozedurak ezartzeko premia edo komenigarritasuna; eta ez da inolako kostu/onura azterketarik ere aurkeztu paragrafo horretan garatutako alderdiei dagokienez.

Hala ere, argi azaltzen ez duen arren, ingurumenaren gainean eragin esanguratsuak izan ditzaketen planen eta programen multzoaren barruan, prozedura arrunta bete behar duten zenbait plan eta programa zehatzen, eta prozedura sinplifikatua bete behar duten beste plan eta programa batzuk bereizten ditu Legeak. Testu legalak zer nolako irismena duen ulertzeko, zioen azalpena kontsultatu behar da, non honako adierazpenak nabarmendu behar diren:

- Legeak, obligazio nagusi moduan, honako hau ezartzen du: ingurumenaren gainean eragin esanguratsuak izan ditzaketen plan, programa edo proiektu orori ingurumen-ebaluazio egoki bat egitea...

- Zenbait plan, programa edo proiekturen kasuan, zuzentarauek *iuris et de iure* presuntzioa ezartzen dute, hau da, nolana ere, ingurumenaren gainean eragin esanguratsuak izango dituztela, eta

ondorioz, ebaluatu egin behar direla, prozedura arruntaren bidez. Gainerako plan, programa eta proiektuen kasuan, Estatu kide bakoitzak azterketa bat egin behar du, bai kasuz kasu, bai mugen bidez, bai teknika biak bateratuz, zehazteko ingurumenaren gainean eragin esanguratsuak ote dituzten edo ez. Azterketa hori ebaluazio-prozedura sinplifikatu moduan izendatu da, eta horren ondorioz planak, programak edo proiektuak ingurumenaren gainean eragin esanguratsuak dituela agertzen bada, ebaluazio arrunt bat egin beharko da.

Hala ere, Legearen zioen azalpena pixka bat nahasgarria da; izan ere, “du” eta “izan dezake” adierazpenak parekatzen ditu, baina ez dira gauza bera, inola ere ez.

Bestetik, aipatu behar da prozedura sinplifikatuen kasuan ere nahasmena sortu dela; izan ere, prozedura hori ingurumenaren gainean eragin esanguratsuak izan ditzaketen planei eta programei ezarri zaie (1. art., 5.1.a.1. artikuluari dagokionez). Prozeduraren ondorioz ingurumen-organismoak ezartzen badu planak edo programak eragin esanguratsuak izan ditzakeela ingurumenaren gainean (31.2.a. art.), orduan, planak edo programak prozedura arrunta bete behar du. Hala ere, planak edo programak prozedura arrunta egiteko baldintza beteko da planak edo programak prozedura sinplifikatua bete behar duen unean bertan, hau da, ingurumenaren gainean eragin esanguratsuak izan ditzakeenean. Itxura bateko nahasmendu horren azalpena zera da, plan edo programa batek ingurumenaren gainean eragin esanguratsuak izateko aukera ez dela beti probablea izaten kasu guztietan, 2001/42/CE Zuzentarauan eta bere Ezarpen Gidan jasotakoari jarraiki.

Horrela, Zuzentarauak esaten duenean zenbait planek eta programak ingurumenaren gainean eragin esanguratsuak dituztela dirudiela, ziurtasun moduan interpretatzen da hori, eta Ingurumen Administrazioaren Lege-proiektuan probabilitate maila handiko aukera moduan definitzen da. Eta zuzentarauak adierazten duenean beste plan eta programa batzuk agian ez dutela eragin esanguratsurik izango ingurumenaren gainean, ziurgabetasun moduan interpretatzen da, hau da, interpretatzen da eragin esanguratsuak gerta daitezkeen probabilitate maila ez dela aurretiaz ezagutzen.

Interpretazio horrekin bat, planen eta programen hirugarren multzo bat sortzen da. Horien kasuan, ingurumenean eragin urria dutenez, aurretik ezagutzen da ez dutela eragin esanguratsurik izango ingurumenaren gainean, eta ondorioz, ez dira 21/2013 Legearen ezarpen-eremuan aurkitzen.

Termino horiek, alegia, ziurtasuna, ziurgabetasuna, aukera, eta probabilitate maila bat datoz bai 2001/42/CE Zuzentarauarekin, bai 21/2013 Legearekin, eta ingurumen-ebaluazio prozedura estrategikoaren ezarpen-eremua asko argitzen laguntzen dute.

Bestetik, arrazoizkoa dirudi Zerbitzuen Zuzendaritzaren iradokizuna kontuan hartzea, hau da, probabilitate mailaren erreferentzia dagozkion lau prozeduretan antzeko erara jasotzea. Izan ere, planen eta programen kasuan, alde batetik, eta proiektuen kasuan, bestetik, prozeduren ezarpen-eremua mugatzeko teknika ezberdina da. Hala ere, zuzentarauek antzeko ziurtasunarekin jasotzen dute zenbait planek, programek eta proiektuk ingurumenean inpaktu esanguratsuak izateko duten aukera, eta horren ondorioz, ingurumen-ebaluazioa egiteko betebeharra; eta aldi berean, beste plan, programa eta proiektu batzuen kasuan ziurgabetasunarekin jokatzeko da, eta horien kasuan, ebaluatzeko egokitasuna kasuz kasu aztertzeko obligazioa edo mugak ezarri zehazten da.

Ingurumen Administrazioako Legearen proiektua idazteko, 21/2013 Legearen ezarpen-eremua ingurumenaren gainean eragin esanguratsuak izan ditzaketan planetara, programetara eta proiektuetara murrizten dela interpretatu da, eta Lege autonomikoak ingurumena ebaluatzeari dagokionez izango lukeen ezarpen-eremua definitzea aukeratu da, bai inklusio (59, 60, 72 eta 74 bis

artikuluak, II eranskineko atalekin loturik), bai eksklusio bidez (65. art.). Bestetik, eta gai horren oinarritzko legerian ezarritakoarekin bat, zenbait proiektu alde batera uzteko aukera jaso da; izan ere, proiektu horiek, ingurumen-ebaluazioaren ezarpen-eremuan izan arren, ordezkoko prozedura bat egin dezakete (beste ebaluazio-forma batzuk) 66. art.). Ondorioz, legearen aurreproiektuan jasotzen den testu arautzaileak argi eta garbi bereizten ditu legeak berak "ezarpen-eremutik kanpo kokatzen dituenak" eta, ezarpen-eremuan egon arren, ebaluazio-prozeduratik "kanpo utz daitezkeenak". Kasuz kasu erabaki behar da kanpoan utzi ala ez, eta hasiera batean legearen ezarpen-eremuan dauden baina bestelako ebaluazio mota bat izan dezaketen proiektuen salbuespeneko kasuetarako bakarrik gordetzen da aukera hori.

2. Zenbait kontzeptu juridikoren zehaztugabetasuna.

Lege-proiektuan kontzeptu juridiko zehaztugabeak erabiltzeak sortzen duen ziurtasun-gabezia juridikoaren gaineko alegazioak formulatu dira, bereziki aurreko atalean sortzen diren gaien inguruan, hala nola eragin esanguratsua, ziurtasuna, ziurtasun-gabezia, aukera, probabilitatea edo probabilitate maila.

Dagoeneko azaldu da kontzeptu horiek ingurumen-arloan erabiltzen direla araudian, bai Zuzentarauen testuetan, bai Estatuko oinarritzko legerian; eta argudiatu da Lege-proiektuak, gainera, probabilitate mailaren kontzeptua jasotzen duela, arautzen diren hainbat ingurumen-ebaluazio prozeduren ezarpen-eremuaren ziurtasun-gabezia murrizteko helburuarekin.

Hemen falta da azaltzea zer teknika erabiltzen diren aipatu arauetan, orokorrean, (Europakoak, Estatukoak eta autonomikoak) ziurtasun-gabezia juridikoa ahalik eta gehien murrizteko. Hortaz, nabarmendu behar da, lehenik eta behin, gai horren gaineko egungo adierazpen juridikoak prozesu konplexu baten emaitza direla, eta prozesu horren jatorria, lehenagoko kontzeptu teknikoetan oinarritu arren (1960ko hamarkadan), 1985eko ekainaren 27ko Kontseiluaren 85/337/CEE lehen Zuzentzarauan ezarri dezakegula, alegia, zenbait proiektu publikok eta pribatuk ingurumenaren gainean duten ondorioak ebaluatzeari buruzkoan.

Nabarmena da egiaztatzea zer nolako eboluzio eskasa izan duen azkeneko hiru hamarkadetan hasierako adierazpen honek "ingurumenaren gainean eragin garrantzitsuak izan ditzaketela" egungo adierazpen hau izan arte "ingurumenaren gainean eragin esanguratsuak izan ditzaketela". Horrekin islatu nahi da ez dirudiela premiazkoa izan denik kontzeptu horiek nabarmen aldatzea.

Izan ere, hasierako mugari hartatik, ingurumen-ebaluazioaren ezarpen-eremua kontzeptu horien bidez ezartzeko ahaleginen helburua izan da ingurumen-ebaluazioa bete behar duten proiektu-motak, proiektu horien ezaugarri espezifikoak proiektu-motaren arabera eta kontuan izan daitezkeen mugak gutxi gorabehera erraz osatzea, fintzea eta definitzea teknikoki. Hau da, ziurtasun-gabezia juridikoa arintzen saiatzeko, testu legalei gero eta eduki etikoagoak eman zaizkie. Hausnarketa horren arabera, "ingurumenaren gainean eragin esanguratsua izan dezakeen proiektua" kontzeptua, nolabait ere, ingurumenaren gainean hasiera batean ondorio garrantzitsuak sortzeko gaitasuna duten kasuen edo suposizioen zerrenda batekin lotzen da.

Hasiera-hasieratik, Zuzentarauen zerrenda bikoitzeko teknika jaso zen, zeinak, alde batetik, ingurumen-ebaluazioa kasu guztietan egin behar zuten suposizioak jasotzen baitzituen, eta bestetik, estatu-kideek horien gaineko berariazko erabakiak hartu behar zituzten beste kasu batzuk jasotzen baitzituen. Hemen zera gogoratu behar da, Zuzentzarau hura Espainiako ordenamendu juridikora ekartzeko lehenengo transposizioa 1986an gertatu arren, transposizio hori modu osatugabe egin zela, eta soilik 2001ean jaso zela ordenamendu juridiko horretan zerrenda bikoitzeko sistema.

Alde horretatik, aurreko atalean zehatz-mehatz aipatu da nola bereizten den arauetan ingurumen-eragin esanguratsuak probabilitate oso handiarekin sor ditzaketen proiektuen eta benetan probabilitate altua existitzen ote den erabakitzeko kasuz kasu aztertu beharko direnen artean.

Urte asko geroago, 2001ean, lehenengo Zuzentaraua eman zen planen eta programen ingurumen-ebaluazioaren gainean. Zuzentarau horrek ezarpen-eremua (ingurumenaren gainean eragin esanguratsuak izan ditzaketen planak eta programak) definitzeko antzeko kontzeptuak jasotzen ditu; hala ere, kasu gutxirekin eta oso zehatzekin lotzen da, eta kasu batzuetan, oraindik ez dira behar beste zehaztu. Izan ere, ingurumen-ebaluazioa bete behar duten planen eta programen inguruko zehaztapen handiagoa ahalbidetzen duen kasuak erreferentzia argi bat egiten du "ingurumen-inpaktua ebaluatu behar duten proiektuak etorkizunean baimentzeko esparrua"-ren inguruan.

Proiektuentzako zerrenda bikoitzeko sistema bati, eta planen eta programen kasuan, proiektuak ebaluatzeko erreferentziako sistema bati esker, nolabaiteko zailtasun tekniko batekin, segurtasunarekin ezarri daiteke plan, programa edo proiektu zehatz batek ingurumen-ebaluazioko prozeduraren bat egin behar ote duen. Hala ere, egun oraindik nolabaiteko ziurtasun-gabezia existitzen da planen, programen edo proiektuen inguruan; izan ere, aipatu kasuren bat izateagatik ingurumen-ebaluazioa egiteko premiarik izan ez arren, nabarmen eragin diezaiekete Red Natura 2000ko tokiei.

Lege-proiektuak ingurumen-eragin esanguratsuak sor daitezkeen probabilitate mailaren kontzeptua jasotzen du, eta horrek ez du ziurtasun-gabezia juridikoa handitzea suposatzen Estatuko oinarrizko legeriari dagokionez. Alderantziz, organo erabakitzaileak erabaki bat har dezan laguntzen du, plan, programa edo proiektu zehatz bati ingurumen-ebaluazio bat ezartze aldera; izan ere, proposatutako araudiaren testuaren arabera, organo hori ez bada gai zehazteko plan, programa edo proiektu batek zer nolako probabilitate mailarekin izan ditzakeen eragin esanguratsuak ingurumenaren gainean, edo bestela esanda, nolabaiteko ziurtasun-gabezia mantentzen badu eragin horiek sortzeko aukeraren gainean, orduan, planari, programari edo proiektuari dagokion prozedura sinplifikatua betetzea agindu behar die.

I KAPITULUA. INGURUMEN-EBALUAZIO ESTRATEGIKOAREN ETA INGURUMEN-ERAGINAREN EBALUAZIOAREN XEDAPEN KOMUNAK				
ARTIKULUA	ALEGATZAILEA	ALEGAZIOAREN SINTESIA	INGURUMEN SAILBURUORDETZAREN ANALISIA	AUKERA
59. artikulua. Ingurumen- ebaluazioa	GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA	Ingurumen-ebaluazioarekin lotutako helburuak oso argi adieraztearren, interesgarria izango litzateke laburki adieraztea artikulua honen 1. atalean hori eraentzen duten eta berezkoak zaizkion printzipioak.	Ez da beharrezkotzat jotzen. Proiektuak 3. artikuluan jasotzen ditu araudi-testu osoari aplikatu beharreko zenbait printzipio orokor. Saihestu behar da lege-testuan bestelako printzipio orokor sektorialak ugaritzea, hau da, errepikapenak eta gainjartzeak eragingo litzuketanak printzipio orokor horiekiko.	Ez da onesten
	BIZKAIKO FORU ALDUNDIA INGURUMEN ZUZENDARITZA	Uste da 59.3 artikulua aurreikuspena kendu behar dela; izan ere, gerta daiteke, baimenik edo lizentziarik existitzekotan, hori osatu behar izatea edo ingurumen-araudira egokitu behar izatea, nahitaez jardueraren aldaketa bat izan gabe.	Zehazki, 59. artikulua 3. atalean jasotako manua beharrezkoa da atzera eraginezko ondorioak ekiditeko ingurumen-ebaluazioa nahitaezkoa ez zenean baimena edo lizentzia jaso zuten instalazioei ingurumen-ebaluazioa eskatzerakoan. Era berean, ematen du ez dela beharrezkoa ingurumen-ebaluazioa egin zitezaion instalazio bati berriz ere egitea ebaluazioa soilik baimen berri bat izapidetu behar izateagatik; adibidez, hori da ingurumen-baimen integratua lortu behar duten instalazioen kasua, arauaren aplikazio-eremua zabaldu delako, nahiz eta aldaketarik egin ez den. Hala eta guztiz ere, ematen du beharrezkoa dela manua gehiago zehaztea, kontuan hartuz instalazioak bere garaian jaso zuen lizentzia edo baimena substantiboa izan behar dela.	Partzialki onesten da.
	GIPUZKOAKO	Bestalde, eta sortzen dituen zalantzen aurrean, juridikoki ziurtatu	Zehazki, 59. artikulua 3. atalean jasotako manua beharrezkoa	Partzialki

	FORU ALDUNDIA	<p>beharko litzateke 59. artikulua 3. atalean xedatutakoa lege egokia den eta araudiarekin bat datorren, are gehiago, kontuan hartzen badugu 21/2013 Legearen aurreproiektuaren zirriborroaren 62. artikulua eta 9.1 artikulua xedatzen dutena (21/2013 Legea aldatzen duen lege-proiektuan ezarritako 9.1 artikulua idazketa berria zirriborroan proposatutakoaren antzekoa da baina, bertan ere, lege-zalantzak sortzen ditu).</p>	<p>da atzera eraginezko ondorioak ekiditeko ingurumen-ebaluazioa nahitaezkoa ez zenean baimena edo lizentzia jaso zuten instalazioei ingurumen-ebaluazioa eskatzerakoan. Era berean, ematen du ez dela beharrezkoa ingurumen-ebaluazioa egin zitzaion instalazio bati berriz ere egitea ebaluazioa soilik baimen berri bat izapidetu behar izateagatik; adibidez, hori da ingurumen-baimen integratua lortu behar duten instalazioen kasua, arauaren aplikazio-eremua zabaldu delako, nahiz eta aldaketarik egin ez den.</p> <p>Hala eta guztiz ere, ematen du beharrezkoa dela manua gehiago zehaztea, kontuan hartuz instalazioak bere garaian jaso zuen lizentzia edo baimena substantiboa izan behar dela.</p>	onesten da.
	BIZKAIKO FORU ALDUNDIA EKONOMIA ETA LURRALDE GARAPENA SUSTATZEKO SAILA	<p>Ez dira epeak zehazten ebaluazio-prozedura desberdinetarako; beraz, jo behar da Estatuko legearen araudiarenak aplikatu behar direla.</p> <p>Argigarria izan liteke prozeduren mugarririk garrantzitsuenen laburpen bat jasotzea edo erreferentzia zehatz bat egitea, hain zuzen ere, oinarritzko araudian araututako prozedurei aplikatu behar diren ingurukoa.</p>	<p>Araudi-testuan txertatu egin dira ingurumen-ebaluazioko prozedura desberdinen alderdi nagusiak, besteak beste, informazio publikoa eta interesdunei eta ukitutako administrazio publikoetako organo eskudunei zuzendutako kontsulta, baita ingurumen-organok plan, programa edo proiektu baten gainean ohiko ebaluazioa egin behar den zehazteko kontuan hartu beharreko irizpideak ere.</p> <p>Hala ere, lege-proiektuak erabaki du gutxiengora murriztea prozedura-xehetasunak arrazoi desberdinetatik. Lehenik eta behin, xehetasun horiek jadanik daude garatuta 21/2013 Legean eta 211/2012 Dekretuan eta horiei dagozkien manua aplikagarriak izango dira legea indarrean sartzen den unetik, bai</p>	Partzialki onesten da.

			<p>oinarrizkoak (gaur egun aplikatzen direnak), bai autonomia-erkidegoko araudiaren berezkoak (azken horiek aplikatuko dira legean xedatutako hori aurkatzen ez duten kasuetan).</p> <p>Bestalde, egokitzen da prozedura-xehetasunen geroko aldaketak, besteak beste, epe zehatzak edo dokumentu teknikoak edukiak edo prozedurei itxiera ematen dieten ebazpenen eduki xeheak araudi-garapenerako tresnen bidez ezartzea. Izan ere, horien izapidetzea lege-testuaren aldaketa baino arinagoa da eta horrek nabarmen errazten du etorkizunean zenbait alderdi eguneratzea, inola ere funtsezkoak ez direnak legearen xedea lortze aldera.</p> <p>Horrez gain, ez da egokitzen jo beren-beregi adieraztea aplikagarriak izango direla oinarriko legerian araututako prozedurak; izan ere, esan den bezala, aplikagarriak dira nahiz eta ez den zehazten eta, gainera, horrela ekiditen da erkidego-mailako arauak egunean egoteari uztea, baldin eta 21/2013 Legea aldatzen bada.</p>	
ARABAKO FORU ALDUNDIA INGURUMEN SAILA	<p>59.3. artikulua. Ez da ulertzen testua txertatzea: "Aldaketei aplikatu beharreko araubidea gorabehera, indarreko administrazio-gaikuntzaren bat daukaten proiektuen gainean ez da ingurumen-ebaluaziorik egin beharko".</p> <p>Jotzen da atal hori kendu beharko litzatekeela 21/2013 Legean aurreikusita ez dagoen salbuespen bat delako (nahitaez bete</p>	<p>Zehazki, 59. artikulua 3. atalean jasotako manua beharrezkoa da atzera eraginezko ondorioak ekiditeko ingurumen-ebaluazioa nahitaezkoa ez zenean baimena edo lizentzia jaso zuten instalazioei ingurumen-ebaluazioa eskatzerakoan. Era berean, ematen du ez dela beharrezkoa ingurumen-ebaluazioa egin zitaion instalazio bati berriz ere egitea ebaluazioa soilik baimen</p>	Partzialki onesten da.	

		<p>beharreko oinarritzko legea) eta, edonola ere, juridikoki ez da ulertzen zer esan nahi duen termino honek: "indarreko administrazio-gaikuntzaren bat".</p>	<p>berri bat izapidetu behar izateagatik; adibidez, hori da ingurumen-baimen integratua lortu behar duten instalazioen kasua, arauaren aplikazio-eremua zabaldu delako, nahiz eta aldaketarik egin ez den.</p> <p>Ez da prozeduraren salbuespen bat. Ingurumen-ebaluazioa proiektua egikaritzeko gaitzen duen baimen substantiboa ematearen aurreiazkoa da; hortaz, prozedura ez zaie jadanik existitzen diren instalazioei aplikatzen baldin eta behar bezala baimenduta badaude.</p> <p>Hala eta guztiz ere, ematen du beharrezkoa dela manua gehiago zehaztea, kontuan hartuz instalazioak bere garaian jaso zuen lizentzia edo baimena substantiboa izan behar dela.</p>	
	OSASUN SAILA	<p>Planen eta programen ingurumen-ebaluazioari buruzko bosgarren tituluan, baimentzeko prozedurako bestelako organismoen txostenei buruzko aurreko puntuan esandakoaren aurka, ez dira beste organismo batzuen txostenak aurreikusten.</p> <p>Ingurumen-ebaluazioko 21/2013 Legeak ezartzen du planen edo programen ingurumen-azterlan estrategikoak eta proiektuen ingurumen-eraginaren azterlanak, besteak beste, herritarrengan eta gizakien osasunarengan izan ditzakeen ondorio nabarmenak jaso behar dituztela. Halaber, aurreikusten du, ingurumen-ebaluazioko prozeduretan, ukitutako administrazioekin kontsultatu behar dela bi fase hauetan: lehenengoa, irismen-dokumentua egiterakoan eta, bigarrena, informazio publikoko eta administrazio interesdunei</p>	<p>Alegazioa hartzen da eta aurreproiektuaren testu berrian sartzen dira artikuluko berriak, bai planen eta programen ebaluazio estrategikoan (72. artikuluko berria), bai proiektuen ingurumen-eraginaren ebaluazioan (76. artikuluko berria). Hala, berariazko erreferentziak jasotzen dira ukitutako administrazio publikoari zuzendutako nahitaezko kontsulten inguruan, araudiak ezartzen dituen terminoetan eta, edonola ere, berrogeita bost eguneko gutxiengo epean.</p>	Onesten da

		<p>konsultatzerakoan. Legeak berak 5. artikuluan definitzen ditu honela: “Ukitutako administrazio publikoak: honako gai hauetan eskumen espezifikokoak dituztenak: herritarrak, gizakien osasuna...”</p>		
	<p>JAIZKIBEL GEONATURE</p>	<p>Sinplifikatua eta ohikoa bezalako proposamenen aurka alegatzen da eta, horrela, planen eta programen beharrezko ingurumen-ebaluazioa gero eta sinplistagoa izan daiteke eta zorrotasun-maila txikiagokoa ingurumenaren babesarekin. Besteak beste, ingurumen-ebaluazio sinplifikatua, estrategia sinplifikatua edo ohiko estrategia bezalako kontzeptuek ingurune naturalaren gainean eragin negatiboa duten proiektuak eta programak abiaraztea erraz dezakete.</p>	<p>Klasikoki, ingurumen-ebaluazioak ohiko edo sinplifikatu bezala sailkatu egin dira, hain zuzen ere, planen, programen eta proiektuen kasuistika oso anitza delako eta bakoitza prozedura-ikuspegi desberdin batetik kudeatu behar delako administrazio-mailan.</p> <p>Edonola ere, azkenik egiten den ingurumen-ebaluazioa gorabehera, ingurumena zaintzeko beharrezkoak diren neurri babesleak, zuzentzaileak eta, hala badagokio, berritzaileak ezarriko dira.</p>	<p>Ez da onesten</p>
	<p>TRANTSIZIO EKOLOGIKORAK O MINISTERIOA</p>	<p>Ministerioak adierazi du idazkera nahasgarria dela eta «indarrean dagoen administrazio-gaikuntza» terminoaren esanahia zehaztu behar dela, ez baita abenduaren 9ko 21/2013 Legeko kasu baztergarri bat, ezta salbuets daitekeen proiektu bat ere.</p> <p>Era berean, 21/2013 Legearen hamargarren xedapen gehigarrian («Aldian behingo eragiketak») eta lehenengo xedapen iragankorrean («Araubide iragankorra») dagoen araubide iragankorrari jarraitu behar dio.</p>	<p>Aurreko alegazio batean adierazienez, manua beharrezkoa da atzeraeraginezko ondorioak ekiditeko, ingurumen-ebaluazioa nahitaezkoa ez zenean lizentzia edo baimen bat eskuratu zuten instalazioei ingurumen-ebaluazioa eskatzeari dagokionez. Era berean, ez dirudi beharrezkoa denik lehendik ingurumen-ebaluazioa egin zaion instalazio bat berriz ebaluatzea soilik baimen berri bat izapidetu behar delako, eta hori da, hain zuzen, aldaketarik izan ez duten arren, arauaren aplikazio-eremua handitu izanagatik ingurumen-baimen integratua lortu behar duten instalazioen kasua.</p> <p>Ez da prozedura-salbuespen bat. Proiektua gauzatu ahal izateko baimen substantiboa eman aurretik egin behar da ingurumen-</p>	<p>Ez da onesten</p>

			<p>ebaluazioa; hortaz, prozedura ez da gaur egungo instalazioetan aplikatu behar, horretarako behar bezala baimenduta badaude.</p> <p>Hala ere, beharrezkoa dirudi manua aldatzea, zehaztuz eduki behar den lizentzia edo baimena ez dela edozein motatako gaikuntza, izaera substantiboko administrazio-gaikuntza baizik.</p>	
60. artikulua. Ingurumen- ebaluzioko prozedurak	GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA	<p>60.1 artikuluaen sarrerako paragrafoan, adierazten da planen, programen eta proiektuen ebaluazio-mota bat etorriko dela plan, programa eta proiektu horiek ingurumenaren gainean ondorio nabarmenak izateko duten probabilitate-mailarekin. Hala, 60.1 artikuluaen a) eta b) letretan, EAerentzat bi adierazpen erabiltzen dira (“probabilitate-maila altua” ohikoarentzat eta “probabilitate-maila zehaztugabea” sinplifikatuarentzat); hala ere, horiek ez dira erabiltzen ingurumen-eraginaren ebaluazio ohikoaren eta sinplifikatuaren tipifikazioarentzat (60.1 artikuluaen c eta d letrak).</p> <p>Zentzu horretan, Europako zuzentarauak (planen ingurumen-ebaluziorako 2001/42/CE Zuzentaraua eta proiektuen ingurumen-ebaluziorako 2011/92/UE Zuzentaraua), planen, programen eta proiektuen ingurumen-ebaluziorako Estatuko legeriak (21/2013 Legea) eta horren inguruko Europako eta Estatuko jurisprudentziak ez dute adierazten planen, programen eta proiektuen gaineko ingurumen-ebaluazioa egiteko kontuan hartu behar denik ingurumenaren gainean ondorio nabarmenak izateko probabilitate-maila, hau da, maila hori “altua” den ohiko ingurumen-ebaluazioa egiteko eta “zehaztugabea” ingurumen-ebaluazio sinplifikatuarentzat.</p>	<p>Atal honen hasieran adierazitako aurretiazko gogoetetan argudiatu den bezala, zuzentarauak adierazten duenean plan eta programa zehatz batzuek ingurumenaren gainean ondorio nabarmenak izan ditzaketela, hori ziurtasun-terminoetan interpretatzen da eta lege-proiektuan artikulatzen da probabilitate-maila altuko aukera gisa. Eta zuzentarauak adierazten duenean balitekeela beste plan eta programa batzuek ondorio nabarmenik ez izatea ingurumenaren gainean, ziurgabetasun-terminoetan interpretatzen da edo, beste era batera esanda, aurretiaz ez da ezagutzen ondorio nabarmenak izateko probabilitate maila.</p> <p>Ziurtasun, ziurgabetasun, posibilitate, probabilitate eta probabilitate-maila terminoak guztiz datoz bat 2001/42/CE Zuzentarauarekin eta 21/2013 Legearekin eta ingurumen-ebaluazio estrategikoko prozeduraren aplikazio-eremua argitzen laguntzen dute.</p> <p>Ingurumen-ondorio nabarmenak izateko probabilitate-mailaren kontzeptua erabiltzeak ez du eragiten ziurgabetasun-juridikoa areagotzea Estatuko oinarrizko legeriari dagokionez. Aitzitik, horrek laguntzen du organo substantiboak erabaki argia hartu ahal</p>	Ez da onesten

		<p>Aipatutako araudiak oinarri bat ezartzen du planen, programen eta proiektuen gainean ingurumen-ebaluazioko prozedura burutzeko: ondorio nabarmenak izatea edo izan ahal izatea. Ez dago probabilitate-gradueltasunik; ondorio nabarmenak izan ahal badituzte (probablea bada), ohiko ingurumen-ebaluazioa egiten zaie eta, ezin badute ondorio nabarmenik izan (edo ez bada probablea), ez zaie ebaluazioa egiten. Halaber, ez da gradueltasun hori existitzen ingurumen-ebaluazio sinplifikatuarentzat; izan ere, horren oinarria da ez dagoela ziurtasunik ondorio nabarmenak izateko aukerari dagokionez (probablea den edo ez). Hain zuzen ere, hori da ingurumen-ebaluazio sinplifikatuaren bidez xedatu behar dena (ondorioak dituen edo ez).</p> <p>Aurreko guztia egiazta daiteke 10. eta 11. “kontuan hartuz” ataletan eta Planen eta programen ingurumen-ebaluaziorako 2001/42/CE Zuzentarauaren 3.1 eta 3.3 artikuluen literaltasunean. Horrez gain, hori egiazta daiteke Proiektuen ingurumen-ebaluaziorako 2011/92/UE Zuzentarauaren 2.1 eta 4.2 artikuluetan; 21/2013 Legearen zioen azalpenean (2013-12-11ko EAOren 98155-56 orrialdean) eta horren 1.1 eta 5.1.a artikuluetan, bi prozedurentzat.</p> <p>Horrela, ingurumen-ebaluazioak planen, programen eta proiektuen ondorio nabarmenen probabilitate-mailaren arabera sailkatzean, aipatutako esapideak erabiliz (“altua” eta “zehaztugabea”) soilik ingurumen-ebaluazio estrategikoarentzat (eta ez ingurumen-eraginaren ebaluazioarentzat), artikuluen interpretazio-irizpidearen batasuna apurtzen da. Horrez gain, ez da egokitzen jadanik ezarritako</p>	<p>izatea plan, programa edo proiektu zehatz bati ingurumen-ebaluazio bat aplikatzeko; izan ere, proposatutako araudi-testuaren arabera, organo horrek uste badu ez dela gai zehazteko zein den probabilitate-maila planak, programak edo proiektuak ingurumenean ondorio nabarmenak izateko edo, gauza bera dena, nolabaiteko ziurgabetasuna badauka ondoriok horiek egoteko aukeraren inguruan, gutxienez dagokion prozedura sinplifikatua egin beharko da planaren, programaren edo proiektuaren gainean.</p>	
--	--	---	--	--

		<p>araudi-esparru kontzeptualera, nahasmena sortzen duten kontzeptu juridiko eta tekniko zehaztugabe eta anbiguo bihurtuz. Hortaz, eskatzen da 60. artikulua sarrerako paragrafoa eta 1. ataleko a) eta b) letrak kentzeko.</p>		
	<p>GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA</p>	<p>Bestalde, 60.1 artikulua e) eta f) letretan (ohiko ingurumen-ebaluazioen irismenaren ezarpena) zehaztutako izapideak ez dira ingurumen-ebaluziorako prozedurak (prozedura horien parte diren izapideak dira -21/2013 Oinarriko Legearen 19.2 eta 34.5 artikulua-). Araudian jasotako prozedura baten parte bat ezin da hartu prozedura berrizat edo desberdintzat, are gehiago aurreproiektuaren zirriborroak ez badu aipatzen horrekin lortu nahi dena eta ez baditu aipatzen, hala badagokio, bereizketa artifizial honek (ez du ematen bat ere daukanik) izango lituzkeen prozedura- edo ingurumen-abantailak ere ez. Gainera, ez du hori arautzen eta, hortaz, araudiaren ikuspegitik, oinarriko legerian nahitaez xedatutakoaren aurkakoa da eta administrazio-mailan opakua, doakoa eta ez beharrezkoa (beherago 67. artikulua inguruan aipatzen dena ikusi). Hortaz, eskatzen da 60.1 artikulua e) eta f) letrak ezabatzeko.</p> <p>Aurreko guztia dela-eta, beharrezkoa da idazketa guztiz berria eta osoa ematea 60. artikuluari, kontuan hartuta ingurumenaren inguruko EBko eta Estatuko araudian xedatutakoa.</p>	<p>Kontuan hartuta Administrazio Prozedura Erkidearen Legeak administrazio-prozedura hasteari eta amaitzeari buruz ezartzen duena, ez dago inolako eragozpenik adierazteko ingurumen-organoak irismen-dokumentua igortzea administrazio-prozedura bat dela.</p> <p>Lege-proiektuak irismen-dokumentuaren igorpenaren izaera finalista kontuan hartu du. Hala, horrek ez du inola ere behartzen sustatzailea ingurumen-eraginaren adierazpenaren edo ingurumen-adierazpen estrategikoaren prozedurarekin jarraitzera, behin irismen-dokumentua igorrita.</p> <p>Gainera, lege-proiektuak aintzat hartu du irismen-dokumentuaren igorpenaren eta ingurumen-eraginaren adierazpenaren edo ingurumen-adierazpen estrategikoaren artean dauden epe luzeak. Horrekin batera, kontuan hartu du irismen-dokumentua lotuta egon daitekeela nolabaiteko garrantzia duten aurreproiektuekin, azpiegitura linealekin gertatzen den bezala. Horiek gerora fase desberdinetan egikarituko dira eta fase bakoitzean ingurumen-eraginaren adierazpen bat igortzen da, aurreproiektu horren zati bakarrari egiten diona erreferentzia.</p> <p>Azkenengo kasu horretan, administrazio-disfuntzio nabarmenak</p>	<p>Ez da onesten</p>

			<p>izan litzake, ulertuko balitz irismen-dokumentuaren eskaera ingurumen-eraginaren adierazpenari amaiera ematen dion prozedura baten hasiera dela. Proposatutako adibidean, ez litzateke argi geratuko prozedura amaitzen duen ebazpena zein den.</p> <p>Bestalde, 21/2013 Legean xedatutakoa ez da oztopo bat ulertzeko irismen-dokumentuaren igorpena administrazio-prozedura bat dela. Zentzu horretan, gogorarazi beharra dago, adibide bat ematearren, ingurumen-organoak ingurumen-eraginaren adierazpena igortzea izapidetze-egintza bat dela proiektu baten baimen substantiboaren prozeduraren esparruan; hala ere, hori ez da eragozpena legeak administrazio-prozeduratzat hartzeko.</p>	
BIZKAIKO FORU ALDUNDIA INGURUMEN ZUZENDARITZA	<p>Alegatzaileak eskatzen du artikulua edukia sinplifikatzeko, zehazki, Estatuko Ingurumen-ebaluazioko 21/2013 Legearen testuari dagokionez. Prozedura sinplifikatua ezarri da planak ondorio nabarmenak dituen edo ez xedatzeko eta, prozeduraren izaeran bertan, zehaztugabetasun-maila hori ezartzen da. Probabilitate-mailaren erreferentziak ezabatzea.</p> <p>Ohiko ingurumen-ebaluazio estrategikoan, azterlanaren irismena xedatzea ebaluazio-prozesuaren parte da; beraz, ematen du ez dela beharrezkoa ezartzea planen ebaluazioan irismenaren ezarpena prozedura bat denik.</p>	<p>Aurreko ataletan alegazio honen lehenengo parteari erantzun zaio. Irismena prozedura autonomotzat ezartzeari dagokionez, adierazi behar da artikulua berriz idatzi egin dela eta aukera hori deuseztatu dela.</p>	Partzialki onesten da.	
OSASUN SAILA	Osasun Publikoari buruzko 33/2011 Lege Orokorraren VII Kapituluaren beste politika batzuek osasunean duten eraginaren ebaluazioari	Alegatzaileak aipatutako lege-testuaren VII. kapituluaren VII. artikulua aztertuta, antzematen da artikulua bakarra duela, hitzez hitz hauxe esaten	Ez da	

		<p>buruzkoa da eta horrek ezartzen du osasunean duten eraginaren ebaluazioa egin beharko dela hauen gainean: osasunean eragin nabarmena izateagatik hautatzen diren arau, plan, programa eta proiektuen gainean eta lege honetan aurreikusitako terminoetan.</p> <p>Kontuan hartuta administrazio-simplifikazioaren printzipioa, jotzen da osasunean duten eraginaren ebaluazio hau ingurumen-ebaluazio estrategikoarekin edo ingurumen-eraginaren ebaluazioarekin batera egin beharko litzatekeela prozedura bakar batean. Kasu honetan, ohiko xedapenen idazketa berrikusi beharko litzateke, behintzat Osasun Publikoko Lege Orokorrean ezarritakoa aurreikusteko osasunarenganako eraginaren ebaluazioari dagokionez.</p>	<p>duena:</p> <p>“35. artikulua. Osasunarengan izandako eraginaren ebaluazioa.</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Administrazio publikoek osasunean duten eraginaren ebaluazioa egin beharko dute osasunean eragin nabarmena izateagatik hautatzen diren arauen, planen, programen eta proiektuen gainean, betiere lege honetan aurreikusitako terminoetan. 2. Osasunean duten eraginaren ebaluazioa arau, plan, programa edo proiektu bat aztertzeke erabili beharreko prozedura, metodo eta tresna desberdinen konbinazioa da, hain zuzen ere, herritarren osasunean izan ditzaketen balizko ondorioei eta horien banaketari dagokienez. 3. Osasunarenganako eraginaren ebaluazioak osasun-politikek eta osasunarekin loturarik ez duten politikek herritarren osasunarengan dituzten ondorio zuzenak eta zeharkakoak aurreikusi beharko ditu, baita osasunean sor daitezkeen gizarte-desberdintasunak ere, jarduketak hobetzeko helburuarekin. 4. Ebaluazio horien emaitzak integratu egingo dira osasun publikoko informazio-sisteman eta Osasun Publikoaren Zaintza-sarean.” <p>Alegazioa interesgarria da administrazio-simplifikazioa administrazio publikoen jarduketak oinarri izan behar dituen printzipioetako bat izan behar delako; hala ere, ez dira jarraibide zehatzak ematen Osasun Publikoari buruzko Lege Orokorrean</p>	<p>onesten</p>
--	--	---	--	----------------

			ezarritakoa betetzeko ingurumen-ebaluazioaren xedapen komunen idazketan aldatu beharko liratekeen alderdiei dagokienez. Hortaz, ez da aintzat hartzen. Edonola ere, bai osasun publikoko araudi sektorialak, bai ingurumen-legeriaren geroko araudi-garapenek prozedura horien bateratzea arau lezakete.	
60 bis artikulua. Planek eta proiektuek Natura 2000 Sareko espazioen gainean izandako eraginen ebaluazioa.	<p>Uste da beharrezkoa eta egokia dela legean ingurumen-ebaluazioaren inguruko artikulua bat beren-beregi jasotzea Natura 2000 Sarean, horren berariazkotasunagatik. Gaur egun parlamentuan izapidetzen ari den Estatuko Ingurumen-ebaluazioaren Legea aldatzeko lege-aurreproiektutik jasotako hautazko testu bat proposatzen da.</p> <p>Uste da komenigarria dela afektazio hautemangarriaren zehaztapenaren prozedura islatzea Natura 2000 Sarea espazio baten osotasunari dagokionez (2. Puntua); izan ere, azkenik, ingurumen-ebaluazioa egiten duen ingurumen-organoak emango du horren inguruko iritzia. Eta jasotzea gainera ebaluazio honen zuhurtziazko izaera (3. puntua)</p>	<p>Ez da beharrezkotzat jotzen alegazioa hartzea; izan ere, lege-proiektuak erabaki du gutxiengora murriztea prozedura-xehetasunak arrazoi desberdinengatik. Lehenik eta behin, xehetasun horiek jadanik daude garatuta 21/2013 Legean eta 211/2012 Dekretuan eta horiei dagozkien manuak aplikagarriak izango dira legea indarrean sartzen den unetik, bai oinarrikoak (gaur egun aplikatzen direnak), bai autonomia-erkidegoko araudiaren berezkoak (azken horiek aplikatuko dira legean xedatutako hori aurkatzen ez duten kasuetan).</p> <p>Bestalde, egokitzen da prozedura-xehetasunen geroko aldaketak, besteak beste, epe zehatzak edo dokumentu teknikoen edukiak edo prozedurei itxiera ematen dieten ebazpenen eduki xeheak araudi-garapeneko tresnen bidez ezartzea. Izan ere, horien izapidetzea lege-testuaren aldaketa baino arinagoa da eta horrek nabarmen errazten du etorkizunean zenbait alderdi eguneratzea, inola ere funtsezkoak ez direnak legearen xedea lortze aldera.</p>	Ez da onesten	

	<p>ASTIGARRAGAK O UDALA</p>	<p>.... Honako ingurumen-ebaluazioko prozedura hauek ezartzen dira:</p> <p>a) Ohiko ingurumen-ebaluazio estrategikoa ingurumen-eragin nabarmena izan dezaketen programen eta planen eta horien aldaketen gainean.</p> <p>b) Ingurumen-ebaluazio estrategiko sinplifikatua ingurumen-eragin nabarmena izan dezaketen programen eta planen eta horien aldaketen gainean.</p> <p>Prozeduren definizioa oso orokorra eta nahiko subjektiboa da; izan ere, ez da zehazten zeintzuk izango diren ingurumenarekiko ondorio nabarmenak eta zeintzuk diren probabilitate-maila altuak.</p> <p>2.- Uste dugu beharrezkoa dela, aurreko araudiak ezartzen duen bezala (211/2013 DEKRETUA, 5. artikulua), aukera izatea Ingurumen-organoari kontsultak egiteko, kasu bakoitzean erantzun dezan.</p> <p>Ingurumen-ebaluazioko prozedurak kudeatzerakoan, oztopo larria izaten ari da sustatzaileak prozedura sinplifikatua hautatzea eta, lau hilabeteko epean, Ingurumen-organoak ohiko prozedura bat dela erabakitzea. Ingurumen-ebaluazioko prozedurak arintze aldera, uste dugu nahitaezkoa dela idatziz eskuratzea organoaren prozedurekin lotutako galderak, arazoak ekiditeko.</p>	<p>Atal honen hasieran azaldutako aurretiazko gogoetetan argudiatu den bezala, lege-proiektuak ingurumen-ondorio nabarmenak sor daitezkeen probabilitate-mailaren kontzeptua jasotzen du eta horrek ez du esan nahi ziurgabetasun juridikoa areagotzen denik Estatuko oinarrizko legeriari dagokionez. Aitzitik, horrek laguntzen du organo substantiboak erabaki argia hartu ahal izatea plan, programa edo proiektu zehatz bati ingurumen-ebaluazio bat aplikatzeko; izan ere, proposatutako araudi-testuaren arabera, organo horrek uste badu ez dela gai zehazteko zein den probabilitate-maila planak, programak edo proiektuak ingurumenean ondorio nabarmenak izateko edo, gauza bera dena, nolabaiteko ziurgabetasuna badauka ondoriok horiek egoteko aukeraren inguruan, gutxienez dagokion prozedura sinplifikatua egin beharko da planaren, programaren edo proiektuaren gainean.</p> <p>211/2012 Dekretuaren 5. artikuluan araututako kontsultari dagokionez, kontsulta hori ingurumen-organoak, kasu bakoitzean, plan edo programa baten gainean ingurumen-ebaluazio estrategikoa egin behar den ezartzeko aurreikusitako prozedura bat besterik ez da. Hain zuzen ere, prozedura horrek aurreikusten zuen alegatzaileak saihestu nahi duen egoera, hau da, dagokion eskaera jaso ostean, ingurumen-organoak ukitutako administrazio publikoei eta interesdunei egin behar ziela kontsulta eta, legeak ezarritako zenbait irizpideei jarraiki (211/2012 Dekretua indarrean sartzean Ingurumenaren gainean plan eta programa batzuek izan dezaketen eraginaren ebaluazioari buruzko apirilaren 28ko 9/2006</p>	<p>Ez da onesten</p>
--	---------------------------------	--	--	----------------------

			<p>Legea zegoen indarrean), planak edo programak ingurumen-ebaluazio estrategikoa egin behar zuen ezarri. 21/2013 Legea indarrean sartzean, “kasu bakoitzean erabakitzeko” prozedura hori indargabetu egin zen eta orain “ingurumen-ebaluazio estrategiko sinplifikatu” deitzen denarekin ordeztu egin zen. Bestalde, 9/2006 Legeak “ingurumen-ebaluazio estrategiko” izendatutako prozedura orain honela dago ezarrita: “ohiko ingurumen-ebaluazio estrategikoa”. Kontuan hartuta 21/2013 Legearen xedapenek oinarritzko legeriaren izaera dutela ingurumenaren eremuan, erkidego-mailako legeak ezin du prozedura sinplifikatu hori deuseztatu.</p>	
PASAIAKO UDALA	<p>Hala, 60. artikulua a) eta b) atalek planen eta programen ingurumen-ebaluazioko prozedurak zehazten dituzte (...).</p> <p>Jotzen da prozesu horien definizioa nahasia dela zenbait termino zehaztugabe gehitzen direlako, besteak beste: “probabilitate-maila altuarekin” eta “probabilitate-maila zehaztugabearekin”. Horren ordez, proposatzen da, hurrenez hurren, II.A eta II.B eranskinetan jasotako planei eta programei egiteko erreferentzia. Beraz, a eta b atalak honela idatzita geratuko lirarteke:</p> <p><i>a) Planen eta programen ohiko ingurumen-ebaluazio estrategikoa eta lege honen II.A eranskinean jasotako aldaketak.</i></p> <p><i>b) Planen eta programen ingurumen-ebaluazio estrategiko sinplifikatua eta lege honen 1/8 eranskinean jasotako aldaketak.</i></p> <p>Gainera, administrazioei segurtasun juridiko gehiago emate aldera,</p>	<p>Atal honen hasieran azaldutako aurretiazko gogoetetan argudiatu den bezala, lege-proiektuak ingurumen-ondorio nabarmenak sor daitezkeen probabilitate-mailaren kontzeptua jasotzen du eta horrek ez du esan nahi ziurgabetasun juridikoa areagotzen denik Estatuko oinarritzko legeriari dagokionez. Aitzitik, horrek laguntzen du organo substantiboak erabaki argia hartu ahal izatea plan, programa edo proiektu zehatz bati ingurumen-ebaluazio bat aplikatzeko; izan ere, proposatutako araudi-testuaren arabera, organo horrek uste badu ez dela gai zein den probabilitate-maila planak, programak edo proiektuak ingurumenean ondorio nabarmenak izateko edo, gauza bera dena, nolabaiteko ziurgabetasuna badauka ondoriok horiek egoteko aukeraren inguruan, gutxienez dagokion prozedura sinplifikatua egin beharko da planaren, programaren edo proiektuaren gainean.</p>	<p>Ez da onesten</p>	

		<p>artikulu bat gehitzeko proposatzen da, zehazki, Planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duen urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 5. artikulua, kasu bakoitza aztertuz, planek eta programek ingurumen-ebaluazio estrategikoa egin behar duten zehazteko jarraitu beharreko prozedurari buruzkoa (ikus 211/2012 Dekretuaren 5. artikulua).</p>	<p>211/2012 Dekretuaren 5. artikuluan araututako kontsultari dagokionez, kontsulta hori ingurumen-organoak, kasu bakoitzean, plan edo programa baten gainean ingurumen-ebaluazio estrategikoa egin behar den ezartzeko aurreikusitako prozedura bat besterik ez da. Hain zuzen ere, prozedura horrek aurreikusten zuen alegatzaileak saihestu nahi duen egoera, hau da, dagokion eskaera jaso ostean, ingurumen-organoak ukitutako administrazio publikoei eta interesdunei egin behar zuela kontsulta eta, legeak ezarritako zenbait irizpideei jarraiki (211/2012 Dekretua indarrean sartzean Ingurumenaren gainean plan eta programa batzuek izan dezaketen eraginaren ebaluazioari buruzko apirilaren 28ko 9/2006 Legea zegoen indarrean), planak edo programak ingurumen-ebaluazio estrategikoa egin behar zuen ezarri. 21/2013 Legea indarrean sartzean, “kasu bakoitzean erabakitze” prozedura hori indargabetu egin zen eta orain “ingurumen-ebaluazio estrategiko sinplifikatu” deitzen denarekin ordeztu egin zen. Bestalde, 9/2006 Legeak “ingurumen-ebaluazio estrategiko” izendatutako prozedura orain honela dago ezarrita: “ohiko ingurumen-ebaluazio estrategikoa”. Kontuan hartuta 21/2013 Legearen xedapenek oinarritzko legeriaren izaera dutela ingurumenaren eremuan, erkidego-mailako legeak ezin du prozedura sinplifikatu hori deuseztatu.</p>	
EHNE-EUSKAL HERRIKO NEKAZARIEN	A) eta b) atalak: ebaluazioaren menpeko jarduerak jasotzen dituen eranskina aipatu behar da, nahiz eta 2. atalean II. Eranskina aipatzen den oro har.	Atal honen hasieran azaldutako aurretiazko gogoetetan argudiatu den bezala, probabilitate-mailaren kontzeptuak (altua edo zehaztugabea), hau da, plan, programa edo proiektu batek	Partzialki onesten da.	

	ELKARTASUNA		<p>ingurumen-ebaluazioko prozedurak burutu behar izana zehaztekoak, kontzeptua proiektuen zerrenda bikoitzarekin lotzearen bidez xedatzen dira; horretarako, zenbait ezaugarri eta atalase zehazten dira, eduki tekniko altuarekin. Lotura hori zuzena da ebaluazioa egin behar duten proiektuen kasuan eta zeharkakoa planen eta programen kasuan; izan ere, horiek osatzen dute etorkizunean proiektuak onesteko esparrua.</p> <p>Lege-proiektuan, erabaki da antzeko idazketa ematea planen, programen eta proiektuen ebaluaziorako ezartzen diren prozedurei, II Eranskina oro har aipatuz artikuluetan eta deskribapen xehea eginez eranskinean bertan.</p>	
--	-------------	--	--	--

	ARABAKO FORU ALDUNDIA INGURUMEN SAILA	<p>60.2 artikulua. II C eta D Eranskinetan, 21/2013 Legearen eremu berbererako adierazitako ohiko ingurumen-eraginaren ebaluazioa eta ingurumen-eraginaren ebaluazio sinplifikatua egin behar duten proiektu berberak jasotzen dira. Baina ez da gehitzen Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteko indarreko 3/98 Lege Orokorrak modu gehigarrian aurreikusten dituen kasuetako bat ere ez.</p> <p>Hortaz, legearen zirriborroak proposatzen du nabarmen murriztea proiektuen ingurumen-eraginaren ebaluazioaren aplikazio-eremua eta hori atzerakada handia da ondorio hauetarako ingurumenaren babesean. Gure herrialdearen ezaugarriak kontuan hartuta, funtsezkotzat jotzen da parametro zehatzak edo berezko parametroak xedatzea, bere dimentsioengatik edo ezaugarriengatik ingurune naturalean oso eragin nabarmenak izan ahal dituzten zenbait proiektuen gainean ingurumen-ebaluazioa egin ahal izateko.</p>	Alegazio hori eta beste batzuk kontuan hartuz, ingurumen-eraginaren ebaluazioko eranskinen berrikuspen integrala egin da	Partzialki onesten da.
61. artikulua. Eskumenak	GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA	<p>61. artikulua 1. atala osatu behar da. Ingurumen-organismoak ez ditu soilik igortzen ingurumen-ebaluazioaren prozedurei amaiera ematen dieten adierazpenak eta txostenak; horrez gain, adierazi den bezala, prozedura horien ingurumen-azterlanen irismen-dokumentuak igortzen ditu (21/2013 Oinarrizko Legearen 19.2 eta 34.5 artikulua). Hortaz, irismen-dokumentu horiek ere 61.1 artikuluan txertatzeko eskatzen da. Aurrekoak 61. artikulua 3. atalak jasotzen duen aipamena ez-beharrezkoa egingo luke.</p> <p>Era berean, 61. artikulua 3. atalak zehazten du ingurumen-organismoek legeak aurreikusten dituen eskumenak izango dituztela,</p>	<p>Euskal Herriko ingurugiroa babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorrean bezala, lege-proiektuak autonomia-erkidegoko administrazio orokorrari esleitu dio ingurumen-ebaluazioko prozedurei amaiera ematen dieten adierazpenak eta txostenak igortzeko eskumena, eskumen substantiboa foru aldundiei dagokienean izan ezik. Gainera, oinarrizko legerian aurreikusitako eskumen-erreserba gehitu egin da eskumen substantiboa Estatuko Administrazio Orokorrena den kasuetarako.</p> <p>Horrenbestez, lege-proiektuak eskumen bat jaso du, logikari jarraituz organo bereberei esleitu behar zaiena, hain zuzen ere,</p>	Ez da onesten

		<p>besteak beste, zenbait plan, programa eta proiektuentzat ingurumen-ebaluazioko prozedurak egiteko salbuespena zehazteko. Beherago aurreproiektuaren zirriborroaren 65. eta 72. artikuluei dagokienez adierazten denari erreparatuz, kontu hori ezabatzeko eskatzen da (prozedura horren salbuespenerako). Aurreko guztiak eragingo luke 61. artikulua 3. atala osorik beharrezkoa ez izatea.</p> <p>Halaber, lotura estua duenez aldundien eginkizunekin (baita tokiko administrazioarekin ere, eta eskumen zuzenarekin hirigintza-planeamenduaren onespenean - Eusko Jaurlaritzak ez duen eskumena-) eta lurralde historikoaren mailan plan horien guztien ingurumen-ebaluazioan irizpide-batasuna ahalbidetze aldera, eskatzen da legean txertatzeko indarreko urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 6.2 artikuluan jasotako aurreikuspena: Eusko Jaurlaritzari esleitutako hirigintza-planeamenduko ingurumen-ebaluazio estrategikoko prozeduren foru-mailako ingurumen-organoei kudeaketa agintzeko aukera, horiek eskatuta.</p> <p>Horren orde, azter liteke beste aukera bat: lege-aurreproiektuak zehatzea hirigintza-plan guztien ingurumen-ebaluazio estrategikoko prozeduretan ingurumen-organo jardulea foru aldundiak izango direla (udalerrak dituen biztanleen kopurua gorabehera -Lurzoruaren Legeak xedatzen duen bezala-).</p>	<p>erabaki zehatzak hartu behar direnerako ingurumen-ebaluazioko prozedurei dagokienez, hau da, beste adierazpenen desberdinak direnean.</p> <p>Hortik dator lege-testuaren idazketarako aukeratutako forma, nahiko argia dena lortu nahi diren ondorioetarako.</p> <p>Bestalde, adierazi behar da, Lurzoruari eta hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legean xedatutakoa aplikatuz, bai autonomia-erkidegoko administrazio orokorrak, bai foru eta udal administrazioek eskumenak dituztela hirigintza-plangintza behin betiko onesteko. Autonomia-erkidegoko administrazio orokorraren ekintzak bermatzen du irizpide-batasuna erkidego osoan, nahiz eta foru aldundiek irizpide zehatzak ezartzen dituzten bakoitzak administratzen duen lurralde historikoaren eremuan; izan ere, organo substantiboa da lurralde horren parte handi baten plangintzan.</p> <p>Era berean, kontuan hartu behar da kudeaketa-agindua administrazio-zuzenbidearen teknika bat dela; horren bidez, ahalmenaren alderdi materiala organo batetik bestera pasatzen da, eraginkortasun-arraioengatik. Kudeaketa-aginduak ez du inola ere esan nahi eskumenak eskuordetzen direnik; hortaz, lege-proiektuak ez du aurreikusi aukera hori jasotzea eskumen horiek arautzera bideratutako manuan.</p> <p>Hala eta guztiz ere, edozein unetan erabaki daiteke kudeaketa-agindu bat ezartzea autonomia-erkidegoko administrazio orokorraren eta edozein foru aldundiren artean, hain zuzen ere,</p>	
--	--	---	--	--

			<p>Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legean aurreikusitakoaren arabera.</p> <p>Salbuespena kentzeari dagokionez, 65. artikuluan alegazioei emandako erantzunetara jotzen dugu.</p>	
HERNANIKO UDALA	<p>Proposatzen da 3/1998 Legearen (Ingurugiroa babesteko Euskadiko Lege Orokorra) 61. artikulua artikulua baliokide bat gehitzeko legearen laugarren tituluaren amaieran. Horrek arautuko du jardueralizentziaren (baimen integratua edo bakarra) eta gainerako hirigintzalizentzien arteko harremana.</p> <p>Hori jasotzeko, hautazko testu bat proposatzen da.</p>	<p>Sistematikoki, alegazioa ez dago ondo kokatuta. Nolanahi ere, eskakizun hori bete da 18.4 eta 22. artikuluen idazketa berriarekin.</p>	Partzialki onesten da.	
BIZKAIKO FORU ALDUNDIA INGURUMEN ZUZENDARITZA	<p>Udalerrri guztietako hirigintza-planeamendua ebaluatzeko kudeaketa-aginduaren aurreikuspena, 211/2012 Dekretuaren aurreikuspena mantenduz.</p> <p>Hautazko testua: 4. Planaren edo programaren onespenerako eskumen substantiboa udalarena denean, autonomia-erkidegoko ingurumen-organismoak bere eskumeneko kudeaketa materiala agindu ahalko dio dagokion foru-organismoari.</p>	<p>Kontuaren funtsari erantzuten zaio Gipuzkoako Foru Aldundiaren alegazioetan emandako erantzunean.</p>	Ez da onesten	

<p>62. artikulua. Planen deuseztasuna eta ebaluatu gabeko proiektuak</p>	<p>GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA</p>	<p>Alegatzaileak berrikuspenak jasotzen dituen hautazko testu bat proposatzen du:</p> <p>Erabat deusezak izango dira planak, programak eta proiektuak eta horien berrikuspenak eta aldaketak ezartzeko, onesteko, baimentzeko, horien gaineko adierazpen erantzulea eta aurretiazko jakinarazpena egiteko egintzak, baldin eta, ingurumen-ebaluazioa egin behar denean, egintza horiek aplikagarria den ingurumen-ebaluazioko prozedura bukatu gabe igortzen badira. Deusezak izateaz gain, baliteke dagozkien zehapenak ezartzea.</p>	<p>Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 102. artikuluan jasotakoarekin bat etorritz, jotzen da berrikuspena behar dela planek ezarritako antolamendua osorik berraztertzen denean, nahiz eta antolamenduaren eremuaren zati bati partzialki egiten dion erreferentzia. Horrela, hauek planeamendu-aldaketengandik bereizten dira, zeinetan antolamenduaren berrazterketak ez dion eragiten horren osotasunari, baizik eta alderdi zehatzen bati.</p> <p>Hortaz, lege-proiektuan, erabaki da, ingurumen-ebaluazioaren eremuan, tratamendu bera eman behar zaiela planei eta programei eta horien berrikuspenei; hori esplizituki geratzen da artikuluetan jasotako planen eta programen definizioan. Hortaz, ez da beharrezkoa testuan "berrikuspenak" terminoa errepikatzea.</p>	<p>Partzialki onesten da.</p>
<p>63. artikulua. Gaitasun teknikoa eta erantzukizuna</p>	<p>GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA</p>	<p>Oinarrizko 21/2013 Legearen 16. artikuluan xedatutakoari jarraiki, eskatzen da hauxe gehitzeko: artikulua horretan aipatzen diren dokumentuetan itxiera-data eta egilearen sinadura jaso behar dira.</p>	<p>Lege-proiektuaren testuan, itxiera-dataren eta egilearen sinaduraren aipamena jaso egin da.</p>	<p>Onesten da</p>
	<p>BIZKAIKO FORU ALDUNDIA INGURUMEN ZUZENDARITZA</p>	<p>Alegatzaileak hautazko idazketa bat proposatzen du eta Ingurumen-ebaluazioko 21/2013 Legeak ezartzen dituen dokumentu eta baldintza guztiak gehitzen saiatzen da.</p>	<p>Jotzen da aukeratutako idazketa alegatzaileak proposatutakoa baino zabalagoa dela dokumentu teknikoei dagokienez.</p> <p>Lege-proiektuaren testuan, itxiera-dataren eta egilearen sinaduraren aipamena jaso egin da.</p>	<p>Partzialki onesten da.</p>

	BILBOKO UDALA	Ez du jotzen beharrezkoa denik trebakuntza profesionalak terminoaren ostean egindako goi-mailako hezkuntzaren aipua.	Alegazioa onartzen da.	Onesten da
65. artikulua. Ingurumen- ebaluaziotik baztertutako planak eta programak.	ASTIGARRAGAK O UDALA	<p>1. Ingurumen-ebaluazio estrategikoko prozedurak ez dira aplikagarriak izango kasu hauetan:</p> <p>a) Planen, programen edo proiektuen helburu bakarra defentsa nazionala edo babes zibila denean, larrialdi-egoeretan, baita prozedura aplikatzeak babes zibilaren helburuetan ondorio negatiboak izan ditzakeenean ere.</p> <p>b) Programak guztiz finantza- edo aurrekontu-izaerakoak direnean.</p> <p>c) Plan, programa eta proiektu horien aldaketek eragindako jardueren intentsitate baxuagatik, argi dagoenean gerta daitezkeen ingurumen-ondorioak ez direla nabarmenak.</p> <p>2. Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumen-organoak irizpideak ezarri ahalko ditu zehazteko plan edo programa baten aldaketek eragindako ingurumen-ondorioak nabarmenak izan daitezkeen edo ez, egoeraren arabera.</p> <p>Beharrezkoa da lege honetan aurretiaz ezartzea prozedura azkar bat planen edo programen ingurumen-ondorioak balioztatzeko, zehazki, kasu bakoitzean erantzunez eta lege honetan irizpide orokor batzuk zehaztuz; hori guztia Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumen-organoak irizpide zehatz batzuk ezarri arte.</p> <p>4. Lege honetan, nolabait lotu beharko dira hirigintzako errekursoak</p>	<p>Atal honen hasieran azaldutako aurretiazko gogoetetan argudiatu den bezala, ingurumen-ebaluazioa ingurumenean ondorio nabarmenak izan ditzaketen planei, programei eta proiektuei aplikatzen zaie, bai ziurra denean ondorio horiek eragingo direla (probabilitate-maila altua), bai ziurgabetasuna dagoenean (probabilitate-maila zehaztugabea). Aitzitik, ez da aplikatu beharko ziurra denean ondorio horiek ez direla eragingo (modu argian).</p> <p>Kontzeptu horien zehaztapena jasota dago horiek II. Eranskinetako proiektuen zerrenda bikoitzarekin lotzean (zuzenean edo zeharka).</p> <p>Plan, programa edo proiektu zehatz bat ingurumen-ebaluazioaren aplikazio-eremuaren barne ez dagoela jotzeko funtsezko irizpidea hauxe da: modu ziurrean, hau da, zalantzarik gabe, ez dagoela inolako aukerarik ingurumenean ondorio nabarmenak eragiteko. Irizpide horren izaera dela-eta, ez da koherentea prozedura bat ezartzea kontu hori zehazteko; izan ere, prozedura substantiboa izapidetu behar duenaren organo desberdinen esku-hartzea dakarren beste izapiderekin bat beharrezkoa izango balitz, afektazio nabarmenik ezaren ustea ez litzateke ziurra izango.</p> <p>Aitzitik, zalantzaren bat badago planak, programak edo proiektuak ingurumenean ondorio nabarmenak izateko aukeraren inguruan,</p>	Ez da onesten

	<p>eta ingurumen-ebaluazioko prozeduren izapidetzea. Ingurumen-ebaluazioaren izapidetzean jaso beharreko dokumentuak eta Ingurumen-organoak jaso beharrekoak hirigintza-planen definizioarekin eta izapidetzearekin lotu beharko lirateke.</p>	<p>gai horren inguruko oinarritzko legeriak ezarri du ebaluazio sinplifikatuko prozedura jarraitu behar dela, lege-proiektuan jasotzen den bezala.</p> <p>Hori guztia gorabehera, sakontzeko asmorik gabe, gerta daiteke kasu zehatzen batean, hau da, ingurumen-organoak Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde osoan izandako esperientzian zehar, ingurumenean ondorio nabarmenak izateko probabilitatea ondo ezaguna izatea eta oso murrizta ere bai.</p> <p>Bestalde, lege-proiektuak erabaki du gutxiengora murriztea prozedura-xehetasunak, are gehiago ingurumen-ebaluazioa hirigintza-tresnen eremura soilik mugatuta ez dagoelako.</p>	
<p>PASAIAKO UDALA</p>	<p>Jotzen da Ingurumen-administrazioaren Lege hau dela esparru egokia EAeko ingurumen-organoak irizpide batzuk ezartzeko plan edo programa batek edo horren aldaketak ingurumenean ondorio nabarmenak dituen egoerak zehazteko. Hortaz, hori gehitzeko eskatzen da.</p>	<p>Aurreko alegazioaren eduki bera dauka eta, beraz, zentzu berean, ezesten da.</p>	<p>Ez da onesten</p>
<p>TRANSIZIO EKOLOGIKORAK O MINISTERIOA</p>	<p>Ministerioak adierazi du ez direla desberdintzen plan eta programetarako araubidea eta proiektuetarako araubidea.</p> <p>Bestalde, aurreikusita ez zegoen salbuespen bat sartu da oinarritzko legeriaren 8. artikuluan; hain zuzen, plan edo programetatik eratorritako ekintzen garrantzi eskasari buruzkoa.</p>	<p>Apartatu honen hasierako gogoetetan argudiatu den moduan, interpretatu da 21/2013 Legearen aplikazio-eremua ingurumenean ondorio esanguratsuak izan ditzaketen plan, programa eta proiektuetara mugatuta dagoela, eta erabaki da erkidegoko legearen aplikazio-eremua zehaztea, bai sartzeari bai kanpo uzteari dagokienez.</p> <p>Bestalde, eta, gaiari lotutako oinarritzko legerian ezarritakoarekin</p>	<p>Ez da onesten</p>

			<p>bat etorri, ingurumen-ebaluazioaren aplikazio-eremuaren barruan egonda ere, prozedura alternatibo bat (beste ebaluazio modu batzuk) izan dezaketen proiektu jakin batzuk kanpo uzteko aukera jaso da. Ondorioz, lege-aurreproiektuan jasotzen den testu arauemaileak argi eta garbi desberdintzen ditu Legeak berak «aplikazio-eremutik kanpo utzi dituen» kasuak eta, aplikazio-eremu horren barruan egonda ere, ebaluazio-prozeduratik «kanpo utz daitezkeen» kasuak ere. Baztertze hori kasu bakoitzean adostu behar da, eta soilik hasiera batean Legearen aplikazio-eremuan sartuta zeuden eta beste ebaluazio mota bat izan dezaketen proiektuetako salbuespenezko kasuetarako gordetzen da.</p> <p>Laburbilduz, iritzi da lege-proiektuak ez duela 21/2013 Legearen aplikazio-eremua mugatzen, baizik eta esplizitatu eta argitu egiten duela.</p>	
GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA	<p>65.1 artikulua c) letrak ingurumen-ebaluazio estrategikoko prozeduretatik baztertzen ditu zenbait plan, programa eta "proiektu"? (Bateraezina da artikulua izenburuarekin) edo horien aldaketak. Hain zuzen ere, hori egiten du baldin eta, ekintzen garrantzia txikiagatik, ingurumenean sor ditzaketen ondorioak begi-bistan nabarmenak ez badira.</p> <p>Bestalde, 65.2 artikulua xedatzen du EAEko ingurumen-organoak irizpideak ezarri ahalko dituela ezartzeko zein egoeratan jo daitezkeen plan edo programa baten edo horietako baten aldaketaren</p>	<p>Atal honen hasieran azaldutako aurretiazko gogoetetan argudiatu den bezala, interpretatu da 21/2013 Legearen aplikazio-eremua ingurumenean ondorio nabarmenak izan ahal dituzten plan, programa eta proiektuetara mugatuta dagoela eta, hortaz, erabaki da autonomia-erkidegoko legearen aplikazio-eremua definitzea, bai gehitzeari, bai baztertzeari dagokienez.</p> <p>Bestalde, eta gaiaren inguruko oinarriko legerian ezarritakoarekin bat eginez, ingurumen-ebaluazioaren ezarpen-eremuan egon arren bestelako prozedura (bestelako ebaluazio mota bat) izan</p>	Partzialki onesten da.	

		<p>ingurumenarekiko ondorioak ez direla nabarmenak izango.</p> <p>65.1 artikularen c) letran adierazitakoari dagokionez, zehaztu gabeko kontzeptu juridiko eta tekniko anbiguoak aurkitzen ditugu, interpretazio arbitrarioak eta okerrak sortu ahal dituztenak. Lege-aurreproiektuaren zirriborroak salbuespen-izaera hori definitzen du, ondorioak “agerian” nabarmenak ez izatean oinarrituta (zein da “ageriko” adierazpenaren irismena?, noiz edo zein egoeratan gertatzen da?, nork xedatzen du?, etab.). Gainera, horren inguruko goi-mailako araudiak (2001/42/CE Zuzentaraua eta 21/2013 Legea) ez du ingurumen-ebaluazio estrategikoaren salbuespen-izaera aitortzen edo definitzen horrelako zerbitetan oinarrituta; hortaz, 65.1.c artikulua ez da egokitzen nahitaez bete beharreko oinarritzko araudian ezarritako ingurumen-ebaluazio estrategikoaren gutxieneko aplikazio-eremura eta hori urratu egiten du (Zuzentaraua eta Legea).</p> <p>Horrez gain, araudiaren terminoetan, 65.2 artikularen aurreikuspena ez da egokia. Legegintza-arauak, lege bat edo antzeko izaera eta maila dituen arau bat egiteko teknikaren ikuspegitik, ezin du saihestu, behintzat, horri arautzea dagokion aplikazio-eremua zehaztea (edozein eremu edo sektorerekin lotutako goi-mailako edozein arautan egiten den bezala: kostaldeak, hondakinak, urak, kutsatutako lurzorua, errepideak, energia, etab.).</p> <p>Hortaz, ingurumen-ebaluazio estrategikoaren inguruko lege-izaerako arau orokor bat ezin da desberdina izan eta zenbait planek arautu nahi den prozedura ez egiteko aukera baztertu, EAeko ingurumen-organok garatuko dituen irizpide batzuen geroko garapenera joz</p>	<p>dezaketen proiektu jakin batzuk kanporatzeko aukera jaso da. Ondorioz, legearen proiektuan jasotzen den testu arautzaileak argi eta garbi bereizten ditu legeak berak "ezarpen-eremutik kanpo kokatzen dituenak" eta, ezarpen-eremuan egon arren, ebaluazio-prozeduratik "kanpo utz daitezkeenak". Kasuz kasu erabaki behar da kanpoan utzi ala ez, eta hasiera batean legearen ezarpen-eremuan dauden baina bestelako ebaluazio-era izan dezaketen proiektuen salbuespenezko kasuetarako bakarrik gordetzen da aukera hori.</p> <p>Hau da, legearen aurreproiektuak ez du inondik inora murrizten 21/2013 Legearen ezarpen-eremua: esplizitatu eta argitu egiten du.</p> <p>Azkenik, "planak eta programak", "proiektuak" eta "ingurumen-ebaluazio estrategikoa" terminoen erabileran hauteman diren hutsegiteak zuzendu dira.</p>	
--	--	--	--	--

		<p>(nola? Interpretazio-eskuliburu baten bidez? Zirkular batekin? Gainerako ingurumen-organoei eta inplikaturako eragileei kontsultatu gabe -organo substantiboak, organo sustatzaileak, herritarrak, etab?....).</p> <p>Goi-mailako arauak berak beren-beregi ezarri behar du eta eragile guztiei argi utzi behar die zein plan eta programei eta aldaketei egiten dien erreferentzia eta zeini ez. Lege-aurreproiektuaren zirriborroan bertan araututako beste prozedura batzuetan egin den gauza bera egin behar da (ingurumen-baimen integratua, ingurumen-baimen bakarra, sailkatutako jardueren lizentziak, sailkatutako jardueren aurretiazko adierazpenak eta ingurumen-eraginaren ebaluazioa ere bai); izan ere, horietan argi eta garbi tasatzen da zeintzuk diren prozedura horien menpeko jarduerak, menpekoak izango ez liratekeen horiei dagokienez geroko interpretazioetara jo gabe. Beraz, gauza bera egin behar da ingurumen-ebaluazio estrategikoko prozedurarekin; bestalde, Europako beste herrialde batzuetako legeria orokorrek hori ezartzen eta egiten dute, baita Estatuko oinarritzko legeriak eta ingurumen-ebaluazioa arautu egin duten autonomia guztiek ere, 2001/42/CE Zuzentarauak eta 21/2013 Legeak horren inguruan ezartzen dituzten manuekin bat etortzeko.</p> <p>Horregatik guztiagatik, eskatzen da lege-aurreproiektutik ezabatzeko 65.1 artikulua c) letra eta 65.2 artikulua, baita ingurumen-ebaluazio estrategikoaren aplikazio eremua zehatz-mehatz ezartzeko ere legean bertan (horri dagokionez, komeni da beherago 72. artikulua inguruan esandakoa ikustea). Hala, 65. artikulua gainerakoa batera</p>		
--	--	--	--	--

		<p>jorra daiteke 66. artikulua zehazten duenarekin (ingurumen-ebaluaziotik salbuetsi daitezkeen proiektuak). Artikulu bakar honen izenburua hau izan liteke: “Ingurumen-ebaluaziotik salbuetsi daitezkeen planak, programak eta proiektuak”.</p>		
BIZKAIKO FORU ALDUNDIA INGURUMEN ZUZENDARITZA	<p>Autonomia-erkidegoko legeria batean edo dekretu batean ingurumen-ebaluazioaren menpekoak ez diren planen zehaztapena egitea 21/2013 Legearen aurkakoa da, Konstituzio-azitegiaren jurisprudentziak behin eta berriro erakusten duen bezala (Balear Uharteetako Legea, besteak beste). Epaietan, Konstituzio-azitegiak ezartzen du autonomia-erkidegoak ez direla eskudunak ingurumen-ebaluazioaren menpekoak ez diren plan-motak ezartzeko.</p> <p>Ez da definitzen “agerian ez nabarmena” ideia; beraz, nolabaiteko ziurgabetasun juridikoa sor daiteke artikulua interpretatzerakoan. Plan zehatz batzuen gainean ingurumen-ebaluaziorik ez egitea bermatzen duen idazketa egiteko saiakera zaila da zehaztea; horregatik, ziurgabetasun juridikoa sortzen da.</p> <p>Ingurumen-ebaluazio estrategiko sinplifikatuaren prozedurak ezarri behar du plan batek ingurumenean ondorio nabarmenak dituen edo ez (Zuzentarauaren kasu bakoitzaren arabera). Hortaz, proposatzen da 1.c) eta 2. atalak kentzeko.</p>	<p>Aurreko erantzuna ere da balioduna alegazio hau ezesteko.</p>	<p>Ez da onesten</p>	
ARABAKO FORU ALDUNDIA INGURUMEN	<p>Lege-aurreproiektuaren zirriborroak aurreikusten duen aplikazio-eremuarekiko hurrengo bazterketa deuseztatu beharko litzateke, baita EAeko ingurumen-organoak beretzat hartzen duen eskumena ere, hain zuzen ere, plan bat edo programa bat edo horien aldaketak</p>	<p>Zuzendutako akats terminologikoak alde batera utzita, alegazio honek aurrekoaren eduki berbera dauka eta horregatik ezesten da.</p>	<p>Ez da onesten</p>	

	SAILA	<p>ebaluazio-prozeduren aplikaziotik noiz salbuesten diren ezartzeko. Zehazki, jotzen da Ingurumen-administrazioaren Legean ez dela honako testu hau gehitu behar:</p> <p>c) Plan, programa eta proiektuek edo horien aldaketek eragin ditzaketen ekintzen garrantzia eskasagatik, ingurumenean eragin ditzaketen ondorioak agerian nabarmenak ez direnean.</p> <p>65.2 artikulua. EAeko ingurumen-organismoak irizpideak ezarri ahalko dituela ezartzeko zein egoeratan jo daitekeen plan edo programa baten edo horietako baten aldaketaren ingurumenarekiko ondorioak ez direla nabarmenak izango.</p> <p>Hala ere, idazketa horren “ontasunak” ziurgabetasun juridikoa eragin lezake, ez baititu aipatzen kontuan hartu beharreko planak eta programak, ezta aplikatu beharreko irizpideak ere.</p> <p>Horrez gain, aintzat hartu behar da, ondorioak nabarmenak diren edo ez ezartzeko, ebaluazio sinplifikatuaren prozedura aplikatzen dela (21/2013 Legean bertan definitzen den bezala) eta, gainera, “agerian” terminoa ez da aurreikusten 21/2013 Legean, ezta Ingurumen-ebaluazioko Europako Zuzentarauan ere.</p> <p>Hortaz, uste dugu atal hori kendu behar dela.</p> <p>Aurretik esandako guztia aztertuta, uste dugu 65. artikulua osorik ken daitekeela.</p>		
66. artikulua. Ingurumen-	PASAIKO UDALA	66. artikulua proiektuen ingurumen-ebaluazioko izapidearen salbuespena aurreikusten du. Hala eta guztiz ere, ez da zehazten	Manuak, funtsean, oinarritzko legerian xedatutakoa jasotzen du; hala, ulertzen da salbuespenezko kasuetan aplikatu behar dela,	Ez da onesten

<p>ebaluaziotik salbuetsi daitezkeen proiektuak.</p>		<p>zein proiektu-mota, ezta zein egoeratan ere. Aitzitik, 66. artikulua idazketatik, ondorioztatzen da aurreikusten duela edozein proiektu-mota salbuestea ingurumen-ebaluaziotik ohiko egoeretan eta hori guztia udal-administrazioarekin kontsultatu gabe.</p> <p>Jotzen da ez dagoela arrazoirik ingurumen-ebaluaziotik salbuesteko hori eskatzen duten proiektuak; horregatik eta ziurgabetasun juridikoko egoerak saiheste aldera, 66. artikulua osorik kentzeko eskatzen da.</p>	<p>ingurumenean ondorio nabarmenak eduki ahal dituzten arren, administrazio-prozedurara egokitzeko zailak direnean.</p> <p>Legean aratutako salbuespenak ez du esan nahi ingurumen-ebaluazioa saihesten denik, baizik eta soilik prozedura orokorra; azken hori ez-ohiko prozedura batekin ordeztu behar da eta horrek, edonola ere, bermatuko du neurri babesleak, zuzentzaileak eta konpentsaziokoak gehitzen direla, baita legearen printzipioak eta xedeak betetzen direla ere.</p>	
	<p>HERNANIKO UDALA</p>	<p>Lege-proiektuaren 66. artikulua anbiguoegia da ingurumen-ebaluaziotik salbuetsi daitezkeen proiektuei dagokienez. Artikulu honek bereziki kezkatzen gaitu; izan ere, erabaki osoa uzten da Euskal Autonomia Erkidegoko Gobernu Kontseiluaren eta udalen esku. Salbuetsi nahi den proiektuak gehien kaltetzen dituenak izan daitezkeen kasuan ere, ia-ia ez dute erabakirik hartzeko gaitasunik izango, ezta proiektua egikaritzea ukatzeko aukerarik ere.</p> <p>Anbigutasunarekin batera, artikulu honek zehaztasun-gabezia handia dauka. Ez da zehazten zein izan daitezkeen balizko ez-ohiko egoerak, ezta zein proiektu zehatzei aplikatu ahal zaien; guztiz kontrakoa egiten da: edozein proiekturi irekitzen zaio atea. Udaletan izan ditzakegun ustekabe desatsegina eta kezkarrien kopurua oso handia izan daiteke, 66. artikulua horretan oinarrituta.</p> <p>Egia esan, praktikan, ez dago denbora nahikoarekin egin ezin den proiekturik edo konponezina den egoerarik. Udalaren ikuspuntutik, horrelako ez-ohiko artikulua eta egoerak arriskutsuak izan daitezke</p>	<p>Aurreko alegazioaren eduki bera dauka eta, beraz, zentzu berean, ezesten da.</p>	<p>Ez da onesten</p>

		<p>eta segurtasun juridikorik eza sortzen dute.</p> <p>Horregatik guztiagatik, eskatzen dugu artikulua hori deuseztatzeko.</p>		
	BILBOKO UDALA	<p>Eskatzen du 66. artikulua izenburuan "eximir" terminoa erabiltzeko "exceptuar" terminoaren ordean. (Euskaraz biak adierazten dira berdinean: salbuetsi).</p>	<p>Terminologia oinarritzko legerian azaldutakoaren berbera da (21/2013 Legearen 8. artikulua: Ingurumen-ebaluaziotik baztertutako kasuak eta salbuetsi daitezkeen proiektuak.</p> <p>Aurreko alegazioetan gehiago zehaztu egiten da termino horien erabilera.</p>	<p>Ez da onesten</p>
<p>67. artikulua: Ohiko ingurumen-ebaluazioen irismena zehaztea</p>	<p>GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA</p>	<p>67.1 artikulua. "Organo eskudunak ezarriko du ohiko prozedura egin behar duten plan, programa eta proiektuen ebaluazioaren irismena eta, beharrezkoa denean, horrek xehatuko du prozedurara gehitu beharreko ingurumen-dokumentuen edukia, zehazki, araudiak ezarritako terminoetan".</p> <p>Aurretik esan den bezala, plan, programa eta proiektuen ingurumen-ebaluazioaren irismenaren zehaztapena ezin da prozeduratzat hartu. Ezarritako ohiko ingurumen-ebaluazioko prozeduren barruan sartzen den araututako izapide bat da (21/2013 Oinarritzko Legearen 19.2 eta 34.5 artikulua) eta ingurumen-organoak (ez "organo eskudunak") ezarri behar du plan, programa eta proiektu horien ebaluazioaren irismena. Horretarako, nolana ere (eta ez "beharrezkoa denean"), dagozkien ingurumen-azterlanen irismen-dokumentuak igorriko dira, araudiari erreparatu, horien igorpena nahitaezkoa delako behin eskatu direnean. Era berean, ez da geroko arautegi baten garapena proposatu behar ingurumen-dokumentuen (azterlanak) edukia</p>	<p>Alegazioa partzialki hartzen da eta aipatutako artikulua berriz idatzi da; neurri handi batean, proposatutako alegazioarekin dator bat idazketa berri hori.</p>	<p>Partzialki onesten da.</p>

		<p>zehatzeko. Izan ere, legeak berak hori primeran eta modu errazean ezar dezake, hain zuzen ere, hori eskatzen du (eta proposatzen du), zehazki, modu argian, sinplean eta gardenean esku hartzen duten eragile guztientzat eta indarraldiaren hasieratik, geroko arategi hipotetiko bat onetsi arte itxaron gabe.</p> <p>Bestalde, ematen du 67.4 artikulua nolabaiteko derrigortasuna esleitu nahi diola ingurumen-organoari irismen-dokumentua eskatzeko izapideari, zehazki, ohiko ingurumen-eraginaren ebaluaziorako (ingurumen-ebaluazio estrategikoarentzat hala da jadanik). Arrazoi desberdinengatik (ikus beharago 68. eta 71. artikuluen inguruan aipatutakoa), egokitzen jotzen da proposamen hori ingurumen-babeserako arau gehigarri gisa, 21/2013 Legean Estatu mailarako proposatutako oinarrikoari dagokionez. Hala ere, interpretazio-nahasmenduak eta anbigutasunak ekidite aldera, hauxe esplizituagoa jaso beharko litzateke 67. artikuluko 1. atalean.</p>		
	<p>BIZKAIKO FORU ALDUNDIA INGURUMEN SAILA</p>	<p>Aurreproiektuaren 67.3 artikulua planen eta programen ingurumen-ebaluazioaren irismena ezartzen du erabaki-eremu hierarkikoaren arabera eta jarduketaren bikoiztasuna saihesteko aldera.</p> <p>Sail hau guztiz ados dago aipatutako testuaren idazketarekin. Hala ere, sail hau bereziki kezkatuta dago gaur egun egiten ari den Bizkaiko Errepideen Lurralde-plan Sektorialarekin; horren jarduketaren % 80-90 bat datoz Euskal Herriko Errepideen Plan Orokorrekin. Aurreproiektuaren izaerarekin bat etorritik, sailak uste du 67.3 artikulua indartu behar dela eta adierazten du, jarduketa</p>	<p>Lege-proiektua orokorra da ingurumen-ebaluazioaren arauketari dagokionez, plan edo programa zehatzen kasuistika lortzeko asmorik gabe. Manuak jarduketaren bikoiztasuna saihestu nahi du, ingurumen-ebaluazioaren irismena ebaluatutako planaren irismenera egokituz. Nolanahi ere, lege-proiektuak jotzen du beharrezkoa dela berezko planek saihestea antolaketa-jarduketaren bikoiztasuna.</p>	<p>Ez da onesten</p>

		batek ingurumen-ebaluazioko izapidea gainditu duenean, ez dela berriz ere egingo horren gaineko ingurumen-ebaluazioa beste erabakitze-eremuren batean.		
	BIZKAIKO FORU ALDUNDIA INGURUMEN ZUZENDARITZA	Alegatzaileak uste du egokia dela irismen-dokumentuaren fasea beharrezkoa izatea, 21/2013 Legean agertzen den bezala, hautazkoa izan beharrean. Eskatzen du 2. eta 3. atalak ebaluazio estrategikoaren izapidetzeari buruzko artikulura eramateko (72. artikulua)	Alegazioa azalpenekoa da. Irismenaren zehaztapenarekin lotutako alderdiei idazketa berria eman zaie.	Esposizio- alegazioa
68. artikulua. Publizitatea	GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA	Ingurumen-adierazpen estrategikoak eta ingurumen-eraginaren adierazpenak dagokion aldizkari ofizialean eta egoitza elektronikoan (ingurumen-organoaren egoitzan) argitaratzeaz gain, artikulua honek jaso beharko luke, ohiko ingurumen-ebaluazio estrategikoarentzako Estatuko oinarritzko legerian ezartzen den bezala, ingurumen-ebaluazioen irismen dokumentuak ere argitaratu behar direla ingurumen-organoaren egoitza elektronikoan (ohiko ingurumen-eraginaren ebaluazioarenak barne). Era berean, publizitate-alderdiez gain, babes-arau gehigarri gisa EAEren mailan, oso komenigarria da artikulua hau indartzea ingurumen-ebaluazioko prozeduretan informaziorako sarbidearekin eta parte-hartze publikoarekin lotutako zenbait alderdirekin. Izan ere, horiek ezartzea erraza da eta bermeak ematen dizkiete ingurumen-organoari berari araudiak esleitutako eginkizunei (publiko interesdun "identifikatu gabearen" edo "ezezagunaren" esku-hartzea ahalbidetzen duten ingurumen-ebaluazioen hasiera-dokumentuen IP). Horri	Irismen-dokumentuak egoitza elektronikoan iragartzeko beharrari buruzko alegazioa hartzen da.	Onesten da

		dagokionez, ikusi behar da beherago 71. artikuluari buruz adierazitakoa (pertsonek interesdunen erregistroa); horrekin proposatzen da artikulua hori fusionatzeko bakar bat sortuz, izenburu honekin: "Ingurumen-informazioa, parte-hartze publikoa eta publizitatea".		
ARABAKO FORU ALDUNDIA INGURUMEN SAILA	Artikulu horrek zehazten du ingurumen-adierazpen estrategikoak eta ingurumen-eragineko adierazpenak autonomia-erkidegoaren edo lurralde historikoaren aldirikari ofizialean argitaratu behar direla. Horri dagokionez, ez dira gehitzen ebaluazio sinplifikatuko prozedurak amaitzen dituzten ingurumen-txosten estrategikoak eta ingurumen-eraginekoak. Publizitate-eskakizun hori irismen berarekin hedatu behar da administrazio-ebazpen guztietara, hau da, ingurumen-txosten estrategikoetara eta ingurumen-eragineko txostenetara ere bai, 21/2013 Legeak ezartzen duen bezala.	Alegazioa hartzen da eta idazketa berria ematen zaio 68. artikuluari: Ingurumen-ebaluazioko prozedurei, ingurumen-adierazpen estrategikoei eta ingurumen-eragineko adierazpenei amaiera jartzen dieten ebazpenak dagokien aldirikari ofizialean eta egoitza elektronikoan argitaratuko dira	Onesten da	
BIZKAIKO FORU ALDUNDIA INGURUMEN ZUZENDARITZA	Alegatzaileak eskatu du ingurumen-adierazpen eta txosten estrategikoak eta ingurumen-eraginekoak dagokien aldirikari ofizialean eta horren egoitza elektronikoan argitaratzeko.	Alegazioa hartzen da eta idazketa berria ematen zaio 68. artikuluari: Ingurumen-ebaluazioko prozedurei, ingurumen-adierazpen estrategikoei eta ingurumen-eragineko adierazpenei amaiera jartzen dieten ebazpenak dagokien aldirikari ofizialean eta egoitza elektronikoan argitaratuko dira	Partzialki onesten da.	

69. artikulua. Desadostasun en ebazpena	GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA	<p>Lege-aurreproiektuaren 73. artikulua ezartzen du ingurumen-adierazpen estrategikoak nahitaezko txosten loteslearen izaera izango duela. Nahitaezko txosten loteslearen izaera bera ematen zaie honako hauei: ingurumen-txosten estrategikoari (74. artikulua), ingurumen-eraginaren adierazpenari (75. artikulua) eta ingurumen-eraginaren txostenari (76. artikulua).</p> <p>Hortaz, aurrekoarekin bat etorri, ez lirateke artikulua honek jasotako desadostasun horiek sortuko ingurumen-organoaren eta organo substantiboaren artean. Aipatutako artikuluen artean ematen den kontraesana ebatzi beharko da.</p>	<p>Alegazioa hartzen da eta, horrenbestez, lege-aurreproiektuak bateraezintzat hartuko du ingurumen-erabakiaren izaera loteslea desadostasunen izapidetzearekin.</p> <p>Manua kentzea erabakitzen da.</p>	Onesten da
	TRANTSIZIO EKOLOGIKORAK O MINISTERIOA	<p>Ez da jasotzen gatazken ebazpenaren publikotasuna, Estatuko oinarritzko legerian egiten den moduan.</p>	<p>69. artikulua. Bat ez etortzeen ebazpena ezabatu da, ingurumen-organoaren adierazpenak lotesleak dira eta.</p>	Ez da onesten
	BIZKAIKO FORU ALDUNDIA INGURUMEN ZUZENDARITZA	<p>Ingurumen-txostenak eta adierazpena lotesleak badira, ezin da desadostasun-mekanismorik aurreikusi (Ikusi 73. artikulua; bertan ezartzen da bere izaera nahitaezkoa eta loteslea)</p>	<p>Alegazioa hartzen da eta, horrenbestez, lege-aurreproiektuak bateraezintzat hartuko du ingurumen-erabakiaren izaera loteslea desadostasunen izapidetzearekin.</p> <p>Manua kentzea erabakitzen da.</p>	Onesten da

	<p>EKONOMIAREN GARAPEN ETA AZPIEGITURETA KO SAILA</p>	<p>Organo substantiboaren eta ingurumen-organoaren arteko desadostasunen egungo arauketak desitxuratutako eztabaida bat proposatzen du; izan ere, horietako bakoitzak bere eskumenak gauzatzen baditu, ez dauka zentzurik organo bat ados ez egotea bestearen jarduketarekin, horri esleitutako eskumen-esferan, baldin eta hori ez badu egiten sustatzailea ordeztuz. Egoera honek horren bermeak urritzen ditu.</p> <p>Gauzak horrela, ingurumen-ebazpen batekiko aurkaketa ez litzateke artikulatu beharko organo substantiboaren bidez; izan ere, organo hori ikuslea besterik ez da eta beste organo batek hartzen duen ebazpenak lotzen du. Hori horrelakoa da desadostasuna ez delako jaiotzen bere prozeduratik eta, horregatik, Gobernu Kontseilua behartuta dago berezko egintza baten eta administratu baten eskubidearen artean hautatzera.</p> <p>Hortaz, arauketa berriaren aukera baliatu beharko litzateke eta aurreko gabeziak ebazten dituen prozedura kontraesankor bat ezarri.</p>	<p>Honen antzeko aurreko alegazioak hartuz, lege-aurreproiektuak bateraezintzat hartuko du ingurumen-erabakiaren izaera loteslea desadostasunen izapidetzearekin eta manu hori osorik kentzea erabakiko da.</p>	<p>Ez da onesten</p>
<p>71. artikulua. Ingurumen-ebaluazioko prozeduran interesa duten pertsonen erregistroa</p>	<p>GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA</p>	<p>Ingurumen-ebaluazioko prozeduretan interesdun guztien benetako parte-hartzea bermatze aldera, jotzen da, prozedura horietan kontsultatzeko pertsona interesdunen erregistro bat aurreikusi beharrian, askoz errazagoa, operatiboagoa eta eraginkorragoa dela, bai ingurumen-administrazioarentzat, bai interesdunentzat, ingurumen-ebaluazioko prozeduren aurretiazko kontsulten izapidea, administrazio publikoetara eta publiko interesdunera hedatzeaz gain, lege-proiektura hedatzea eta nahitaezko egitea, baita publiko orokorrari ere. Hori</p>	<p>Estatuko oinarrizko legeriak aurreikusten du ingurumen-ebaluazioko prozeduretan ukitutako administrazio publikoei eta interesdunei entzunaldi-izapidea irekitzea; izapide hori informazio publikoko izapidea egiten den aldi berean burutu behar da. Jakinarazpen pertsonalizatua egin behar denez eta kontsultaren jakinarazpen eraginkorretik zenbatutako erantzuteko epea ezartzen denez, entzunaldi-izapide honek informazio publikoko izapideak baino berme gehiago ematen ditu, hain zuzen ere,</p>	<p>Ez da onesten</p>

		<p>egiteko, informazio publikoa jakinarazi egingo da ingurumen-organoren egoitza elektronikoa eta edozein pertsonaren esku jarriko da ingurumen-ebaluazioko prozeduren hasierako dokumentazioa, egoki deritzen ekarpenak egin ditzaten (horrela, jakinarazpen-ondorioetarako edo ezagutzeko aukera izan dezaten, "identifikatu gabeko" publiko interesduna eta "ezezaguna" ere bai barne hartuko lirateke).</p> <p>Jotzen da lege-aurreproiektuan aurrekoa aztertzeak (EAEko babeseko arau gehigarri gisa, 21/2013 Legean proposatutako oinarrikoari dagokionez) izaera askoz gardenagoa eta publikoagoa duela eta irismen orokorragoa eta unibertsala informazioaren sarbidearekiko eta herritarren parte-hartzearekiko, hori guztia aurreproiektuaren 71. artikuluan aipatutako pertsona interesdunen erregistroa sortzearekin alderatuta. Zehazki, horrek, neurri batean, ez-beharrezkoa egingo luke horren sorrera. Edonola ere, EAEko ingurumen-organok (erregistroa horren menpekoa izango da) horren eraginkortasuna balioztatu beharko du, baita aurreikuspen hori lege-aurreproiektuan gehitzeko beharra ere.</p>	<p>interesdunek prozeduran parte hartzearen ikuspuntutik. Horrenbestez, ezin da jo informazio publikoko izapidetzeak berme nahikoarekin ordeztu duenik interesdunei zuzendutako entzunaldi-izapidea.</p> <p>Manu honetan arautzen den erregistroak ahalbidetuko du eraginkortasun handiagoarekin egitea kontsulten jakinarazpenak interesdunei.</p> <p>Aurrekoa gorabehera, beharrezkotzat jo da lege-aurreproiektuak zehaztea interesdun guztiak ez direla erregistratu beharko, baizik eta soilik Ingurumen gaietan informazioa eskuratu, publikoki parte hartu eta auzitegietara joateko eskubideak arautzen dituen uztailaren 18ko 27/2006 Legearen 23.1 artikuluan adierazitako betekizunak betetzen dituzten irabazteko asmorik gabeko pertsona juridikoak.</p>	
	EHNE-EUSKAL HERRIKO NEKAZARIEN ELKARTASUNA	Erregistro honetan EHNE Konfederazioa gehitzeko eskatzen dugu.	Ez da egokia legean pertsona interesdun zehatzak gehitzea. EHNE Konfederazioak pertsona interesduntzat hartzeko beharrezko betekizunak betetzen baditu, erregistroan sartzeko eskaera egin beharko du araz ezartzen den izapidetzearen bidez.	Ez da onesten
Artikulu	GIPUZKOAKO	Egungo euskal araudiak berak jasotzen dituen alderdi positibo batzuk	Aurretik adierazi den bezala, lege-proiektuak erabaki du	Ez da

espezifikorik gabe	FORU ALDUNDIA Lege-aurreproiektuaren artikuluetan jasota ez dauden ingurumen-ebaluazioarekin lotutako bestelako alderdiak (bosgarren titulua):	kontuan hartuta (211/2012 Dekretua), Estatuko legerian ezarritako oinarritzko alderdiek eragiten dutena bezalaxe (21/2013 Legea) eta, horrez gain, EAEn babes-hobekuntza edo alderdi gehigarri gisa ulertzen diren zenbait kontu proposatuz, arau horietan jasota ez daudenak, jotzen da, orain arte adierazitakoaz gain, honako kontu hauek gehitu beharko liritekeela: - Lege-aurreproiektua Ingurumen-ebaluazioaren Oinarritzko 21/2013 Legearekiko kokatzea (Barne-zuzenbidean jasotzen du ingurumen-ebaluazioaren inguruko Europako zuzentarauetan xedatutakoa): Zirriborroaren artikuluetan ez da horren inguruko aipamen argigarriak egiten eta hori beharrezkoa dela uste da interpretazio-anbiguotasunak eta prozedura-akatsak saihesteko; hau da, ingurumen-ebaluazioko prozedurak ingurumen-ebaluazioari buruzko Estatuko araudiak ezartzen dituen oinarritzko alderdiei jarraiki burutuko dira, Ingurumen-administrazioaren Euskal Legeak berak aurreikusten dituen berezitasunetara eta hobekuntzetara egokituz eta betiere bere ahalmena gauzatuz.	gutxiengora murriztea prozedura-xehetasunak arrazoi desberdinengatik. Horrek ez du esan nahi 211/2012 Dekretuaren zenbait alderdi interesgarriak ez direnik eta etorkizuneko araudi-garapen batean jaso ezin direnik. Zentzu horretan, adierazi behar da, garapen hori egin arte, 211/2012 Dekretua aplikagarria izango dela autonomia-erkidegoko lurraldean, lege hau edo oinarritzko legeria aurkatzen ez duen horretan. Horrez gain, ez da egokitzat jo beren-beregi adieraztea aplikagarriak izango direla oinarritzko legerian araututako prozedurak; izan ere, esan den bezala, aplikagarriak dira nahiz eta ez den zehazten eta, gainera, horrela ekiditen da erkidego-mailako arauak egunean egoteari uztea, baldin eta 21/2013 Legea aldatzen bada.	onesten
	GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA Lege-aurreproiektuaren artikuluetan jasota ez dauden ingurumen-	Testuinguruan jartzea Bosgarren Tituluaren II. eta III. Kapituluak: Kapitulu hauek planen eta programen Ingurumen-ebaluazio Estrategikoari eta proiektuen Ingurumen-eraginaren Ebaluazioari buruzkoak dira, hurrenez hurren. Zehazki, 5 artikulua desberdinetan jasotzen dira ingurumen-adierazpen estrategikoaren, ingurumen-txosten estrategikoaren, ingurumen-eraginaren adierazpenaren edo ingurumen-eraginaren txostenaren izaerari eta edukari soilik erreferentzia egiten dieten zenbait kontu. Beraz, ulertzen da horiek ez	Aurretik adierazi den bezala, lege sintetiko baten alde egin da eta horrek Estatu-mailako oinarritzko legerian xedatutakoa errepikatzea saihestuko du. Halaber, erabaki da gutxiengora murriztea prozedura-xehetasunak, besteak beste, dokumentu teknikoaren edukia. Hala eta guztiz ere, egokitzat jo da I, II eta III kapituluak egokitzea, testua argiagoa izan dadin eta lege-proiektuan prozedura	Partzialki onesten da.

	<p>ebaluazioarekin lotutako bestelako alderdiak (bosgarren titulua):</p>	<p>daudela osorik eta, gainera, ez daudela testuinguruan kokatuta edo, adierazi den bezala, ez direla funtsezkoak gai batzuentzat (dokumentu horien indarraldia). Era berean, ez dira zehazten EAEko mailan prozedura horietan antolatu beharreko beste kontu garrantzitsu eta beharrezko batzuk.</p> <p>Aurrekoagatik, uste da guztiz beharrezkoa dela artikuluko horiek osatzea, 21/2013 Legeak (eta bere aldaketak) horren inguruan proposatzen duen horretatik harago, artikuluko horietan jasotzeko zenbait berezitasun. Hain zuzen ere, EAEko babeseko arau gehigarri gisa, 21/2013 Legean proposatutako oinarritzakoari dagokionez, eta araudia autoarautzeko eta hobekuntza teknikorako eta zenbait alderditan izapidetzeko ahalmen gisa, besteak beste, hauek zehaztuko dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Prozedurekin lotutako dokumentu desberdinek (ingurumen-organorenak eta organo sustatzailearenak) izan behar duten gutxieneko beharrezko edukia; izapide desberdinetarako ezarritako epeak. - Prozedura horietan esku hartzen duten organoek dituzten eginkizunak (21/2013 Legearen 11. artikulua), dokumentuak eta txostenak egiteko; prozedura-hasieretan burutu beharreko atazak eta izapideak; IP eta entzunaldia, prozeduren amaiera; publikitatea, zaintza eta ingurumen-kontrola (logikoa ematen du azken hirurak organo sustatzaileekin lotzea ingurumen-ebaluazioetan eta ebaluazioetan, oro har), etab. <p>Azkenik, argudiatutakoarekin bat etorritik eta lege-aurreproiektuaren</p>	<p>desberdinen mugari nagusiak gehitzeko.</p>	
--	--	---	---	--

		zirriborroaren Bosgarren Titulu osoan (Ingurumen-ebaluazioa) eta bere eranskinetan araututakoari dagokionez proposatzen diren kontuak ugari eta anitzak direnez, baita zirriborroan azaldutako guztia hobeto ulertzen eta aurretiaz proposatutakoa hobetzen laguntze aldera, jarraian edukien proposamen bat jasotzen da Bosgarren Titulu osoarentzat (eranskinak barne), Eusko Jaurlaritzak hori kontuan har dezan.		
	GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA Lege-aurreproiektuaren artikuluetan jasota ez dauden ingurumen-ebaluazioarekin lotutako bestelako alderdiak (bosgarren titulua):	-Ingurumen-ebaluazioko prozeduretan esku hartzen duten organoak: Prozeduraren terminoetan, EAEko administrazio-antolamenduaren esparruan bakoitzari berezkoak izango lizkiekeen eginkizunen arabera, egokiagoa da eta, horregatik, beharrezkotzat hartzen da (21/2013 Legearen 11. artikuluan aurreikusitakoaren arabera) ingurumen-organoaren, organo sustatzailearen (edo sustatzailearen) eta organo substantiboaren definizioak gehitzea, 211/2012 Dekretuan adierazitako zentzuan (baina 21/2013 Legean xedatutakoa kontuan hartuz). Halaber, komeni litzateke bere eginkizunak eta atazak argitzea, bai orokorrak, bai espezifikoak, esku hartzen duten prozeduren arabera.	Lege-proiektuak erabaki du definizioa gehitzea eta organo sustatzailearen irudia erabiltzea, 211/2012 Dekretuan jasotakoa; izan ere, beharrezkoa da legearen testuan txertatzea ingurumen-ebaluazioko prozeduren funtsezko mugarriak gehitzea. Halaber, organo substantiboaren definizioa gehitu da, definizio hori oinarritzko legerian jasotakoa baino argiagoa delako.	Onesten da

BOSGARREN TITULUA. INGURUMEN-EBALUAZIOA				
II. KAPITULUA PLANEN ETA PROGRAMEN INGURUMEN-EBALUAZIO ESTRATEGIKOA				
ARTIKULU A	ALEGATZAILEA	ALEGAZIOAREN SINTESIA	INGURUMEN SAILBURUORDETZAREN ANALISIA	AUKERA
72. artikulua. Ingurumen-ebaluazio estrategikoa ren eremua	GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA	<p>Artikulu hau eta lotutako eranskinak (II A eta II B) saiatzen dira planak eta programak eta horien aldaketak zehazten, hurrenez hurren, ohiko ingurumen-ebaluazio estrategikoko eta sinplifikatuko prozeduraren menpekoak direnak.</p> <p>72. artikulua eta II A eta II B eranskinen idazketa aztertuta, beharrezkotzat jotzen da ondorengo aldaketak eta hobekuntzak gehitzea, lortutako eskarmentuan eta ingurumen-ebaluazio estrategikoaren oinarritzko araudiaren eta zuzentarauaren interpretaziorik logikoenean eta koherenteenean oinarrituta. Hori guztia aurreproiektuan ebatzi gabe geratzen diren zalantzak, zehaztugabetasunak eta kontzeptu-anbiguotasunak argitze aldera; izan ere, horiek ekiditen dute inplikaturako eragile guztiek (ingurumen-organoak, organo substantiboak, organo sustatzaileak, herritarrak, etab.) argi eta garbi ezagutzea zeintzuk diren ingurumen-ebaluazio estrategikoaren menpekoak diren planak eta programak eta horien aldaketak eta zeintzuk ez:</p> <p>Kontuan hartu behar da, Eusko Jaurlaritzak bezalaxe, foru aldundiek ere badutela gaitasuna foru-eremuko planak eta programak araudi-mailan proposatzeko, egiteko eta onesteko, betiere lege- edo arau-</p>	<p>Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 102. artikuluan jasotakoarekin bat etorritik, jotzen da berrikuspena behar dela planek ezarritako antolamendua osorik berraztertzen denean, nahiz eta antolamenduaren eremuaren zati bati partzialki egiten dion erreferentzia. Horrela, hauek planeamendu-aldaketengandik bereizten dira, zeinetan antolamenduaren berrazterketak ez dion eragiten horren osotasunari, baizik eta alderdi zehatzen bati.</p> <p>Hortaz, lege-proiektuan, erabaki da, ingurumen-ebaluazioaren eremuan, tratamendu bera eman behar zaiela planei eta programei eta horien berrikuspenei; hori esplizituki geratzen da artikuluetan jasotako planen eta programen definizioan. Hortaz, ez da beharrezkoa testuan "berrikuspenak" terminoa errepikatzea.</p>	Partzialki onesten da.

	<p>xedapenei jarraiki; beraz, Foru Gobernu Kontseiluak aintzat hartu behar dira artikulua honetan eta eranskinetan ere bai.</p> <p>Hautazko testu bat proposatzen da.</p>		
	<p>Interpretazio-anbiguitasunak saiheste aldera, planen eta programen berrikuspenak gehitzea (prozedura sektorial askotan aldaketen kontzeptu desberdinak dira) eta argiago uztea planen eta programen eta horien berrikuspenen aplikazio-eremua batetik eta horien aldaketei dagokiena bestetik.</p>	<p>Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 102. artikuluan jasotakoarekin bat etorritik, jotzen da berrikuspena behar dela planek ezarritako antolamendua osorik berraztertzen denean, nahiz eta antolamenduaren eremuaren zati bati partzialki egiten dion erreferentzia. Horrela, hauek planeamendu-aldaketengandik bereizten dira, zeinetan antolamenduaren berrazterketak ez dion eragiten horren osotasunari, baizik eta alderdi zehatzen bati.</p> <p>Hortaz, lege-proiektuan, erabaki da, ingurumen-ebaluazioaren eremuan, tratamendu bera eman behar zaiela planei eta programei eta horien berrikuspenei; hori esplizituki geratzen da artikuluetan jasotako planen eta programen definizioan. Hortaz, ez da beharrezkoa testuan "berrikuspenak" terminoa errepikatzea.</p>	<p>Ez da onesten</p>
	<p>II A eranskinak bereziki ez zerrendatzea prozeduraren menpekoak diren plan zehatzak (LAG, LPP, LPS, HAPO, PS), ekarpenik egiten ez dutenak eta errepikakorrak direnak; hain zuzen ere, plan zehatz horiek jadanik egongo lirateke ingurumen-ebaluazio estrategikoaren aplikazio-eremuan, IIA eranskinaren 6. eta 7. ataletan xedatutakoaren arabera. Ez du logikoa ematen plan zehatz batzuk aipatzeak, ez delako beharrezkoa. Izan ere, eranskinean bertan araututakoaren arabera, badira prozeduraren menpekoak eta ez dauka zentzurik</p>	<p>Atal honen hasieran azaldutako aurretiazko gogoetetan argudiatu den bezala, nolana ere, ingurumenean ondorio nabarmenak omen dituzten plan eta programa mota zehatz batzuk aitortzen dira. Horren ondorioz, ohiko ingurumen-ebaluazio estrategikoa egin behar da horien guztien gainean. Beraz, egokia da plan-mota horiek jasotzea II. Eranskinean.</p>	<p>Ez da onesten</p>

		<p>gauza bera ez egitea bertan dauden beste batzuekin, aipatzen ez direnak (besteak beste, gai hauekin lotutako foru planak eta EAEko planak; hondakinak, energia, errepideak, azpiegiturak, basogintzakoak, nekazaritzakoak, industrialak; Bateragarri egiteko planak, etab.).</p>		
		<p>Saihestea babestutako espazioen babesari buruzko araudiaren artikulua zehatzak aipatzea (42/2007 Legea eta 1/2014 Legegintzako Dekretua). Araudi hori aldatu egin da eta ordeztu egin da (33/2015 Legeak 42/2007 Legearen artikulua aldatu ditu) edo berehala egingo da (1/2014 Legegintzako Dekretua indargabetuko lukeen EAEko Ondare Naturalaren Legearen aurreproiektua). Horren ordez, proposatzen da aipamen orokorrako bat erabiltzeko (...modu nabarian eragin diezaioke babestutako espazioen bati edo babes-araudiren bat dutenak ondare naturalari, biodibertsitateari eta naturaren kontserbazioari buruzko euskal eta Estatuko araudietan aurreikusitako terminoen arabera.).</p>	<p>Lehenik eta behin, adierazi behar da 42/2007 Legea, lehenengo promulgazioarekin alderatuta aldatu den arren, indarrean dagoela. Beharrezkoa da arau hori aipatzea, argi geratu behar delako ez dela beharrezkoa ingurumen-ebaluazioa egitea plan, programa eta proiektu zehatz batzuen gainean, baldin eta Natura 2000 Sarearen espazio batzuen kudeaketarako xedapenak soilik ezartzen badituzte, 42/2007 Legearen 46. artikuluan jasotzen den bezala.</p>	<p>Ez da onesten</p>
		<p>II.A eranskinaren 6. atalaren izenburua zuzentzea. Horrek adierazten du aipatutako plan-motak ohiko ingurumen-ebaluazio estrategikoaren menpekoak direla etorkizunean legez ohiko ingurumen-eraginaren ebaluazioaren menpekoak diren proiektuak baimentzeko esparrua direnean. 21/2013 Oinarrizko Legean (6.1.a artikulua) eta 2001/42/CE Zuzentarauan (3.1 eta 3.3 artikulua) oinarrizko modu batean ezartzen den bezala, ohiko ingurumen-ebaluazio estrategikoa plan horiei aplikatzen zaie etorkizunean legez ohiko ingurumen-eraginaren</p>	<p>Lege-proiektuak erabaki du interpretatzea 21/2013 Legearen 6. artikuluan ingurumen-eraginaren ebaluazioari egindako erreferentzia soilik dagoela lotuta ohiko ingurumen-eraginaren ebaluazioarekin eta ez ingurumen-eraginaren ebaluazio sinplifikatuarekin.</p> <p>Interpretazio hori atal honen hasieran jasotako aurretiazko gogoetetan azaldutako argudioetan dago oinarrituta; zentzu horretan, kontuan hartu behar da, bereziki, 2001/42/CE</p>	<p>Ez da onesten</p>

		<p>ebaluazioaren menpekoak diren proiektuak baimentzeko esparrua direnean (ebaluazio hori ohikoa edo sinplifikatua den gorabehera).</p>	<p>Zuzentarauak ohiko ingurumen-eraginaren ebaluazioa soilik aipa dezakeela testuinguru berean eta ez dela koherentea jotzea etorkizunean ohiko ingurumen-eraginaren ebaluazioaren menpekoa ez den proiektu bat baimentzeko esparruak ondorio nabarmenak izan ahalko dituenik ingurumenaren gainean probabilitate-maila altu batekin.</p> <p>Aitzitik, logikoa da pentsatzea, proiektu zehatz batzuek ondorio nabarmenak izan ahal badituzte ingurumenaren gainean probabilitate-maila zehatz batekin eta, arrazoi horregatik, ingurumen-eraginaren ebaluazio sinplifikatua egin behar bazaie, ziurgabetasun-maila bera aplikatu ahalko zaiela etorkizunean proiektu horiek baimentzeko esparru bat osatzen duten plan eta programei.</p>	
		<p>II.B eranskinaren 1. atala zuzentzea, ingurumen-ebaluazio estrategiko sinplifikatuaren menpeko aldaketa-motei dagokienez, txikiak direla jotzen delako. Horren inguruan 2001/42/CEE Zuzentarauan eta 21/2013 Legean xedatutakoaren interpretaziorik logikoenarekin bat etorritik (21/2013 Legearen egilea den Ingurumen Ministerioak berak onartu du interpretazio hori eta, gainera, gehitu egin da ingurumen-ebaluazioaren inguruan berriki ezarritako autonomia-erkidegoen araudira), Ulertzen da, aplikazioan inkongruentziak eta araudi-tautologiak saihesteko, II.B Eranskinaren 1. atala honen ingurukoa izan behar dela:</p> <p>1. Horretarako ezarritako betekizunen bat betetzeagatik, printzipioz</p>	<p>Partzialki onesten da alegazio hau; lege-aurreproiektuan testu bat jasoko da, argi utziko duena etorkizunean ohiko ingurumen-eraginaren ebaluazioaren menpeko proiektuak baimentzeko esparrua diren planek eta programek ohiko ingurumen-ebaluazio estrategikoa egin beharko dutela kasu guztietan.</p>	<p>Partzialki onesten da.</p>

	<p>ohiko ingurumen-ebaluazio estrategikoaren menpekoak izango liratekeen planen eta programen aldaketak, baina aldaketa txikitat har daitezkeenak, horien definizioaren arabera (hobeto ulertze aldera, proposatzen da definizio hori apur bat zehazteko).</p>		
	<p>Zirriborroan “aldaketa txikiak” kontzeptuarentzat egiten den bezala, argi utzi behar zaie inplikaturako eragileei zeri egiten dion erreferentzia II.B Eranskinaren 2. atalak hauxe adierazten duenean: “hedapen txikiko guneen erabilera ezartzeko udal-mailan”. Horretarako, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak horri buruz ezarritako definizio-eremua erabiliko da.</p>	<p>Lege-proiektuak erabaki du aintzat hartzea ingurumen-elementuen antolamendu espezifikoaren autonomia-erkidegoaren lurraldean; hortaz, zaila da ulertzea “hedapen txikia” terminoa. Hain zuzen ere, autonomia-erkidegoaren lurraldearen erabilera tradizionala luzaroan zehaztu egin da lursail zehatz batzuetan. Kasu gehienetan, lursail horiek hedapen txikikoak dira, beste eremu geografiko batzuetan erabili izan direnekin alderatuta, alegia. Beste era batera esanda, ingurumenarekiko balizko ondorio nabarmenak, kasu gehienetan, hedapen txikiko lursailetan kokaturako jarduerak eragiten dituzte. Horregatik, ez da oso gomendagarria planak eta programak ohiko ingurumen-ebaluazioko prozeduratik baztertzea onartzea soilik bere eremua hedapen txikikoa izateagatik.</p>	<p>Ez da onesten</p>
	<p>Garatzeko edo zehaztu ahal izateko geroko beste plan batzuk egiteko beharra beren-beregi ezartzen duten aldaketen ebaluazioa horren inguruan egiteko aukera aurreikustea, aldaketen inguruan egin beharrean, hori guztia zirriborroaren 67.3 artikuluan xedaturakoa aplikatuz.</p>	<p>Alegazioan aipaturako manuak jarduketan bikoiztasuna saihestu nahi du, ingurumen-ebaluazioaren irismena planaren beraren irismenera egokituz. Hori horrela da ulertzen delako ingurumen-ebaluazioak bere benetako zentzua hartzen duela eragiten duen hausnarketa erabakiak hartzeko prozesuaren une bakoitzean burutzen denean, hori bai, kasu bakoitzean hartuko den erabakiaren beraren irismenarekiko proportzionalki. Horrenbestez,</p>	<p>Ez da onesten</p>

			ez da bidezkoa plan edo programa bat ingurumen-ebaluziotik salbuestea, soilik plan edo programa hori beste xeheago batzuetan garatzeagatik.	
		<p>Eragile guztiei II.B eranskinaren 3. atalean adierazitako planei eta programei eta horien aldatzeki dagozkien zalantzak argitzea eta zehaztea.</p> <p>Aurrekoa kontuan hartuta eta II.A eta II.B eranskinetan araututakoaren arteko lotura estua aintzat hartuta, eranskin bakarrean bateratzea horietan jasotzen den guztia.</p>	Esposizio-alegazioa.	Esposizio-alegazioa
	BIZKAIKO FORU ALDUNDIA INGURUMEN ZUZENDARITZA	Alegatzaileak ulertzen du aplikazio-eremua errepikakorra dela, 60. artikuluan jasota baitago. Eskatzen du 67. artikulua puntuak hona ekartzeko eta artikulua honetakoak kentzen dira.	<p>Alegazioa partzialki hartzen da.</p> <p>Idazketa berria eman zaie artikuluei.</p>	Partzialki onesten da.

<p>73. artikulua. Ingurumen-adierazpen Estrategiko aren izaera eta edukia</p>	<p>GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA</p>	<p>Beharrezkotzat eta egokituz jotzen da Ingurumen-adierazpen Estrategikoaren edukiak hauxe aipatzea:</p> <p>Nork igorri behar dion Ingurumen-adierazpen Estrategikoaren eskaera Ingurumen-organoari (organo sustatzailea) eta noiz (behin betiko onespena baino lehen).</p> <p>Plan edo programa horrez gain eta ingurumen-azterlan estrategikoaz gain, dagokion espedientearen kopia bidaliko da (hauxe barne: nahitaezko txostenak, kontsultako eta informazio publikoko izapideetan egindako alegazioak eta horiei emandako erantzunak) eta ingurumen-alderdien integrazioaren analisia ere bai.</p> <p>Egungo plangintzarekin eta ingurumen-irizpideekin bateraezinez izateagatik berriz definitu edo ezabatu beharreko planaren edo programaren jarduketak adieraztea, zehazki, muga- edo gida-balioak gainditzeagatik edota kritikoak edo onartezinak diren ingurumen-eraginak izateagatik.</p> <p>Kontuan hartuta 21/2013 Legearen 47.4 artikulua oinarritzko modu batean ezartzen duena ingurumen-adierazpen estrategikoen indarraldiari dagokionez, 73.3 artikulua ez du ezer gehitzen. Gainera, artikulua horrek burokratiko beharrezkoa ez den zerbait ezartzen du, geroago aratu behar direlako (dekretua? agindua?) luzapen berrietarako epeak eta, hala badagokio, errazagoa da horiek ezartzea lege-aurreproiektuan. Atal honek soilik edukiko luke zentzua EAerentzat 27. artikuluan adierazitakoen epe desberdinak ezarri nahi izatekotan. Bestela, ez da nahitaezkoa.</p>	<p>Nahiz eta, aurretik adierazi den bezala, lege-aurreproiektuak arrazoi desberdinengatik proposatutako idazketa berriari prozedura-xehetasunak gutxiengora murriztea erabaki duen, ingurumen-ebaluazioko prozeduraren mugari nagusiak aipatu egin dira.</p>	<p>Partzialki onesten da.</p>
---	---------------------------------	--	--	-------------------------------

74. artikulua. Ingurumen- txosten Estrategiko aren izaera eta edukia	GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA	Alegatzaileak eskatzen du “organo eskuduna” terminoa “ingurumen- organoa” terminoarekin ordeztzeko, hori baita araudiari erreparatuz txostena igorri behar duena.	Alegazioa hartzen da eta ingurumen-organoaren definizioa gehitzen da ingurumen-ebaluazioaren eranskin espezifikoa, hauxe adierazten duena: Ingurumen-organoa: administrazio publikoaren organoa, eskuduna ingurumen-ebaluzioko prozedurak amaitzeko adierazpenak eta txostenak igortzeko, ingurumen-ebaluazioen irismena zehazteko, adierazpen hori salbuesteko eta ingurumen-adierazpenen eta txostenen indarraldia ezartzeko.	Onesten da
		Gehitzea zer gertatzen den txostenak ondorioztatzen duenean beharrezkoa dela ohiko ingurumen-ebaluazio estrategikoa egitea.	Uste dugu ez dela beharrezkoa alderdi hau argitzea; izan ere, begi bistakoa da kasu honetan bidezkoa dela ohiko ingurumen- ebaluazio estrategikoa egitea, kasu bakoitzean aplikagarria dena araudian ezarrita dagoen bezala.	Ez da onesten
		Kontuan hartuta 21/2013 Legearen 31.4 artikulua oinarritzko modu batean ezartzen duena ingurumen-txosten estrategikoen indarraldiari dagokionez, 74.5 artikulua ez du ezer gehitzen. Gainera, artikulua horrek burokratikoki beharrezkoa ez den zerbait ezartzen du, geroago aratu behar direlako (dekretua? agindua?) luzapen berrietarako epeak eta, hala badagokio, errazagoa da horiek ezartzea lege- aurreproiektuan. Atal honek soilik edukiko luke zentzua EAerentzat 31.4 artikuluan adierazitako epe desberdinak ezarri nahi izatekotan. Bestela, ez da nahitaezkoa.	Aurretik adierazi den bezala, lege-aurreproiektuak erabaki du gutxiengora murriztea prozedura-xehetasunak arrazoi desberdinengatik. Hala eta guztiz ere, jo da, alegazioak aztertu ostean idatzitako testu berrian, ingurumen-ebaluzioko prozeduren mugarri nagusiak jaso behar direla.	Ez da onesten
	TRANTSIZIO EKOLOGIKORAKO	Ministerioak adierazi du ez dela zehaztu planek edo programek ingurumen-ebaluazio estrategikoa egin behar duten hipotesia,	Aurreproiektuaren 67. artikulua ohiko ebaluazioen irismenaren zehaztapena arautzen du, bai ingurumen-ebaluazio estrategikoa	Ez da

	MINISTERIOA	Estatuko oinarrizko Legearen 31. artikularekin bat etorritik («Ingurumen-txosten estrategikoa»).	<p>bai ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa, eta adierazten du ingurumen-organismoak zehaztuko duela prozeduran txertatu behar diren ingurumen-agirien edukia, erregelamendu bidez ezartzen diren baldintzetan.</p> <p>Hori horrela da, lehen azaldu denez, aurreproiektuan erabaki delako ahalik eta gehien murriztea prozedurako xehetasunak.</p>	onesten
--	-------------	--	---	---------

BOSGARREN TITULUA. INGURUMEN-EBALUAZIOA				
III. KAPITULUA PROIEKTUEN INGURUMEN-EBALUAZIOA				
ARTIKULUA	ALEGATZAILEA	ALEGAZIOAREN SINTESIA	INGURUMEN SAILBURUORDETZAREN ANALISIA	AUKERA
75. artikulua. Ingurumen-eraginaren adierazpenaren izaera eta edukia	GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA	“Organo eskuduna” terminoa “ingurumen-organoa” terminoarekin ordeztea, hori baita araudiari erreparatuz adierazpena igorri behar duena.	Alegazioa hartzen da eta ingurumen-organoaren definizioa gehitzen da ingurumen-ebaluazioaren eranskin espezifikoan, hauxe adierazten duena: Ingurumen-organoa: administrazio publikoaren organoa, eskuduna ingurumen-ebaluazioko prozedurak amaitzeko adierazpenak eta txostenak igortzeko, ingurumen-ebaluazioen irismena zehazteko, adierazpen hori salbuesteko eta ingurumen-adierazpenen eta txostenen indarraldia ezartzeko.	Onesten da
		Ingurumen-eraginaren adierazpenaren edukiak osatzea.	Aurretik adierazi den bezala, lege-aurreproiektuak erabaki du gutxiengora murriztea prozedura-xehetasunak arrazoi desberdinengatik.	Ez da onesten
		Kontuan hartuta 21/2013 Legearen 43. artikulua oinarritzko modu batean ezartzen duena ingurumen-eraginaren adierazpenen indarraldiari dagokionez, 75.3 artikulua ez du ezer gehitzen. Gainera, artikulua horrek burokratikoki beharrezkoa ez den zerbait ezartzen du, geroago aratu behar direlako (dekretua? agindua?) luzapen berrietarako epeak eta, hala badagokio, errazagoa da horiek ezartzea	Hala eta guztiz ere, jo da, alegazioak aztertu ostean idatzitako testu berrian, ingurumen-ebaluazioko prozeduren mugarri nagusiak jaso behar direla.	Ez da onesten

		lege-aurreproiektuan. Atal honek soilik edukiko luke zentzua EAErentzat 43. artikuluan adierazitakoen epe desberdinak ezarri nahi izatekotan. Bestela, ez da nahitaezkoa.		
76. artikulua. Ingurumen-eraginaren txostenaren izaera eta edukia	GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA	“Organo eskuduna” terminoa “ingurumen-organoa” terminoarekin ordezteko, hori baita araudiari erreparatuz txostena igorri behar duena.	Alegazioa hartzen da eta lege-testua alegatzaileak azaldutakoari jarraiki aldatuko da.	Onesten da
		Gehitzea zer gertatzen den txostenak ondorioztatzen duenean beharrezkoa dela ohiko ingurumen-eraginaren ebaluazioa egitea.	Ez da beharrezkoa argitzea; izan ere, begi bistakoa da kasu hauetan bidezkoa dela ohiko ingurumen-eraginaren ebaluazioa egitea, kasu bakoitzean aplikagarria dena araudian ezarrita dagoen bezala.	Ez da onesten
		Kontuan hartuta 21/2013 Legearen 47.4 artikulua oinarritzko modu batean ezartzen duena ingurumen-eraginaren txostenen indarraldiari dagokionez, 76.4 artikulua ez du ezer gehitzen. Gainera, artikulua horrek burokratiko beharrezkoa ez den zerbait ezartzen du, geroago aratu behar direlako (dekretua? agindua?) luzapen berrietarako epeak eta, hala badagokio, errazagoa da horiek ezartzea lege-aurreproiektuan. Atal honek soilik edukiko luke zentzua EAErentzat 47.4 artikuluan adierazitakoen epe desberdinak ezarri nahi izatekotan. Bestela, ez da nahitaezkoa.	Aurretik adierazi den bezala, lege-proiektuak arrazoi desberdinengatik prozedura-xehetasunak gutxiengora murriztea erabaki du, baina, hala ere, ingurumen-ebaluazioko prozeduraren mugari nagusiak aipatu egin dira.	Ez da onesten
EHNE-EUSKAL HERRIKO NEKAZARIEN	Alegatzaileak indarraldi-urteen berrikuspen orokorra eskatzen du.	Beharrezkotzat jotzen da Estatuko oinarritzko legeriarenak mantentzea.	Ez da onesten	

	ELKARTASUNA			
	TRANTSIZIO EKOLOGIKORAKO MINISTERIOA	2. zenbakia ez da erabiliko, ingurumen-inpaktuaren ebaluazioaren mende geratu behar badu. Horrelakoetan, abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 47. artikuluan (ingurumen-inpaktuaren txostena) zehazten den prozedura jarraitu behar da.	Aurretik adierazi den bezalaxe, legearen proiektuak hainbat arrazoiengatik erabaki du prozedurazko xehetasunak ahalik eta gehien murriztea; hala ere, ingurumen-ebaluaziorako prozeduren mugari nagusiak jasotzen ditu.	Ezetsi egiten da

SEIGARREN TITULUA. INGURUMEN-HOBEKUNTZA SUSTATZEKO TRESNAK				
ARTIKULUA	ALEGATZAILEA	ALEGAZIOAREN SINTESIA	INGURUMEN SAILBURUORDETZAREN ANALISIA	AUKERA
78. artikulua. Parte-hartzea sustatzea ingurumen-auditoretzen eta kudeaketako erkidego-sisteman (EMAS).	HP PRINTING AND COMPUTING SOLUTIONS, S.L.U.	Batasunaren Ingurumen Kudeaketako eta Ikuskaritzako Sistemaren baliokideak diren kontrol-prozesuak eta irismena dituzten ingurumen-kudeaketako sistemak onesteko proposamena (adibidez, ISO 14001 araua), Batasunaren Ingurumen Kudeaketako eta Ikuskaritzako Sistemaren aplikazio-eremua soilik Europakoa delako.	Batasunaren Ingurumen Kudeaketako eta Ikuskaritzako Sistemak administrazio publikoak behartzen ditu horrelako estandarrak sustatzera lehentasunez eta modu bereizgarrian arau pribatuetan aurreikusitako Materialak Kudeatzeko Materialei dagokienez. Izan ere, arau pribatu horiek, edonola ere eta orain arte, ez dira Batasunaren Ingurumen Kudeaketako eta Ikuskaritzako Sistemaren baliokideak. Lege-aurreproiektuak beste sistema batzuk aintzat hartzen ditu, baldin eta aurrerapenak eragiten badituzte Batasunaren Ingurumen Kudeaketako eta Ikuskaritzako Sistema lortzea ahalbidetzeko antolakuntzen barnean (4. atalak ikusi).	Ez da onesten
	ENBA-EUSKAL NEKAZARIEN BATASUNA	Alegatzaileak uste du nekazaritza-antolakuntzak antolakuntzen zerrendan egon behar direla, hain zuzen ere, hirugarren puntuan jasotakoak. Izan ere, EAeko administrazio orokorraren ingurumen-arloko sail eskudunak horiekin aritu beharko litzateke elkarlanean.	Manuak ez du erakunde edo antolakuntza interesdunen <i>numerus clausus</i> bat ezartzen; horregatik, sail eskudunari dagokio Batasunaren Ingurumen Kudeaketako eta Ikuskaritzako Sistemaren sustapenean interesdunak diren erakundeak zehaztea. Nolanahi ere, alegatzaileen interesak "Atxikipena sustatzeko alde interesdunak" izeneko artikulua 3. atalean jasotzen dira.	Ez da onesten

	ICAB	<p>Arauk ez du baliatzen Batasunaren Ingurumen Kudeaketako eta Ikuskaritzako Sistema bezalako tresnen potentziala; hain zuzen ere, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009ko azaroaren 25eko (CE) 1221/2009 Arautegiak arautzen du sistema hori, nahitaezko ikuskapen-tresnak eta auditoretza boluntarioak bateratzeko, benetan eta zehazki murriztuz administrazio-eskakizunak erreferentzial horrekin ziurtatutako antolakuntzentzat.</p>	<p>Batasunaren Ingurumen Kudeaketako eta Ikuskaritzako Sistemaren ezarritako autokontrolak administrazioaren ikuskapena ordeztzeko eskatzea gehiegi da, baita lege-betebeharren edo gaikuntza-tituluetan jasotako betebeharren betetzearen justifikazio osoa izan dadin eskatzea ere.</p> <p>Gainera, aurreproiektuaren 78.2.d) artikulua aukera hori gehitzen du.</p>	Ez da onesten
	CONFEBASK	<p>Ondo iruditzen zaigu horrelako kudeaketa-sistemak jasotzea eta sustatzea. Hala eta guztiz ere, benetan nahi badugu enpresek sistema hori aukeratzea, uste dugu ingurumen-abantailen multzo bat identifikatu eta abiarazi beharko litzatekeela, benetan enpresak sistema hori aukeratzera animatzeko eta beste batzuk ez hautatzeko, adibidez, OSHAS. Ildo horretan, gogorarazi behar da EMAS kudeatzea beste sistema batzuk kudeatzea baino konplexuagoa dela, adibidez, egungo OSHAS kudeatzea baino konplexuagoa. Hala eta guztiz ere, enpresek ez dute argi ikusten inbertitzen dituzten esfortzuarekin, denborarekin eta baliabideekin alderatuta, adibidez, OSHAS sistemak baino askoz lehiakortasun- edota ingurumen-abantaila gehiago dituztenik.</p>	<p>Zenbait abantaila daude eta Euskadin EMAS duten enpresek abantaila horietaz gozatzen dute (ikuskapen-eremuan, Ingurumen Sailaren tasen murrizketa, etab.). Erronka abantaila horiek handitzea da eta behar bezala ikustaraztea enpresei eta gizarteari oro har SGM EMAS edukitzea elementu bereizgarria dela eta herritarrek hori kontuan hartu behar dutela ingurumenarekiko modu jasangarrian ekoiztutako produktuak eta zerbitzuak eskuratzerakoan.</p>	Esposizio-alegazioa

<p>79. artikulua. EBko etiketa ekologikoaren erabilera sustatzea.</p>	<p>ENBA-EUSKAL NEKAZARIEN BATASUNA</p>	<p>Alegatzaileak uste du nekazaritza-antolakuntzak antolakuntzen zerrendan egon behar direla, hain zuzen ere, hirugarren puntuan jasotakoak. Izan ere, EAEko administrazio orokorraren ingurumen-erloto sail eskudunak horiekin aritu beharko litzateke elkarlanean.</p>	<p>Manuak ez du erakunde edo antolakuntza interesdunen <i>numerus clausus</i> bat ezartzen; horregatik, sail eskudunari dagokio etiketa ekologikoaren erabilera interesa duten erakundeak zeintzuk diren zehaztea.</p> <p>Nolanahi ere, 3. atalaren idazketak ulertu behar du antolakuntza hori gehitzen duela eta ez, ordea, beste batzuk.</p> <p>Ez dira inola ere aipatzen erakunde zehatzak.</p>	<p>Ez da onesten</p>
	<p>HP PRINTING AND COMPUTING SOLUTIONS, S.L.U.</p>	<p>Etiketatu edo ziurtapen ekologikoa UNE-EN ISO 14024 arauaren esparruan aztertzea ere bai (etiketa ekologikoak eta ingurumen-adierazpenak. 1. Motako etiketatu ekologikoa. Printzipioak eta prozedurak). Azterketa hori egingo da ingurumen-eragin baxua bermatze aldera, EBren etiketa ekologikoan definitutako irizpide batzuk arazotsuak izan daitezkeelako eta balitekeelako ordenagailuen eta inprimagailuen fabrikatzaile batek ere ez betetzea horiek.</p>	<p>EBren Etiketa Ekologikoaren inguruko Europako Arautegiak administrazio publikoak behartzen ditu horrelako estandarrak sustatzera lehentasunez eta modu bereizgarrian arau pribatuetan aurreikusitako beste batzuei dagokienez.</p>	<p>Ez da onesten</p>
<p>81. artikulua. Erosketa publiko berdea</p>	<p>ENBA-EUSKAL NEKAZARIEN BATASUNA</p>	<p>Alegatzaileak uste du artikulua gehiago garatu eta zehaztu beharko litzatekeela eta beren-beregi aipatu beharko litzatekeela erakundeek eta menpeko organismoek hurbileko elikagaiak erostea sustatu behar dutela.</p> <p>Birziklatutako materialen ehunekoak (% 40) ezartzen diren bezala, uste dugu, neurri berean, positiboa dela, agian geroko garapen baten bidez, erosketa publikoetan hurbileko elikagaien edo zero kilometrokoen ehunekoak ezartzea, baita bestelako gizarte-kontu batzuk ere, elikagaien erosketan baja ausartegietarako tentazioa</p>	<p>Alegazioak helarazten dituen funtsezko hausnarketak partekatzen dira. Araudi-teknikagatik, jotzen da erosketa publiko berdearen garapena, zehatz-mehatz, geroko arauketaren baten xede izan beharko dela; hori gorabehera, atal berri bat gehitu da, non beren-beregi aipatzen diren tokiko produktuak, soltean saltzen diren produktuak eta produkzio ekologikoa.</p>	<p>Partzialki onesten da.</p>

		aldentzen dutenak.		
BIZKAIKO FORU ALDUNDIA INGURUMEN SAILA	Alegatzaileak uste du beren-beregi % 40ko nahitaezko ehuneko handizale hori gehitzea ez dela egokia, hain zuzen, bide-azpiegituren obren kasu gehienetan ezinezkoa izan daitekeelako hori lortzea. Hortaz, proposatzen da material birziklatuen % 40ko erabileraren azkenengo esaldi hori ezabatzeko eta beste idazketa bat egiteko, kopuru zehatza ezarri gabe.	Ingurumen-lege honen idazketa oso handizalea da eta erkidego honetan jadanik konpontzen ari diren arazoak konpondu nahi ditu, hain zuzen ere, balioztatutako material-mota honi dagokionez. Are gehiago, adierazi behar da manuak berak ezartzen duela, justifikatutako arrazoi teknikoak daudenean, % 40ko ehuneko hori murriztu daitekeela.	Ez da onesten	
ACLIMA	Zoriontzen dugu 81. artikulua hiru paragrafoan birziklatutako materialen, azpiproduktuen edo bigarren mailako lehengaien erabilerako % 40ko gutxiengo ehunekoa jasotzeko ekimena. Hala ere, garapen xeheagoa behar da, helburu hori ukitutako eragile guztiei aplikatzeko eskatzeko. Aitzitik, printzipioen adierazpen bat besterik ez da izango.	Artikuluak aplikazio orokorreko printzipioak jasotzen ditu. Geroko araudi-garapenen bidez, proposatutako helburua lortzeko neurri zehatzen ezarpena sustatuko da.	Esposizio-alegazioa	
EUSKAL ARIDO	Alegatzaileak uste du, artikulua honetan ezarritakoa bezain helburu hain handizaleak lortzeko, beharrezkoa dela benetako administrazio-bultzada ematea zenbait produkturen merkaturatzeari: eraikuntza- eta eraipen-hondakinak tratatzeko plantetatik zuzenean datozen materialak edo, hala badagokio, planta horietatik datozen materialak harrobiko materialekin nahastetik datozenak. Hori guztia erosketa berdearen bidez. Birziklatutako aridoen erabilerara mugatuz, gai honetan adierazitako helburuak lortze aldera, uste dugu funtsezkoa dela Esparru-akordio Sektorial bat ezartzea, eraikuntza- eta eraipen-hondakinetatik	Lehenik eta behin, adierazi behar da ingurumen-akordioak errubrikatzeko aukera beren-beregi dagoela jasota aurreproiektuaren 77. artikuluan. Hortaz, alegatzailearen asmoa babestuta dago araudi-testuan. Ez da bidezko zat jotzen alegatzailearen demanda araudi-mailarekin hartzea, hain zuzen ere, material-mota honentzako EAEko kalitate-zigilua garatzeko. Lege honen edo hondakinekin lotutako oinarriko araudiaren geroko araudi-garapenek jarduketara horiek aurreikus litezake.	Esposizio-alegazioa	

		<p>datozen birziklatutako arido horien erabilera sustatu ahal izateko eraikuntza-obretan. Horretarako, kontratazio-publikoan, zenbait irizpide txertatu beharko dira, obra publikoetan eta pribatuetan birziklatutako materiala erabiltzeko gutxiengo ehunekoak jasotzen dituztenak.</p> <p>Material birziklatu horien erabilera bultzatze aldera, uste dugu lege honek bere artikuluetan jaso beharko lukeela EAEko kalitate-zigiluaren garapenaren erreferentzia bat, materialen kalitatea bermatzeko eta horiek EAEn egikaritzen diren obra desberdinetan erabiltzea sustatzeko.</p>		
IHOBE	<p>Alegatzaileak azaltzen du, obren kasuistika amaiezina kontuan hartuta, kasu batzuetan, ehuneko hori (% 40) modu zentzudunean aplikagarria izan daitekeena baino txikiagoa izan daitekeela eta, beste kasu batzuetan, handiagoa.</p> <p>Azaltzen da desiragarria izango litzatekeela dokumentu bat idaztea (eranskina) kontu honen inguruan, obra eta kasuistika desberdinetara hobekien egokitzen diren ehuneko desberdinak banakatzen dituen; izan ere, obretan birziklatutako materialak erabiltzea faktorerik garrantzitsuenetariko bat da Ekonomia Zirkularra gauzatzerakoan. Azpimarratu behar da eraikuntzaren sektorea guztiz funtsezkoa dela kontzeptua gauzatu ahal izateko.</p>	<p>Alegazioan jasotako hausnarketa partekatzen da eta positiboki ikusten da.</p> <p>Nahitaez deskribatzen du lege honek jarduketa-eremu orokor bat, hemen xedatutakoaren aplikazio eraginkorra ahalbidetzen duten mekanismo malguak aurreikustea gorabehera (helburu orokorrekiko salbuespenak onesteko aurreikuspenarekin gertatzen den bezala, hain zuzen ere, arrazoi tekniko justifikatuak daudenean).</p> <p>Ez dago inolako eragozpenik geroko araudi-garapenak egiteko legean aurreikusitakoaren betetzea xehatzeko.</p>	Esposizio-alegazioa	
EHNE-EUSKAL HERRIKO NEKAZARIEN	<p>Uste dugu nahitaezkoa dela administrazio publikoaren eta sektore publikoko gainerako entitateen arteko lankidetzatoki nekazaritza-produktuen merkatuaren mobilizaziorako. Lankidetzatoki horrek</p>	<p>Alegazioan islatutako iritzia partekatzen da. Lege-aurreproiektuak beren-beregi jasotzen ditu administrazioen arteko lankidetzatoki-mekanismoak, tresna egokiak izan litezkeenak xede horiek</p>	Partzialki onesten da.	

	ELKARTASUNA	zuzenean eta zeharka eragingo du ekonomian eta ingurumenaren zaintzan, nekazaritza-jardueren errentagarritasuna hobetzen lagunduko duelako.	betetzeko. Halaber, alegazio horren eta beste batzuen harira, atal berri bat gehitu da, beren-beregi aipatzen dituen tokiko produktuak, soltean saltzen diren produktuak eta produkzio ekologikoak.	
	BASQUEGUR	<p>Alegatzaileak adierazi egin du Europako Batzordeak uste duela erosketa berdea tresna estrategikoa dela bere ingurumen-helburuak lortzeko. Testuinguru horretan, Europako administrazio publiko guztiek erosketa eta kontratazio berde eta berritzaileko irizpideak ezartzea lagungarria izango da ekonomia lehiakorragoa eta ingurumenari dagokionez erantzuleagoa finkatzeko.</p> <p>Horregatik guztiagatik, uste dugu beharrezkoa dela, material birziklatuz gain, araudiak eskatzea, besteak beste, materialak edo elementuak hurbilekoak izateko, hau da, KMO. (Zero kilometroa).</p>	<p>Zehazki, 81. artikularen 1. eta 2. atalak nahiko irekiak dira legearen helburuak lortzen laguntzeko baldintzak eta klausulak kontuan hartzea ahalbidetzeko, adibidez, azaldutakoak bezalako hurbiltasun-irizpideak. Halaber, alegazio horren eta beste batzuen harira, atal berri bat gehitu da, beren-beregi aipatzen dituen tokiko produktuak, soltean saltzen diren produktuak eta produkzio ekologikoak.</p> <p>Neurri hauek nekazaritza-, basogintza- edo elikadura-eremuetako araudi-xedapen sektorialetan ezarri eta arautu ahalko dira, ingurumen-legea bera garatzeko arautegietan edo kontratazio-pleguetan.</p>	Partzialki onesten da.

HAZI	Alegatzaileak eskatzen du bigarren mailako materialen erabileraren ehunekoaren antzeko irizpide bat ezartzeko lehen sektoreko produktuak (elikagaiak, egurra) erostera zuzendutako kontratazioetan: adibidez, tokiko jatorria edo hurbiltasuna.	<p>Zehazki, 81. artikulua 1. eta 2. atalak nahiko irekiak dira legearen helburuak lortzen laguntzeko baldintzak eta klausulak kontuan hartzea ahalbidetzeko, adibidez, azaldutakoak bezalako hurbiltasun-irizpideak. Halaber, alegazio horren harira, atal berri bat gehitu da, beren-beregi aipatzen dituen tokiko produktuak, soltean saltzen diren produktuak eta produkzio ekologikoak.</p> <p>Neurri hauek nekazaritza-, basogintza- edo elikadura-eremuetako araudi-xedapen sektorialetan ezarri eta arautu ahalko dira, ingurumen-legea bera garatzeko arautegietan edo kontratazio-pleguetan.</p>	Partzialki onesten da.
HP PRINTING AND COMPUTING SOLUTIONS, S.L.U.	Estatuko Administrazio Orokorraren Kontratazio Publiko Ekologikoko Plan berriaren zirriborroaren inguruan egindako iruzkinen eta informazioaren bi eranskin eranstu ditu, horiek aurreproiektu honi estrapolatu ahal zaizkiola joz.	Alegazioa positiboki hartzen da, baina ulertu behar da plangintza- edo estrategia-testu baten bidez (aurkezten dena bezalakoa) arautu daitezkeen alderdiak ezin direla alderatu helburu orokorreko lege batean jorra daitezkeen alderdiekin.	Esposizio-alegazioa

	CONFEBASK	<p>Oro har, ondo iruditzen zaigu ingurumena sustatzeko tresnak bultzatu nahi izatea. Oso bereziki eta positiboki balioztatzen ditugu Erosketa Publiko Berdea eta horri eman nahi zaion bultzada. Urteak daramatzagu adierazten Erosketa Publiko Berdea ingurumenarekiko lagunkoiak diren zerbitzuen eta produktuen garapenean aktiboki lagun dezakeen tresna bat dela. Hala ere, antzeman dugu, praktikan, Ingurumen Sailak horren inguruko sustapen-programak garatu arren, gobernuak berak ezarritako helburuak oraindik ez direla lortzen. Zentzu horretan, uste dugu lege honetan Erosketa Publiko Berdearen tresna gehitzeak egungo joera hobetu dezakeela eta baliteke administrazio desberdinetako sail guztiek apustu irmoa egitea ahalbidetzea.</p>	Esposizio-alegazioa	Esposizio-alegazioa
83. artikulua. Ingurumen-fiskalitatea	ENBA-EUSKAL NEKAZARIEN BATASUNA	<p>Alegatzaileak uste du laugarren puntuaren hirugarren azpipuntua gehiago garatu eta zehaztu egin behar dela. Horretan aipatzen da murrizketak, hobariak edo salbuespenak ezarri behar direla nekazaritza eta abeltzaintzako jarduerari dagokionez, bereziki, Natura 2000 Sarean sartutako espazio babestuetan garatzen den jarduerari dagokionez. Horrez gain, murrizketak, hobariak edo salbuespenak ezarri behar dira hurbileko elikagaiak edo zero kilometrokoak erabiltzen dituen jantoki-zerbitzua edo cateringa duten enpresak bezalako beste kontu batzuetan.</p> <p>Era berean, uste dugu planteamendu berritzaileagoa egin behar dela,</p>	<p>Ez du egokia ematen hain neurri zehatza gehitzeak helburu orokorreko araudi-testu batean. Ez dira balizko agertoki guztiak zehaztu behar.</p> <p>Alegatzen diren alderdiek legearen helburuak betetzen laguntzen badute, 83. artikuluan jasotzen dira.</p> <p>Orain izapidetzen ari den Euskadiko Ondare Naturala Kontserbatzeko Legearen aurreproiektuak titulu oso bat jorratu du (VI TITULUA) ondare naturala kontserbatzeko sustapen-neurriak eta ekonomia- eta finantza-neurriak arautzeari buruz. Neurri horiek, besteak beste, hauek izan daitezke: ondare naturala</p>	Ez da onesten

		<p>egiten duten lurralde-kudeaketarekin jarduera leungarri bihurtzen diren basogintza eta abeltzaintza bezalako jarduerentzako ordainketa-multzo bat onestea ahalbidetzen duena.</p> <p>Azkenik, uste dugu beharrezkoa dela adieraztea 12. eta 13. orrialdeen artean IX-i buruzko paragrafo bat errepikatzen dela.</p>	<p>kontserbatzeko finantza-bitartekoak; eragin sozioekonomikoko guneak; garapen sozioekonomikoko programak; kalte-ordainketarako araudia; lurraldearen zaintza eta ondare naturalaren babesaren sustapena; akordioak jabe pribatuekin ondare naturala babesteko, etab. Horiekin guztiekin erantzun ahalko litzaioke alegatzaileak aipatutako planteamendu berritzaileen eskaerari.</p> <p>Paragrafoaren errepikapena ezabatuko da.</p>	
EUSKAL ARIDO	<p>Alegatzaileak adierazi du (83.4 b atalari dagokionez), zergak zenbait herrialdetan aplikatzearen eragina aztertu ostean (Europako Ingurumen Agentziaren Txostena 212008), ez zirela ingurumen-izaerako kanpo-efektuak murrizteko helburua lortu zenik erakusten zuten froga argiak aurkitu. EUSKAL ARIDOK uste du politika industrial egokien aplikazioa eraginkorragoa dela.</p> <p>Zerga honen aplikazioa enpresek jasaten dituzten gainerako zergei gehitzen zaie. Jarduera horien gainean zergak ezartzeak eragingo du kostuak areagotzea zerga horiek ordaindu behar dituzten zenbait produkturen enpresa eskatzaileentzat; beraz, prezioak garestitu egingo dira azken kontsumitzailearentzat ere bai.</p> <p>Beste ondorio bat izango da euskal enpresak zerga hori existitzen ez den lurralde mugakideetako produkzio-zentroetara joango direla eta, hortaz, produktuak fabrikatzeko, bertako produktuak kontsumitzeari utziko diote. Horrek ondorio negatiboak eragingo ditu enpresa horien mozkinak eragindako zergen bilketan, hain zuzen ere, Sozietateen</p>	<p>Lehenik eta behin, adierazi behar da Europako Batzordeak uste duela, Espainian, ingurumen-fiskalitatea Europako batezbestekoaren azpitik dagoela eta tresna giltzarria dela kutsatzen duenak ordaintzen duenaren printzipioa gauzatzeko.</p> <p>Bigarrenik, adierazi behar da legeak ezartzen duena gaikuntza orokor bat dela administrazio publikoek neurri fiskalak eta finantza-neurriak ezarri ahal izateko, adibidez, zerga berriak ingurumenean eragina duten jardueri.</p> <p>Edonola ere, aurreproiektuak ez ditu zerga zehatzak arautzen eta ez du ezartzen zein motatako jarduerak egongo liratekeen zergapetuta edo zein akeftazio-maila zergapetuko litzateke. Beraz, alegatzaileak egiten dituen dedukzio negatiboak apriorizkoak, orokorrak eta beste edozein zergara hedatzeko modukoak dira.</p> <p>Zergapetutako jarduera zehazki zein den ezartzen denean egin beharko dira nahitaezko analisiak eta azterlanak Euskadiko egitura</p>	Ez da onesten	

		<p>gaineko Zergaren bidez; halaber, enpresa horiek ordaintzen dituzten BEZ eta beste zerga batzuetan eragingo du eta, Euskadin kokatutako enpresen jarduera ekonomikoa murriztean, ondorioak egongo dira lanpostuen kopuruan. Horrek guztiak kalteak eragingo ditu PFEZren bidezko bilketari dagokionez, baita beste ondorio batzuk ere, langileen kontratazioa motelduko delako eta gerta litekeelako lanpostuak ere murriztea.</p>	<p>sozioekonomikoan espero den eraginari dagokionez.</p>	
CONFEBASK	<p>Alegatzaileak uste du interesgarria izango litzatekeela ekonomia zirkularrari buruzko ekimenak garatzera eta ezartzera zuzendutako pizgarriak ezartzea ikerketan, frogantza-proiektuetan eta enpresa-ekimenekoetan, bereziki, enpresa txiki eta ertainetan. Nolanahi ere, uste dugu fiskalitatean aldaketak modu geldian eta xehean egin behar direla.</p>	<p>Alegazioa onesten da.</p> <p>Lege-aurreproiektuak oinarri programatiko batzuk besterik ez ditu ezartzen, geroagoko fase batean arauz garatu beharko direnak.</p>	<p>Onesten da</p>	
EHNE-EUSKAL HERRIKO NEKAZARIEN ELKARTASUNA	<p>Proposatzen dugu artikuluko honen 4. puntuaren barruan gehitzeko d) atal berri bat, beren-beregi jasotzeko ingurumen-zerbitzuak emateagatik ordaintzen gaia.</p>	<p>Hitz lauz, ingurumen-zerbitzuengatik ordaintzeko ezin dira zerga-neurriztat hartu eta Euskadiko Naturaren Kontserbaziorako Legearen aurreproiektuak jorratzen ari dira.</p>	<p>Ez da onesten</p>	
BASQUEGUR	<p>Uste dugu, ingurumen-fiskalitateari dagokionez, beharrezkoa dela murrizketak, hobariak eta salbuespenak ezartzea nekazaritza eta abeltzaintzako eta basogintzako jardueri dagokienez, bereziki, Natura 2000 Sarean integratutako babestutako espazioetan garatzen denari dagokionez.</p>	<p>Manuak, kontuan hartuta horren idazketaren termino zabalak, ahalbidetzen du interpretatzea horrelako egoerak badaudela sartuta aurreproiektuan (murrizketak, hobariak edo salbuespenak), legeak ezarritako helburuen betetzean laguntzen duten heinean.</p> <p>Nolanahi ere, xehetasuneko ingurumen-fiskalitatea geroko araudi-garapen baten xede izan beharko da.</p>	<p>Ez da onesten</p>	

	<p>ARABAKO FORU ALDUNDIA INGURUMEN SAILA</p>	<p>Alegatzaileak adierazi egin du testuaren idazketa ez datorrela bat gai honetako lege-antolamenduarekin; gogorarazi beharra dago hori nagusiki foru-organoen eskumena dela. Honako idazketa hau proposatzen da:</p> <p>1. Euskal administrazio publikoek, Euskadiko zerga-koordinaziorako organoaren eremuan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta foru aldundien ingurumen-eskumenak dituen sailari aurretiaz kontsultatu ostean, fiskalitate ekologikoaren eta ingurumen-politika ekonomikoaren beste tresna batzuen erabilera sustatuko dute, zehazki, lege honen helburuak lortzen laguntze aldera.</p> <p>Hala, 2. eta 3. atalak ezabatu beharko lirateke, zerga-bilketak gastu orokorrekin lotuta daudelako, eta ez da komenigarria ezta operatiboa ere bilketa finalista bat ezartzea. EAEn, bilketen banaketak badauka ezarritako eredu bat. Nolanahi ere, adierazi beharko litzateke egoera hau nola ebazten den.</p> <p>4. Atalari erreparatuz, gogorarazi beharra dago hemen adierazten dena ezartzeko eskumena lurralde historiko bakoitzeko Batzar Nagusiei dagokiela. Beraz, emandako idazketa ez dator bat zuzenbidearekin. Atal honen xedea desiragarria denez, gure antolamendu juridikoarekin bat datorren idazketa bat lortu behar da.</p>	<p>Alegazioa partzialki onesten da.</p> <p>AI OCTE-ren inguruan egindako erreferentzia ezabatzen da.</p> <p>Testua honela idatzita geratuko litzateke, hitzez hitz:</p> <p>“85.1. Zergen esparruan eskudunak diren euskal administrazio publikoek, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren ingurumen-eskumenak dituen sailari aurretiaz kontsultatu ostean, fiskalitate ekologikoaren eta ingurumen-politika ekonomikoaren beste tresna batzuen erabilera sustatuko dute, zehazki, lege honen helburuak lortzen laguntze aldera.”</p> <p>EAEko administrazio publiko guztientzako lortutako bilketen izaera finalista kontuan hartzeari dagokionez. Izaera finalista hori zabaldu ahalko da arau honen arabera eta soilik EAEko administrazio orokorarentzat; hau da, foru aldundiek erabaki bera har dezakete zergen eremuan dituzten eskumenen arabera.</p> <p>Egitate honek eragin dezakeen zailtasun operatiboarekin lotutako gaiak ez dira funtsezko elementu bat izan behar juridikoki aukera hori posible den edo ez ezartzeko.</p> <p>Testua honela idatzita geratuko litzateke:</p> <p>“85.2. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak lortutako bilketek izaera finalista izango dute eta eskusiboki bideratuko dira lege honetan aurreikusitako helburuak lortzera. Gainerako administrazio publikoek, zergen eremuan dituzten eskumenak gauzatuz, zentzu berean ezarri ahalko dute lortutako</p>	<p>Partzialki onesten da.</p>
--	--	---	---	-------------------------------

			<p>bilketen izaera finalista, baita horiek ingurumena babestearekin lotutako helburuetara zuzentzea ere.”</p> <p>85.3. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak bildutako diru-sarreraren barruan sartuko da aurrekontu-partida bat, zehazki, datorren urteko aurrekontu orokorretan, ingurumen-eremuan eskumena duen organoak ezarritako helburuekin bereziki lotutakoak. Gainerako administrazio publikoek zentzu berean ezarri ahalko dute lortutako bilketek urteko aurrekontuetan partida bat osatzea, bereziki zuzendutakoa ingurumena babestearekin lotutako jarduketak kudeatzera.”</p> <p>4. ataleko testuan egindako alegazioari dagokionez, adierazi behar da, zehaztasun handiagoa izan arte, azaldutako guztia ez dela foru aldundien eskumen eskusiboa (adibidez, baimenak igortzeagatik tasak sortzea) eta 83.4 artikulua berak ezartzen duela zerga- eta finantza-neurri horiek administrazio publiko bakoitzaren eskumenean eremuan ezarri ahalko direla.</p>	
--	--	--	---	--

ZAZPIGARREN TITULUA. INGURUMEN-IKUSKAPENA ETA KONTROLA				
I. KAPITULUA. INGURUMEN-LANKIDETZAKO ERAKUNDEAK				
ARTIKULUA	ALEGATZAILEA	ALEGAZIOAREN SINTESIA	INGURUMEN SAILBURUORDETZAREN ANALISIA	AUKERA
87. artikulua. Ingurumen-lankidetzako erakundeak	JMTC jauna	Alegatzaileak azaldu du zaintza- eta ikuskapen-eginkizunak administrazio publikoetako langileenak direla eskusiboki, agintaritza gauzatzeko eskatzen baitute. Zentzu horretan, 87. artikuluan 2. b puntua ezabatzeko proposatzen du: ekipoen egokitzapenaren jardueraren egiaztapena instalazioetan...	Horrelako atazetan, lankidetzak publiko-pribatua oso teknika erabilia da eta aurreikusita dago, bai segurtasun industrialari buruzko legeria sektorialean, bai ingurumen-araudi modernoenean (kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuak, hondakinak, airea...). Hala eta guztiz ere, argi dago ez dagoela doktrinaren eztabaidatik salbuetsita. Lege-aurreproiektuaren testuak horrelako lankidetzak-erakundeen parte-hartzea aurreikusten du administrazio publikoek egin beharreko jardueraren elementu gehigarri eta laguntzaile gisa. Hala ere, hirugarrenek lankidetzak-jarduera horiek burutzeak ez du esan nahi <i>estricto sensu</i> eginkizunak eskuordetzen direnik, hain zuzen ere, funtzionario publikoek soilik dagozkien ahalmenak gauzatzeko eskatzen duten eginkizunak.	Ez da onesten
	ICAB	Erakunde horien balizko jarduketa aurretiazko zenbait faktoreren menpekoa da: jarduketaren oinarritzat hartzeko irizpideak arautzen dituzten arau publikoen multzoa ezartzea. Hala, zerbitzu publiko eskudunek aurretiaz onetsi behar dituzte, zehazki, Ingurumen-lankidetzako Erakundearen irizpenak eta ebazpenak onesteko eta bere jarduketa beste administrazio-erakunde berri bat bihurtu ez dadin,	Alegatzaileak azaldutakoa partekatzen da. Jarduketa-irizpideak, Ingurumen-lankidetzako Erakundearen parte-hartzea nahitaezkatzat ezartzen bada, behar bezala arautuko ditu ingurumen-administrazioak. Hala badagokio, zentzu horretan emandako araudi-aurrekariak hartuko dira adibidetzat: Ingurumen, Lurralde-plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailburuaren 2012ko	Esposizio-alegazioa

		horrela prozedura globala gehiago atzeratuz.	uztailaren 11ko Agindua. Horren bidez, jarraibide teknikoak ezartzen dira Atmosfera kutsa dezaketen jardueretarako instalazioak arautzen dituen abenduaren 27ko 278/2011 Dekretua garatzeko.	
EUSKAL ARIDO	<p>Alegatzaileak ondo deritzo Ingurumen-lankidetzarako Erakundeek zenbait jarduketetan parte hartzeari: lagin-hartzeak, analisiak, ekipoen egiaztapena edo antzekoak.</p> <p>Hala eta guztiz ere, ez dago ados dokumentu-balioztapena Ingurumen-lankidetzarako Erakunde baten irizpidearen menpe egotearekin, kontuan hartuta Ingurumen-administrazioaren Legearen aurreproiektuak berak ezartzen duela dokumentazioa teknikari eskudunek idatzi behar dutela eta argi eta garbi xedatzen dituela horiek bere gain dituzten erantzukizunak.</p> <p>Era berean, Ingurumen-lankidetzarako Erakundeek dokumentu-balioztapena egitean, kostu ekonomikoak sortuko dira sustatzailearentzat eta, gainera, atzerapenak egongo dira espedienteen ebazpenean. Izan ere, Ingurumen-lankidetzarako Erakunde batek aztertu ostean, administrazio eskudunak eta, hortaz, bere teknikariek berriz ere aztertuko dute dokumentazioa, dagokion balioztapena emateko.</p> <p>Bestalde, EUSKAL ARIDOK uste du irizpide tekniko eta interpretazio-irizpide anitz eman daitezkeela, dokumentazioaren analisi honetan parte hartzen duten Ingurumen-lankidetzarako Erakunde desberdinen arabera eta Ingurumen-lankidetzarako Erakunde berean ere bai,</p>	<p>Lehenik eta behin, adierazi behar da manuak berak eskatzen duela erakundearen betekizunen araudi-garapena egiteko; izan ere, erakunde horiek funtsezko lankidetzaz-papera izango dute ingurumen-legezotasunaren kontrolean.</p> <p>Hitz lauz, arauaren testuak ez du <i>per se</i> ezartzen sustatzaileek Ingurumen-lankidetzako Erakunde bat kontratatu behar dutenik prozeduren dokumentazioa aurkezteko. Aurreikusten dena da araudian bertan aukera hori ezartzea; izan ere, hori beharrezkotzat jotzekotan, balioztapena egokia den kasuak haztatuko lirateke eta, prozedurak arintze aldera, administrazio publiko eskudunaren aurrean aurrera egiteko aukerarik ez duten dokumentu-igorpenen arriskua saihestuz.</p> <p>Egoera horretan, administrazio publikoek ezarriko dituzte Ingurumen-lankidetzarako Erakundeek aplikatu beharreko irizpideak eta, gainera, horiek izango dira alegatzaileak aipatutako irizpide-aniztasuna existitzen ez dela bermatuko dutenak.</p> <p>Ingurumen-administrazio honek 2012ko uztailaren 11ko Aginduan aztertutako ereduari jarraiki, jarduketa-irizpideak uztartuko lirateke Ingurumen-lankidetzako Erakundeentzat edo araudian administrazio publikoen instrukzioen bidez. Gainera, horrek</p>	Partzialki onesten da.	

		<p>teknikari bakoitzak aplikatutako irizpide desberdinak direla-eta.</p> <p>Gainera, uste dugu konfidentzialtasuna, independentzia eta inpartzialtasuna urratzeko arriskua egon daitekeela.</p> <p>Administrazioak administrazio-izapide desberdinetan igorritako dokumentazioa aztertzeko baliabiderik ez duenaren argudioak ez du zentzuduna ematen administrazioak bitan ordaindu behar izateko gauza bera, hau da, administrazio-tasak eta Ingurumen-lankidetzarako Erakundearen ordainsariak.</p> <p>EUSKAL ARIDOren aburuz, ikuskatzeko ahalmena ingurumen-administrazioiko funtzionarioena izan behar da eta horiek gauzatu behar dute.</p> <p>Era berean, uste dugu funtsezkoa dela araudi-mailan garatzea sustatzaileari kalteak saihesteko, ikuskapenetan atzerapenak ekiditeko eta horien ondoriozko administrazio-egintzak saihesteko baldintzak, baita konfidentzialtasuneko, gaitasun teknikoko, independentziako eta inpartzialtasuneko bermeak ezartzea ere. Araudi-garapen hori egun indarrean dagoen legerian jasotakoak baino irizpide zorrotzagoak eta murriztaileagoak aplikatuz egin beharko litzateke.</p>	<p>inpartzialtasuna eta konfidentzialtasuna urratzeko edozein arrisku saihestuko luke.</p> <p>Hain zuzen ere, Ingurumen-lankidetzako Erakundearen potentzialtasunetako bat hori da, profesionaltasunaren eta inpartzialtasunaren bermea. Hori guztia zentzu horretan barne-prozedurek eskatzen dituzten ziurtapen-prozeduren bidez eta administrazio publikoak jarduketa etengabe gainbegiratur. Izan ere, desbideratzekotan, ziurtapena indargabetu edo iraungi dezake.</p> <p>Bestalde, adierazi behar da Ingurumen-administrazioaren Zuzendaritzaren giza baliabideen zuzkidura egokia ez dela Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren azken eskumena, baizik eta Funtzio Publikoko Zuzendaritzarena, zuzkidura hori ziurtatu behar duena. Lege-aurreproiektuarekin batera erantsitako ekonomia- eta justifikazio-memorian, kuantitatiboki balioztatu dira giza baliabideen beharrak, bai gaur egun, bai araua indarrean sartzen denetik aurrera.</p> <p>Idazketa berria ematen zaio 87. artikulua 2. atalari: Ingurumen-lankidetzako Erakundeek, administrazio publikoek eskatuta eta araudiak hori ezartzen duenean, besteak beste, eginkizun hauek garatuko dituzte:</p>	
--	--	---	--	--

ZAZPIGARREN TITULUA. INGURUMEN-IKUSKAPENA ETA KONTROLA				
II. KAPITULUA. INGURUMEN-IKUSKAPENA				
ARTIKULUA	ALEGATZAILEA	ALEGAZIOAREN SINTESIA	INGURUMEN SAILBURUORDETZAREN ANALISIA	AUKERA
88. artikulua. Ingurumen-ikuskapenaren xedea eta eskumen ikuskatzaileak.	PASAIKO UDALA	<p>Hala, 88.2 artikulutik ondorioztatzen da, ingurumen-baimen integratua eta bakarra behar duten jardueren kasuan, horien ikuskapenerako eskumena eskusiboki duen administrazioa dela EAeko Ingurumen-administrazioa.</p> <p>Hala eta guztiz ere, Euskadiko Tokiko Erakundeen apirilaren 7ko 2/2016 Legeak xedatutakoari jarraiki eta ingurumen-baimen integratua eta bakarra emateko eskumena EAeko ingurumen-organoarena den gorabehera, jotzen da udalak horrekin partekatu behar duela horrelako jarduerak ikuskatzeko eta kontrolatzeko eskumena. Beraz, nahiz eta ingurumen-baimen integratua eta bakarra eskatzen dituzten jarduerak EAeko ingurumen-organoaren Ikuskapen-planean gehitzen diren, eskatzen da udalari dagokion baimenean ezarritako neurri zuzentzaileak betetzen direla egiaztatzeko eskumena esleitzeko, bereziki ustekabeko isurketak edo igorpenak gertatzen direnerako edo salaketak jasotzen direnerako.</p> <p>Horrez gain, eskatzen da udal-teknikariak gonbidatzeko ingurumen-baimen integratuaren eta bakarraren menpeko jardueren gainean egiten diren ikuskapenetara, horren inguruko ezagutza izan dezaten eta herritarrek egin ditzaketen kontsultak edota salaketak kudeatu ahal</p>	<p>Baimentzeko eginkizunari dagokionez duen eginkizun adjektiboa kontuan hartuta, ikuskapena beti dagokio baimena ematen duen administrazioari. Hala, ez da teknikoki ezta operatiboki egokia ere ikuskapen-organoak bikoiztea eta errepikatzea. Izan ere, horrela, instalazioak fiskalizatuko eta ikuskatuko lituzketen zenbait organo egongo liriteke, zeinen neurriak ez dituzten eurek ezarri eta zeinean gainean ez dituzten eskumen zuzenak.</p> <p>Nolanahi ere, udalak administrazio eskudunarengan antzematen dituen irregulartasunak salatu ahalko ditu, bere eskumeneko alderdietan eragiten dutenak.</p> <p>EAeko ingurumen-organoaren ohiko jarduna da tokiko teknikariei jakinaraztea udal-mugartean kokatutako ingurumen-baimen integratuaren menpeko instalazioak egiten direla. Praktika hori mantentzen den gorabehera, aurreproiektuaren 8. artikulua administrazio publikoek eskumenak gauzatzeko mekanika jasotzen du; zentzu horretan, elkarrekiko lankidetzeta eta informazio-trukea oinarrietako bi dira.</p>	Ez da onesten

		izateko, baita behar bezala jarduteko ere ustekabeen isurketak edo igorpenak gertatzekotan.		
	BILBOKO UDALA	<p>Ikuskapenari ingurumen adjektiboa kentzeko eskatzen da, sailkatutako jarduera-lizentziaren eta Sailkatutako Jardueraren Aurretiazko Komunikazioaren zeharkako izaera azpimarratuz.</p> <p>(ez da soilik sailkatutako jardueraren ikuskapenari dagokion zerbait)</p> <p>Hauek dira oineko erreferentziak.</p> <p>Artikuluaren testuaren aldaketaren bat proposatzen du.</p> <p>Eta 3. atal berri bat:</p> <p>3. Administrazioak, ofizioz edo beste interesdun batek eskatuta, edozein unetan burutu ahalko ditu jardueraren edo ezarpenaren ikuskapen- eta kontrol-jarduketak, hau da, beharrezkoak direnak aplikagarria den araudiak ezarritako betekizunak betetzen direla egiaztatzeko.</p> <p>Ez dira soilik inposatutako edo jakinarazitako baldintzak egiaztatzen, baizik eta funtzionamendu egokirako izan behar dituztenak, kontuan hartuta jurisprudentziak sailkatutako jarduerari esleitzen dien "funtzionamendu-baimenaren" izaera.</p>	<p>Ingurumen-lege bat denez, "ingurumen-ikuskapena" terminoa erabili beharra dago.</p> <p>Ez da beharrezkotzat hartzen atal bat gehitzea, non adierazten den administrazioak edozein unetan egin ditzakeela ikuskapen-jarduketak.</p> <p>Uste dugu duen ahalmenaren antzeko alderdi bat dela, zehaztu behar ez dena.</p>	Ez da onesten

<p>89. artikulua. Ingurumen-ikuskapene ko langileak</p>	<p>IBERDROLA</p>	<p>Edonola ere, administrazioak eta horren langileek hartu behar dituzte bere gain kontrol- eta zaintza-atazak, beste baliabide batzuk behar izatea gorabehera. Lizitazio publikoko prozesu egokiak burutu ostean.</p>	<p>Proposatutako testuak adierazten duen bezala, funtzionario publikoei ez dagozkien ikuskapeneko jarduketa material batzuen kontratazioa egin daiteke Ingurumen-lankidetzarako Erakundeek horiek burutzeko, nola ez, Sektore Publikoko Kontratuen Legean araututako nahitaezko prozeduraren ostean.</p>	<p>Ez da onesten</p>
	<p>JMTC jauna</p>	<p>Ingurumen-zaintzako eta ikuskapeneko atazek berekin dakarten agintaritzan oinarrituta, baita gainerako esparru aplikagarrian oinarrituta ere (2/1108 Legearen 31. eta 32. artikulua eta Kode Penalaren 329. artikulua), alegatzaileak 89. artikulua hautatzeko beste testu oso bat proposatzen du.</p>	<p>Oro har, adierazi behar zaio alegatzaileari beharrezkoa dela lankidetz-erakundeekin elkarlanean jarraitzea EAeko ingurumen-administrazioari eskatzen zaizkion jarduketa ugariak burutu ahal izateko.</p> <p>Bestalde, alegazioan jasotako proposamenaren zati handi bat badago jasota aurreproiektuaren testuan.</p>	<p>Ez da onesten</p>
	<p>PASAIKO UDALA</p>	<p>Jotzen da administrazio publikoetako langileek, ingurumen-ikuskapeneko, kontroleko eta zaintzako lanetan, ahalmen publikoak egikaritzen dituztela; hortaz, uste da ikuskapen-lanak ezin dituztela beste pertsona batzuek burutu administrazio publikoen izenean. Hortaz, aukera hori deuseztatzeko eskatzen da. Horrela, 89.1 artikulua honela idatzita geratuko litzateke:</p> <p><i>1. Ingurumen-ikuskapeneko, kontroleko eta zaintzako lanak horretarako izendatutako administrazio publikoen zerbitzura dauden langileek burutuko dituzte.</i></p>	<p>Beharrezkoa da mekanismo hori edukitzea entitate pribatuen arteko lankidetz-ahalbidetzeko nahitaez funtzionario publikoei ez dagozkien jarduketetan, hain zuzen ere, ahalmen publikoak gauzatu behar direlako. Hori guztia egingo da administrazio publikoen tutoretzapean eta nahitaezko kontratazio-prozeduraren ostean.</p> <p>Adibide gisa, egiaztatutako entitate batek ezingo luke jarduketa hau burutu: EAeko Administrazio Publikoen Zehapen-ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legearen 32. artikuluan aurreikusitako kautelazko neurriak hartzea.</p>	<p>Ez da onesten</p>

	EHNE-EUSKAL HERRIKO NEKAZARIEN ELKARTASUNA	3) puntua: Eskatzen dugu sarbidea eta iraunkortasuna aurretiazko ohartarazpenarekin izatea.	Aurretiazko ohartarazpenak ikuskapenari eraginkortasuna kenduko lioke, nahiz eta sustatzaileari aurretiaz ohartarazita programatutako bestelako ikuskapen-motak mantentzen diren.	Ez da onesten
	ARABAKO FORU ALDUNDIA. INGURUMEN SAILA	Gure iritziz kendu egin behar da «edo egiteko gaitasun tekniko egokia erakusten duten pertsonak», berriro sortzen baitu segurtasun falta gaitasun hori araututa ez egoteak. Behar bezala egiaztaturiko ingurumen-elkarlaneko erakundeen alde egin behar da apustu, zaintza, kontrol eta ikuskapen lanak egiteko ahalmena dutenen alde, eta horien gaineko arautegi artikuluduna berehala egitea beharrezkoa da.	Alegazioa onartu egiten da eta artikuluari idazkera berria ematen zaio, Ingurumen Elkarlaneko Erakundeen irudia soilik sartuz, Administrazio publikoez gain.	Onesten da
90. artikulua. Txostena eta ikuskapen akta.	D. JMTC	Auzitegi Gorenaren doktrinara egokitzea oinarri hartuta, idazkera hau proposatzen dut: <i>1. Ikuskapen bisitan zehar, egiaztaturiko egitateen akta deskribatzailea jasoko da, eta jarduera zein egoeratan egiten den eta jarduera horien arduradunak formulatzen dituen alegazioak jasota utziko dira. Halaber, ikuskapen bisitan azterketak, kontrolak eta laginketak egiten badira, egin direla aipatu beharko da, bai ikuskatzaileek eginak bai funtzionario publikoen ardurapean erakunde laguntzaileek eginak.</i>	Lege aurreproiektuaren araua nahikoa argia dela eta ikuskapen aktan jaso behar diren zertzeladak jasotzen dituela.	Ez da onesten
	EHNE-EUSKAL HERRIKO NEKAZARIEN ELKARTASUNA	Akats bat dagoela ohartarazten da, eta hutsegitea zuzentzeko eskatzen da. 3.-"Bisita bakoitzaren ondoren,..."	Akatsa zuzentzea onesten da.	Onesten da

	BILBOKO UDALA	16/2002 Legea garatzeko Isuri industrialen arautegia onartzen duen urriaren 18ko 815/2013 EDaren 24. artikulutik hartutako testurako bestelako idazkera bat proposatzen da. Beraz, gaikuntza titulu guztietarako balioduna, bai ingurumen baimen integratuetarako bai ingurumen baimen bateratuetarako, eta jarduera sailkatuetara guztiz estrapolagarria. Gainera, lehenago nabarmendutako zertzeladak konpontzen ditu (izenpetzeak ez du esan nahi erantzukizunik hartzen denik; titularra ez denak izenpetu dezake; aurretiaz abisatu gabe egin daiteke...) 1.	Alegatzaileak proposatu duen estrapolazioa, IPPC jardueren arloko eskakizunak esku-hartze erregimen guztietara zabaltzea, gehiegizkotzat jotzen da.	Ez da onesten
	HERNANIKO UDALA	Alegatzaileak eskatzen du Legeari eranskin bat gehitzea ikuskapen aktaren eredu homologatu batekin. Horrela, akta eredu normalizatu bat erabil liteke Euskal Autonomia Erkidego osoan.	Ez da egokitzat jotzen arau orokor bat eta lege maila duena eskatzen den hori bezainbesteko xehetasuna duten eranskinenez janztea. Ondorengo arautegi garapenak, kasua bada, eredu horiek eransteko tresna egokiagoak izango dira.	Ez da onesten
91. artikulua. Ikuskaritzaren ekintza onartu beharra	D. JMTC	Alegatzaileak artikulua testu gehigarri batekin osatzea eskatzen du: «ikuskaritza eta zaintza eginkizunari oztopo egitea izango da, eta hala jasoko da dagokion aktan, administrazio publikoen zerbitzurako zaintza edo ikuskaritza lanak egiten ari den pertsonalari sarrera edo egonaldia debekatzea, bai eta laguntzen dieten erakunde laguntzaileei debekatzea ere, haien eskumeneko jarduerak egiten diren saltoki, lantoki, lokal eta bestelako tokietan, haien jarduerarako beharrezkotzat jotzen diren instalazioak, azterketak, kontrolak, laginketak, liburuak, erregistroak edo dokumentuak aztertzeke erresistentzia aktiboa edo pasiboa egitea, eta ordenamendu juridikoan ezarrita dagoen	Alegazioa oso interesgarria da baina kaltegarritzat jotzen da adibide tasatuekin garatzea zer hartu behar den ikuskaritza lanaren oztopotzat eta zer ez. Oztopoa nahitaez kontzeptu zabala izan behar da, alegatzaileak adierazitako jokabide eragozleez gain, ikuskatzailearen lana zailtzera bideratutako beste edozein ere har dezakeena. Gainera, 102.2d) artikuluan arau hauste moduan tipifikatuta egonik, jokaera oztopatzaileen zerrenda itxi bat emateak gero arazoak ekar litzake, arau hausteak tipikotasun printzipioari loturik	Ez da onesten

		dokumentazioa, eskatzen bazaio, ez aurkeztea.	egon behar dutelako nahitaez.	
	BILBOKO UDALA	<p>Artikulu hau 88.aren ondoren kokatzea eskatzen du, sistematikoki leku egokiagoa delako.</p> <p>Atal gehigarri bat sartzea eskatzen du:</p> <p>3. Ikuskaritzako pertsonalari sarrera eragozte, beti ere lokala bizileku izaerakoa ez bada, edo ikuskaritzaren ahalmenak behar bezala egikaritzeko zailtasunak jartzea funts nahikoa izan daiteke jarduera geldiarazteko kautelazko neurria ezartzeko</p>	<p>Onesten da</p> <p>Ez da onesten bigarren proposamena gehiegizkoa dirudielako kautelazko neurri gisa onartzea</p>	Partzialki onesten da
92. artikulua. Ingurumen ikuskapenaren plangintza	ASTIGARRAGAKO UDALA	<p>Alegatzaileak aurretiaz programatu edo planifikatu gabeko ikuskapenak egiteko aukera izan nahi du, planifikatutakoez gain. Ikuskapen horiek Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumen organoak egin beharko ditu.</p> <p>3/98 legearen (Ingurumena babesteko Euskadiko Lege Orokorra) 61. artikulua baliokide bat sartzea proposatzen du. Beraz, testuak hau jaso beharko luke: (</p> <p><i>Udalek ezingo dute obra lizentziarik eman jarduera sailkatuetarako lizentzien babespeko jardueretarako, baimen integratuekin edo baimen bakarrekin, baimen bakar edo integratu bat eman arte. (...)</i></p>	<p>Programatu gabeko ikuskapenak egiteaz alegatzen duen aukera beti dago, berezkoa baitu administrazio publikoek duten ikuskapen funtzioak.</p> <p>Ikuskapen horiek administrazio publiko baimentzaileak egin ahal izango ditu, eta horiek egitea ez da mugatu behar EAEko ingurumen organora.</p> <p>Sistematikoki alegazioa ez dator bat aurreproiektuaren 92. artikulua honekin.</p> <p>Alegazioaren funtsa kontuan hartuko da eta 18. artikulua berri bat sartuko da eta bertan islatuko da ingurumen tituluak hirigintzako obren lizentziak baino lehenago eman behar direla.</p>	Partzialki onesten da
93. artikulua.	PASAIAKO UDALA	Argitaratu behar den ikuskapen planean jaso behar diren ikuskapenez gain, programatu gabeko ikuskapenen plan bat jasotzea eskatzen du,	Bere definizioagatik «ikuskapen programatu gabeak» ezin	Ez da

<p>Ingurumen ikuskapenet ako ekintzen publizitatea</p>		<p>publikoa izango ez dena eta jardueren sustatzaileei aurrez abisatu gabe egingo diren ikuskapenak jasoko dituen.</p>	<p>daitezke planifikatu.</p>	<p>onesten</p>
--	--	--	------------------------------	----------------

ZORTZIGARREN TITULUA. INGURUMEN LEGEZKOTASUNA BERE ONERATZEA ETA INGURUMEN KALTEEN ERANTZUKIZUNA

I. KAPITULUA. INGURUMEN LEGEZKOTASUNA BERE ONERATZEA

ARTIKULUA	ALEGATZAILEA	ALEGAZIOAREN LABURPENA	INGURUMEN SAILBURUORDETZAREN ANALISIA	AUKERA
<p>94. artikulua. Baimen, lizentzia edo aurrekomunikaziorik gabeko jarduerak legeztatzea</p>	<p>EHNE-EUSKAL HERRIKO NEKAZARIEN ELKARTASUNA</p>	<p>Alegazioak dio Gipuzkoan ustiategi proportzio oso handi batek ez daukala jarduera sailkatuaren lizentziarik, errealitate desberdinak daudela eta orokorrean 2 ustiategi talde bereiz genitzakeela. Horietako lehena izango litzateke korta baserriaren barruan duten ganadu ustiategiak, inolako eraikuntzarik egin ez dutenak eta hirigintza proiekturik ere ez daukatena mendeetako eraikinak direlako, eta bigarren taldea izango litzateke pabiloia daukatena eta obra lizentzia duen hirigintza proiektu batekin hasi eta, beraz, jarduera lizentzia baldintzatua dutena.</p> <p>Alegatzaileak eskatzen du gaur egun abeltzaintzarako jarduera sailkatuaren lizentziatarako behartzen duen UGM ganadu unitate kopuruaren atalasea, hau da, 20 UGM, gorantz aldatzea eta/edo aurretik baziren jardueretarako salbuespen motaren bat aztertzea ganadu kargari lotuta, izan ere ustiapen estentsiboagoak ingurumeneko eragina asko gutxitzen baitu, gure iritziz.</p> <p>Nolanahi ere denbora tarte behar bezain zabala eskatzen da ustiategietako jarduerak legeztatzeko.</p> <p>Helburu nagusia ustiategien etena edo itxiera saihestea litzateke, eta izapideak bizkortzea eta sinplifikatzea helburuen arabera Lege honen</p>	<p>Ondorengo atala erantsi da, lege sektorial batean berariaz jasota dagoelako:</p> <p>Eraginpeko jarduera Nekazaritza eta Elikadura politikaren abenduaren 23ko 17/2008 Legearen aplikazio eremuan badago, lege horren 10. artikulua xedatzen duena beteko da.</p>	<p>Partzialki onesten da</p>

		3. artikuluko 2. ataleko printzipioen esparruan. Gaur egun nekazaritza eta abeltzaintza sektorean burokrasia karga gehiegizkoa da.		
ARABAKO FORU ALDUNDIA. INGURUMEN SAILA	94.1 artikulua Atal honen idazkera ulertu daiteke baimen gabe funtzionatzea ohiko zerbait dela. Honela idatzi beharko litzateke: «jarduera bat lizentzia egokiak izan gabe legez kanpo dabilela ohartarazita.» Gainera, legezketasuna berrezarri beharreko kasuak zein diren modu konkretuago batean zehaztea egokia litzateke, atal honen epigrafean adierazten denaren arabera. Hirugarren kasu bat ere egon liteke, hau da, jarduera bat, erregulariza daitekeelarik, aldi baterako itxi behar izatea legez bere onera etorri arte.	Egokia eta argia irizten zaio arauaren idazkerari. Legezkotasuna bere oneratzeko eska litekeen egoeren kasuistika oso ugaria da; horregatik aukeratu da idazkera zabala, eta izan litezkeen kasu posibleak konkretatzea saihesteko, izan litezkeen egoera ugari guztiei lekua egitearren. Planteatutako hirugarren kasua jarduera etetearen kasua da, eta aurreproiektuaren 96. artikuluan jasota dago.	Ez da onesten	
BILBOKO UDALA	Izenburua ezin da «Legeztatzea» izan, legeza ezineko kasuak ere hartzen dituelako; titulua aldatzea proposatzen da. Testua aldatzea proposatzen da kautelazko/behin-behineko neurri batzuk espres sartzeko.	Alegazioa onartzen da eta «legeztatzea» hitza kendu egiten da izenburuan Kautelazko neurriak 97. artikuluan jasota daude, eta kapituluko kasu guztietara aplikatzen dira.	Partzialki onesten da	
HAZI	Alegazioa da Nekazaritza Politikaren Legearen menpean dauden jardueren salbuespena ezabatzea, otsailaren 27ko 3/98 Legearen oraingo 65. artikuluan jasotzen dena. 65. artikulua. Lizentziarik edo aurretiazko komunikaziorik gabeko jarduerak 2. Eraginpeko jarduera Nekazaritza eta Elikadura politikaren Legearen	Planteatutako alegazioa onartzen da eta artikuluari beste idazkera bat emango zaio lege erreferentzia hori eransteko.	Onesten da	

		aplikazio eremuan badago, lege horren 10. artikulua xedatzen duena beteko da.		
ARABAKO FORU ALDUNDIA. NEKAZARITZA SAILA.		Jarduera lizentzia lortzeari dagokionez oraingo egoera asko aldatu ez denez, eta nekazaritza sektorearen garrantzia kontuan izanik, nekazaritza ustiatzietarako salbuespen hau mantentzeko behar handia egoten jarraitzen du; horregatik proposatzen da mantentzea 3/1998 Legearen 65.2 artikulua hitzez hitz Ingurumen Administrazioaren Lege berrian ere.	Planteatutako alegazioa onartzen da eta artikuluari beste idazkera bat emango zaio lege erreferentzia hori eransteke.	Onesten da
EKONOMIA GARAPEN ETA AZPIEGITURA SAILA		Alegatzaileak dio lizentziarik gabeko jardueren kontua oso sentikorra dela, izan ere arazo bat dago, bere garaian lizentzia egokia izan gabe jarduera hasi zutelarik, orain ixteko mehatxupean legeztatzea bilatzen duten ganadu jarduerekin. Orain indarrean dagoen legeak (Euskal Herriko ingurugiroa babesteko otsailaren 27ko 3/1998 lege orokorra), azken aldaketaren ondoren, hau ezartzen du 65.2 artikuluan: <i>2. Eraginpeko jarduera Nekazaritza eta Elikadura politikaren Legearen aplikazio eremuan badago, lege horren 10. artikulua xedatzen duena beteko da.</i> Bidali den aurreproiektuan, 94. artikuluan, Nekazaritza eta Elikadura Politikaren Legearen aplikazio eremuan dauden jardueren aipamen hori kendu egin da. Ez du artikulua honek babes handia ematen jardueren lizentziarik gabe eta ixteko mehatxupean dauden jardueren arazoaren aurrean, baina	Planteatutako alegazioa onartzen da eta artikuluari beste idazkera bat emango zaio lege erreferentzia hori eransteke. Lege testua honela idatziko litzateke: «Eraginpeko jarduera Nekazaritza eta Elikadura politikaren abenduaren 23ko 17/2008 Legearen aplikazio eremuan badago, lege horren 10. artikulua xedatzen duena beteko da».	Onesten da

		<p>gutxienek nekazaritza eta abeltzaintza jardueri berezitasun bat aitortzen die, eta nolabaiteko tratu diferentea.</p> <p>Horregatik komeniko litzateke 3/1998 Legearen 65.2 artikuluko xedapena mantentzea, gaur egun indarrean dagoena alegia.</p>		
95. artikulua. Neurri zuzentzaile ak	BILBOKO UDALA	<p>Alegatzaileak dio izenburuak errakuntzara eramaten duela. «Neurri zuzentzaileak» esamoldea oso kontzeptu zehatza da, batez ere ingurumen organoak ezartzen dituenetarako erabilia. Jurisprudentiak ere termino hori erabiltzen du, hasieran ezarritakoak ikuskaritzak nahikoa ez direla hautemanek gero, ezartzen diren neurri berriak izendatzeko.</p>	<p>«Ez betetzeak edo akatsak zuzentzea» proposatzen du izenbururako.</p> <p>Alegazioa onesten da</p>	Onesten da
96. artikulua. Jardueren etena	BILBOKO UDALA	<p>Alegatzaileak jarduera eteteko arrazoi gehigarriak sartzea eskatzen du:</p> <p><u>Zehaztasunik eza</u> edo funtsezko datuak ezkatzea.</p> <p>Proposatutako testua: Zehaztasunik ezak, faltsutasunak edo ez emateak funtsezko izaera izango du kasu hauetan:</p> <p>a) Komunikazioa edo erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu ez bada.</p> <p>b) Egokitasun ziurtagiri teknikoak aurkeztu ez bada.</p> <p>c) Araudi sektorialaren arabera aurkeztu beharreko dokumentazioa aurkeztu ez bada edo argi eta garbi nahikoa ez bada.</p> <p>c) Benetan egiten den jarduerak argi eta garbi gainditzen baditu baimendutakoaren, komunikatu edo adierazitakoaren edo</p>	<p>Onartu egiten da «zehaztasunik eza» terminoa eranstea.</p> <p>Ez da beharrezkotzat jo alegazioaren gainerako gutzia aurreproiektuaren testuan sartzea.</p>	Partzialki onesten da

		<p>aurkeztutako dokumentazioaren mugak.</p> <p>d) Jarduera beste aurretiazko esku-hartze erregimen baten mendean badago.</p> <p>e) Jarduera gauzatzerakoan funtsezko akatsak badaude.</p> <p>f) Jarduera legez kanpo jartzeko modukoa bada.</p> <p>g) Kutsadura akustikoaren mugak argi eta garbi hautsi badira.</p> <p>h) Jarduera sailkatu edo kalterik gabeak gauzatzeak bete behar zituen baldintzak, dagokion esku-hartze edo ingurumen-ebaluazio dokumentuan ezarritako edo jarduera sailkatuaren aurretiazko komunikazioan jakinarazitako ingurumen-baldintzak ez betetzea.</p> <p>j) Ikuskaritzako pertsonalari lokalean sarrera eragozten bazaio, beti ere lokala bizileku izaerakoa ez bada, edo ikuskaritzaren ahalmenak behar bezala egikaritzeko zailtasunak jartzen badira.</p>		
97. artikulua. Ingurumen legezkotasuna bere oneratzeko prozedura	IBERDROLA	97. artikulua, ingurumen legezkotasuna bere oneratzeko prozedurei buruzkoak, ezartzen du jarduerak (berrezartze neurriak, neurri zuzentzaileak eta jarduera etenak barne) legeztatzea erabaki «ahal» izango dela aurrez ingurumen legezkotasuna bere oneratzeko prozedura bat izapidetu ondoren edo zehapen prozedura baten bitartez, baina ez da geratzen argi «ahal» hori prozedura bi (bere oneratzeko edo zehatzea) horietako bat aukeratzeari dagokion ala bide horietako bat hautatzeari berari. Nolanahi ere, esanahia argitzeaz gain, aipamen bat sartu beharko da hartu beharreko neurriak administrazio prozedura baten barruan berme guztiekin erabaki	<p>Alegazioak ezin du aurrera egin, izan ere gure ikuspegitik, araua nahikoa argia da legeztatze prozedura aukeren inguruan, bai eta prozeduraren bermeei dagokienez (bai urriaren 1eko 39/2015 Legearenak bai arau honetako 2. atalak espres jasotzen duen audientzia).</p> <p>94. artikuluekin loturik, ikus daiteke administrazio publikoak behartuta daudela jarduerak legeztatze errekerimenduaren bidez legeztatzea edo behin betiko ixtera (94.1 artikulua, a eta b atalak). Bere oneratzeko gainerako neurriak aukerakoak dira administrazio</p>	Ez da onesten

	<p>beharko direla eta behar bezala ziotutako Ebazpen baten bidez amaituko dela argitzeko (arau honexen 5. atalean behin-behineko neurriak hartzeko aukerari buruz ezarritakoaren ildotik).</p> <p>97.7 artikulua honi buruz ere «<i>behin-behineko neurri gisa ur edo argindar hornidura eten ahal izango zaie etena edo itxiera agindu zaien jarduera, instalazio eta obrei. (...)</i>»</p> <p>Horri gehitzen zaio 102.2.h) artikulua arau haustea tipifikatzen duela esanez «<i>ingurumen legezkotasuna bere oneratzeko ezarri diren neurri zuzentzaileak edo behin-behineko neurriak ez betetzea</i>». Hori uler liteke hornidura konpainiak ez duela betetzen jarduera, instalazio edo obra bati hornidura eteteko agintzen dion ebazpena.</p> <p>Kontuan eduki behar da enpresa energia-banatzzaileak hornidura eten ahal izateko arrazoiak, arautegian ezarritako baldintzen barruan, tasatuta daudela eta kasu hauetara mugatzen direla:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Enpresa merkaturatzaileek argindar horniduraren kontratua sinatuta duten bezeroentzat eskatzen dutenean. - Hornidura tarifak ordaintzen ez direnean. - Argindar iruzurra egiaztatzen den kasu batzuetan. - Arrazoi tekniko (argindarra banatzeko sarea mantendu eta hobetzeko) eta segurtasunekoengatik (horniduraren edo pertsona edo gauzen segurtasuna). <p>Gainera, inoiz ere ezingo da argindarra eten, ez ordaintzeagatik, baldin eta instalazioak funtsezkotzat deklaratu izan badira, Argindar</p>	<p>publikoetarako, kasu guztietan ezin eska baitaitezke.</p> <p>Neurri horiek ezarri beharra erabakitakoan, kontraesan prozedura administratibo baten bidez erabakitzeko aukera artikulatzen da (legezkotasuna bere oneratzekoa edo zehatzailea), eta hor interesdunek euren interesen defentsa osoa egin ahal izango dute.</p> <p>Hornidurak eteteari dagokionez, esan beharra dago argindar sektoreko legediak babesten duela ulertzea badago, besteak beste, pertsonen eta gauzen segurtasun arrazoiengatik etetea onartzen duelako.</p> <p>Begien bistakoa da lege honen menpeko jarduerak, ingurumenari, pertsoneri eta gauzei arriskuak sor diezazkiekeela, eta, horregatik, neurri hau hartzea badago, behin-behineko neurri gisa, segurtasun arrazoi horiek desagertu arte.</p> <p>Are gehiago, eztabaidagarria da hornidura eten daitekeen kasuen zerrenda <i>numerus clausus</i> bat izatea, zerrenda ireki bat izan beharrian. Ez dirudi onargarria denik hornidura tarifak ordaindu ezean hornidura eten ahal izatea eta pertsonen osasun eta segurtasuna eta ingurumena bezalako ondasun juridikoak arriskuan dauden kasuetan ezin izatea.</p> <p>Nolanahi ere, alegatutako araudia oinarrizko araudia denez, ez du eragozten, Euskadik ingurumenaren babesean dituen lege garapeneko eta oinarrizko araudia betearazteko eskumeneren ondorioz, garapen arauen bitartez ingurumena eta pertsonen segurtasun eta osasuna babesteko neurri gehigarriak ezarri ahal</p>	
--	---	---	--

		<p>Sektorearen abenduaren 26ko 24/2013 Legearen 52.4 artikuluan ezarritakoaren arabera.</p> <p>Ondorioz, honelako neurriak ezartzea indarrean dagoen argindar araudian ezarritakoaren aurka doala deritzogu, aplikatzen zaion eremuari dagokionez oinarritzko arauaren kontra, eta, gainera, pentsa daiteke neurriak ez duela eraginkortasunik izango eta Administrazioak bete-betean osa dezakeela betearazteko edo kautelazko neurriak edo hertsatzekoak aplikatuz, gainera eraginkorragoak izango liratekeenak.</p>	izatea.	
	BILBOKO UDALA	97. artikulua hau sistematikoki lekuz aldatzea eta izenburu hori (Ingurumen legezotasuna bere oneratzeko prozedura) ez izatea eskatzen du, prozedura hau 94. artikulutik arautzen ari da eta.	Ez da beharrezkotzat jo alegazioa aurreproiektuaren testuan sartzea.	Ez da onesten
98. artikulua. Ingurumen legezotasuna bere oneratzeko neurriak nahitaez betearaztea	BILBOKO UDALA	Alegatzaileak gehiketaren bat eta hobetzeko proposamen bat egiten du artikulua testuan	Egiten den proposamenak ez dio argitasun handiagorik ematen aurreproiektuaren testuari.	Ez da onesten
99. artikulua.	EHNE-EUSKAL HERRIKO	Zenbaitetan, abiadura handiko trenaren obrek edo urtegien eraikuntzak kalte konponezinak eragin dizkiote landa biztanleriari.		Azalpen alegazioa

<p>Ingurumen kalte esanguratsu en eta</p>	<p>NEKAZARIEN ELKARTASUNA</p>	<p>Putzu asko ur gabe geratu dira eta ez dago kalte-ordainik ez konponbiderik etorkizunerako.</p>		
<p>berehala gertatzeko kalte arriskuen erantzukizuna</p>	<p>TRANTSIZIO EKOLOGIKORAKO MINISTERIOA</p>	<p>Zuzentarauaren terminologiarekin koherente izateko, «ingurumen-erantzukizuna» eta «ingurumen-kalteak» terminoak txertatzea proposatu da.</p>	<p>Proposamena onartu da, eta artikulua aldatuko da, adierazitakoaren arabera.</p>	<p>Onesten da</p>

BEDERATZIGARREN TITULUA. INGURUMEN DIZIPLINA				
ARTIKULUA	ALEGATZAILEA	ALEGAZIOAREN LABURPENA	INGURUMEN SAILBURUORDETZAREN ANALISIA	AUKERA
102. artikulua Arau hausteen tipifikazioa	EKONOMIA GARAPEN ETA AZPIEGITURA SAILA	Alegatzaileak dio oraingo Legeak 109.b) artikuluan arau hauste bat jasotzen duela, hau da «ingurugirora (uretara, atmosferara edo lurrera), ingurugiro-egoera kaltetu edo oro har oreka ekologikoari eragiten dioten produktu edo substantziak (solido, likido edo gasak edo energia-formak, soinu-energia barne) botatzea», eta nekazaritza jardueratik datozen nitratoek kalte egin diezaieketen egoera ahuleko guneetan ongarri gehiegi botatzea zehatzeko aplikatzen ari da. 3/1998 Legearen arabera zehatzen diren nitrato arloko arau haustek hauek dira: a) Ongarritzearen mugak gaintzea edo baimendutakoaz beste garaietan ongarritzea. b) Ongarriak jarduera planean ezarritako baldintzetan ez aplikatzea. c) Baimendu gabeko ureztatze sistema bat erabiltzea edo modu ezegokian erabiltzea. d) Ura ateratzea dagokion emakida izan gabe. e) Simaurrak eta purinak modu ezegokian aplikatzea edo aplikatzeko moduz planean ezarritako distantziak ez errespetatzea. f) Simaurtegiak eta purinak biltegiatzeko hobiak nahikoa ez	Onartu egiten da alegazioa. Alegazio honi eta beste batzuei jaramon eginez idazkera berria eman zaio 102. artikuluari, arau haustetzat tipifikatu behar diren jokabide batzuk gehituz, kaltearen eta arriskuaren izaera tipoaren elementu gisa aldatuz eta abar. Arauaren testua bultzatu duen Zuzendaritzak artikulua hau sakon hausnartu eta aldatu du, eta, ondorioz, testu berria proposatzen da, ondorengo arau haustea jasoko duena, alegatzaileak esaten duen moduan: “Ingurugirora (uretara, atmosferara edo lurrera), ingurugiro-egoera kaltetu edo oro har oreka ekologikoari eragiten dioten produktu edo substantziak (solido, likido edo gasak edo energia formak, soinu-energia barne) botatzea ordenamendu juridikoaren aurka egiten bada”.	Onesten da

		<p>dimentsionatzea planean ezarritakoaren arabera.</p> <p>g) Ustiatze koadernoan egoki ez betetzea edo hartan datu faltsuak idaztea.</p> <p>Arau hauste hori aurreproiektutik desagertu da, beraz jokabide horiek ezin izango dira zehatu, behintzat beste lege batzuetara birbideratu ezin direnak, Ur Legearen d) atalera edo Nekazaritza Politikaren Legearen g) atalera.</p>		
BIZKAIKO FORU ALDUNDIA INGURUMEN ZUZENDARITZA	<p>2. Arau hauste oso larriak dira ondorengo egitateak, ingurumenari edo pertsoneri arrisku edo kalte larriak sortzen dizkietenean, ordenamendu juridikoaren aurka egiten badira:</p> <p>e) Produktu eta hondakinak aire librean baimenik gabe erretzea. (Oharra: gehiegizkoa dirudi hondakin erretze oro, nolakoa edo zenbatekoa den begiratu gabe, arau hauste larritzat jotzea, hondarrak erretzea oso ohikoa baita landagunean, baimena beharrezkoa bada ere)</p>	<p>Onesten da, arau hauste hau baztertzea egokia dela dirudi.</p>	Onesten da	
TRANTSIZIO EKOLOGIKORAKO MINISTERIOA	<p>Ministerioak adierazi du ez dagoela arau-hausterik, abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 55.2 artikuluan aurreikusita dagoen moduan:</p> <p>«Arau-hauste oso larria da ingurumen-inpaktuaren ohiko ebaluazioa behar duen proiektu bat egikaritzen hastea, dagokion ingurumen-inpaktuaren adierazpena aldeztatik lortu gabe (...).</p>	<p>Proposamena onartu da.</p> <p>Oraingo 104.2.b) artikuluan, berariaz adierazten da arau-hauste hori arau-hauste oso astuna dela.</p>	Onesten da	
EKONOMIA	<p>Bestalde, arau hauste bat dago aurreproiektuaren 102. artikuluko 2.f)</p>	<p>Alegazioa onartzen da eta Lege aurreproiektuaren testu berrietik</p>	Onesten da	

	<p>GARAPEN ETA AZPIEGITURA SAILA</p>	<p>atalean («Produktu eta hondakinak aire librean baimenik gabe erretzea»), nekazaritza jardueran ondorio larria izan dezakeena. Idazkera horrekin, edozein inausketa-hondakin erretze, esate baterako, zehatzeko modukoa izango litzateke, lehenago baimena lortzen ez bada. Landare osasuneko agronomia eskuliburuek diote zuhaitz batean, esate baterako, ondoek jotako parteak berehala eta <i>in situ</i> erre behar direla, esporak leku batetik bestera garraiatu gabe, eta baimena lortzeak denbora askotxo har dezake.</p> <p>Horregatik, komeniko litzateke nekazaritzako edo inausketako hondakinak erretzeko atalase edo bolumen bat jartzea baimen barik egin ahal izateko; eta, beraz, errealdi txiki bat <i>in situ</i> berehala egin ahal izatea baimenik eskatu beharrik gabe eta artikulua honetan xedatzen denaren arabera arau hauste bat izan gabe.</p>	<p>kendu egiten da arau hori.</p>	
<p>105. artikulua. Zehapenen mailaketa</p>	<p>D. JMTC</p>	<p>Alegatzaileak ondorengo atalak gehitzea eskatzen du:</p> <p>h) 91. artikuluko 3. puntuan deskribatutako egitateak burutzea beti tipifikatuko da arau hauste larritzat eta gutxienez 30.000 euroko isuna ezarriko zaio.</p> <p>i) 28. artikuluko 1. puntuan jasotzen diren arauetako edozein hausten denean, egitate horiek 102. artikuluko 2.h puntuaren arabera tipifikatutako falta larritzat joko dira, eta 100.000 euroko isuna ezarriko zaio, eta artikulua horretan jasotzen diren helburuak ziurtatzeko egindako betearazpen subsidiarioagatik Administrazioak egin duen gastuari dagokion kopurua gehituko da. Pertsona juridikoa konkurtso legediak eraginda badago zehapen prozedura</p>	<p>Lehenago egin diren alegazioak onetsi ez direnez, ezin dira sartu arau hauste eta zehapenen koadroan.</p>	<p>Ez da onesten</p>

		<p>hezurmamitzeko unean eta 28.1 artikularen arabera ez-egitea lehenago egindakoa bada, ordenamendu aplikagarriaren arabera pertsona juridikoaren ordezkari ahala zuen pertsona fisikoari edo pertsona fisikoei egotziko zaie zehapena.</p> <p>j) Zehapen prozeduraren xede diren egitateen artean inplikaturik badaude 1272/2008 Arautegiaren arabera H340, H341, H350, H351, H360, H361, H330, H331, H370, H372, H400, H410 eta H420 arrisku kategoriak izendatzen zaizkien substantziak, HP 1, HP 2, HP 3, HP 8, HP 7, HP 10, HP 11, HP 12 eta HP 14 (H400, H410 eta H420ri lotuta) arrisku ezaugarriak dituzten hondakin arriskutsuak, bai eta 1 eta 2 arrisku kategoriak organo batzuetako toxiko espezifikotzat sailkatuta dauden hondakinetan (HP 5) eta toxiko akutuak (HP 6) eta kutsatzaile organiko iraunkorrak, beren legediaren arabera, orduan, zehapenak larriak eta oso larriak sailkatuko dira, eta isunen kopurua 102. artikuluan jasotako kopuruaren goiko erdian ezarriko dira.</p>		
109. artikulua. Behin-behineko neurriak	ERREGISTRATZAIL E ELKARGOAK	<p>Erantsi beste letra bat idazkera honekin:</p> <p>“e) Prozeduraren hasieraren Jabetza Erregistroko idatzoharra”</p>	Ez da beharrezkotzat jotzen neurri hori sartzea.	Ez da onesten
114. artikulua. Publizitatea	ERREGISTRATZAIL EEN ELKARGOAK	<p>Erantsi beste paragrafo bat idazkera honekin:</p> <p>“5. Ingurumenerako edo giza osasuna segurtatzeko interesgarria denean, prozeduraren emaitza edo funtsaren ingurumen egoera</p>	Proposamena interesgarria da baina ez da onetsi behar, neurri ezezaguna delako gainerako legedi autonomikoan eta ez dagoelako nahikoa informazio egoki aztertzeke nolako eragina	Ez da onesten

		<p>Jabetza Erregistroan jasoarazi ahalko da, hura erregulatzen duen araudiaren arabera, eta horretarako ... artikuluan xedatzen dena beteko da», eranstea proposatu den artikulua aipatuz.</p> <p>Era berean, beste artikulua bat gehitzea komenigarritzat jotzen da. Erregistroetan inskribatzea.</p> <p>«Ingurumen baimenak eta jarduera sailkatuen lizentziak, erregistroko funts jakinetan egiten diren jardueri eragiten badiete, Jabetza Erregistroan alboko oharrean jasoko dira.</p> <p>Alboko oharra funtsaren titularrak eta jardueraren titularrak eskatuta egingo da, eta hartutako erabakia hitzez hitz jasoko duen administrazio ziurtagiria gehituko zaio. Hitzez hitz transkribatuko da hori egiteko erabakia eta informazio ondorioetarako jasotzen dela zehaztuko da.</p> <p>Alboko oharrek baimen edo lizentziaren iraupen bera izango dute, eta haietan zehaztu beharko da. Alboko oharrek iraungipenagatik ezabatu ahal izango dira, hipoteka arautegiaren 353. artikulua arabera edo administrazio agintaritzaren eskumendunak jaulkitako ziurtagiri ezabatzaileagatik.»</p> <p>Justifikazioa</p> <p>Kasu bietan idazkera hori sartzearen justifikazioa da Jabetza Erregistroa proiektio baliabide bat dela funtsa zein egoeratan dagoen hirugarrenei adierazten diena; hortaz, horren publikitatearen bitartez eragotzi egiten da, han egin diren jarduerengatik, delako funtsa zein egoeratan dagoen ez dakitela alegatu ahal izatea, Jabetza</p>	<p>izango lukeen neurriak kostuetan eta Lege proiektuak lortu nahi duen bizkortze administratiboaren kaltetan.</p> <p>Honelako tituluei erregistroan albo oharra jartzea ez da jotzen Lege honetan aurreikusitako helburuak betetzen bereziki lagunduko duen neurritzat. Halaber, administrazio prozedura berriak eta kostu gehigarriak ekarriko lituzkete, eta Lege honen bultzatzaileek mugatu egin nahi dituzte.</p>	
--	--	---	---	--

		<p>Erregistroak <i>erga omnes</i> ematen baitu ezagutzeko aukera; hori guztia, Lurzoruaren kutsaduraren prebentzio eta zuzenketarako ekainaren 25eko 4/2015 Legearen, Karbono aztarnaren, konpentsazioaren eta karbono dioxidoa xurgatzeko proiektuen erregistroa sortzen duen martxoaren 14ko 163/2014 Errege Dekretuaren, Hondakin eta lurzoru kutsatuen uztailaren 28ko 22/2011 Legearen, Ondare Naturalaren eta Biodibertsitatearen abenduaren 13ko 42/2007 Legea aldatzen duen irailaren 21eko 33/2015 Legearen eta hipoteka arautegiaren arabera.</p>		
ICAB	<p>Zalantza asko sortzen dira arau-hausleen erregistroa sortu eta mantentzeaz eta zehapenen publikitatea egiteaz administrazio bidea agortu ondoren. Publizitate hori zehapen konponezina da, zehatutako pertsonen irudiari eta izen onari egiten zaion kaltea zaila edo ezinezkoa da konpontzen, artean zehapena epaile eta auzitegiek berraztertzekeko posibilitatearen mendean dagoela.</p> <p>lido horretatik beretik, zehapena administrazioarekiko auzibidean berraztertzen bada zehatutakoa Arau-hausleen Erregistrotik ezabatu beharko litzateke. Gainera, datuak erregistro horretatik ezabatzeke epe bat ezarri beharko litzateke.</p>	<p>EAEko Administrazioaren eskumena administrazio bidean agortzen da.</p> <p>Ez da inola ere zehapen konponezina; izan ere, administrazioarekiko auzibidean zehapen hori deuseztatu edo berraztertzen bada, ingurumen organoak aldatu edo deuseztatu egingo luke arau-hausleen erregistroan egindako idazpena.</p> <p>Arautegiz emango dira erregistro horren antolaketa eta funtzionamendurako xehetasunak.</p>	Ez da onesten	

<p>115. artikulua. Ordezko ingurumen prestazioa</p>	<p>CONFEBASK</p>	<p>Oso egokia iruditzen zaigu ordezko ingurumen prestazioa sartzea. Gure ustez, formula honi esker enpresek multen ordez ingurumena bere oneratzeko, kontserbatzeko edo hobetzeko prestazio bat eman ahal izango dute, eta horrek argi erakusten du ingurumen politiko publiko on baten helburua: baliabideak, izadia eta enpresen iraunkortasuna errespetatu eta zaintzea. Halaber, positibotzat jotzen dugu arau hauste arinetan prozedura laburtu bat eduki ahal izatea.</p>	<p>Azalpen alegazioa.</p>	<p>Azalpen- alegazioa</p>
---	------------------	---	---------------------------	-------------------------------

XEDAPEN GEHIGARRIA				
XG	ALEGATZAILEA	ALEGAZIOAREN LABURPENA	INGURUMEN SAILBURUORDETZAREN ANALISIA	AUKERA
XG	EHNE-EUSKAL HERRIKO NEKAZARIEN ELKARTASUNA	Sailak, gaur egun, badauka giza baliabideen eta baliabide materialen gabezia, eta hori espedienteen ebazpenaren atzerapenean islatzen da.	Guztiz ados azaldutakoarekin.	Azalpen- alegazioa
	OGASUN ETA EKONOMIA SAILA	Ez dator bat gure araugintza teknikazko jarraibideekin —ezta Estatuaren araugintza teknikazko jarraibideekin ere— xedapen honek arau juridikoak sortzera bideratuta ez dagoen mandatu bat daukan arren ez duelako finkatzen zein epetan bete behar den. Hau da, Euskadiko autonomia erkidegoko administrazio publiko guztiak behartzen ditu giza baliabide eta baliabide material nahikoa izatera Lege honetan ezarritako helburuak betetzen direla bermatzeko, baina ez du eperik ipintzen agindu hori betetzeko.	Ordenamendu juridikoak administrazio publikoei ematen dizkien eskumenetatik eratorzen diren lanak egokitasunez egiteko nahikoa baliabide izatea administrazio publikoen eginbehar orokor bat da. Horregatik, Legeak egiten duen aldarria denboran irauteko egiten dela ulertzen dugu, eta ez duela epeen menpean egon behar. Are gehiago, ohikoak dira ordenamendu juridikoan, aplikaziorako behar diren giza baliabideekin zerikusia duten zertzeladak aipatzen dituzten xedapenen aldean.	Ez da onesten

LEHEN ETA BIGARREN XEDAPEN IRAGANKORRA				
Xlr	ALEGATZAILEA	ALEGAZIOAREN LABURPENA	INGURUMEN SAILBURUORDETZAREN ANALISIA	AUKERA
1. Xlr	OGASUN ETA EKONOMIA SAILA	Xedapen iragankor honen bigarren paragrafoaren hasieran «jarduera eta instalazioei» «ingurumen baimen integratuen eta udal lizentzien titulartasuna» eta «eskubideen gozamina» ematen die. Zentzuzkoa ematen du idazketa akats bat dagoela pentsatzea, eta zuzendu egin behar da.	Alegazioa onartzen da. Honela idatziko da: «Ingurumen gaikuntza administratibo egokia duten jarduera edo instalazioen titularrak.»	Onesten da
2. Xlr	BILBOKO UDALA	Lege hau indarrean hasten denean, ingurumen baimen bakarraren erregimen juridiko berriari lotu behar zaizkion jarduera eta instalazioen ingurumen prozedura sektorialak izapidetu dituzten administrazio publikoek edo erakunde publikoek Euskadiko autonomia erkidegoko ingurumen organora bidali beharko dute espediente horien kopia. Eginbehar horren irismena zein den zehaztu behar da: izapidean dauden espedienteak, oraindik udal gaikuntza-titulurik gabeak, Lege berriaren arabera IBB behar duten jarduerenak? Gainera, epeak luzatzea egokia litzatekeela esaten da.	Alegazioa onesten da, idazketa zorrotzuz zalantzarik ez dadin geratu dagokion gaikuntza titulua jaulkitzen amaitu duten espedienteak direla, eta ez, izapidetu diren arren, amaierara heldu ez direnak, bidali behar direnak. Eginbehar hau, artikulua berak zehazten duen moduan, ingurumen baimen bakarreko erregimen juridiko berrira egokitu behar diren jarduera eta instalazioei aplikatuko litzateke. Nolanahi ere, atal hau, bidean dauden prozedurei buruz 1. Xlan xedatzen denarekin lotu beharko dela esan behar da. Azken idazkera hauze izango da: «Lege hau indarrean hasten denean, eta ezarritako epeen barruan, ingurumen baimen bakarraren erregimen juridiko berrira egokitu behar diren jarduera eta instalazioen ingurumen prozedura sektorialak izapidetu eta dagozkien gaikuntza tituluak eman dituzten administrazio publikoek edo erakunde publikoek	Onesten da

			<p>Euskadiko autonomia erkidegoko ingurumen organora bidali beharko dute espediente horien kopia».</p> <p>Egokitzapen epeak luzatzea ere onartzen da.</p>	
	<p>GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA. NEKAZARITZA SAILA</p>	<p>Ingurumen Administrazioaren Legearen Bigarren Xedapen Iragankorra aplikatzea gehiegizkotzat eta abusutzat jotzen dugu, ezarri ere, Ingurumen Baimen Bakarra behar duten jarduera guztiek gehienez 4 urteko epean jaso behar dutela ezartzen baitu, nahiz eta dagoeneko Jarduera Lizentzia eduki. Aurrekoagatik, Bigarren Xedapen Iragankorra, egon dauden instalazioei buruzkoa, baztertzea proposatzen da</p>	<p>Beste batzuk aintzat hartuz luzatu egin da lau urteko epea bost urtera, Lege hau indarrean hasten denean I. eranskinen B) atalean sartuta dauden jarduera eta instalazioak ingurumen baimen bakarraren erregimen juridiko berrira egokitu daitezten. Egokitzapen hori, gainera, Euskadiko autonomia erkidegoko ingurumen organoak egingo du Lege honetan aurreikusitako prozedura izapidetu beharrik gabe baldin jarduera edo instalazioaren titularrak erantzukizunpeko adierazpen bat bidaltzen badu bere ingurumen gaikuntzako tituluak eman zizkiotenean zeuden baldintzak gaur egun berdintsu mantentzen direla ziurtatzen. Beraz, ez gatoz bat alegatzaileak alegazioan gehiegizkoa eta abusuzkoa dela dioenarekin.</p>	<p>Ez da onesten.</p>
<p>Bat eskatzen dute 3. Xlr</p>	<p>BIZKAIKO FORU ALDUNDIA INGURUMEN ZUZENDARITZA</p>	<p>1. Arautegiz ezarriko dira ingurumen ebaluazio estrategikoa eta ingurumen-eraginaren ebaluazioa egiteko prozedura eta epeak. Arautegi garapen hori egiten ez den bitartean Estatuaren oinarritzko legediko prozedura eta epeak aplikatuko dira.</p> <p>Xedapen gehigarri hau gehitzen da espres ezartzeko ebaluazioen prozedura eta epeak. Xedapen hau ez da beharrezkoa ez bada aurreikusten gero prozedura Dekretuz garatzea. Baina egokia dirudi espres adieraztea prozedura eta epeak 21/2013 Legean ezarritakoak</p>	<p>Ez da beharrezkoa aurreikuspen hori, badagoelako maila autonomikoan plan eta programen ingurumen ebaluazioari buruzko arautegi bat, eta Oinarritzko Legearen izaera arautzailea eta aurreproiektuan jasotzen diren aurreikuspenak.</p>	<p>Ez da onesten</p>

		direra.		
--	--	---------	--	--

XEDAPEN INDARGABETZAILEA				
XIn	ALEGATZAILEA	ALEGAZIOAREN LABURPENA	INGURUMEN SAILBURUORDETZAREN ANALISIA	AUKERA
XIn	PASAIAKO UDALA	Ekainaren 11ko 171/85 Dekretua, etxebizitzetarako hiri-lurretan jartzekoak diren Ekintzapide Nekagarri, Osasunkaitz, Kaltegarri eta Arriskutsuekin erabili beharreko Teknikazko Arauak ontzat ematen dituen, guztiz indargabetzea eskatzen da. Dekretu horrek neurri zuzentzaile anakronikoak jasotzen ditu (bereziki zaratei eta dardarei dagokienez).	Ekainaren 11ko 171/1985 Dekretuak, onartu zenetik igaro den denbora gorabehera, jarraitzen du arau erreferentzia izaten udalek eta foru organoek neurri zuzentzaileak ezartzerakoan.	Ez da onesten
	HERNANIKO UDALA	Xedapen indargabetzailean indar gabe utzi ondorengo dekretua, zaharkituta geratu delako: Ekainaren 11ko 171/85 Dekretua, etxebizitzetarako hiri-lurretan jartzekoak diren Ekintzapide Nekagarri, Osasunkaitz, Kaltegarri eta Arriskutsuekin erabili beharreko Teknikazko Arauak ontzat ematen dituen.	Ez da onesten aurreko alegazioari emandako erantzunean esaten den arrazoiagatik.	Ez da onesten

	<p>OGASUN ETA EKONOMIA SAILA</p>	<p>Xedapen indargabetzailek zenbakitu gabeko paragrafo bi ditu: lehenak lege baten indargabetze espresa jasotzen du; bigarrenak, indargabetze klausula generikoa dakar, indarrean hasten den legearen aurkakoak, kontraesanean daudenak edo elkarrezinak gertatzen diren arau guztiei dagokiena.</p> <p>Lege bakarra indargabetzen denez, ez da beharrezkoa paragrafo bi idaztea:</p> <p>1) Hau esaten duen lekuan: Indargabetuta geratzen da 3/1998 Legea, otsailaren 27koa, Euskal Herriko ingurugiroa babesteko lege orokorra.</p> <p>Indargabetuta geratzen dira, era berean, Lege honetan xedatzen denaren aurkakoak, kontraesanean daudenak edo elkarrezinak gertatzen diren maila bereko edo apalagoko xedapen guztiak.</p> <p>2) Esan beharko luke: Indargabetuta geratzen da 3/1998 Legea, otsailaren 27koa, Euskal Herriko ingurugiroa babesteko lege orokorra, eta Lege honetan xedatzen denaren aurkakoak, kontraesanean daudenak edo elkarrezinak gertatzen diren maila bereko edo apalagoko xedapen guztiak.</p>	<p>Alegazioa onartzen da.</p>	<p>Onesten da</p>
--	---	--	-------------------------------	-------------------

AZKEN XEDAPENETARIK LEHENA				
AX	ALEGATZAILEA	ALEGAZIOAREN LABURPENA	INGURUMEN SAILBURUORDETZAREN ANALISIA	AUKERA
AX	OGASUN ETA EKONOMIA SAILA	<p><u>Azken xedapenetarik lehenaren</u> titulazioa ez dator bat gure arau teknikazko jarraibideekin.</p> <p>1) Hau esan behar: AZKEN XEDAPENETARIK LEHENA</p> <p>Autonomia-Elkarte Osorako Erakundeen eta bertako Kondaira-Lurraldeetako Foruzko Jardute-Erakundeen Arteko Harremani Buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legearen <u>7.c) 6. artikulua</u>ren aldaketa</p> <p>2) Hau esan beharko luke: Azken xedapenetarik lehena. Autonomia-Elkarte Osorako Erakundeen eta bertako Kondaira-Lurraldeetako Foruzko Jardute-Erakundeen Arteko Harremani Buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legearen aldaketa</p> <p>Aldatu beharreko arauaren <u>esparru testua</u> ere ez da.</p> <p>1) Hau esan behar: Autonomia-Elkarte Osorako Erakundeen eta bertako Kondaira-Lurraldeetako Foruzko Jardute-Erakundeen Arteko Harremani Buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legearen <u>7.c) 6. artikulua</u> <u>aldatzen da</u>, honela <u>idatzita geratuz</u>:</p> <p><u>“6. – Neurriak ezartzea (...) eta Udal Erakundeen Legeak emandako eskumenen kalterik gabe”.</u></p>	Alegazioa onartzen da.	Onesten da

		<p>2) Hau esan beharko luke:</p> <p><u>Beste idazkera bat ematen zaio</u> Autonomia-Elkarte Osorako Erakundeen eta bertako Kondaira-Lurraldeetako Foruzko Jardute-Erakundeen Arteko Harremanei Buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legearen <u>7.c).6 artikuluari, eta</u> honela / ondoren esaten den moduan idatzita geratuko da</p>		
--	--	--	--	--

AZKEN XEDAPENETARIK BIGARRENA				
Uraren ekainaren 23ko 1/2006 Legea				
AX	ALEGATZAILEA	ALEGAZIOAREN LABURPENA	INGURUMEN SAILBURUORDETZAREN ANALISIA	AUKERA
AX	ARABAKO FORU ALDUNDIA. INGURUMEN SAILA	<p>Azken xedapenetarik bigarren honetatik k) eta l) atalak ezabatzea proposatzen da: «<i>Hilabete biko epean jaulki eta jakinarazten ez bada ezezkotzat joko da</i>». Edota, gutxienez, ezezkotzat kendu eta baiezkotzat jarri, berraztertze honek bilatzen dituen helburuen eta motibazioaren arabera, ezin bizkortu daiteke ingurumen administrazioa txostena ez egiteak programak, proiektuak edo planak ezin aurrera eramatea badakar.</p> <p>Lege bat idazten ari garenez, «administrazio isiltasun positiboa» kontzeptua planteatu behar da. Administrazioek barneratu egin behar dute ondorio hauetarako eduki behar dituzten orotariko baliabideak herritarrei eta interesdunei behar den erantzuna emateko beharrezkoak direnak izan behar direla. Beraz, Lege honen xedapen gehigarrietan goian esandako kontzeptuaren aldaketa xedatzea eskatzen da, EAeko ingurumen prozedura guztietarako, bereziki Uraren ekainaren 23ko 1/2006 Legean jasotakoak barne.</p> <p>Hori guztia, maila bereko eta/edo goragoko mailako ordenamenduekin talka egiten ez badute. Eta salbu testuaren beraren 62. artikuluan xedatutakoa, eta Ingurumen ebaluazioko 21/2013 Legeak ondorio hauetarako ezartzen duena.</p> <p>Aurrekoa esanda, adierazitakoa lagundu egin behar da prozedura argi,</p>	<p>Alegazio hori eta beste batzuk aztertu ondoren, bai eta legegintza-teknikaren arloko arrazoiengatik ere, azken xedapenetatik bigarrena ezabatzea erabaki du legea aldatzea proposatu duen organoak.</p>	Partzialki onesten da.

		<p>eraginkor eta interesdunen eskubideen bermatzaile batekin, kasu bakoitzean eskumena duten administrazioek kautelazko edo behin betiko itxiera espedientea hasi ahal dezaten isiltasun positiboa aprobetxatu dutenen aurka, ez badituzte zuzen eta egoki funtzionatzeko neurri eta beharkizunak betetzen.</p> <hr/> <p>Hausnarketa bat proposatzen da ez baita kongruentea JPHko edo ILJPko baimenak emateko ezarritako sei hilabeteko epeari eustea 37.1 artikuluan (sei hilabete) udalen aldean (hilabete), hilabeteko epe bera eman beharko litzatekeelako administrazio guztietarako, baina mugatu egiten da hausnarketa hau Ur Agentziaren eskumen eksklusibokoak diren jardueretarako.</p>		
--	--	--	--	--

	<p>OGASUN ETA EKONOMIA SAILA</p>	<p>Uraren ekainaren 23ko 1/2006 Legearen aldaketa</p> <p>Uraren ekainaren 23ko 1/2006 Legean <u>ondoren adierazten den moduan aldatzen da:</u></p> <p><u>Lehena.- k) eta l) atalak aldatzen zaizkio eta beste atal bat gehitzen zaio</u> Uraren ekainaren 23ko 1/2006 Legearen 7. artikuluari. <u>k) eta l) atalak aldatzea funtsezkoa da EAEko erkidego barruan honelako txostenek izaten duten edukia eta izaera kontuan hartuta, lurralde guztian tratu homogeneoa emateko eta ez dadin gertatu konplexutasunagatik berandutzen den txosten bat ez jaulkitzeagatik edozein hirigintza eskari gaituta geratzea, astakeriarik handiena izanda ere, eta horrek sortuko lukeen interes publikoen babesik eza saihesteko.</u></p> <p>(*). Justifikazio hau ezabatu egin behar da. Hasteko Aginduan edo justifikazio oroitidazkian <i>ad hoc</i> jaso beharko litzateke.</p> <p><u>“7. artikulua. Eginkizunak</u></p> <p>_____ Ur Agentziaren eginkizunak dira:</p> <p>k) Hasierako onarpenaren (...) dela joko da.</p> <p>l) Hasierako onarpena (...) dela joko da.</p> <p><u>a. Lege honetan plangintza hidrolagorako (...) edo izapidetzeko».</u></p> <p>2) Hau esan beharko luke:</p> <p>Azken xedapenatarik bigarrena. Uraren ekainaren 23ko 1/2006 Legearen aldaketa</p>	<p>Alegazio hori eta beste batzuk aztertu ondoren, bai eta legegintza-teknikaren arloko arrazoiengatik ere, azken xedapenetatik bigarrena ezabatzea erabaki du legea aldatzea proposatu duen organoak.</p>	<p>Ez da onesten.</p>
--	---	---	--	--------------------------------

AZKEN XEDAPENETARIK BOSGARRENA				
AX	ALEGATZAILEA	ALEGAZIOAREN LABURPENA	INGURUMEN SAILBURUORDETZAREN ANALISIA	AUKERA
AX	OGASUN ETA EKONOMIA SAILA	<p>Eranskin aldaketa.</p> <p>Ahalmena ematen zaio Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorrari, Dekretu bidez eta ingurumen arloan eskumena duen sailaren eskariz, Lege honen eranskinak aldatzeko, aplikatu beharreko araudira eta kasuan beharrezkoak diren ingurumen eskakizun edo eskakizun teknikoetara egokitze aldera.</p> <p>1 - Esan beharko luke:</p> <p>Azken xedapenetarik bosgarrena. Eranskinak egokitze araugintza gaikuntza</p> <p>Ahalmena/Baimena ematen zaio Eusko Jaurlaritzari, Dekretu bidez eta ingurumen arloan eskumena duen sailaren eskariz, lege honen eranskinen edukia araudi aplikagarriak ezartzen dituen ingurumen eskakizunetara edo eskakizun teknikoetara egokitze.</p>	Alegazioa onartzen da	Onesten da

AZKEN XEDAPENETARIK SEIGARRENA				
AX	ALEGATZAILEA	ALEGAZIOAREN LABURPENA	INGURUMEN SAILBURUORDETZAREN ANALISIA	AUKERA
AX	OGASUN ETA EKONOMIA SAILA	<p><u>Azken xedapenetarik seigarrena</u>, «Indarrean hastea», aldatu egin behar da gure arau teknikazko jarraibideen arabera egiteko, izan ere «Urgentziagatik xedapen arautzaile bat berehala indarrean hastea nahi bada, erabili beharreko formula ez da izango «argitaratzen den egun berean», «argitaratu eta hurrengo <u>egunean</u>» baizik, herritarraren segurtasun juridikoagatik:</p> <p>1. Hau esaten duen lekuan: AZKEN XEDAPENETARIK SEIGARRENA. Indarrean hastea. Lege hau Euskal Herriko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo <u>egunean</u> hasiko da indarrean</p> <p>2. Esan beharko luke: AZKEN XEDAPENETARIK SEIGARRENA. Indarrean hastea. Lege hau Euskal Herriko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo <u>egunean</u> hasiko da indarrean.</p>	Alegazioa onartzen da.	Onesten da

I.A ERANSKINA. INGURUMEN BAIMEN INTEGRATUAREN MENPEKO INSTALAZIOAK				
ERANSKIN A	ALEGATZAILEA	ALEGAZIOAREN LABURPENA	INGURUMEN SAILBURUORDETZAREN ANALISIA	AUKERA
Orokorra	MICHELIN	<p>1.1 b) «50 MW baino gehiagoko potentzia termiko nominala duten errekuntza instalazioak» epigrafearen azalpena hobetu beharko litzateke, argitzeko:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Benetako PTN potentzia termiko nominalaz ari dela adierazi (gainerako epigrafeetan bezala, benetako ekoizpena edo benetako kontsumoa hartzen da kontuan). Zifra teorikoarekiko diferentzia errendimendua da (errendimendu ona % 85-90 ingurukoa da) eta sarrerako eta irteerako entalpia diferentzia. <p>Guk benetako 20 MW-eko PTNko 2 galdara dauzkagu ekoizpen prozesurako.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Espres adierazi ¿???? galderen salbuespena JATORRIZKO TESTUAN FALTA DA <p>Guk larrialdietarako 10 MW-eko erreserbako 1 galdara daukagu</p> <ul style="list-style-type: none"> - Errekuntza instalazioen 2010/75/UE Zuzentarauan adierazitakoaren arabera (tximinia bera duten instalazioen PTNen batura hartzen da) <p>Guk galdara bakoitza instalazio independente moduan daukagunez, ez genioke errekuntza instalazioaren definizioa aplikatuko.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Iradokizuna: emisio baxuko instalazioak (EBI) salbuesten utzi (CO₂ 	IPPC araudian ezarritako idazkera bera da, eta hura oinarritzkoa da.	Ez da onesten

		isurtzeko baimen erregimenaren mendean daude, baina isuri txikienekoan)		
EKONOMIA GARAPEN ETA AZPIEGITURA SAILA		<p>Ingurumen-eraginaren deklarazio mota guztiak formulatu beharraren eta baimen edo lizentzia mota guztiak lortzearen ondorioetarako nekazaritza eta abeltzaintza jardueren edukierei edo bolumenei dagokienez, lege aurreproiektuan askoz xehetasun gehiago ematen da orain indarrean dagoen Legean baino.</p> <p>(...)</p> <p>Jarduera sailkatuaren lizentzia lortzeko eta aurretiazko komunikaziorako edukierak ez dira aldatzen orain indarrean dagoen legearekin alderatuta.</p> <p>Nahiz eta ez den nahitaez balioespen negatibotzat hartu behar, komeniko litzateke nekazaritza eta abeltzaintza arloko teknikariek azterketa tekniko sakonagoa egitea edukiera hauei buruz.</p> <p>Nolanahi ere, abeltzaintza-jarduera gehienetarako administrazio esku-hartze bikoitza beharko dela ikusten da (Ingurumen-eraginaren Ebaluazio Arrunta edo sinplifikatua, eta Ingurumen Baimen Integratua edo sinplifikatua, edo Jarduera Lizentzia), eta horrek konplikatu egiten ditu dagokion administrazioarekiko harremana eta karga dokumental, tekniko eta administratiboa. Administrazioaren esku-hartze hauetan sinplifikazio handiagoa komeniko litzateke ahal den neurrian.</p>	<p>Alegatzaileak dio komeniko litzatekeela nekazaritza eta abeltzaintza arloko teknikariek azterketa tekniko sakonago bat egitea arauan aurreikusitako edukierei eta atalaseei buruz, gehiago zehaztu gabe. Horretaz, esan beharra dago, hau zela, hain zuzen, eragina jasan dezaketen EAeko Administrazio orokorreko beste sail batzuei parte hartzeko izapidea egin izanaren helburua, egin dugun bezala.</p> <p>Alegazioaren bigarren parteari dagokionez, esan behar da ingurumen-eraginaren ebaluazio prozeduretan eta jarduerak baimentzeko prozeduretan bilatzen diren helburuak asko direla, nahiz eta azkenean ingurumenaren babesean biltzen diren, eta horregatik ezin daitezke hartu gutxitu beharreko esku-hartze bikoitz bat balitz bezala.</p> <p>Era berean, ez dira abeltzaintza-jarduerak alde horrek aipatzen duen «administrazio esku-hartze bikoitza» behar duten bakarrak (Ingurumen-eraginaren Ebaluazio Arrunta edo sinplifikatua, eta Ingurumen Baien Integratua edo sinplifikatua, edo Jarduera Lizentzia), baizik eta Legearen eranskinetako jarduera guztiak egon litezke teoriar prozedura bien menpean.</p> <p>Lege aurreproiektuaren testuak prozeduren ahalik et sinplifikazio eta integrazio handiena bilatu du (ikusi, adibidez, esku-hartze erregimenen eta ingurumen-eraginaren ebaluazioaren arteko</p>	Azalpen-alegazioa

			<p>konkurrentzia) sustatzaileei dagokien administrazioarekiko harremana erraztearren eta karga dokumental, tekniko eta administratiboa gutxitzearren, jarduerak ezartze aldera, baina ingurumen-eraginaren kontrol egokia mantenduta.</p> <p>Arau honen hobekuntza gehigarrietako bat da aldi berean egitea, kasu batzuetan, ingurumen-eraginaren ebaluazio-prozedurak eta IBI eta IBB baimenen prozedurak, nahiz eta prozedura horiek oinarritzko legediak diseinatuta dauden, prozedura desberdin bezala eta bata bestearen segidan egiteko.</p>	
EKONOMIA GARAPEN ETA AZPIEGITURA SAILA	<p>Eranskinetan agertzen diren jarduera, instalazio eta proiektu zerrenda birformulatu</p> <p>Horrela, iturri berriztagarrien bitartez energia ekoizteko instalazioei dagokienez, potentzia instalatua ez dadin izan aurreproiektuan arautzen diren ingurumen-kontrolako prozeduren mendean egoteko irizpide erabakigarria. Irizpide horrek ez dauka, berez, nahikoa indarrik energia iturri berriztagarriko ustiategi batek ingurumenean izan lezakeen eragina neurtzeko.</p> <p>Instalazio horiek, jasotzen diren kontrol-prozedurei lotuta egon behar luketen erabakitzerakoan kontuan hartu beharko litzateke klima aldaketaren aurkako borrokan ematen duten laguntza azken finean eta atmosferara partikula kutsagarrien emisioa gutxitzerakoan.</p> <p>Bereziki hidrokarburoei dagokienez (esplorazioa batez ere), proposatutako testutik ezinezkoa gertatzen baitzaigu konkretuki zein</p>	<p>Alegazio hau eta beste batzuk kontuan hartuta, Legearen eranskinak sakon berraztertu dira.</p> <p>Lehenagoko alegazioen aurrean azaldu den bezalaxe, ados gaude etorkizunerako erraztu edo arindu behar dela lurraldean energia berriztagarriak ustiatzeko azpiegiturak ezartzea. Hala ere, IBI edo ingurumen-eraginaren ebaluazioa behar duten instalazioen zerrendak gaiari buruz Estatuaren oinarritzko arauetan daudenetan oinarrituta prestatu dira, beraz instalazio horietako batzuk kentzeak Euskadin ingurumen babesa murriztea ekarriko luke, eta hori ez litzateke legez egingarria arau honen esparruan.</p> <p>Ildo horretan, kontuan hartu behar da, ustiapen-fasera heldutakoan azpiegitura horiek klima-aldaketaren aurkako borrokan laguntza bat izan badaitezke ere, horien ezarpenak behin betiko eragin negatiboak izan ditzake, eta soilik aurretiazko ingurumen prozedura baten barruan (ingurumen-eraginaren</p>	Azalpen-alegazioa	

		baimen mota aplika dakioken identifikatzea.	ebaluzioa, kasurako) edo dagokion gaikuntza titulua lortuta (IBI, IBB, JSL, CPAC) aztertu eta, behar izanez gero, zuzendu daitezke.	
--	--	---	---	--

I.B ERANSKINA. INGURUMEN BAIMEN BAKARRAREN MENPEKO INSTALAZIOAK				
ERANSKIN A	ALEGATZAILEA	ALEGAZIOAREN LABURPENA	INGURUMEN SAILBURUORDETZAREN ANALISIA	AUKERA
	IBERDROLA	Oro har aipatzea « <i>ingurumenean edo osasunean antzeko ondorioak izan ditzaketen beste jarduera batzuk</i> », hau da, I.B, I.C eta I.D eranskinetan sartzen diren jarduera edo instalazioen zerrendan amaiera-formula bat edo edozertarako zakua dirudien aipamen hori sartzeari segurtasun juridikoaren printzipioaren kontraketat jotzen da, eta, beraz, instalazio edo jarduera bat ebaluatzeko ahalmen guztizkoa ematea, legezketasunaren, proportzionaltasunaren edo prozedura-bermearen printzipioei aipamenik bat ere egin gabe, kasu guztietan saihestu beharko litzatekeen arau aplikazio arbitrarioaren faktore bat izan daiteke.	Araugintza mailan, eta Lege maila duen arau bati irautea dagokiola berez, honelako arau irekiak edo sistemak ixteko klausulak sartu beharra egoten da, betiere egoera posibleen zerrenda itxi bat edo <i>numerus clausus</i> zehaztea ezinezkoa bada. Halaber, Administrazio publikoa bere eskumenak egikaritzen jarduten da, interes orokorra babeste aldera eta araudia arbitrarioki aplikatzea saihestuz.	Ez da onesten
	ACLIMA	Eranskinaren aplikazio eremua argi uztearren, lehen esaldiaren ordezkari beste hau ipintzea proposatzen da: «I. eranskin honetako A, C edo D ataletan sartuta ez dauden jarduerak badira, inguruen baimen bakarra beharko dute ondorengo jarduera eta instalazioek:» 5 eta 6 ataletan atalase bat (adibidez, substantzia kutsagarrien masa-emari isuriaren atalasea) sartzeari proposatzen da URAREN edo arroko organismoaren aurretiazko administrazio baimen espresa behar duten isurketetarako, eta hortik behera ez lirateke ingurumen baimen bakarrera lotuta egongo, jarduera lizentziara baizik. I.C eranskinetan dagokion atala sartzeari proposatzen da, isurketak zehaztutako	Hasierako alegazioa partzialki onartzen da, eta I. eranskinetako jarduera eta instalazioetarako aplikazio eremua argiago utziko duen idazkera bat ematen zaio.	Partzialki onesten da

		atalasearen azpitik dituzten jarduera horietarako.		
GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA. NEKAZARITZA SAILA	<p>Abeltzaintzaren azpisektore batzuetan, bai ekoizpen fasean bai, batez ere, ustiapenean lortutako produktuak eraldatu, ontziratuta eta merkaturatzean, hondar urak sortzen dira, eta horiek isurtzeko organismo eskumendunak emandako isurketa baimena behar da. Aurrekotik ondorioztatzen da isurketak sortzen dituzten nekazaritza-jarduera guztiek, bai ekoizpen primarioan bai ekoizpen propioaren eraldaketa edo merkaturatze fasean, Ingurumen Baimen Bakarra lortu beharko dutela, baina horrek zaildu egin du nekazaritza-ekimen berriak ezartzea, ekinbide hauek martxan jartzeko kostu ekonomiko handitu egingo delako eta administrazio-prozedura denboran luzatu egingo delako.</p> <p>Aurreko arrazoiengatik, IBBei buruzko eranskina aldatzea proposatzen da, abeltzaintza jarduerak espres salbuetsiz, Jarduera Sailkatuaren Lizentziaren edo Jarduera Sailkatuaren Aurreiazko Komunikazioaren erregimenaren mendean utzirik ezaugarrien arabera, gaur egun dagoen bezala. Proposatutako aldaketak salbuetsi egingo ditu nekazaritza-jardueratza hartu gabe produktuak landu edo eraldatzen dituzten gainerako nekazaritza-industriak, nekazaritza-ustiategi baten eremuan ez direlako lantzen.</p> <p>Horren hautabide gisa eta kasu biak mantentzekotan (I.B eranskineko 5 eta 6 eranskinak), isurketa atalase bat ezartzea proposatzen da, eta hortik gora Ingurumen Baimen Bakarra beharko da, baina atalaseak bermatu egin beharko luke familia giroko nekazaritza-ustiapenak,</p>	<p>Aipatutako eranskineko 5 eta 6 atalak eranstearen arrazoia, Zuzendaritza bultzatzailearen borondatearen arabera, ibaira isurketa zuzenak egingo lituzketen eta potentzial kutsagarri handia izango luketen jarduera edo instalazioak ingurumen baimen bakarrera pasatzea zen. Ez zen pentsatzen abeltzaintza ustiategietan ezta, eskala txikian, ustiapenetik lortutako produktuak eraldatzen dituztenetan.</p> <p>Alegazio honen eta beste batzuen ondorioz, eranskinaren epigrafe hauetan aldaketa bat egin da, alegatzaileak aipatzen dituenak bezalako jarduerak salbuetsi ahal izateko, hau da, potentzial kutsagarria, ibaira zuzenean isuriz gero, URA Ur Agentziaren eta instalazioko udalaren esku-hartze egokien bidez kontrolatuta izaten jarraitu daitekeen jarduerak.</p> <p>Ildo horretan bertan, atalase bat jarri da hondar uren araztegi handienak bakarrik pasa daitezen ABB behar izatera.</p> <p>Azken testua honela idatzita geratu da:</p> <p>“5. URA Ur Agentziaren aurreiazko administrazio baimen espresa behar duten jarduera edo instalazioak, uren eta hondar produktuen, isurkarien, solidoen edo beste edozertarikoen 3. motako isurketa industrialak egiten dituztelako, zuzenean edo zeharka, ur kontinentaletan edo jabari publiko hidraulikoaren edo itsas-lehorreko jabari publikoaren beste edozein</p>	Onesten da	

		nagusi direnak erkidego honetan, Jarduera Saikatuaren Lizentziaren prozeduran jarraitzea.	<p>elementutan.</p> <p>6. Arroko organismoaren aurretiazko administrazio baimen espresa behar duten jarduera edo instalazioak, uren eta hondar produktuen, isurkarien, solidoen edo beste edozertarikoen 3. motako isurketa industrialak egiten dituztelako, zuzenean edo zeharka, ur kontinentaletan edo jabari publiko hidraulikoaren beste edozein elementutan.</p> <p>7. 100.000 biztanle baliokide baino gehiagoko edukiera duten hondar uren araztegiak.</p> <p>(*) Uztailaren 20ko 1/2001 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Uren Legearen testu bateratuko Atariko, I., IV., V., VI., VII. eta VIII. tituluek garatzen duten Jabari Publiko Hidraulikoaren Arautegia onartzen duen apirilaren 11ko 849/1986 Errege Dekretuaren IV. eranskinaren arabera (Isurketen kontrol kanona handitzeko edo gutxitzeko koefizientearen kalkulua).»</p>	
EHNE-EUSKAL HERRIKO NEKAZARIEN ELKARTASUNA	Purina hondakina ez dela deritzogu, ezpada ongarri organiko natural bat. Abeltzain eta nekazarien artean produktu hau berrerabili egiten dute, horrela zikloa itxeko. Ekonomia zirkularraren adibide on bat da.	Azalpen alegazio bat da	Azalpen-alegazioa	
BERMEOKO UDALA	I.B eranskin berria, «Ingurumen-baimen bakarraren menpeko instalazioak», uste dut <u>modu generikoegian</u> formulatuta dagoela eta uste dut zalantza asko sortuko dituela udaletan jarduera bat	Eranskinak bere epigrafeetan IBBren mendean egon behar duten jarduerak nahikoa xehetasun mailaz esaten duela ulertzen da.	Ez da onesten	
		Araugintza mailan, eta Lege maila duen arau bati irautea		

		<p>ingurumen baimen horren menpean dagoen ala ez dagoen jakiterakoan, eta, beraz, udalean ala EAeko ingurumen organoan izapidetu behar den erabakitzerakoan. Eta horrekin, udaletara heltzen diren jarduera espediente asko sistematikoki Eusko Jaurlaritzara bidaliko dira argitu dezan eranskin horretan sartuta dauden ala ez, eta horrek atzerapen eta burokratizazio gehigarria ekar dezake lizentzien izapideetan.</p> <p>7. atala bereziki adierazgarria da eranskinaren zehaztasunik eza muturrekoa dela erakusteko: «7.- EAeko ingurumen organoaren irizpidez ingurumenean eta pertsonen osasunean antzeko ondorioak izan ditzaketen beste jarduerak». Nola jakin dezake udal batek zein den irizpide hori, Eusko Jaurlaritzari itaunduta ez bada edo sustatzaileari berak zuzenean galdetzeko esanez ez bada?</p>	<p>dagokiola berez, honelako arau irekiak edo sistemak ixteko klausulak sartu beharra egoten da, betiere egoera posibleen zerrenda itxi bat edo <i>numerus clausus</i> zehaztea ezinezkoa bada.</p>	
--	--	---	---	--

I.C ERANSKINA. JARDUERA SAILKATUAREN LIZENTZIAREN MENDEAN DAUDEN JARDUERA ETA INSTALAZIOAK.				
ERANSKIN A	ALEGATZAILEA	ALEGAZIOAREN LABURPENA	INGURUMEN SAILBURUORDETZAREN ANALISIA	AUKERA
	D. JAAS	<p>5 eta 6 epigrafeak honela araututa geratzea proposatzen du:</p> <p>5. Azaleko tratamenduak edo bernizatze edo pintatze lanak pistolaz egiten dituzten lantegiak eta antzekoak.</p> <p>6. Lantegiak eta (aroztegiak, galdaragintzakoak, ibilgailu motordunen eta antzekoen mantentze eta konponketa lantegiak, muntatze-lantegiak, mekanizaziokoak, ogi-lantegiak, gozogintzakoak, catering...), instalatutako potentzia guztira 25 kW edo handiagoa bada (potentzia mekanikoa eta elektrikoa, argiari dagokiona salbuetsita) eta ekoizpenerako erabiltzen den azalerak 300 m² gainditzen badu.</p> <p>Zaratari buruzko atala 15. epigrafetik kentzea proposatzen du, ekipo musikal kontzeptua gaur egun ez delako erabiltzen. Gaur egun soinua erreproduzitzeko sistema ugari daude, antzinako amplifikazio formatua jarraitzen ez dutenak, eta potentzia gorabehera berdintsu erregulatzen dira (soinu ainguraketa...), eta, ostalaritzako jarduera batzuetarako hirigintza arau batzuetan potentzia mugak badaude ere, jarduerarik gehienetarako (gimnasioa, dantza eskolak, saltoki eta dendak...) ez daukate beste mugarik ainguraketa edo lokalaren isolamenduaren soinu muga baino (213/2012 Dekretua).</p> <p>Eman zaion idazkeraren arabera gimnasio guztiak daude instalazio-lizentziaren izapidera behartuta jolas-jardueretan sartuta daudelako</p>	<p>Alegazioa partzialki onartzen da.</p> <p>Lantegiak hurrengo epigrafera aldatzen dira, ibilgailu motordunak eta antzekoak konpondu eta mantentzeko lantegiak lizentzia erregimenean mantentzea beharrezkotzat jotzen delako, kontuan izanez gero jarduera horietan erabiltzen diren substantzia arriskutsuak. Jarduera hauen potentzial kutsagarriak jarduera lizentziaren erregimena eskatzen du, eta ez aurretiazko komunikazioaren erregimena 6. ataleko beharkizunak beteko balira.</p> <p>Eta/edo juntagailua ezabatzeari buruzko alegazioa onartu egiten da. Idazkeran «eta» erabiliko da, eta horrela kasu biak batera gertatu behar dira.</p> <p>Lehenik eta behin, aurretiazko komunikazioaren erregimenean egoteko, jarduera sailkatu bat izan behar du, hau da, ingurumenean eragina izateko edo gogaikarria izateko modukoa, beraz, ez daude A, B eta C ataletan sartu gabeko jarduera guztiak jarduera sailkatuaren aurretiazko komunikazioaren izapidea betetzera behartuta.</p> <p>Horregatik, aurretiazko komunikazioaren mendeko instalazio eta jardueren eranskinak erregimen hori aplikatu behar zaienak jaso</p>	Partzialki onesten da

		<p>(JJJL) eta antzekotasunagatik gainerako jardueretara zabaldu daiteke (musika-eskolak, dantza-eskolak, arropa-dendak...), potentzia hori oso balio txikia denez, ia jarduera guztiek gainditzen dutelako. Eta lokal hauek isolamendu mailaren eta soinu ainguraketaren arabera erregulatzen direnez, ez dirudi arrazoizkoa jarduera lizentziako izapidearen mendean jartzea potentzia eraginkorraren parametroagatik.</p> <p>Ingurunean duen eraginak ere, baldintza akustikoak betez gero eta gehienetan egunez funtzionatzen dutelako, ez du iradokitzen jarduera lizentzia izapidetzeko behar litzatekeen ondorioak izaten dituenik jarduera mota honek (dantza eskolak, saltokiak eta dendak...).</p> <p>3.- Edozein jarduera instalatzeak oinarrizko araudi sektorial bat bete beharra dakarrenez (higiene eta osasungarritasun baldintzak, suteen aurka babesteko baldintzak...) eta horrek araudi sektoriala betetzen duela bermatzeko ziurtagiri tekniko bat dakarrenez, 1.0 (Jarduera sailkatuaren aurretiazko komunikazioaren mendeko instalazio eta jarduerak) eranskinaren idazkerak aurreko (I.A, I.B eta I.C) ataletan sartu ez diren jarduera guztiak sartu behar ditu berariazko zerrendarik eduki gabe. Hau da, A, B eta C ataletan sartuta ez dagoen edozein jarduera aurretiazko komunikazioaren izapidearen mendean dago.</p>	<p>behar ditu.</p> <p>Zaratari dagokionez, onartzen da alegazioa eta ezabatzen da musika-ekipoen erreferentzia.</p>	
	<p>GEOLOGOEN ELKARGO OFIZIALA</p>	<p>1.- Lur betelane baimen edo lizentzia motari buruz</p> <p>Lege berrian ondorengo ondo argituta geratzea eskatzen da:</p> <p>I.C eranskinean (jarduera sailkatuaren lizentziaren mendean dauden</p>	<p>Alegazioa onartzen da eta epigrafe bat eransten da edukiera txikiagoko betelanez aurretiazko komunikazioaren eranskinean, idazkera honekin:</p> <p>Urtebete baino gutxiago irauten duten 500.000 m³-rainoko</p>	<p>Onesten da</p>

		<p>jarduera eta instalazioak) esaten da:</p> <p><i>10. Urtebete baino gehiago irauten duten 500.000 m³ baino edukiera handiagoko lur eta arrokazko betelanak, azpiegitura linealeko obrei lotuak izan ezik.</i></p> <p>IC eranskineko beste jarduera mota batzuk ez bezala, ID eranskinean berriro errepikatzen baitira atalase txikiagoekin, ID eranskin honetan (jarduera sailkatuaren aurreiazko komunikazioaren mendeko instalazio eta jarduerak) ez da sartzen esandakoa baino edukiera txikiagoko betelanik. Hala da? Edukiera txikiagoko betelanak ez daude jarduera sailkatuaren aurreiazko komunikazioaren mendean?</p>	<p>edukierako lur eta arrokazko betelanak, azpiegitura linealeko obrei lotuak izan ezik.</p>	
ACLIMA	<p>Jardueretako batzuetan dimentsioaren atalasea ezartzea proposatzen da, eta horien azpitik aurreiazko komunikazioa aplikatuko litzateke. Adibidez, 4, 6, 7 eta 12 jardueretan.</p> <p>2 jarduera eranskin honetan sartu behar den aztertzea proposatzen da.</p> <p>16 jardueran, adierazten diren jardueri, «lurzoru ez-urbanizagarrian edo hiri-lurzoru industrialean kokatuta» ez daudenean, zein baimen-erregimen aplikatu behar zaien zehaztea proposatzen da</p>	<p>Ez da teknikoki egokitzat jotzen alegazio horiek onartzea.</p>	<p>Ez da onesten</p>	
ASTIGARRAGAKO UDALA	<p>Kapitulu-aldaketa. Ostalaritzako saltoki guztiak, jatetxeak eta jendaurreko ikuskizunetarako eta jolas ekitaldietarako beste leku batzuk jarduera sailkaturako lizentziaren mendeko saltoki eta jardueratzat hartuko dira.</p> <p>Bai pertsonengan bai ingurumenean duten eraginagatik. Honelako</p>	<p>Teknikoki egokiagoztat jotzen da dauden atalaseak mantentzea eta jarduera guztiak berdin ez tratatzea.</p> <p>Arau honek agintzen duenaren aurkakoa ez den neurrian, ekainaren 11ko 171/1985 Dekretuak indarrean dirau, nahiz eta</p>	<p>Ez da onesten</p>	

		<p>jarduerak igorpen kutsakorren iturri izaten dira.</p> <p>Ekainaren 11ko 171/85 DEKRETUA, etxebizitzetarako hiri-lurretan jartzekoak diren Ekintzapide Nekagarri, Osasunkaitz, Kaltegarri eta Arriskutsuekin erabili beharreko Teknikazko Arauak ontzat ematen dituena.</p> <p>Dekretua indargabetzea. <u>Zaratak eta dardarak</u> kapitulua zaharkituta geratu da, oro har.</p> <p>Astigarragako Udalak ez du ontzat hartzen «erantzukizunpeko adierazpena» prozedura berria.</p>	<p>edukietako batzuk eguneratu gabe dauden.</p>	
PASAIKO UDALA	<p>10. atala aldetzea eskatzen da, eta betelan mota guztiak sartzea (edukiera, ustialdia eta lotura gorabehera) jarduera lizentziaren mendeko jarduera moduan, lursailen alterazio morfologikoak direlako, eta, edukiera gorabehera, pertsonentzat eta ingurumenerako arrisku bat direnez ingurumenaren aldetik aurretiatzko kontrola behar dute.</p> <p>Horrela, 10. atala honela idatzita geratuko litzateke.</p> <p><i>10. Lur eta arrokozko betelanak, azpiegitura linealeko obrei lotuak izan ezik.</i></p> <p>Beraz, horren ondorioz, Hondakinak hondakindegietan biltegitatuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duen otsailaren 24ko 49/2009 Dekretuaren 26.1 artikulua aldatu beharko da.</p> <p>Halaber, 15. atala aldatzea eskatzen da, jendaurreko ikuskizun et jolas-jardueren establezimenduei buruzkoa, bereziki musika ekipoaren potentziari buruzko atala. Kasu honetan, musika-ekipoen potentzia</p>	<p>Ez da alegazioen izapide honen helburua beste ingurumen-dekretu sektorial batzuen birtualtasunaz hausnartzea.</p> <p>Aurretiatzko komunikazioaren erregimenean sartu dira jarduera lizentzia behar dutenak baino munta txikiagoko betelanak.</p> <p>Zaritari dagokionez, onartu da aurreko alegazio bat eta ezabatuko da musika-ekipoen erreferentzia.</p>	<p>Ez da onesten</p>	

	<p>jardueraren adierazgarri ez dela pentsatzen da, eta parametro adierazgarriagoa, kontrolaerrazagoa eta lokaleko gehieneko zarata-igorpen maila mugatzeko errazagoa; muga hori, Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuaren I. eranskineko taularen arabera, 85 dBA izan beharko litzateke. Horregatik eskatzen da 15. atala honela idaztea:</p> <p><i>15. Jendaurreko ikuskizunetarako edo jolas-jardueretarako beste establezimendu batzuk, beti ere, kasu guztietan, ondorengo baldintzaren bat betetzen badute:</i></p> <ul style="list-style-type: none"> - 300 pertsonako edo gehiagoko edukiera izatea. - 85 dBA zarata-igorpen maila gaindi dezakeen musika ekipoa edukitzea. - indarrean dagoen araudi teknikoaren arabera arrisku berezi handikotzat katalogatutako esparruren bat edukitzea. - balio kultureko eraikinak izateagatik orokorrean ezarritako baldintza teknikoak guztiz ezin bete izateko moduko ezaugarri arkitektonikoak edukitzea. - erregimen bereziko establezimenduak izatea, ikuskizun eta jolas-jardueren araudiaren arabera. 		
HERNANIKO UDALA	<p>1.C eranskinean jarduera sailkatuaren lizentzia behar duten jarduera eta instalazioak zerrendatzen dira. Horien artean, 6. puntuan honela dio:</p> <p>«Lantegiak eta (aroztegiak, galdaragintzakoak, muntatze lantegiak,</p>	<p>Segurtasunari buruzko zertzeladek eta sute arriskuak euren kontrol erregimena dute eta ez da beharrezkotzat jotzen lege honetan balioespen irizpidetzat hartzea. Euskal Omnibus Legea indarrean hastearekin egin zen aldaketan, sute karga, adibidez,</p>	<p>Ez da onesten</p>

	<p><i>mekanizaziokoak, ogi lantegiak, gozogintzakoak, catering...), instalatutako potentzia guztira 25 kW edo handiagoa bada (potentzia mekanikoa eta elektrikoa, argiari dagokiona salbuetsita) eta/edo ekoizpenerako erabiltzen den azalera 300 m² gainditzen badu».</i></p> <p>Amaieran hau eranstea proposatzen dut: «...sute-sektore bakoitzaren su-karga orotara 200 Mcal/m² baino gehiago bada». 6. puntua honela idatzita geratuko litzateke:</p> <p>«Lantegiak eta (aroztegiak, galdaragintzakoak, muntatze lantegiak, mekanizaziokoak, ogi lantegiak, gozogintzakoak, catering...), instalatutako potentzia guztira 25 kW edo handiagoa bada (potentzia mekanikoa eta elektrikoa, argiari dagokiona salbuetsita) eta/edo ekoizpenerako erabiltzen den azalera 300 m² gainditzen badu; eta sute-sektore bakoitzaren su-karga orotara 200 Mcal/m² baino gehiago bada».</p> <p>Era berean, I.C eranskineko 10. puntuan hau dio:</p> <p><i>«Urtebete baino gehiago irauten duten 500.000 m³ baino edukiera handiagoko lur eta arrokazko betelanak, azpiegitura linealeko obrei lotuak izan ezik».</i></p> <p>Idazkera horren ordez, beste hau proposatzen dut: «Lur eta arrokazko betelanak, azpiegitura linealeko obrei lotuak izan ezik»; izan ere, betelanak, irauten dutenagatik eta izaten duten m³ kantitateagatik, beti ekartzen dituzte arazoak, kalteak eta ustekabe handiak.</p> <p>I.C eranskineko 15. puntuan, bestalde, ostalaritzako saltokiak,</p>	<p>kendu egin zen irizpide gisa jarduera bat ingurumen esku-hartze erregimen bataren edo bestearen mendean egon behar duen erabakitzeke</p> <p>Betelaren arloan beharrezkoa da bai edukieraren atalaseari eustea bai betetzeko erabiltzen den denborari eustea. Zenbat eta denbora gehiago iraun betelanean, orduan eta ingurumen-eragin handiagoak, berariazko gaikuntza titulu baten bidez zuzentzeko.</p> <p>Berariazko epigrafe bat jasoko da jarduera sailkatuaren aurretiazko komunikazioaren erregimenean sartuta egon behar duten betelanak erregulatzeko.</p> <p>Zaratari dagokionez, onartu da aurreko alegazio bat eta ezabatuko da musika-ekipoen erreferentzia.</p>	
--	--	--	--

		<p>jatetxeak eta jendaurreko ikuskizunetarako eta jolas-jardueretarako beste leku batzuk eta bestelakoak aipatzen dira, betiere baldintza hauek betetzen badira: Baldintza horien artean, bigarrena hau da:</p> <p>«4 ohmeko karga estandar baterako 50 watt baino gehiagoko potentzia eraginkor bat edukitzea».</p> <p>Izatez, aitzitik, tabernatarako saltokien proiektuetan ez da ematen datu hori. Horregatik, hau zehaztea proposatzen da:</p> <p>«85 dBA baino zarata-igorpen maila handiagoa duten musika ekipoak edukitzea»</p>		
EHNE-EUSKAL HERRIKO NEKAZARIEN ELKARTASUNA	<p>3. puntua</p> <p>100 kW baino potentzia instalatu handiagoko instalazio argindar-ekoizleak.</p> <p>Instalazio ekoizleak berriztagarriak badira (eguzki plakak, eolikoak...), potentzia instalatua gorabehera, uste dugu ez litzatekeela beharrezkoa izango jarduera sailkatuaren lizentzia eskatzea, ingurumenean ez daukatelako eragin esanguratsurik. Nahikoa litzateke aurretiazko komunikazio bat, 50 kW baino gehiagokoetan.</p> <p>10. puntua</p> <p>Urtebete baino gehiago irauten duten 500.000 m³ baino edukiera handiagoko lur edo arrokazko betelanak, azpiegitura linealeko obrei lotuak izan ezik.</p> <p>Salbuespena kentzea eskatzen dugu. Uste dugu obra publiko guztiei</p>	<p>Energia berriztagarri guztiak euren ingurumen-eraginaren ikuspegitik kalte gabeak ez direnez, baztertu egiten da alegazioa.</p> <p>Betelanei dagokienez, alegatzaileak salbuespentzat aipatzen duena, esan beharra dago ez dela jarduerak ingurumen-kontrolarik salbuestea.</p> <p>Gaikuntza titulua emateko eskumena zein administrazio publikorena izan behar den baino ez da aipatzen. Betelanan kasu honetan, Eusko Jaurlaritza edo foru aldundiak.</p>	Ez da onesten	

		<p>eta azpiegitura handiei prozesua errazten dien bide bat dela.</p> <p>16. puntua</p> <p>Ikusi 94. artikuluari egindako ekarpenak.</p>		
	<p>INGENIARI INDUSTRIALEN ELKARGO OFIZIALA</p>	<p>I.C eranskinako 6. punturako eta I.D eranskinako 2. punturako «eta/edo» juntagailua erabiltzea aukeratu izanak interpretazio arazo bat planteatzen du lantegiei-eta aplikatu beharreko muga ezartzeko.</p> <p>I.C eranskinako 6. puntuan «edo» juntagailua eta I.D eranskinako 2. puntuan «eta» juntagailua erabiltzea proposatzen da, horrela argi eta garbi bereiziz baten eta bestearen artean.</p>	<p>Eta/edo juntagailua ezabatzeari buruzko alegazioa onartu egiten da. Idazkeran «eta» erabili da, eta horrela kasu biak batera gertatu behar dira.</p>	<p>Partzialki onesten da</p>

	<p>BILBOKO UDALA</p>	<p>Epigrafe hauek aldatzea eskatze du:</p> <p>5. Azaleko tratamenduak edo berrizatzeko edo pintatzeko lanak pistolaz egiten dituzten lantegiak eta antzekoak, bai eta ibilgailu motordunen eta antzekoen mantentze eta konponketa lantegiak ere.</p> <p>6. Lantegiak eta (aroztegiak, galdaragintzakoak, muntatze lantegiak, mekanizaziokoak, ogi lantegiak, gozogintzakoak, catering...), ibilgailu motordunak eta antzekoak mantendu eta konpontzeko lantegiak, instalatutako potentzia guztira 25 kW edo handiagoa bada (potentzia mekanikoa eta elektrikoa, argiari dagokiona salbuetsita) eta/edo ekoizpenerako erabiltzen den azalera 300 m² gainditzen badu.</p> <p>7. Biltegiak, jarduerak edo instalazioak, merkataritza (Supermerkatuak 2.500 metro koadroko merkataritza azalera aurrera).</p>	<p>Onartu egiten da alegazioaren parte bat.</p>	<p>Partzialki onesten da</p>
--	----------------------	--	---	------------------------------

I.D ERANSKINA. JARDUERA SAILKATUAREN AURRETIAZKO KOMUNIKAZIOAREN MENDEAN DAUDEN JARDUERA ETA INSTALAZIOAK.				
ERANSKIN A	ALEGATZAILEA	ALEGAZIOAREN LABURPENA	INGURUMEN SAILBURUORDETZAREN ANALISIA	AUKERA
	HERNANIKO UDALA	<p>I.D eranskinean, bestalde, jarduera sailkatuaren aurretiazko komunikazioaren mendean dauden jarduera eta instalazioak zerrendatzen dira. Zerrenda horretako 7. puntuan hau dio:</p> <p><i>«Hotelak eta komunitate-egoitzak, adinekoen egoitzak, apopilo-etxeak eta antzeko lokalak».</i></p> <p>Zerrenda horretan ondorengoak ere jasotzea proposatzen dugu: pentsioak, aterpeak, nekazaritzako turismo etxeak eta gurtza (edo adorazio) etxeak, eta 7. puntua honela idatzita uztea:</p> <p><i>Hotelak, pentsioak, aterpeak, nekazaritzako turismo-etxeak, komunitate-egoitzak, adinekoen egoitzak, apopilo-etxeak, gurtza (edo adorazio) etxeak eta antzeko lokalak.</i></p>	Alegazioa partzialki onartzen da.	Partzialki onesten da
	EHNE-EUSKAL HERRIKO NEKAZARIEN ELKARTASUNA	<p>1. puntua</p> <p>Aurretiazko komunikazioa eskatzen dugu 50 kW baino gehiagoko potentzia duten berriztagarrietarako.</p> <p>9. puntua</p> <p>Ikusi 94. artikuluari egindako ekarpenak.</p> <p>10. puntua</p>	<p>Energia berriztagarri guztiak euren ingurumen-eraginaren ikuspegitik kalte gabeak ez direnez, baztertu egiten da alegazioa. Ez da onartzen alegazioa.</p> <p>Planteatutako zalantzak ezin dira aztertu, berez ez direlako alegazioak.</p>	Ez da onesten

		<p>Transformazio zentroak. Kasu honetan ez dago potentzia-mugarik ez ekoizpenerako erabilitako azaleraren mugarik.</p> <p>Zalantzak sortzen dira jarduera batzuk sailkatzeko, esate baterako:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Landaguneko artisauekin okindegiak - Landaguneko esne pasteurizazioa - Jogurta eta beste esneki batzuk egitea - Landare kontserbak egitea <p>Nekazaritza /eta edo abeltzaintza ustiapenen jarduera osagarrietarako aurretiazko komunikazioa nahikoa izango litzatekeela deritzogu.</p>		
	BERMEOKO UDALA	<p>5. atalak, «Ibilgailuen gordelekuak», orain duen idazkeran arazoak sortzen ditu, beraz epigrafe hau hobeto zehaztea proposatzen da.</p> <p>Etxebizitzetarako hiri-lurretan jartzekoak diren Ekintzapide Nekagarri, Osasunkaitz, Kaltegarri eta Arriskutsuekin erabili beharreko Teknikazko Arauak ontzat ematen dituen ekainaren 11ko 171/85 Dekretuaren arabera, 4.1 artikuluan dio «100 metro koadrotik gora gabeko ibilgailu-gordetegietan ez da ekintzapide-baimenik behar».</p> <p>Beraz, jarduera lizentzia behar dute azalerak 100 m² baino gehiago badauka. Bestalde, eraikingintzaren kode teknikoak (EKT), SS Oinarrizko Dokumentuan (segurtasuna sutearen kasuan), definizioen atalean, aparkaleku erabilera honela definitzen du: «<i>ibilgailuak aparkatzeko erabiltzen den eraikina, lokala edo beste erabilera nagusi baten gune independente edo osagarria eta azalera eraikia 100 m² baino handiagoa duena (...)</i>». Halaber, Meategi zuzendariaren 2006ko</p>	Onartu egiten da proposatutako alegazioa.	Onesten da

		<p>apirilaren 27ko Ebazpenak, Behe Tentsiorako Elektroteknia Arautegiko ITCBT-29 Jarraibide Teknikoa aplikatzeko jarraibideak ematen dituenak, garajeen (=ibilgailu-gordelekuak) segurtasun elektrikoari eta haizeberritzeari dagokionez, 1. atalean, Definizioak, hau ezartzen du: «Ebazpen hau aplikatzearen ondorioetarako garajetzat joko da 5 ibilgailu baino gehiago aparkatzeko lekua daukan lokal edo eraikin-zona oro». Babes ofizialeko etxebizitzaren diseinurako ordenantzak onartzen dituen 2009ko otsailaren 12ko Aginduaren 7. artikuluan, Garajeei eskatu beharreko baldintzak, aparkatzeko leku bakoitzerako eta errodadura pasabiderako ezarritako gutxieneko dimentsioak kontuan hartuta, kalkulu egokiak eginez gero, 5 ibilgailu aparkatzeko, gutxienez 106,58 m²-ko azalera behar da. Horregatik guztiagatik, 5. atala honela birdefinitzea planteatzen da. «Azalera eraikia 100 m² baino handiagoa duten ibilgailu-godelekuak».</p>		
	INGENIARI INDUSTRIALEN ELKARGO OFIZIALA	<p>I.C eranskineko 6. punturako eta I.D eranskineko 2. punturako «eta/edo» juntagailua erabiltzea aukeratu izanak interpretazio arazo bat planteatzen du lantegiei-eta aplikatu beharreko muga ezartzeko.</p> <p>I.C eranskineko 6. puntuan «edo» juntagailua eta I.D eranskineko 2. puntuan «eta» juntagailua erabiltzea proposatzen da, horrela argi eta garbi bereiziz baten eta bestearen artean.</p>	Onartu egiten da proposatutako alegazioa.	Onesten da
	BILBOKO UDALA	<p>Erantzukizunpeko adierazpenaren erregimenari lotutako jarduera kaltegabeen buruzko beste eranskin bat sartzea proposatzen da.</p> <p>Ondorioz, aldaketak proposatzen ditu I.D eranskinean, jarduera horietako batzuk proposatu den erantzukizunpeko adierazpenaren</p>	<p>Ez da beharrezkotzat jo proposatu den erregimen berria sartzea. Ez dago adostasunik udalen artean neurri berri horren beharraz.</p>	Ez da onesten

		beste erregimenera eramateko		
--	--	------------------------------	--	--

II.C ERANSKINA. INGURUMEN-ERAGINAREN EBALUAZIO ARRUNTAREN MENDEKO PROIEKTUAK				
ERANSKIN A	ALEGATZAILEA	ALEGAZIOAREN LABURPENA	INGURUMEN SAILBURUORDETZAREN ANALISIA	AUKERA
	MICHELIN	<p>Ez da argi geratzen proiektu bat zer den (enpresa beraren barruko aldaketa bat den, aldaketaren IPPC kontzeptuaren baliokidea, ala enpresa berriaren edo instalazio berriaren kanpoko proiektua).</p> <p>Beraz, ez da argi geratzen IB Integratua edo IB Bakarra duen jarduera baten funtsezko aldaketa batek edo funtsezkoa ez den aldaketa batek (aldatzeko barne proiektu bat daukala) IEE izapidea ere barne hartzen duen.</p>	<p>Alegazio hau eta aurkeztu diren beste batzuk kontuan hartuta, eranskin hau guztiz aldatu da.</p> <p>Kasu honetan, azalpen-alegazio bat da</p>	Azalpen-alegazioa
	IBERDROLA	<p>Jardueren edo jarduera-atalen definizioetan «transmisio» kontzeptua, argindarraren «transmisio-lineak», erabiltzeak ez du argitzen garraio lineez (Espainian esaten zaien moduan) ala banaketa lineez ari den, ala biei buruz.</p> <p>Europako argindar terminologian, transmisio linea beti lotzen zaio garraio lineari, baina aurreproiektuaren interpretazio integratzaile bat egiten saiatuz gero, ez dago argi zein den legegile autonomikoak egin duen aukera.</p>	<p>Alegazio hau eta aurkeztu diren beste batzuk kontuan hartuta, eranskin hau guztiz aldatu da.</p> <p>Kasu honetan, azalpen-alegazio bat da</p>	Azalpen-alegazioa
	GEOLOGOEN ELKARGO OFIZIALA	<p>Lur betelanan definizioari eta eraginaren ebaluazioa egin beharrari dagokionez</p> <p>Lege berrian ondorengoa ondo argituta geratzea eskatzen da.</p>	<p>Alegazio hau eta aurkeztu diren beste batzuk kontuan hartuta, eranskin hau guztiz aldatu da.</p>	Onesten da

		<p>IIC eranskinean (IEE arrunta) 9. taldean sartzen dira:</p> <p><i>a) Ondare Naturalaren eta Biodibertsitatearen abenduaren 13ko 42/2007 Legearen arauen arabera, Naturagune Babestuetan, Natura 2000 Sarean eta nazioarteko tresnek babestutako eremuetan garatzen direnean, proiektu hauek:</i></p> <p><i>1.- I. eranskin honetako 8. taldean sartuta ez dauden hondakin ez-arriskutsuen zaborteak, eta hondakin inerteenak edo ibaiko, lurreko edo itsasoko erauzkinak 1 ha-ko azalera baino gehiago hartzen badute.</i></p> <p>Erauzte jardueri dagokienez</p> <p>Behin eta berriro eta ingurumenari eta/edo lurralde antolamenduari buruzko beste xedapen batzuetan bezala, IIC (IEE arrunta) eranskinaren barruan, irizpide batzuk ematen dira bakar-bakarrik erauzte jarduera eta industrien kasuan (2. taldea):</p> <p><i>a) Meategien uztailaren 21eko 22/1973 Legeak araututako ustiapena duten A, B, C eta D sailtako zerupeko meatze eta gainerako baliabide geologikoen baimen edo emakida bereko ustiapen eta fronteak, ondorengo inguruabarren bat gertatzen denean:</i></p> <p>5. Autobide, autobia, errepide nazional eta eskualdekoetatik, naturagune babestuetatik edo 1.000 biztanle baino gehiagoko hiriguneetatik ikusten diren ustiategiak edo hirigune horietatik 2 km baino distantzia laburragoan kokatuta daudenak.</p> <p>Ez da aurkitu beste jarduera edo industriarik inolako erreferentzia</p>		
--	--	--	--	--

		<p>egiten zaionik, errepideetatik eta abar ikus badaiteke, IEE arrunta behar duela agintzen denik. Ez da ulertzen zergatik hartzen diren bakarrik erauzte jarduerak garrantzi berezi eta bakaneko jardueratzat ikusgaitasunari dagokionez, bestelako jarduera (industrialak eta industrialak ez direnak) mordo batek izan dezaketenean, eta izan ere badutenean, mota horretako eragin handiagoa.</p> <p>2a) taldeko 5. paragrafo hau osorik ezabatzea iradokitzen da edo, bestela, gainerako jarduera edo industriei ikusgaitasun kontzeptu bera aplikatzea.</p>		
GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA	<p>- 21/2013 Legearen I. eranskineko 6.a.1 taldearen ordezkari (3/1998 Legearen LB eranskineko 1.1 atala) hau jartzea: Trazatu berriko autobide, autobia, bide arin eta errepide konbentzionalen eraikuntza, hiriguneetako zeharbideak kentzeko saihasbideak barne.</p> <p>- 21/2013 Legearen I. eranskineko 6.a.2 taldearen ordezkari (3/1998 Legearen IB eranskineko 1.1 atala) hau jartzea: Autobide, autobia, bide arin eta errepide konbentzionalen eta lehenagotik zeuden saihasbideen lerroak zabaltzea eta trazatua aldatzea 2 km baino gehiagoko luzera jarraituan edo 4 km baino gehiagoko luzera etenean.</p> <p>- 21/2013 Legearen I. eranskineko 6.b.2 taldearen ordezkari (3/1998 Legearen IB eranskineko 1.2 atala) hau jartzea: Lehenagotik zeuden burdinbideen plataformak zabaltzea eta trazatua aldatzea 2 km baino gehiagoko luzera jarraituan edo 4 km baino gehiagoko luzera etenean.</p> <p>21/2013 Legearen I. eranskineko 7. taldean luzeragatik ingurumenean ondorio handiak (landaredi interesgarriari kalte, kalte geomorfologikoa</p>	Alegazio hau eta aurkeztu diren beste batzuk kontuan hartuta, eranskin hau guztiz aldatu da.	Partzialki onesten da	

		<p>eta abar) sor ditzaketen distantzia luzeko ur eroanbideak, eta, hala ere, 7.c epigrafearen definizioaren barruan sartuko ez liratekeenak (ibai arroen artean ur baliabideak aldatzeko obrak): «Distantzia luzeko ur eroanbideen instalazioak, luzera 10 kilometro edo gehiago bada, eta horien instalazio lagungarriak (ponpatzea, araztea eta abar)».</p> <p>- 21/2013 Legearen I. eranskineko 3.I taldearen ordezkari (3/1998 Legearen IB eranskineko 3.3 atala) hau jartzea: 5 haize-sorgailu edo gehiago dituzten parke eolikoak, guztira 10 MW-eko potentzia edo handiagoa dutenak. Beste parke eoliko batetik 2 km baino hurbilago kokatuko diren parke eolikoak, betiere, elkarrekin dituzten neurriak kontuan hartuta, aurreko atalaseak berdintzen edo gainditzen badituzte. Edozein neurritako parke eolikoak, osorik edo zati batean paisaia bakan eta bikaintzat aitortutako eremuetan edo paisaia aldetik katalogatutako eremuetan kokatzen badira.</p> <p>104/2002 DEKRETUA, maiatzaren 14koa, Euskal Autonomia Erkidegoan Energia Eolikoaren Lurraldearen Arloko Plana behin betiko onartzen duen maiatzaren 14ko 104/2002 Dekretuaren I. eranskineko 1. artikuluan parke eolikotzat definitzen diren instalazioak hartuko dira parke eolikotzat.</p> <p>- 21/2013 Legearen I. eranskineko 3.I taldea ordezkari (3/1998 Legearen IB eranskineko 3.3 atala): 1 hektarea edo gehiago okupatzen duten energia fotovoltaikoko instalazioak. Titular beraren edo desberdinaren instalazioak, nahiz eta azalera txikiagoa okupatu, barne hartuta daudela ulertuko da baldin beste instalazio fotovoltaiko baten mugakide badira, instalazio guztiek hartzen duten azalera osoa</p>		
--	--	--	--	--

		<p>1 hektarea edo gehiago bada.</p> <p>Baztertuta daude lursail urbanizatu finkatuetan kokatzen diren energia fotovoltaiako instalazioak, edota aurretik bazeuden eraikinetan.</p> <ul style="list-style-type: none"> - 21/2013 Legearen I. eranskineko 3.g taldearen ordezkari (3/1998 Legearen IB eranskineko 3.4 atala) hau jartzea: 3 km-ko luzera edo handiagoa duten argindar linea berrien eraikuntza proiektuak, ez doaz oso-osorik lurzoru urbanizatuko lurpetik, eta horiei lotutako subestazioak. - 21/2013 Legearen I. eranskineko 3.g taldearen ordezkari (3/1998 Legearen IB eranskineko 3.4 atala) hau jartzea: Jariakin motako erregai fosilerako (gas, petrolio eta abar), lurrun eta ur berorako eta gai kimikoetarako hodiak, ponpatzeko estazioak barne, 5 km edo gehiagoko luzera badute. <p>21/2013 Legearen I. eranskineko 9. taldean (Beste proiektu batzuk, baina gune babestuetatik kanpora) 3/1998 Legearen IB eranskineko 10. epigrafean zehaztutako proiektuak sartu, dagozkien atalaseekin, adibidez: Kanpinak, X hektareako azalera edo handiagoa dutenak eta/edo eremuaren ezaugarrien arabera; Su-armazko tiro-zelaiak, X hektareako azalera edo handiagoa dutenak eta/edo eremuaren ezaugarrien arabera; Golf-zelaiak, X hektareako azalera edo handiagoa dutenak eta/edo eremuaren ezaugarrien arabera; landu gabeko eremuak edo eremu erdinaturalak nekazaritza-ustiapenerako edo baso-zur ustiapenerako erabiltzeko proiektuak, X ha baino azalera handiagoa okupatuko badute eta/edo eremuaren ezaugarrien arabera.</p>		
--	--	---	--	--

		<p>- Talde honetan (edo 1. taldean, izenburua apur bat aldatuta) 3/1998 Legearen IB eranskineko 5.1 epigrafea sartu: Lehen birlanaketak, eraldaketa ekologiko negatibo larrien arriskua badago (definizio hau konkretatu)</p> <p>- Eta abar.</p>		
BIZKAIKO FORU ALDUNDIA. EKONOMIA ETA LURRALDE GARAPEN SAILA	<p>II.C eranskineko 6. taldeko ekintza sare alternatibo bat proposatzen da, ingurumen-eraginaren ebaluazioaren mendeko azpiegituren proiektuei buruz, <i>Euskal Herriko ingurugiroa babesteko lege otsailaren 27ko 3/1998 Legearen I.B-1</i> eranskinari lotuagoa, proiektu hauek sartzeko:</p> <p>IIC eranskina. 6. taldea.- Azpiegitura-proiektuak</p> <ul style="list-style-type: none"> - Bide-azpiegitura berriak: autobideak, autobiak eta errepide konbentzionalak. - 2 km baino luzera jarraitu handiagoa duten herri-saihesbideak, lurralde-antolamenduko planetan lurzoruaren kalifikaziorik ez badute. - 2 km baino luzera jarraitu handiagoan errepide konbentzional baten trazatua arteztea, lurralde-antolamenduko planetan lurzoruaren kalifikaziorik ez badute. <p>Era berean, II D eranskineko taldeari beste idazkera bat ematea proposatzen da, azpiegitura-proiektuari buruz, 3/1998 Legearen I.C)</p> <p>1.1 eranskinaren arabera:</p>	<p>Alegazio hau eta aurkeztu diren beste batzuk kontuan hartuta, eranskin hau guztiz aldatu da.</p>	Partzialki onesten da	
EKONOMIA	2. taldearen barruan Erauzte industria		<p>Alegazio hau eta aurkeztu diren beste batzuk kontuan hartuta,</p>	Partzialki

	<p>GARAPEN ETA AZPIEGITURA SAILA</p>	<p><u>Proposamena</u></p> <p>«uneko dinamikari lotutako deposituen ustiapena» dioen lekuan.</p> <p>Esan beza «uneko dinamikak sortu edo mantendutako deposituen ustiapena».</p> <p><u>Justifikazioa</u>: «lotutako» terminoa zabalegia denez zehaztugabea da, eta pentsaraz dezake, baliabide geologiko hauen izaerarekin, sorrerarekin eta ingurumen-efektuekin zerikusirik izan gabe, zirkunstantziatzko loturak direla.</p> <p>3. taldearen barruan Energia-industria</p> <p><u>Proposamena</u></p> <p>Hau esaten duen lekuan: «<i>Eguzki-energiatik sarean salduko den argindarra ekoizteko instalazioak, bazeuden eraikinen estalki edo teilatuetan ez daudenak eta 100 ha baino azalera handiagoa okupatzen dutenak</i>».</p> <p>Esan beza: «Eguzki-energiatik sarean salduko den argindarra ekoizteko instalazioak, bazeuden eraikinen estalki edo teilatuetan edo <u>hiri-lurzoruetan</u> ez daudenak eta 100 ha baino azalera handiagoa okupatzen dutenak».</p> <p><u>Justifikazioa</u>: Eguzki-energiarako antzeko beste neurriekin homogeneotasuna lortu.</p> <p>9. taldearen barruan Beste proiektu batzuk</p> <p><u>Proposamena</u></p>	<p>eranskin hau guztiz aldatu da.</p>	<p>onesten da</p>
--	--	--	---------------------------------------	-------------------

		<p>Hau esaten duen lekuan: «Energia hidroelektrikoa ekoizteko instalazioak».</p> <p>Esan beza: «5 MW baino gehiagoko energia hidroelektrikoa ekoizteko instalazioak».</p> <p><u>Justifikazioa</u>: 5 MW da minizentral hidraulikoen eta zentral hidroelektriko handien arteko diferentzia markatzen duen muga, nazioartean onartua.</p> <p><u>Proposamena</u></p> <p>Hau esaten duen lekuan: «Eguzki-energiatik sarean salduko den argindarra ekoizteko instalazioak, bazeuden eraikinen estalki edo teilatuetan ez daudenak eta 10 ha baino azalera handiagoa okupatzen dutenak»</p> <p>Esan beza: «Eguzki-energiatik sarean salduko den argindarra ekoizteko instalazioak, bazeuden eraikinen estalki edo teilatuetan edo hiri-lurzoruetan ez daudenak eta 10 ha baino azalera handiagoa okupatzen dutenak».</p> <p><u>Justifikazioa</u>: Eguzki-energiarako antzeko beste neurriekin homogeneotasuna lortu.</p> <p><u>Proposamena</u></p> <p>Hau esaten duen lekuan: «Energia hidroelektrikoa ekoizteko instalazioak».</p> <p>Esan beza: «100 kW baino gehiagoko energia hidroelektrikoa</p>		
--	--	---	--	--

		ekoizteko instalazioak».		
		<u>Justifikazioa:</u> Instalazio txikiek (batzuk 200-500 W-ekoak izan daitezke) ez dezaten maila honetako izapiderik egin behar.		
	ACLIMA	Berraztertu 5. taldeko atalak, c) faltako litzateke eta: «Ile-larruak eta larruak ontzeko fabrikak, tratatzeko ahalmenak gaintitu egiten badu 12 t azken produktu eguneko» (jarduera hau b atalean baitago).	Alegazio hau eta aurkeztu diren beste batzuk kontuan hartuta, eranskin hau guztiz aldatu da.	Onesten da
	EHNE-EUSKAL HERRIKO NEKAZARIEN ELKARTASUNA	9. TALDEA. BESTE PROIEKTU BATZUK. a) puntua, 2. eta 3. atalak Hektarea kopurua oso txikia dela deritzogu. 20ra handitzea proposatzen dugu.	Alegazio hau eta aurkeztu diren beste batzuk kontuan hartuta, eranskin hau guztiz aldatu da.	Onesten da
	ARABAKO FORU ALDUNDIA. INGURUMEN SAILA	II.C eranskina eta II.D eranskina. Hurrenez hurren, ingurumen-eraginaren ebaluazio arrunta eta ingurumen-eraginaren ebaluazio sinplifikatua egiten zaien proiektuak. 21/2013 Legearen esparru bera jasotzen da, baina Euskal Herriko ingurugiroa babesteko 3/1998 Lege orokorrak horiez gain jasotzen dituen kasuetarik ez da bat ere sartzen. Beraz Euskal Herrian proiektuen IEE aplikatzeko eremua zeharo murriztea proposatzen da, eta hori ingurumenaren babesean ondorio hauetarako oso atzerakada esanguratsua da. Euskadiren ezaugarriak ikusita, funtsezkotzat jotzen da parametro espezifiko edo propio batzuk ezartzea, dimentsio eta ezaugarriengatik ingurune naturalean eragin handikoak izan litezkeen proiektu batzuk ingurumen-ebaluazioaren	Alegazio hau eta aurkeztu diren beste batzuk kontuan hartuta, eranskin hau guztiz aldatu da.	Partzialki onesten da

		<p>mendean jarri ahal izateko. Ildo horretan, I-B eta I-C eranskinetako zerrendak mantendu beharko lirakeela deritzogu.</p> <p>3/1998 Legea oraingo definizioan eta zerrenda horiei gehitu 21/2013 Oinarrizko Legea aplikatzeagatik gainera IEEren mendean jarri behar diren proiektuak.</p> <p>Bereziki, proiektu hauek azpimarratu behar dira, gaur egun 3/1998 Legea aplikatuz IEEren mendean daudenak, Arabako lurralde historikoan duten ingurumen-eraginagatik ingurumen-eraginaren ebaluazioaren mendean jarraitzea beharrezkotzat jotzen baita:</p> <p>Ingurumen-eraginaren banako ebaluazioa (arrunta)</p> <ul style="list-style-type: none"> - Autobide, autobia, bide arin eta errepide konbentzionalen eraikuntza. 2 km baino gehiagoko luzera duten saihesbide eta trazatu-aldaketak, ingurumen-eraginaren ebaluazio bateratuko prozedura pasatu ez duten lurralde-antolamenduko planetan lurzoruaren kalifikaziorik ez dutenak. - Gailurreraino 10 m-ko garaiera gainditzen duten presak, edo 100.000 m³-ko edukiera gainditzen dutenak - Presak handitzea, ur-azalaren gehieneko azalera % 25 edo gehiago handitzea badakar, edo 5 Ha baino gehiagokoa bada - Ibai-bideratzeak eta ibaibideen trazatu-aldaketak, egoera naturalean dagoen ibaibidearen gutxienez 250 m-ko luzeran jardutea badakarte. - Zentral hidroelektrikoak eta euren instalazio erantsiak. - Ibai-arroen artean ur baliabideak aldatzeko obrak, aldatutako ur- 		
--	--	--	--	--

		<p>bolumena urtean 10 milioi metro kubo baino handiagoa bada, edateko ura hodi bidez aldatzea izan ezik.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Sarean konektaturiko eta 100 kW baino potentzia handiagoko parke eolikoak edo energia fotovoltaikoko instalazioak. - Lehen kategoriako (100 kV edo gehiago) argindar-garraioko lineak ETA jariakin motako erregai fosilak, lurruna eta ur beroa garraiatzeko bideak eraikitzeko proiektuak. - Argindarra banatzeko lineak eta argindarraren transformazio-subestazioak eraikitzeko proiektuak, osorik edo zati batean ingurumen sentikorra dagoen eremuetan egiten badira. - Lehen birlanaketak, eraldaketa ekologiko negatibo larrien arriskua badago. - Gas naturala eta petrolioia ateratzeko instalazioak. - Kanpinak, osorik edo zati batean ingurumen sentikorreko eremuetan badaude. - Automobil eta motozikleten lasterketa pista eta zirkuitu finkoak. - Tiro-zelaiak. - Golf-zelaiak. - 1 ha baino gehiagoko azalera duten parke tematikoak. - Lurzoru urbanizaezineko aparkalekuak, 3.000 m²-ko azalera gaitzen badute eta osorik edo zati batean ingurumen sentikorreko eremuetan kokatzen badira. 		
--	--	--	--	--

		<ul style="list-style-type: none"> - Telekomunikazioetarako antena instalazioak eta horietara iristeko bideak, osorik edo zati batean ingurumen sentikorreko eremuetan kokatzen badira. - Lurzoruaren erabileraren eraldaketak, zuhaixka edo zuhaitz estaldura kentzea badakarte eta interes orokorreko azpiegituretarako arrisku potentzial bat badira, eta, nolana ere, eraldaketa horiek 50 ha baino gehiagoko azalerei eragiten badiete. - Urbanizazio-proiektuak, merkataritza-zentroen eraikuntzakoak eta horien aparkalekuenak, 2.000 m²-ko azalera gainditzen badute eta osorik edo zati batean ingurumen sentikorreko eremuetan kokatzen badira. - Aurreko puntuetako proiektuak, metodo edo ekoizkin berriak garatzeko edo probatzeko bakarrik edo batez ere balio badute eta bi urte baino gehiago erabiltzen ez badira. <p>Ingurumen-eraginaren ebaluazio sinplifikatua</p> <ul style="list-style-type: none"> - Errepideetako galtzada bikoiztea eta plataforma zabaltzea. 2 km baino gutxiagoko luzera duten saihebidetako edo trazatu-aldaketak, edo 2 km baino gehiagokoak baldin ingurumen-eraginaren ebaluazio bateratuko prozedura pasatu duten lurralde-antolamenduko planetan lurzoruaren kalifikazioa badute. - Presa txikiei, deribazioei eta hartuneei buruzko proiektuak, aurretik bazeuden hornidura instalazioen, zentral hidroelektrikoen instalazioen eta presa-instalazioen zabalkuntzak edo aldakuntzak 		
--	--	---	--	--

		<p>direnean.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Ibaibideak eta urtegiak garbitzeko draga-lanak. - Presak handitzea, ur-azalaren gehieneko azalera % 25 baino gutxiago handitzea badakar. - Ibai-arroen arteko ur-baliabideen bestelako lekualdatze-obrak. - Zundaketak, zulaketak edo hobi pedologikoak behar dituzten ikerketa hidrogeologikoko obrak, lurpeko urak ustiatzeko proiektuak eta akuiferoak artifizialki betetzekoak. - Sare primarioko hondakin urak garraiatzeko instalazioak. - Mendiak ordenatzeko proiektuak eta plan teknikoak, birlanaketa eta baso ustiapenak, landa-bideak eta baso-bideak ebakitzea. - Basabere-populazioa indartzea. - Lursail-kontzentrazioko proiektuak. - Ur baliabideak nekazaritzarako kudeatzeko proiektuak, lursailak ureztatzea eta drainatzea barne. - Lurzoru urbanizaezineko aparkalekuak, 3.000 m²-ko azalera gainditzen badute. - Aurreko ataletako batean sartuta egon ez arren, lurzoruaren ustiapen mota eraldatzea eta zuhaixka edo zuhaitz estaldura kentzea dakarten eta 5 ha eta 50 ha bitarteko azalera egiten diren jarduerak. <p>Proiektu horiez gain, kontuan hartu beharko lirateke, IEEren mendean</p>		
--	--	---	--	--

		<p>jartzeko, beste lurralde historikoei eragiten dietenak eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Organoak esaten dituenak, organo sustantiboa administrazio horretan dagoen kasuetan.</p> <p>Hala ere, eta azkenean I-A eta I-B eranskinetako zerrendak berraztertzea planteatzen bada, foru aldundietako ingurumen organoekin kontrasterako berariazko bilerak egin beharko liratekeela deritzogu, organo horiek Eusko Jaurlaritzak bezala 20 urteko esperientzia baitaukatela ingurumen-eragina ebaluatzen.</p>		
--	--	--	--	--

II.D ERANSKINA. INGURUMEN-ERAGINAREN EBALUAZIO SINPLIFIKATUAREN MENDEKO PROIEKTUAK				
ERANSKIN A	ALEGATZAILEA	ALEGAZIOAREN LABURPENA	INGURUMEN SAILBURUORDETZAREN ANALISIA	AUKERA
	MICHELIN	<p>Ez da argi geratzen proiektu bat zer den (enpresa beraren barruko aldaketa bat den, aldaketa IPPC kontzeptuaren baliokidea, ala enpresa berriaren edo instalazio berriaren kanpoko proiektua).</p> <p>Beraz, ez da argi geratzen IB Integratua edo IB Bakarra duen jarduera baten funtsezko aldaketa batek edo funtsezkoa ez den aldaketa batek (aldatzeko barne proiektu bat daukala) IEE izapidea ere barne hartzen duen.</p> <p>Definizioa aldatu behar da ingurumen-eraginaren ebaluazioa egin behar izateko kontuan hartu behar den erregai fosil kantitatearen atalase bat jarriaz.</p> <p>Gasolio-ontzi txiki bat daukan edozein proiektu, OT-tik aurrera, IEE izapideak egitera behartuta egongo bailitzateke. Eta horrek ez du zentzurik.</p> <p>II C eranskinak 200.000T-ko atalase bat daukanez, 2.000t-ko atalasea jartzea arrazoizkoa izango litzatekeela proposatzen dut.</p>	<p>Alegazio hau eta aurkeztu diren beste batzuk kontuan hartuta, eranskin hau guztiz aldatu da.</p> <p>Kasu honetan, azalpen-alegazio bat da</p>	Ez da onesten
	GEOLOGOEN ELKARGO OFIZIALA	<p>Lur betelaren definizioari eta eraginaren ebaluazioa egin beharri dagokionez</p> <p>Lege berriari ondorengoa ondo argituta geratzea eskatzen da.</p>	<p>Alegazio hau eta aurkeztu diren beste batzuk kontuan hartuta, eranskin hau guztiz aldatu da.</p>	Ez da onesten

		<p>IID eranskinean (IEE sinplifikatua) 9. taldean sartzen dira:</p> <p>c) I. eranskinean sartuta ez dauden erauzte-materialak, ibaia, lurra edo itsasoa jatorri dutenak, <i>bota edo gordetzeko lurreko instalazioak</i>, 1 ha-ko azalera baino gehiago hartzen badute.</p> <p>Definizio honek (ibaia, lurra edo itsasoa jatorri duten erauzte-materialak) zer hartzen du? 49/2009 Dekretuan esaten diren definizioaren eta prozeduren arabera hartzen ditu lur-betelanak? Esanda dagoen bezala, lur-betelanez ez badu esaten edo ez baditu hartzen, gero errakuntza sor dezakeela deritzogu, eta gehi daitekeela hau ez bada honen antzeko zerbit: «49/2009 Dekretuan definitutako lur-betelanak izan ezik».</p>		
	TRANTSIZIO EKOLOGIKORAKO MINISTERIOA	4. puntua ez dator bat Estatuko oinarrizko Legearen 7.2.c) artikuluekin, ez baititu barne hartzen «egikaritze-prozesuan» dauden proiektuak.	Egindako iruzkina onartzen da.	Onesten da
		Zuzendu behar diren zenbait akats daude: 3. taldeko i) letra; 8. taldeko h) letra, eta 10. taldeko c) letra.	Egindako iruzkina onartzen da.	Onesten da
	GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA	<p>21/2013 Legearen 11. eranskineko proiektuak sartu, atalaseak Euskal Herriaren ezaugarri espezifikoen arabera (lurraldearenak, ingurumenarenak, naturalak eta abar) egokituz, eta kontuan hartuz, kasua danean, antzeko proiektuetarako IEE arruntean ezarritako atalaseak.</p> <p>Oraingo 3/1998 Legearen eranskineko proiektuak ere sar daitezke, atalaseak egokituz eta ñabardurak eginez, kasua bada. Ildo horretan,</p>	Alegazio hau eta aurkeztu diren beste batzuk kontuan hartuta, eranskin hau guztiz aldatu da.	Partzialki onesten da

		<p>«Mendiak ordenatzeko proiektuak eta plan teknikoak, birlanaketa eta baso ustiapenak, landa-bideak eta baso-bideak ebakitzeko proiektuak» (3/1998 Legearen le eranskineko 3.2 atala) oraingo IEE sinplifikatua egin beharko luketela deritzogu. Atal bitan banatu liteke:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Mendiak ordenatzeko proiektuak eta plan teknikoak, birlanaketa eta baso-ustiapen proiektuak - Landa-bideak eta baso-bideak ebakitzeko proiektuak, horietako bakoitzerako atalase batzuk ezarriz (azalera jakin bat, luzera jakin bat, ezartzen diren eremuaren ezaugarrien arabera eta abar). <p>IEE sinplifikatu honetan atalase batzuk betetzen dituzten txirindulari-bideak edo txirindulari eta oinezkoenak ere sartu beharko lirateke (luzera jakin bat, ezartzen diren eremuaren ezaugarrien arabera eta abar).</p> <p>Bestalde, idazkera okerra eta anbigua ikusten da aurreproiektu-zirriborroaren II.D eranskineko 4. atalean, izan ere horrek esan nahi bailuke atal horretan ezarrizko baldintzak betetzen dituen baimendutako, onartutako edo betetako proiektu ororen aldaketak IEE sinplifikatua pasatu beharko luketela, proiektuak berak IEE pasatu beharko lukeen gorabehera. 21/2013 Legean xedatutakoaren arabera, idazkerarik egokiena hau litzateke: <i>«II.C eta II.D eranskinetako proiektu baimendu, onartu edo burutu baten edozein aldaketa, berak bakarrik edo proiektu beraren beste aldaketa batzuekin metaturik, 11.0 eranskin honetako taldeetako batean jasotako atalaseetara iristen bada edo kasu hauetan badago:»</i>.</p>		
--	--	--	--	--

		II.D eranskineko 4. atal honi ere aplikatu behar zaio lehenago esandakoa naturagune babestuei buruzko araudiko artikuluen aipamen konkrituak direla-eta (42/2007 Legea eta 1/2014 LD), aldatu edo ordeztu egin baitira, edo laster aldatu edo ordeztuko baitira.		
BIZKAIKO FORU ALDUNDIA. EKONOMIA ETA LURRALDE GARAPEN SAILA		II D eranskina. 7. taldea.- Azpiegitura proiektuak - Galtzada bikoiztea. - 2 km baino gutxiagoko herri-saihesbidea. - 2 km baino luzera handiagoa duen herri-saihesbidea, lurralde-antolamenduko planetan jasota badago. - 2 km baino luzera jarraitu handiagoan errepide konbentzional baten trazatua artezte, lurralde-antolamenduko planetan lurzoru-kalifikazioa badu.	Alegazio hau eta aurkeztu diren beste batzuk kontuan hartuta, eranskin hau guztiz aldatu da.	Ez da onesten
EKONOMIA GARAPEN ETA AZPIEGITURA SAILA		3. taldearen barruan Zulaketak, dragatzeak eta bestelako meategi instalazio industrialak. <u>Proposamena</u> Hau esaten duen lekuan: «leku hauetan dauden agregatuen ustiapena (aurreko eranskinean sartu ez direnena): 1.- jabari publiko hidraulikoko lursaila, urtean 200.000 m ³ baino gehiago ateratzeko, edo 2.- ibaibideen poliziagunea eta 5 ha baino azalera handiagoa.» Esan beza: «ibaibideetan agregatuak ustiatzea itsasaldien	Alegazio hau eta aurkeztu diren beste batzuk kontuan hartuta, eranskin hau guztiz aldatu da.	Partzialki onesten da

		<p>eraginarekin edo gabe (aurreko eranskinean sartu gabeak), leku hauetan badaude:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1.- jabari publiko hidraulikoko edo itsaso eta lehorraren arteko jabari publikoko lursailean, urtean 200.000 m³ baino gehiago ateratzeko, edo 2.- ibaibideen poliziagunean edo itsaso eta lehorraren arteko babes-zorgunean eta 5 ha baino azalera handiagoa hartzen. <p><u>Justifikazioa:</u> Autonomia Erkidegoko ibaien izaera berezira egokitzeak, Estatuaren orokortasunaren aurrean, zehaztasun terminologiko honi garrantzi berezia ematen dio, haien izaeragatik dualtasun hori baitaukatate gehienetan.</p> <p>4. taldearen barruan. Energia-industria</p> <p><u>Proposamena</u></p> <p>Hau esaten duen lekuan: «Energia ekoizteko haizearen indarra erabiltzen duten instalazioak. (Parke eolikoak) I. eranskinean sartuta ez daudenak, potentziak guztira 100 kW gainditu gabe autokontsumorako erabiltzen direnak izan ezik»</p> <p>Esan beza: «Energia elektrikoa ekoizteko haizearen indarra erabiltzen duten instalazioak. (Parke eolikoak) I. eranskinean sartuta ez daudenak, potentziak guztira 100 kW gainditu gabe autokontsumorako erabiltzen direnak izan ezik»</p> <p><u>Justifikazioa:</u> Ez dugu uste zentzurik duenik autokontsumokoak eta argindarra saltzeko sarera konektatuak bereiztea, instalazio txikiez ari</p>		
--	--	--	--	--

		<p>gara.</p> <p><u>Proposamena</u></p> <p>Hau esaten duen lekuan: «Itsas ingurunean energia ekoizteko instalazioak»</p> <p>Esan beza: «Itsas ingurunean energia elektrikoa ekoizteko 100 kW baino gehiagoko instalazioak»</p> <p><u>Justifikazioa</u>: Ez dirudi zentzu handirik duenik 100 kW baino potentzia txikiagoko instalazioak (oso instalazio txikiak) izapide horretatik pasatu behar izateak.</p> <p><u>Proposamena</u></p> <p>Hau esaten duen lekuan: «500 metro baino zulaketa handiagoak»</p> <p>Esan beza: «500 metro sakon baino zulaketa handiagoak»</p> <p><u>Justifikazioa</u>: Zalantzarik egon ez dadin garrantzitsua zundaketa baten sakonera dela, ez zundaketen multzoarena.</p> <p><u>Proposamena</u></p> <p>Hau esaten duen lekuan: «Energia hidroelektrikoa ekoizteko instalazioak».</p> <p>Esan beza: «100 kW baino gehiagoko energia hidroelektrikoa ekoizteko instalazioak».</p> <p><u>Justifikazioa</u>: Instalazio txikiek (batzuk 200-500 W-ekoak izan daitezke) ez dezaten maila honetako izapiderik egin behar.</p>		
--	--	---	--	--

	ACLIMA	Berraztertu «I. eranskinaren» aipamenak, «aurreko eranskina» esan behar lukeen lekuan: adibidez, 3. taldean e), i); 4. taldean a), g), i), 7. taldean d); 8. taldean h), 9. taldean b), c).	Alegazio hau eta aurkeztu diren beste batzuk kontuan hartuta, eranskin hau guztiz aldatu da.	Onesten da
	ICAB	Ingurumen-eraginaren ebaluazio sinplifikatua igaro behar duten proiektuen kasuan, II.D eranskinean jasota daudenetan alegia, epigrafe bi hitzez hitz errepikatzen dira eta nahastea ekarri dute gaur egun arte. Konkrétuki 9. taldeko epigrafe bitan jasotako hondakinak balioztatzeko instalazioena, konkretuki b) eta e) letretan.	Alegazio hau eta aurkeztu diren beste batzuk kontuan hartuta, eranskin hau guztiz aldatu da.	Onesten da

II.E ERANSKINA. INGURUMEN-ERAGINAREN EBALUAZIO SINPLIFIKATUA IGARO BEHAR DUEN PROIEKTU BATEK EBALUAZIO ARRUNTA IGARO BEHAR DUELA ERABAKITZEKO IRIZPIDEAK				
ERANSKIN A	ALEGATZAILEA	ALEGAZIOAREN LABURPENA	INGURUMEN SAILBURUORDETZAREN ANALISIA	AUKERA
ERANSKIN AK	GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA	<p>Eranskin honek irizpideak jasotzen ditu ingurumen-eraginaren ebaluazio sinplifikatua igaro behar duen proiektu batek ebaluazio arrunta noiz igaro behar duen erabakitzeke, Estatuaren 21/2013 Legearen III. eranskinean xedatutako hitzez hitz jasoz (haren aldaketa-aurreproiektuan azaldutakoaren arabera).</p> <p>Aurreproiektu-zirriborroaren Bosgarren Tituluan ez da inon aipatzen II.E eranskin hau eta bere zertarakoa. Kontuan harturik hurrengo 17. atalean aurreproiektu-zirriborroan jasotzen ez diren gai batzuk planteatzen direla eta horietakoren batek gai honekin zerikusia duela, gai honen aipamena artikuluetan egiterakoan 21/2013 Legearen eranskina aipatuz egin dadila eskatzen da, hala guztiz sartu beharrik gabe.</p>	Alegazio hau eta aurkeztu diren beste batzuk kontuan hartuta, eranskin hau guztiz aldatu da.	Ez da onesten
	ACLIMA	Azkena den 3. puntuan 45. artikuluko 1.d) atalera bidaltzen du, zuzena da? Ez dirudi bidalketa onena denik.	Alegazio hau eta aurkeztu diren beste batzuk kontuan hartuta, eranskin hau guztiz aldatu da.	Onesten da
	AZTI	Prozedura bietako (arrunta eta sinplifikatua) bakoitzerako arauzko ingurumen-eraginaren azterlanaren gutxieneko edukiak dituen eranskin bat sartzeko proposamena. Horri buruzko proposamen bat egiten dute.	Lehenago esan den bezala, Lege-egitasmoan prozedura-xehetasunak minimora murriztea aukeratu da hainbat arrazoigatik, baina, hori bai, ingurumen-ebaluazioko prozeduraren mugarri nagusiak jasoz.	Ez da onesten

AZTI	<p>II.B eranskina</p> <p>9. taldean epigrafe bat sartzeko proposamena. Beste proiektu batzuk.</p> <p>Itsas ingurunean olatuen edo korronteen energiatik argindarra ekoizteko instalazioak</p> <p>II.D eranskina</p> <p>Aldatzeko proposamena eta 1. taldean sartzeko proposamena. Nekazaritza, basogintza, akuikultura eta abeltzaintza.</p> <p>f) Urtean 500 t baino ekoizpen-ahalmen handiagoa duten akuikultura estentsiborako instalazioak.</p> <p>3. taldean aldaketa egiteko proposamena. Zulaketak, dragatzeak eta bestelako meategi ea industria instalazioak.</p> <p>c) Ustiapen komertzialerako meategiak bilatu eta karakterizatzeko itsas sismika bidezko esplorazioa.</p> <p>4. taldean aldaketa egiteko proposamena. Energia-industria.</p> <p>h) Itsas ingurunean olatu eta korronteetatik energia ekoizteko itsas inguruneko instalazioak.</p>	<p>Alegazio hau eta aurkeztu diren beste batzuk kontuan hartuta, eranskin hau guztiz aldatu da.</p>	<p>Ez da onesten</p>	
HAZI:	<p>V. titulua. Ingurumen-ebaluazioa</p> <p>Ingurumen-eraginaren ebaluazioak eta Natura 2000ren ondorioenak</p>	<p>Alegazio hau eta aurkeztu diren beste batzuk kontuan hartuta, eranskin hau guztiz aldatu da.</p>	<p>Ez da onesten</p>	

		<p>desberdinak dien ezaugarriak dituztenez, bata bestean integratzeak arazo batzuk sortzen ditu, eta aurkeztu duten idazkian aztertzen dira.</p> <p>II.C eta II.D eranskinak</p> <p>II.C eranskineko 9. taldean eta II.D eranskineko 10.ean ageri diren proiektuen zerrenda handitu, eta Naturagune Babestuetan, Natura 2000 Sarean eta nazioarteko tresnek babestutako eremuetan garatzen diren plan edo proiektu guztiei aplikatzen zaiela dioen aurreikuspena kendu (Zumaiaiko hirigunean kokatutako jarduera bat jartzen du adibidetzat).</p>		
	AZTI	<p>Prozedura bietako (arrunta eta sinplifikatua) bakoitzerako arauzko ingurumen-eraginaren azterlanaren gutxieneko edukiak dituen eranskin bat sartzeko proposamena. Horri buruzko proposamen bat egiten dute.</p>	<p>Lehenago esan den bezala, Lege-egitasmoan prozedura-xehetasunak minimora murriztea aukeratu da hainbat arrazoigatik, baina, hori bai, ingurumen-ebaluazioko prozeduraren mugarri nagusiak jasoz.</p>	<p>Ez da onesten</p>